

Joxemari Iriondo


Basarri I

Bat-batean



Liburua + CDa





Iñaki Eizmendi Manterola *Basarri* Errezilgo Granada baserrian jaio zen, 1913ko azaroaren 27an, baina zazpi urte zituen ezker Zarautzen bizi izan zen beti, familia herri honetara bildu zen-eta bizitzera, Azken Portu tabernan. Hil ere Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, laurogeita sei urte betetzear zegoela.

Basarri, idazle eta kazetaria izan zen ofizioz, eta urte askoan ahalegindu zen gure egunkarietan inork aipatu nahi ez eta bazterturik zegoen hainbat herri-kirol, herrietako jai, bertso-jaialdi eta gertakarien berri jaso, idatzi eta zabaltzen.

Sei bertso-liburu argitaratu zituen, gutxienez: *Atano III, bere edestia bertsotan* (Zarautz. Itxaropena, 1949); *Basarriren bertso sorta* (Zarautz. Itxaropena, 1950); *Kantari nator* (Zarautz. Itxaropena, 1960); *Laugarren txinpartak* (Auspoa 55, 1966); *Sortu zaizkidanak* (Auspoa 112, 1973), eta *Kezka-giroan* (Auspoa 169, 1983). Egunkari eta astekarietatik bildutako idazlanak bildu eta beste liburu bat ere argitaratu zuen Antonio Zavalak, *Bertsolaritzari buruz* izenez (Auspoa 178, 1984). Eta azkenik, *Nere Bordatxotik* (Auspoa sail nagusia 2, 1992) bilduma argitaratu zuen *Sendoa* argitaletxean. Orain arte inoiz egin den Basarriren bertso bildumarik handiena, ezpairik gabe.

Joxemari Iriondo

Basarri
I
Bat-batean

Auspoa Liburutegia

296

IRIONDO, Joxe Mari

Basarri / Joxemari Iriondo. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2005.

<1> libk. : argk. ; 20 cm + 1 disko (CD-DA). - (Auspoa Liburutegia ; 296)

Barruan du: Basarriren bertsoak. - Aurkibidea. - Edukia: I. Bat-batean

L.G. SS 25-2006. - ISBN 84-7907-503-1

1. Basarri. I. Basarri. II. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. III. Título. IV. Serie.

929 Basarri

821.361-1"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-503-1

Legezko Gordailua: S.S. 25/06

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

Joxemari Iriondo

**Basarri
I
Bat-batean**



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostia-San Sebastián, 2006

Aurkezpena

Ondo asko dakit lehen ere badakizkizunak esango dizkizudala, edota lehenago ere Basarri buruz sarri esandakoak berritzea besterik ez dudala egingo. Badakit esateko gehienak esanda daudela bertsolari haundi honi buruz. Alabaina, zenbait argitasun eman beharko dizut haren bat-bateko saio askoren kontuak esaten hasi aurrez, ondo etorriko zaizkizu-eta.

Jaio eta hil

Hasteko, Basarri non eta noiz jaio eta hil zen gogoratuko dizut laburki, inoiz zalantzarik izan bazeneza ere, askotan gertatzen denez.

Iñaki Eizmendi Manterola, Basarri bertsolaria, Errezilgo Granada baserrian jaio zen, 1913ko azaroaren 27an; baina zazpi urte zituen z gero Zarautzen bizi izan zen, familia osoa herri honetara bildu zen-eta bizitzera, Azken Portu tabernan. Hil ere Zarautzen hil zen, 1999ko azaroaren 3an, laurogeita sei urte betetzear zegoela.

Idazle eta kazetaria

Basarri ez zen izan bertsolari bakarrik. Ez horixe! Idazle eta kazetari izan zen ofizioz; eta idazle-kazetari euskalduna, herrikoia eta oparoa goitik beheraino. Urte askoan ahalegindu zen, izan ere, Euskal Herriko egunkarietan inork aipatu gabe eta bazterturik zegoen hainbat herri-kirol, herrietako jai, bertso-jaialdi eta gertakariaren berri jaso, idatzi eta zabaltzen. Eta haren milaka idazlan han-hemenago egunkari eta astekarietan sakabanaturik dago inoiz denak bildu eta berriro argitara eman zain. Gerra aurreko *El Día*, *Argia*, *Euzkadi*, eta *El Pueblo Vasco* periodikoan askotan idatzi zuen. Lehenengo argitara emandako lana *-Dantza nastua*, bertso-saioa- 1929ko urtean aurkitu dugu, *Ekin* aldizkarian. Eta gerra garaian eta gerraostean,

berriz, *Euzkadi, Eguna, Gudari, Euzko Enda, Gure Herria, Arantzazu, Anaitasuna, Zeruko Argia, Goiz-Argi, Euzko Deya, Egan, Egin, Tierra Vasca, Herria, Agur, La Voz de España, El Diario Vasco* aldizkari eta egunkarietan idatzi zuen; baita beste herri-aldizkari askotan ere: *Arrasate, Arnas, Beasain, Eibar, Bidasoa, Gernika, Izaskun, Jaunaren Deia, Karmel...*

Basarri idazlea zela esan dizut. Idazle joria, oparoa. Eta idazle izenaren jabe izateko astekari eta egunkarietan egunero idaztea aski ez balitz, sei bertso-liburu argitaratu zituen, gutxienez. Kirolzalea izaki, lehenengo liburua *Atano III, bere edestia bertsotan* (Zarautz. Itxaropena, 1949) izan zen. Bigarrena, *Basarriren bertso sorta* (Zarautz. Itxaropena, 1950). Handik hamar urtera, *Kantari nator* (Zarautz. Itxaropena, 1960); *Laugarren txinpartak* (Auspoa 55, 1966); *Sortu zaizkidanak* (Auspoa 112, 1973), eta *Kezka-giroan* (Auspoa 169, 1983). Egunkari eta astekarietatik bildutako Basarriren idazlanez egindako beste liburu bat ere argitaratu zuen Antonio Zavalak, *Bertsolaritzari buruz* izenaz (Auspoa 178, 1984). Azkenik, *Nere Bordatxotik* (Auspoa sail nagusia 2, 1992) bilduma argitaratu zuen Zavalak, *Sendoa* argitaletxean. Orain arte inoiz egin den errezildarraren bertso-bildumarik haundiena hortxe dago, noski.

Hala ere, Antonio Zavalak azkeneko honetan egindako hitzaurreak zerbait esan nahi duelakoan nago: “Bi milla eta bosteun bat bertso pillatu ondoren, ortik aurrera liburu batentzat geiegi izango zala eta bilketa lanari utzi egin bear izan diogu”, idatzi zuen tolosarrak.

Basarriren xehetasun batzuk oso gainazaletik eman ondoren, haren kazetaritza-lanari begiratu labur bat ere eman beharko diogu, merezi du-eta.

Hasieran bertso asko idazten zuen, baina baita herrietako jaialdi eta festatako kronikak ere, hitz lauz. Bestalde, Jose Maria Arizmendiarieta, Augustin Zubikarai, Jesus Insausti *Uzturre* eta beste lagun askorekin batera *Eguna* egunkaria sortu eta han argitara emateko hamaika artikulu idatzi zuen gerra garaian, abiazio etsaiaren marru eta bonba-zarata artean.

Gure aldiko egunkarietarako artikuluak egiten, berriz, 1946ko udazkenean hasi zen, Donostiako *La Voz de España* egunerokoan.

Zarauzko berriemaile Frantzisko Juaristik “zeozer egin bearko uke” eskatu omen zion, eta halaxe hasi zen gero hogeitaka urtean bete zuen lana egiten. Bertsolari zaharren aipamen eta pasadizoak idazten hasi zen, aldizka; eta 1946ko abenduaren 19an, Donostiako “Santo Tomasko feria txorixua ta ogia” zela-eta, euskeraz eta gazteleraz egindako idazlanak harrera ona izan zuela-eta egunkariko zuzendariak gutun bat baino gehiago hartu bide zuen, hasitako bide hura ona zela esanez eta zorionak emanez.

Pelota, zezenak, futbola, estropadak, atletismoa, bozeoa eta horrelakoak egunero aipatu ohi zituen egunkariak. Baina inoiz ez herri txikietako festarik, euskal giroko jairik, bertso-jaialdirik, herri-kirolrik, apustu eta horrelakorik. Eta hutsarte horixe beteaz lanean hasteko aukera ikusi zuen, gazteleraz idaztera behartu bazuten ere lehenengo urteetan.

Irratiko esataria

Irratiko esatari ere bazen Basarri, dakizunez. Gerra aurrean, gerratean eta gerraostean bertsoak kantatzen zituen irratiz behin eta berriz. Eta 1949ko udazkenean hasita, Gipuzkoako Foru Aldundia-ren laguntasunez, Jose Artetxe, Beorlegi eta talde batek egiten zuen euskal irratsaioan hitz egin eta kantatu ohi zuen, inoizka. Alabaina, asteroko irratsaioak egiten hasi, 1957an hasi zen Basarri bere herri-tar Maria Dolores Agirre, Manuel Oñatibia eta Enrike Zurutuza albaitariak eta Jose Mari Etxebeste lagun zituela. Saio hartako *Nere Bordatxotik* atalean Basarriren bertso, kontakizun eta albisteak entzun nahi izaten zituen irratientzule askok, besterik ez zen-eta.

Hizlari egokia

Honaino laburki esandakoa aski ez balitz, berriz, hizlari eta mitinlari egoki eta sutsua ere bazen Basarri. Neurri librean baina hitzak errimatuz berriketan hasten zenean, entzulea ahoa bete hortz edukitzen zuen hark, txundituta. Hitz-jario ederrekoa zen, hizlari txukuna eta atsegina, txukun eta atseginik bazan. Hori ondo zekien berak ere, eta hizketan gozatu egiten zuen, eta gozarazi, bide batez.

Gudamutil eta ertzain

Gudak inoiz ez du ondoren onik ekartzen; eta 1936ko hark eten gogorra ekarri zuen Euskal Herrira. Iñaki Eizmendi *Basarri* ere zepoan harrapatu zuen, beste asko bezala.

Abertzalea izaki, bazter batetik bestera ibili behar izan zuen, bere herriaren alde borrokan eta herritik ihesi. Zaratzen, Bidanian, Arraten eta abar, bazterrik bazter ibili zen Loiola batailoian buru eta bihotz sartuta. Eta hala, taldeko mutilik haundienak ertzain izateko aukeratzen hasi zirenean, ertzaintzarako hautatu zuten, Iñaki Leclerc donostiarra kapitain zuela. Hartarako instruzioa eta behar ziren ikasketak Bilbon egin zituen hilabete batzuetan. Eta gero gudamutil eta ertzain izan zen bertsolarien txapeldun zen Basarri haundia.

Mendietako frentzetan ibili zen. Hilabete batzuk Arratetik oso hurbil pasatu zituela kontatu zidan elkarrizketa batean, gerrako kontuak aipatzerik asko gustatzen ez bazitzaion ere. Hantxe, tiro artean, *Euzkadi* eta *Eguna* egunkarietarako artikuluak prestatzen zituen; eta, itxura denez, haren lanek harrera on samarra izaten zuten.

Atzerriko egunak

Baina Euskal Herriko egoera geroz larriagotzen zihoala eta 1936ko uztailean nazionalek Bilbo hartu zutenean, Santander alde-ra ihes egin behar izan zuen, beste askok bezalaxe. Eta handik Frantziara gero, etsaiaren ihesi. Isilka eta larri, ume, elbarri eta gai-xoak zeramatzan *Sarastone* ontzian sartu eta Frantziara joan ziren uda trakets hartan, Nantes ondoko herri txiki batean geldituz. Gaitzerdi, hala ere: Landeetako baso eta oihanetan lana aurkitu zuten Basarri eta bere lagunek, basomutil. Izan ere, beharko zerbaiti heldu, biziko baziren! Eta ondorengo hiru urte haundi hantxe, Landeetako pinudietan, lanean egin zituzten, etxera itzultzeko eguna noizbait etorriko zen esperantza galtzeke.

Atseden garaian lagunartean bat-batean egindako hamaika bertso-saio haizeak eramango zuen behin betirako, baina *Landesko piñu artean*, *Frantziko alkate bati*, *Euskal misioak Ichouxen*,

Ichouxko madame Sarteri biotzez, eta beste bertso asko idatzi eta ondo jasota gelditu ziren orduko egunkari eta aldizkarietan; eta Antonio Zavalak Auspoa sail nagusian argitara eman zituen, *Nere Bordatxotik* liburu bikainean.

Mugako zepoan

Orain erraz kontatzen dira gauzak, baina ez ziren motzak izango atzerriko urte haiexek. Izan ere, iheslarien bihotza herri eta etxeminez irakiten zegoen gau eta egun.

Norbere egonezina eta antsia nahiko ez, eta guraso, senide eta lagunak, denak etxera etortzeko deika zituzten. “Ama gaixoa etxera etortzeko eta etortzeko ari zitzaidan beti, gauzak konpondu zirala-ta; ez zitzaidala ezer pasatuko esaten zidan”, kontatzen zuen Iñakik. Horrela uste ama alargun gaixoak, eta horrela nahi semeak berak ere.

Zena zela, 1940ko urria etorri zen, eta arriskatzea erabaki zuen talde osoak. Baita Irun-Hendaia muga pasatu eta herrirantz abiatu ere, atzera begiratzeko asti eta ausardiarik gabe. Baina amaren ametsak eta semearen usteak, denak ustel gertatu ziren. Mugako zepoan hantxe harrapatu eta trabajadoreetara eraman zituzten zuzenean, erruki haundirik gabe. Handik aurrera nondik nora eta nola ibili ziren jakiteko Basarriren bertsoak irakurtzea aski duzu lehen ere aipatu dizudan *Nere Bordatxotik* liburuan. Honatx bakar bat Bejar-Salamancan, 1941eko martxoaren 13an, idatzitako hamahiru bertsoa sorta batekoa:

Mirandatikan Madrida, eta
gero Madritik Bejarra,
bagoi zarretan, txerrien gisan.
Etzan pasio ederra!
Erri ontako gure izakera
daukat agertu bearra:
gose askorik ezta pasatzen,
baizik beti bat bakarra.

Busturiako Tomas Uriarte zenaren familiari zor diogun Basarriren eskuizkribu batean irakur dezakegunez, abereak baino okerrago erabili zituzten, bazterrik bazter.

Gero, Madriletik Oiartzunera ekarri zituzten, noraezean zebilen artalde galdua bezala: Aritxulegira. Eta hantxe idatzi eta izenpetu zituen Basarrik, hain zuzen, bere bertso-lagun Uztapiderekin batera hamaika aldiz txukun asko kantatu ohi zituen zenbait bertso-sail eder: *Nork egin du gure galde?*, *Lesakako festatan* eta abar. Lehenak bezelaxe, hauek ere argitara emanda daude Basarriren *Nere Bordatxotik* liburuan (Auspoa sail nagusia, 1992). Bertso horietako asko, eskuz eta letra bikainez idatzita utzi zituen Basarrik; eta Tomas Uriarte lagunak ondo gorde Santimamiñeko (Kortezubi, Bizkaia) Txukene baserrian.

Afrikara

Hala ere, ez zen hobeia izan hurrengo saltoa trabajadore errukarri haientzat. Izan ere, Euskal Herritik oso urrutira eramán zituzten: Melillako Seghanghara, alajainkoa!

Alde batetik, oso urrun zegoen hura; eta, bestetik, ez dirudi bizitoki berria aurrekoa baino samurragoa zenik ere. Irakurri, bestela zer idatzi zion 1943ko martxoaren 4an Tomas Uriarte lagunari bidalitako gutunean:

Aztu eziñeko Tomax maitea: Ona emen lorik gabeko gau amaitu eziñeko baten ondoren datozkidán burutapenak. Atzo ere euri eguna genduan eta gure aterpean kanpoan bezela egiten duelarik, ez gera geiegi atsedenduak.

Hala ere, bertsoak idazteko hainbat umore bazuen errezildarrak, gutun harekin batera zortzi ahapaldiko bertso-sorta bidali baitzion, “esateko” zirela adieraziz:

Bijoaz beingoz laiño zakarrok,
ta betor zeru argia!
Ega bitez euskaldun usoñoak.
Azka bedi aberria!

Ene biotz gaxo zauritua!
Mintza zaite gaurkoan.
Adierazi mingotzaldiak
zeure izkuntz goxoan.

Gose, egarri, otzaldi, bustiak.
Dan danak zuretzat zeuden.
Ainbat zigor artuta eztaikit
bizirik nola zauden!

Azkenean, etxera!

Joanak joan, azkenean libre utzi zuten horratik, 1943ko ekainean! Sinestu ezin bazuen ere, San Pelaio jaietarako bere Zarautz mai-tera itzuli zen Basarri, zazpi urte luzeko amets gaiztoaren ondoren. Eta 1943ko ekainaren 26a egun seinalatua izan zen beretzat.

Bakar-bakarrrik etorri omen zen barkuan Afrikatik, bertso-kantari, “itsaso aundi artako katxalote eta arraiak entzule nituela pentsatuta”, kontatu zidan behin. Bere denbora guztian ez omen zuen izan huraxe baino egun ederragorik: zazpi urteko amets gaiztotik esnatu eta etxera. Eta aske gainera, libre! Nola sinestu?

Zarautza heldu eta, lehenengo, San Pelaio jaiak ondo pasatzen saiatu zen; eta gero, Tomas Uriarte adiskideari idatzi zion, ekainaren 29an. Harrigarria da, baina idatzi ere gazteleraz idatzi zion, zehaztasun asko kontatuz. Idatziaren bigarren zatian honelaxe zioen: “... *de Málaga a Madrid fue un viaje pésimo. Una calor que achicharraba, y en la misma posición que las anchoas en lata*”.

Beste bitxikeria eta txutxu-mutxu asko ere kontatu zion bere lagun minari. Batez ere, inoiz ikusi zuen Zarautzik ederrena aurkitu zuela herrira heldu zenean. Ostatu eta etxe denak udatiarrez bete-bete eginda zeudela; eta honi “kaixo!”, eta hari “agur”, aspertu ezinik zebilela, ametsetan bezala.

Bat-bateko bertsolaria

Erbesteko bizitzaren ozpin garratza urte askoan dastatu ostean, herriz herri bertsotan hasteko aukera izan zuen, berriz ere, 1935eko

Bertsolari Egunean, edo lehiaketa hartan, Euskal Herriko bertsolarien txapeldun izan zen gazteak. Baina emeki-emeki hasi zen, badazpada ere. Garai hartako plazetan ez zegoen ahora zetorren dena esaterik, sarritan errepikatu ohi zuenez. Kontuz gero halakorik! Gerraosteko urte haiek urte garratzak ziren; eta hitzak ondo neurtu behar jendearen aurrean. Begiak argi eta belarriak erne zeuzkaten alkahuete haundiek. Gehiago: edozein herritar izan zitekeen salatzaile, gainera.

Hala ere, ehunka –beharbada, milaka– plaza, antzoki, jaialdi, lagunarte, ezteiegun, ospakizun, ostatu eta tabernatan kantatu zuen Basarrik, lehenengo aldiz 1934an Erauskin Errotariarekin Zestoa kantatu eta 1970eko hamarraldian bat-bateko bertso-saio gehienetara joateari utzi zion arte. Ez dira izango herri asko Gipuzkoan Basarrik saioaren bat egin gabekoak. Auzo txikiren bat bai, baina ez asko. Behin batean jaso genion bertso haxe lekuko¹:

Ai, Gipuzkoak erri askotxo
ditu bere bazterretan;
gu iritxiak izango gera
amaikatik amarretan.

Gipuzkoan edo Nafarroan bezala Bizkaian eta Iparraldean ere, asko ibili zen Granada-errekako semea. Urteko igande eta jaiegundak hartuta zeuzkatela esaten zuen, batetik bestera ibiltzeko orain adina erraztasun ez bazegoen ere. Eta asteburu asko egiten zuten etxetik kanpora, egun batean joan eta hurrengoan itzuliz.

Baina, azkenean, bat-bateko saioak bertan behera uztea erabaki zuen, ordea, nekatuta eta oso lanpetuta zebilelako irrati eta periodikoko eguneroko lanekin. Pittin bat aspertuta ere bai, seguruenik, harritzeko ez da-eta horrenbeste ibili ostean.

Irratiko grabazioak

Eta non dira irratiko grabazioak? Gutxienez, astean behin hitz egin eta kantatu ohi zuen Donostiako irrati batean; eta jendea zora-

¹ Zaldibia 1963.02.09

tzen egoten zen huraxe entzuteko. Izan ere, Basarriren kontakizun patxadatsuak eta bertsoak ez ziren ahuntzaren gauerdiko eztula izaten eskasia-garai hartan, ez horixe. Eta adin pittin bat zuen entzulearekin oso ondo konektatzen zuek hark. Irratsaio haren zain egon ohi zen euskalzale asko ezagutu genuen, egia esateko.

Baina, zer nahi duzu? Hemen galde eta han galde ibili, baina inork ez zuen gorde orduko saioen grabaketarik. Inoiz irratira ere hots egin izan dugu, baina jakineko erantzuna beti: saioa behin irratiz emanaz gero, zintak ezabatu egiten zituztela, zinta berak hurrengo irratsaioa grabatzeko behar zituztela-eta. Ondo pentsatuta, ez dakigu egiazko arrazoia irratiko diru-eskasia zen ala gauzak gordetzeko sentiberatasun pittinik eza edo zabarkeria hutsa zen hura. Bietatik asko, seguruenik.

Dena dela, urteak joan dira, eta orduko grabazio haiek falta orain; Basarriren urte askotako egiazko irratihotsa falta, plaza eta antzokietako jardunaldi asko bezalaxe, zoritxarrez.

Batez ere, bertsolaria

Bai, beste guztien gainetik, bat-bateko bertsolaria zen Basarri, batez ere. Eta bertsolari haundia, gainera, ondorengo orrietan zehar ikus dezakezunez.

Bere aurreko bertsolari zaharrekin plazatan gutxi ibili zela esan zigun behin baino gehiagotan. Txirritarekin inoiz edo behin kantatu zuela, 1935eko lehiaketa hartatik kanpora, jaialdiren batean. Eta, bere garaikide samarrak izaki, gehiago ibili zen Eusebio Eizmendi *Txapelekin*, Akilino Izagirre *Zepairekin* eta Antonio Mari Eizmendi *Loidisaletxe* herritarrekin eta abar. Baita Balendin Enbeitarekin, Joxe Lizasorekin, Manuel Lasarterekin, Joxe Joakin Mitxelenarekin, Mattinekin, Xalbador lagun estimatuarekin. Baina, batez ere, Manuel Olaizola *Uztapide* izan zuen bertso-lagunik leialena, gerraosteko urte zailetan. Elkarrekin lanerako uztarri-lagun onak izaki, Endoiakoarekin ibili zen gehiena Euskal Herrian zehar. Urteetan eta urteetan modako bikotea izan ziren Basarri eta Uztapide, inoiz bertsoetan aitortu zuen bezala:

Alkarri esku emanda biok
asi giñukan gaztetan;
amaika saio egiñak gaituk
Euskalerriko plazetan.²

Manuel Uztapiderekin ondo konpontzea erraza zela esan ohi zuen; eta ondo baino hobeto zekiten biek ere herri batera iristen zirenean, bertotan nondik eta nola hasi, zer gai erabili eta zer ez esan, zein doinu hartu eta abar, nahiz eta “Jaungoikoa ona dala esan bear al diagu orain?” esaten omen zion Endoiakoak, bere umore ederrez.

Noiz ezagutu zuen

Uztapide nola ezagutu zuen galdetu eta honela erantzun zidan behin batean Basarrik:

Guk, Zarautzen, Azken-Portu izeneko tabernatxo bat gendun, askotan esan izan dedanez.

1935eko txapelketa San Sebastian egunean izan zan, eta andik illabete batzutara, peri-eguna egokitu zan Zarautzen –illaren bigarren larunbatean izaten zan, orain bezelaxe– eta, antxe, gure tabernako mostradore inguruan-edo nengola, mutil gazte lerden bat azaldu zan –oraindik ikusten nago– brusa zuri dizdiratsu batekin. Ederra mutilla; baiña lotsatia zan oso. Deitu zidan, eta,

–Zu zaitugu Basarri, noski?

–Bai, serbitzeko. Zer nai dezu?

–Bearbada, izango dezu nere aditzera-edo. Eztakit, eztakit... Endoiako Uztapide naiz ni, eta ezin ukatu bertsoarako zaletasun aundia dedala. Badakit zu izendatu zaituztela aurten txapeldun; eta tentazioak gogor eragiten dit neuri ere... Datorren urteko txapelketan, ño!, asko kostako zait, baiña gustora emango nuke ba neure izena, pauso orixe beingoz emateko! Eta kontseju billa nator, Basarri. Zer iruditzen zaizu?

Arrua eta an inguruko bertsozale batzuk bizi ziran Zarautzen; ta aiengandik nekian nik bazegoala an bertsolari doai aparta zun gazte

² Kantari Nator (Basarri, Itxaropena, Zarautz, 1960).

bat: Uztapide, Manuel Olaizola, alegia. Askotan entzuna neukan izen ori; eta,

–Bai, gizona, bai. Jun egin bear zenduke –esan nion (zuka itz egin gendun, gero beti ika itz egiten bagendun ere, ainbat urtean)–. Eztet egundo zuri bertso bat entzuteko aukerarik izan, baiña bertsoaren berri ondo dakiten gizonak neri kontatu didatenez, oso ondo egiten dezu bertsoan; artarakoxe jaioa zera zu propio. Eta nere kontsejurik bear badezu, jun egin bear zendukela esango dizut.

Aiek izan ziran nik Manuel Uztapiderekin izan nitun lenengo itzak. Gero, 1936an, Txirrita izan zan txapeldun, badakizu; baiña puntuazioan Uztapide aurretik zala uste det. Txirrita zartuta zegoñ ordu-rako, eta berari eman zioten txapela; baiña puntutan Uztapide aurretik zala. Berdin dio.

Urte artan bertan, uste det San Isidro eguna zala, seguru ez nago, Oikiako auzoan baserritarrak antolatutako berso-saio batean biok giñan bertsoan. Gerra aurretik Uztapide eta nik egindako lenengo bertso-saioa uraxe izan zan; eta andik aurrera beste bakarren batzuk ere egin genitun.

Gero etorri zan etorri zana, eta akabo! Geureak eta bi ikusi bearra izan gendun. Eta urte askoan ez nun nik Uztapideren berririk izan geiago. Ezta bertso-jaialdirik ere, zazpi urte luze egin nitun errian sartu gabe-eta.

Hauxe da, oso laburki esanda, hogeitaka urtean Euskal Herriko plazetan bikote bereizi ezina izan zenaren historia, labur esanda.

Gure ahalegina

Basarriren bat-bateko bertsoak jasotzen ahalegindu gera hemen, batez ere. Baina badakit haren lanaren zati txiki bat besterik ez dugula bildu ahal izan, eta hutsaren hurrengoia izan daitekeela bilduma hau. Izan ere, haizeak eraman zituen Basarri eta beste bertsolari zaharren bertsorik gehienak, ez bait zen bertso-jasotzailerik garai batean; ez zen nola jatorik ere, harik eta 1960ko hamarraldian norbaitzuk herriz herri eta saioz saio harrapaka grabatzen hasi ginen arte. Gainera, ez ginen onartuak izaten beti; ez horixe! Bertsolaria larritu eta kokildu egiten omen zuen aurrean jartzen ziztaion grabagailuak. Horrela esaten zuten, behintzat. Bertsolariaren

aurrean jartzen genituen tramankuluak –gaur egungoen aldean nabarmen eta traketsak– izen txarraren jabe ere baziren. Alkahuete izena erabiltzen zuten bertsolariak hura izendatu eta gaitzotzeko. Hala ere, hobe genuke jasotzaile gehiago izan balitz, bertsoak betirako galduko zituen haizeari borroka irabazi ahal izateko. Baina joanak joan ziren.

Dena dela, han eta hemen jasotako bertso-saio eder batzuk baditugu eskuartean, zorionaren zorionez. Ez dira saiorik onenak, seguru asko; baina ezta txarrenak ere.

Eskuartean hementxe duzu grabazio horietatik egindako auke-raketa antzeko bat, hasi 1935eko txapelketa hartatik eta Basarriren azkenengo saioetara arte. Berriz diotzut ordea: ez daude hemen saio guztiak. Ezta zuk buruz jasota izango dituzun bat-bateko bertsorik onenak ere, agian. Baina daudenak daude hemen, ez gehiago. Bar-katu, eta irakurri, edo kantatu, patxada ederrean, merezi dute-eta.



Txirritaren omenaldia. Erreterria, 1936.

1935eko Bertsolari Eguna

Basarri –berarekin egindako elkarrizketa batean aitortu zidan-oso urduri, ikaratuta, odolik emango ez zukeela joan omen zen bere lehenengo txapelketa hartara, 1935eko urtarrilaren 20an. Izan ere, lagunartean kantatzen zuen inoiz, eta ondo moldatzen zela pentsatzen zuen; baina jendearen aurrean, eta halako neurketa / txapelketa batean zer egin? Nondik nora hasi?

Ordu arte zuen esperientzia bakarra, behin batean Erauskin Errotariarekin Zestoan egindako saio huraxe omen zuen. Baina hori nahikoa ote zen maila hartako lehiaketa batera joateko?

Dakizunez, Donostiako Poxpolin (Kursaal) antzokian egin zen ordu arteko Bertsolari Egunik edo Bertsolari Gudurik famatuena; eta lehenengo agerraldi ofiziala hantxe egin zuen Granada-errekako gazte mardulak.

Orduko albisteeek diotenez, giroa berotzeko asmoz-edo, Bertsolari Egunaren atarian, bi hitzaldi antolatu zituzten Donostiako antolatzaileek. Lehenengo hitzaldia ostiral arratsaldeko 7etan izan zen, Eusko Pizkundearen lokalean. Eta don Luis Jauregi *Jautarkol* olerkaria izan zen hizlari. Gaia, “Xenpelar eta bere bertsoa”. Hitzaldia osatu eta gozatzeko, janzteko alegia, Laborda apaizak Xenpelarren bertso eder asko kantatu bide zuen. Bigarren hitzaldia, berriz, larunbat arratsaldeko 7:30etan izan zen, Eusko Gaztediaren lokalean. Egun hartako hizlari Dionisio de Azkue, *Dunixi* idazlea zen. Gaia, “Bilintx: Donostiako bertsolaririk jatorrena”. Eta Bilintxen bertso batzuk kantatu zituzten Matilde Zabalbeaskoak, Lizarragak eta Olaizolak, hitzaldia ederki biribildu eta girotuz.

Eta gero, igandea etorri zen, urtarrilaren 20. Eta bertsolarien norgehiagoka jokatu zen Poxpolin aretoan, Basarri (Zarautz), Zepai (Errezil), Txirrita (Altza), Txapel (Azpeitia), Lujanbio (Altza), Abarrategi (Bizkaia), Tellaitxipi (Errenteria), Nekezabal (Zarautz), Sarasola (Antigua-Donostia), Mintegi (Ordizia), Erauskin Errotaria

(Ordizia), Kortatxo (Itziar), Alkain (Urnieta), Larralde (Baxenafarroa), Matxin (Laburdi), Pello eta Juan Zabaleta anaiak (Errenteria), Sorozabal (Donostia), Etxeberria (Donostia), eta Uriarte (Bermio) bildu ziren. Asteasuko Aldaiak eta Oiartzungo Zailpuruk huts egin zuten, azkenengo momentuan.

Bertsolarien saioa neurtzeko, Jose Ariztimuño *Aitzol*, Joseba Zubimendi, Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona eta Txomin Olano elkartu ziren epaimahaian. Jaialdiaren zuzendari eta gai-jartzaile, Joseba Zubimendi idazle eta kazetaria.

Jaialdi hartako lanak honelaxe banatu zituzten:

- 1: Bina bertso, gai eta doinu librean.
- 2: Hiruna bertso, gaia eta doinua emanda, Otañoren “Limosnatxo bat” doinua erabiliz.
- 3: Hiruna bertso, puntua jarrita.
- 4: Bosna bertso, ofizioa emanda.

Garai hartan ez zen mikrofono eta altabozik, eta horrelako laguntasunik bat ere gabe kantatu zuten. Ez zegoen grabatzeko magnetofoirik –alkahueterik– ere artean; eta bertsolariek kantatu ahala, eskuz hartu eta idatzi zituzten han kantatutako bertsoak horretarako izendatuta zeudenek. Sinestezina da gaurko ikuspegitik begiratuta. Baina horrelaxe zen. Hemen azaltzen diren Basarriren bertso hauek ere horrelaxe jasotakoak dira: eskuz, alegia. Ez dago zalantzarik ondo jasoko zituztela, hori guztiz lan zaila eta konplikatua bada ere.

Basarriren hasierako bertsoa:

Bas: Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez;
alaitasuna artxek sortu dit,
jaun maiteak, bere itzez;
eta ni orain zuen aurrean
nazute pozaren pozez.
Lendabiziko, entzule onak,
agur danori biotzez.

Gaia emanda lehenengo saioan Basarrik botatuko bi bertsoetatik bat:

Bertsolariak eman diote
Txeko erriari gorantza.
“Mireio” batek edergaillutan
jasoa zuan Provenza.
Ene Jainkoa, egin zaiguzu
guri bear dan laguntza,
al dan azkarren sendatu zagun
gaixo dan euskal izkuntza.

Bigarren saioan, Pedro Mari Otañoren “Mutil koskor bat itsuau-
reko” doinuan kantatzeko gaia bertso batean eman zien aurkezleak:

Bigarren bertso saioa orain
zoazte gogoz astera,
ni ari naizen doiñu berean
bearturik jarraitzera.
Nai ta nai ezik bear dezute
guziak gai auxe atera:
Euskel izkuntza galtzen ari da;
ta galtzen bada euskera,
Euskalerriko seme guziak
betiko galduak gera.

Eta honako bertso hauexek kantatu zituen Basarrik, bere txanda
heldu zitzaionean:

Itsasertzetik entzuten dira
ama euskeraren antsiak;
ta bai dirala illun, tristiak,
ene, bai negargarriak!
Nola kanpoan ala etxean,
nunai badauzka etsaiak.
Au oldoztuta malko trinkotan
betetzen zaizkit begiak.
Bera iltzen bada ez du askorik
paltako Euskalerrriak!
Entzun zaidazu, gizonezko orrek;
entzun, emakumezkoa:
ikur aundiak agertutzea
ez da izango naikoa.

Ara nolatan mintzatzen zaigun
gure Jauregi zintzoa:
–Euskalerrria euskerik gabe
bai dala erri gaixoa.
Masti orritsu ederra baiña
mats-alerik gabekoa!

Galtzen badegu gure mintzaira
galdua dago guztia.
Esaidazute, anai-arrebok:
ez al da lotsagarria?
Irakasleak bezela daukat
nik ere aitortu naia.
Au esanikan joan zitzaigun
Arana-Goiri aundia:
–Il naiago det ikusi baiño
Aberriaren amaia!

Irugarren saioan Joseba Zubimendik puntuak jarri zizkien ber-
tsolari guztiei, egun hartako arauak agintzen zutenez. Basarri-
ri emandako lehenengo puntua:

Zub: Lenengoa zu zera
bertsoa botatzen.

Bas: Orrekin poz aundirik
etzait neri etortzen.
Asi bear det orain
zerbait erregutzen,
orrela saiaturik
alkar ezagutzen.

Laugarren saioan, berriz, bosna bertso kantatu behar zuten ber-
tsolariak binaka, ofiziotan. Basarri gazteari Kortatxo itziartarrare-
kin kantatzea egokitu zitzaion, gai haxe gogoan: Basarri, zu ar-
tzaia zera. Kortatxo, zu berriz, nekazaria.

Bas: Neureak orain aitortu nai ditut,
besteri zertan galdetu?

Urte polita izan degu ta
ez gera gaizki moldatu.
Artzai lanakin ondo nabil ni,
ezin nezake ukatu.
Mendi maldatan noiznai txistutan,
noiznai bertsuak kantatu.
Mundu onetan zein ote dago
orain ni bezin kontentu?

Kor: Joan dan urtea urte ona zan:
arto, garia galanki;
eta etsaien inbiriarik
nik ezin neike eduki.
Txistu egiñez, egualdi onez,
artzaia ere ederki.
Alperren martxa dago ortikan,
ori edozeiñek daki.
Negu txarrean mantendutzeko
saia beazu gogorki.

Bas: Ai, Kortatxori erantzuteko
eztet nik oso berandu.
Lendikan zintzo joka naiz eta
damurik eztet izandu.
Alperren martxa ote daukagun
orrek alaxe esan du.
Inbiritan bizi zerala,
gauzak ongi ezagun du.
Zeuk ere zerbait eingo zenduke
komentzirik bazendu.

Kor: Astelenean izaten det nik
nere bizi kaxkarrean,
iñola ezin ibilli ta ni
oso pauso azkarrean.
Tabernatara joaten gera ta,
gero illunabarrean
geren etxera etorri're bai
egundoko mozkorrean.

Orduan aitak ipintzen digu
atxurtxo bat bizkarrean.

Bas: Aguro asko esan dituzu
nola bat eta bestia,
tabernarako nola daukazun
zeure jokera guztia.
Aizu, lan asko egitekotan
oso seiñale tristia.
Gaitz izango da atxurrarekin
zu lanian ikustia.
Kolore oiek egiterako
etzaude gutxi kostia.

Kor: Bizibide bat oraintxe goaz
geran etxean artzera.
Nekazariak izanikan gu
gauz onik gutxi etxera.
Larunbatean tabernara ta
astelenean gerera.
Nere moduan kanpo aldetik
ibiltzen baldin bazera,
zure aitakin asarretuta
sarritan gertako zera.

1935eko urtarrilaren 20 hartan ordubiak ondo jota zeuden bertsolariak azken saioa egin zutenerako. Hiru ordu osoko bertso-jaialdia izan zen, bada. Saio luzea, baina ederra! Inor ez zen aspertu han.

Baina halaxe amaitu ziren goiz hartako bertso-komedia denak, epaimahairen iritzi honekin:

Epai-maikoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolariaren sorpena, irudipena, bertsoarako erreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen berdintasuna.

Baita ere emandako gaiak erabilli dituzten ala ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin diran ala ez. Eta orain, gauzak zeatz aztertu ondoren, diogu:

I'go: Ao batez, iritzi berdiñekoak izanik, epai-maiekoak txapel-dun "Basarri" bertsolaria aukeratzen degula.

2'gn: Bigarren sarirako “Matxin”; irugarrenerako “Zepai”; eta laugarrenerako Alkain aukeratu ditugula. Oietxek puntuz-puntu leku oiek irabazi dituztela, beste batzuek ia berdintsuak badituzte ere.

3'gn: Beste batzuek ere aukeratuak izango zirala, sari ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yayorik ba-zan gudu onetan-eta.

Epai-maiekoak: Ariztimuño'tar Yoseba (apaiza), Alzaga'tar Toribi, Olaizola'tar Yoseba, Lekuona'tar Imanol (apaiza), Zubimendi'tar Yoseba eta Olano'tar Txomin.

Egun hartako kronika idaztean, honela zioen Joseba Zubimendi jaunak, ondorengo egun batean:

Berandu zan bazkaria asterako. Iru ordu abesten yardun eta bertsolariak ainbeste aldiz beren zirikadakin yan-edanak eskatuarren, orduan ez bazitzaieten eman, Donosti'ko Eusko Gaztedia'ren areto apañean ez zitzaieten ezer ukatu. Ba-zeukaten an eztarria zerekin busti.

Eratzailleak guziei poz eman nairik, bazkari txarteletan au irarriazi zuten:

Done Sebastian egunean, 1935.

Bertsolari-bazkaria

Euskaltzaileak eta Eusko Gaztediak eratua.

Asteko, txorakeria,
Eusko Gaztedi arroza zilipurdika,
Bertsolari erako legatza,
“Euskaltzaleak” arkume erria, patata prijituakin,
Euskadi'ko goxo eta prutxa,
Ardorik onenak - Sagardorik bikaiñenak,
Kafia, esteak erretzekoa ta naiko kia ateratzekoa
Ondoren, bota bertsoa!

Bigarren Bertsolari Gudua

Lehenengo txapelketaren esperientzia ezagututa, Bigarren Bertsolari Gudurako saioak 1935eko abenduan hasi ziren, eta 1936ko urtarrilean amaitu.

Hogei bertsolari bildu ziren guztira; eta, askotxo zirela-eta, aukeraketa egin zuten, Tolosan, Azpeitian eta Elizondon.

Txapelketako legeak agintzen zuenez, Basarrik ezin zezakeen norgehiagokan parte hartu ondorengo hiru urtetan ere. Eta batzuetan aurkezle eta besteetan epaile izatea egokitu zitzaion bigarren urtean.

Hala ere, 1935 urteko abenduaren 29an Tolosan egin zen jaialdi ederrean bertso bat kanta zezan eskatu zioten bertsozaleek, juradua erabakia hartzeko bildu zenean; eta honela kantatu zuen Basarrik:

Agur eder bat egin nai nuke,
ta entzun nere abotsa.
Etxe ontara inguratzeko
etzaitzela izan lotsa.
Alaitasun au nabaitzeakin
nere biotzak au poza!
Gora euskaltzale begikuok,
gora ta gora Tolosa!³

Bigarren Bertsolari Eguneko azkenengo saioa Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zen, 1936ko urtarrilaren 19an. Eta saio hartako aurkezle izan behar zuen Joseba Zubimendiri amaginarreba hil zitzaion, eta Basarri izan zen gai-jartzaile, eta bere zeregina bertso bat kantatuz hasi zuen:

³ Euzkadi 1936/1

Tolosa'n eta Azpeiti'n
izanduak gera;
baita Elizondo'n ere
zuek entzutera.
Onenak bezelaxe
zaituztegu aukera.
Orain bertsotan azke
zoazte astera;
doiñuan ere libre
nai dana esatera,
onela goraldurik
antziñako euskera.

Gero, bertso batean, "gerra txarraren ondorenak" gaia eman
zien bertsolariei:

Bas: Entzun, anaiak: orain asten da
bigarren bertso saioa,
doiñuan aske baiña gai batez
guztiak jarraitzekoa.
Ez dezute, ez, gauza alai
orain kantatuzkeoa:
Gerra zitalan ondoren txarrak
azalduz bota bertsoa,
ta agertu sutsu, zein geiagoka,
beretzako gorrotoa.

Laugarren saioa hasteko, ofizioak honela banatu zizkien:

Bas: Uztargillea Zepai izanik
Txirrita dezu itzaia;
kontrabandista nagusi Iriarte,
Dargaitz duela morroia.
Txapel ikazkin, Etxeberriak
aupatuz errotaria;
Mutuberría ez da etorri, ta
Harriet tabernaria.
Uztapide da sagardozaie,
Lujanbio ardo zalia.

Bertso Gudu edo txapelketa honetako zehaztasunak eta bertsoak Zubimendi jaunak argitaratu zituen txapelketa osteko kroniketan, *El Pueblo Vasco* egunkariko euskal orrialdean eta “*Bertsolari-guduak 1935-1936*” zeritzon liburuxka batean. (1985eko abenduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro argitara eman zuen liburuxka hau, Imanol Murua Diputatu Nagusiaren hitzaurre batekin.)

Lehenengoak adinako zalapartarik ez zuen atera, baina bigarren Bertsolari Egunak ahogozo ona utzi zuen orduko bertsozaleen artean; eta aurrera jarraitzeko irrika biziz gelditu ziren antolatzaileak ere.



Basarri Anoetan, 1969.02.11.

Beste txapelketak

Baina gerra etorri zen gero; eta hamar urte edo gehiagoan ez zen beste lehiaketarik egin gure herrian, arriskutsua zen-eta. Euskal kultura eta euskara-usaina zuen edozer antolatu eta egitea debekaturik zegoen, orain askok aitortu nahi ez badu ere.

Hala ere, ez zen dena bertan behera utzi, ez. Dakigunez, beste ahalegin asko egin zuten han eta hemen, gaur oso laburki aipatuko baditugu ere.

1945ean Tolosan egin zen lehiaketan zazpi bertsolari bildu ziren norgehiagoka: Errezilgo Zepai, Asteasuko Batista Kortajarena, Saiburu edo Lujanbio, Mitxelena, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikia*, Basarri eta Uztapide.

Lehenengo saria eta txapela Basarriri eman zizkioten; eta bigarrena, Uztapidek irabazi zuen. Hirugarrena, J.J. Mitxelenak; eta laugarrena, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikiak*.

Orduko bertso bakar batzuk heldu dira gure eskuetara, lehiaketako bertsoen berririk ez badugu ere. Lehen ere esan dugunez, ez zen bertsoak nola jasorik, baldin eta bertsolariiek kantatu ahala eskuz kopiatzen ez baziren behintzat.

Baina Basarri eta Uztapidek saioaren azkenean kantatu zituzten bertso hauek jaso zituen norbaitek, “Caja de Ahorrosa famatu eta bizio txarrak gorrotatzen zituenarentzat” jarrita zegoen saria norentzat izan jokatuz:

Bas: Euskaldunaren fama da beti
kristau langilliarrena;
izen on orrek poza aundi bat
biotzera dakarrena.
Joku ta apustuz gaiñezka gabiltz,
edari geitxoz barrena.
Nere ustetan au da errian
biziorikan txarrena.

Uzt: Gorroto izan bear genduke
bizio txarrantzako.
Eztet esaten gose-egarriak
lanian ibillitzeko.
Jokua eta edari asko
txarra da gizonantzako.
Uste ez dala kalte aundiak
ekartze'itu zartzarako.

Bas: Bide onari eutsi deiogun
eta txarretik aldegin,
geren lanetan zintzo jarraitu
bertan artuaz atsegin.
Gazte sasoiko geran artian
txanpon mordoska bat egin
gero burua zuritutzian
damurik izan ez dedin.

Uzt: Erreparatu zazute ondo
jarriko detan puntuan,
kristau izatia nola dagoan
gorputzen mobimentuan.
Jokua eta edariakin
ibilli arren kontuan;
biziorikan txarrena dago
seigarren mandamentuan.⁴

1949ko azaroaren 20an Urruñan egin zen lehiaketan, Basarri, Juan Joxe Eizmendi *Errexil*, Xalbador, Zubikoa, Uztapide, Mattin, Etxahun, Felix Iriarte, Uhalde, Sarasola, Trounday, Caillaba, Xanpun eta Capdevillek kantatu zuten. Iñaki Eizmendi *Basarri* hautatu zuten txapeldun, eta Fernando Aire *Xalbador*, bigarren.

1950eko urriaren 1ean egin zen hurrengo txapelketa, Donibane Lohizunen; eta Sarasola, Mattin, Manuel Sein *Xanpun*, Zubikoa, Errexil, Iriarte eta Basarrik esku hartu zuten. Epaimahaian Louis Dassance, Pierres Lafitte eta Telesforo Monzon izan ziren. Gai

⁴ *Lengo egunak gogoan* – Uztapide – Auspoa berdea.

Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak. J.M. Etxezarreta - Auspoa sail nagusia.

emaile eta aurkezle, Teodoro Hernandorena. Basarri izan zen txapeldun berriz ere; eta bigarren, Mattin.

1950eko apirilaren 16an beste txapelketa bat egin zen, Donibane Garazin. Eta Sarasola, Uztapide, Oihenart, Basarri, Trounday, Errexil, Xalbador, Xanpun, Zubikoa, Caillaba, Uhalde, Mattin eta Alkat neurtu ziren. Txapeldun, berriro ere, Basarri izan zen.

Hurrengo bertsolari txapelketa nagusia Baigorriin egin zen, 1951ko irailaren 23an. Etxahun, Mattin, Xanpun, Zubikoa, Basarri, Iriarte eta Xalbador bildu ziren elkarren lehian. Epaimahaiko, berriz, Louis Dassance, Constantin, Monzon, Moulier eta Lafitte jauna. Gai-emaile eta jaialdiaren gidari, Elissalde jauna.

1952ko abenduaren 28an Euskal Herriko laugarren txapelketa jokatu zen, Sarako trinketean. Eta Basarri, Mitxelena, Joxe Lizaso, Uztapide, Lexoti, Lasarte, Errexil, Etxahun, Mattin eta Xanpun neurtu ziren, mugaz bi aldetakoen norgehiagokan.

Epaille, Louis Dassance, Constantin, Larrebourg, Mitxel Labeguerie (hiruak medikuak), Etchemendy eta Lafitte izan ziren; aurkezle eta gai-emaile, *Oxobi* apaiz eta idazle ezaguna.

Mattini eman zioten orduko txapela; bigarren Uztapide izendatu zuten, eta Basarri hirugarren saria eman zioten.

Handik urte gutxira, 1954ko irailaren 12an, beste sariketa bat ere egin zen, Hazparnen; eta mugaren bi aldetako bertsolari ezagunak bildu ziren berriro, hala nola: Basarri, Xalbador, Uztapide, Xanpun, Mattin, Joxe Lizaso, Lasarte, Zubikoa, Felix Iriarte eta Alkat. Txapela Basarrik irabazi zuen berriro ere; eta bigarren saria Xalbadorri eman zioten.

1958: Bertsolariak Urruña-Parisen

Ez dakit egiazkoa zen, baina hegoaldean baino askatasun gehixeago zegoen garai hartan Iparraldean, itxuraz behintzat. Eta horri esker, bertso-jaialdi eta txapelketak antolatu ziren 50eko hamarraldian. Frantziako agintariak ez ziren besteak baino hobeak, baina ez zegoen hegoaldean adina petralkeria.

Aipamen berezia egin nahi nioke 1958ko apirilaren 13an Urruñan egin zen bertso-jaialdiari, gero maiatzean Parisen egin zen jaialdi-sariketarako bertsolariak aukeratzeko, aldi berean urtebete lehenago hil zen Juan Basurko olerkari irundarrari omen samurra eginez.

Jaialdi hura ez zen nahi zuten bertsolari guztientzat, ez. Halaxe beharrez, Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Aintziart eta Errexil hautatu zituzten norgehiagokarako, Teodoro Hernandorena jauna antolatzaile eta gidari zela.

Bestalde, Urruñakoa egun osoko jaia izan zen. Eguna biribiltzeko, lehenengo, meza nagusiarekin hasi ziren, eta Lartzabal jaun apaizak hitzaldi ederra egin zuen, bertsolariak zeru goienetan jarritz. Eta tartean Hondarribiko abeslari talde batek kantatu zuen.

Gero, Teodoro Hernandorena jaunaren sarrera-hitzaldiaren ostean, bertso-jaialdia hasteko, honela kantatu zuen Basarrik:

Gure Baxurko maitagarria
nola ez izan goguan?
Oraintxe dala ogeitamar bat
urte ezagutu nuan.
Toki askotan ibili gera
biok beti inguruan.
Pentsamentu bat zun biotzean,
pentsamentu bat buruan:
bere euskera maitagarria
nundikan jasoko zuan.

Ura garbi agertutzen zan
etxean eta auzuan;
euskera zedukan ametsetan
eta euskera pausuan,
berdin etxean eta kalean,
bai eta berdin basuan.
Ta nere ustez pekatuaren
arrastorikan etzuan.
Iñor badago ni seguru naiz
au dagueła zeruan.⁵

Beste bertso eder asko ere izan zen egun hartan. Baina, Urruñako saioan Basurkoren omenez Uztapide eta Basarrik kantatu zituzten hauexek gogoratuko ditugu hemen, gutxienez⁶:

Bas: Basurko jaunak omenaldia
degu gaurko egun ontan,
denbora asko ez tala oraindik
betiko gelditua lotan.
Jauna, zure izen saindua
ark jaso zuen bertotan.
Erruki onez goxoki artu
zazula zure besotan.

Uzt Basurko jauna lagun izana
gendun oso luzaruan;
egon liteke oraindik gure
laguntzaren esperuan.
Nik gaur goizean otoitz egin det,
bai, nere biotz beruan:
komeni bada gure Jainkuak
gorde dezala zeruan.

Bas: Urte askotan giñan irurok
alkarri itza emanak.

⁵ Olerti, 1959.

⁶ *Bertsolarien desapioak, gudu eta txapelketak*. J.M. Etxezarreta. Auspoa sail nagusia.

Toki aunitzez billatzen giñan,
artaiño lagun laztanak.
Zuzenbidezko izaten ziran
Basurko zanan esanak.
Betiko aintza merezia du
era artako gizonak.

Uzt: Gure artian esaten zitun
makiña bat itz tajuzko.
Nere ustetan ura zeguan
bertsolaien maiorazko.
Lagun artian ark bazekien,
Basarri, mintzaten presto.
Obe genduke baldin bagiñuz
alako euskaldun asko.

Paris, Paris!

Halaxe egin zen Urruñako bertso-jaialdi ederra. Eta gero, eguna etorri zenean, Parisera joan ziren han aukeratu zituzten lau bertsolari onenak, Endaian trenea hartuta.

Paris ikusteko asti gutxi izan omen zuten bertsolariak; baina Eiffel dorrera igo eta handik bazterrei begira egon omen ziren luzaro, erabat txundituta. Horrela entzun eta irakurri izan dugu behin baino gehiagotan.

Bazkalosteko saioa etorri zen, eta Basarrik irabazi zuen lehenengo saria, saio bikaina eginda. Eta beste hiruak –Uztapide, Xalbador eta Mattin– berdin-berdin utzi nahi izan zituen epaimahaiak.

1958ko maiatzean Parisen egin zen jaialdi hartako bertsorik gehienak *Egan* aldizkarian, 5-6 alean (1985), argitara eman zituen Juan San Martin jaunak, Euskaltzaindiko liburutegian zegoen grabazio batez baliatuta. Aurkezpenean honelaxe irakur daiteke: “Paris’en izan zan bertsolari-saiaketaren azalpena 1985”.

Lehenago inoiz argitaratu ez ziren txapelketaren agiri hauek Jokin Zaitegi zenaren paperetan aurkitu zituen eibartarrak, Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue liburutegian, lehenxeago esan bezala. Ez ziren bertso denak jasoko; baina bai gehienak, seguruenik.

Egan aldizkariaren orrialdeetan ohar hauxe idatzi zuen argitaratzaileak: “Lehenengo grabazio banda uts xamar degu; asko galdu da. Artu zan dana emen dijoa...”. Eta gero, banda horietan jasotako bertso denak argitara eman zituen, esan bezala.

Jaialdia

Nork noiz kantatu beharko zuen zozketa egin ostean, lehenengo Uztapidek bi bertso kantatu zituen; eta gero Basarrik, beste bi. Jarraian, Mattin eta Xalbadorrek ere berdin egin zuten, gidariaren aginduz.

Nolanahi dela ere, Basarriren bertso-bilduma egiten ari gerez, hark kantatukoak, edo harekin zerikusirik duten bertsoak bakarrik jasoko ditugu gaur hemen, bere lehen agurra gogoratuz hasita:

Bas: Paris'ko euskaldun jende jatorra
ara ementxe batua;
anai-arreba pranko badegu
gaur onuntz inguratua.
Ameriketan zenbat dabillen
etxetik urrutiratua!
Egun onetan aiekin degu
gorputza eta gogua,
Jaunari esker egin baitegu
emen biltzeko modua.
Berriz ere autatu zagun
onelakoxe lekua.
Irrintzi eta zantzo egiteko
iritxi baita ordua,
bertsolariak ager gaur goitik
bertsoa eta kantua,
eman eta zabaldu dezagun
mundu guzian frutua.

Arrantzaliak boga ta boga
beti itsaso aundian,
artzai-mutilla txistu ta kanta
or ikusten da mendian.

Nekazariak beren lurretan
 ari baitira lanian.
 Igande egunez gu euskaldunok
 ementxe aldamenian;
 bein bear eta gure erria
 dago umore onian.
 Eguzkia're dizdiratsu gaur
 goizetik zeru gainian.
 Auxe da poza kabitu eziña
 edertasun au ikustian!
 Zar eta gazte, aundi ta txiki,
 guztiok alkartian,
 maitetasunez bildu bai gera
 gaur festa eder batian.
 Anai-arrebak, ezta bildurrik
 ola gabiltzan artian.

Teodoro Hernandorena jauna zen jaialdiaren antolatzaile eta aurkezle; eta honela hasi zen hizketan jaialdiaren bigarren saioa aurkezteko:

Jaun-andreak: Biotz-miñez aстера nijoakizue bigarren saioa zuei presentatzera. Biotz-min ori aundiagotu zait Dassanz jauna emen ikusita. Urterik urte eta txapelketaz txapelketa, gaur ohoratzen degun gizona, apeza, eta Dassanz jauna beti alkarrekin baitziran. Dassanz jauna emen ikusirik etzait iruditzen Oxobi jauna bazterren batean ikusi bear ez dedanik. Baiñan zoritxarrez ala da. Otoitz egin degu goizean bere ohorez eta orain bertsolariak eskeiñiko diote bere omena.

Bertsolariei itza utzi aurretik bertso batzuek irakurri nai ditut, Oxobi zanak bere adixkide Monseñor Saint Pierre il zenean onen oroitzapenez idatzi zitun bertsoak. Oxobi jauna ezagutzen zenutenok ikusiko dezute beriala olerki au entzutian, bera emen balitz bezala dela, ezbaita beste iñor Oxobi'k bezala idazten zuanik. Gaur goizean Charritton jaunak erraiten zigun Arrangoitzera joaten danean eta ango xantrea entzun, beti berdin iruditzen zaiola: "To, Oxobi emen duk". Olako olerki bat irakurtzen dezutenian bai erran daitekeela: Au Oxobi da, beste iñork ezin dezake ola idatzi. Entzun Oxobi jaunak, Oxobi zanak, Monseñor Saint Pierreri eskeiñi zion otoitza; eta itz beroiek artuta Oxobi'ri eskeiñiko dizkiogu.

(Teodoro Hernandorena jaunak itz oien ondoren, aipatutako olerkia irakurri du. Ez det artu, berak izango baitu. Eta olerkia irakurri ondoren berriz honela jarraitu zuen). (Hartzailearen oharra). Orain irakurriko ditut beste bertsoño batzuk. Oxobi il zanean Larreko izenpetzen duanak eskeiñi zizkionak. *(Eta emen Larrekoren olerkia irakurri zuen. Eta emen bukatzen da lenengo banda. Lenengo banda eta bigarrenaren artean, Uztapide'n jarduna falta da; Oxobi'tzazkoa, alegia. Basarri-ren bertsoekin asten da lenengo banda).* (Hartzailearen oharra)

Teodoro Hernandorena jaunak aipatutako olerkiak irakurri ostean, bertsolarien aurkezpena egin zuen; eta honelaxe asi zan Basarri bertsotan berriro:

Oxobi jaunak idazten zuen
oso xamur eta erraz,
alegi edo ipui batzuek
emanaz egi tankeraz.
Itz guziak ondo josiak,
aparta baizan joskeraz;
gaiak erabiltzen zituan
berak nai zuen tankeraz.
Euskaldun danok arenganako
zorretan gaude gaur, beraz;
illa zala jakin ta guztiok
gelditu bai giñan penaz.
Zer galera guk beste mundura
gizonaren irteeraz!
Arek baizuan almen bizi bat
izana beti bere eraz.
Lafontaine eta Samaniego
bizkor baiziran erderaz,
baiña Oxobi aiñakorikan
izan al degu euskeraz?

Luto edo doluz gelditu ziran
basuak eta mendiak.
Negar egin zun artzai mutillak,
ta negar arrantzaliak.

Askoz geiago liburutatik
dauden gizon ikasiak.
Oxobi zein zan bear bezela
eztaki mundu guziak.
Tristetu giñun guztiak
gizon ura beste mundura
zijoala ikustiak.
Zartako aundi bat eman baizigun
Oxobi'n illan berriak!
Geuk ez dakigu zer gizon
galdu digun Euskalerriak.

Basarriren ostean, Xalbador, Uztapide eta Mattinek ere Oxobi-
ren goralmenez kantatu zuten. Eta gero, berriz ere, aurkezlearen
lana heldu zen. Hernandorenak:

Kopa au “Euskal-Kulturaren alde” deritzan batzordeak emana
dezute. Bi eman zituan. Bat Urruñia'n jokatu zan eta Basarri'k irabazi
zuan. Beraz, gaurko saio ontan, Basarri'k leiaz kanpora kantatuko du,
baiño nai izan du kopa ori utzi, beste iruak irabaz dezaten: onena iza-
ten denak, alegia. Au izango dute gaia: Zer egin leitekean euskeraren
galtze izugarri onetan, eta zer egin leitekean olako itxura txarretik
goratzeko, altxatzeko, edo berpizteko.

Beraz, Uztapide asiko da eta besteak segituko dute, baiña Basa-
rri'k kantatuko du, esan bezala, konkurretik kanpo.

Gaia ez badute ondo ulertu, berriz esango diet: euskera dagon
larritasun aldi ontatik altxatzeko edo goratzeko, zer egin liteken. Bina
bertso.

Bas: Pamilietan egin bear da
izkuntza asko ugaldu,
umetxoari ere erakutsi
sekula ez dedin galdu.
Eriotzatik laster atera,
eskola asko zabaldu.
Gure euskerak iraut'ezkero
orixe egin bear du.

Etxeko gauza utsakin gabiltz
ta badegu milla neke;
beste izkuntza bat ola nun dagon
nik ori jakin nai nuke.
Prantsesez eta ingelesez ere
laguntzik ez balitzake,
gure euskera dagoan bezin
gaixo egongo lirake.

Gai-jartzaileak agindu bezala, bakarka saioa eginez bina bertso kantatu zuten bertsolari guztiek; eta gero, Basarri eta Mattin elkarrekin jarri zituen:

Aski degu gai serioetatik, eta parra pittin egiten asi bear degu, onuzkero zaleluta baizaudete. Asiko zaizkizue Basarri eta Mattin. Alaba oso moñoña daukan gizon bat da Basarri; Mattin, berriz, gizon gazte bat dezute, artakua, eta Basarri'ren alaba moñoña ori nai luke bereganatu. Beraz, Mattin asiko da eta bere moñoñaren aitari presentatuko zaio.

Mat: Bertso bat preparatu
dut nik zure galdetzat,
asmo eta egiak
baitira ametsak.
Huna orai zer dion
gaur ene bihotzak:
emanen nauzun alaba
zuk, otoi, andretzat?

Bas: Ixillikan ez degu
luzaro iraungo.
Ai, nere alabatxoa
ain moñoña dago!
Au atzetikan zebillen
gaur baiño lenago;
alperrikan zabilta,
ez dizut emango.

Mat: Zuk hola erran arren
ez du, ez, inportik;

galdia egina nauzu
ni nere partetik.
Alabak maite bainau
bihotz-bihotzetik,
noizpait konponduko gira
gu aitarengatik.

Bas: Aspaldi somatzen dut
alaba atian,
egunez ezta atrebitzen
baiño arratsian.
Metro ta laurden ezta
izango luzian.
Olako suia zertako
det, ba, nik etxian?

Mat: Okasio huntaz
behar baliatu;
enaiz kalkulik egin gabe,
aita, abiatu;
izpirituzko gauza
baitut nik miatu.
Bertzela ezin dezaket
kaltza kanbiatu.

Bas: Sarritan ditu onek
ertera trebiak,
edozer esaten baitu
lotsikan gabiak.
Arrosarenak daduzka
arek koloriak.
Sobra're badauzka
zu baino obiak.

Mat: Beti gaizki hartzen nau
galdea emanda;
halare Basarri ezta
eina hobe, antza.
Alaba alde daukat baina
kontra daukat aita.
Erran ez dakit zuretzat
zertan dutan nik falta?

Bas: Batzuetan txarrian
ta batzuetan on,
munduan bagera onelako
amaika gizon.
Lenago ni onekin bromaz
asarre nengon.
Berakin konpondu zaite,
nigatik or konpon!

Mat: Ezkontz horri behar diogu
oraingoan utzi,
ni zure mutil bainaiz,
zu berriz nagusi.
Alkarri karraxutara
behar dugu utzi.
Ni suitzat izan eta
pakean biak bizi.

Bas: Aspaldin eztut eduki
onelako plantik.
Gure artian ezta
paltatuko kantik.
Aitak lagunduko dio,
emen edo ortik;
bera portatzen bada,
neri eztit inportik.

Hern: Lenengo partia bukatuko degu oraingo saiaketa onekin.
Lauak jardungo dira errezkadan, batek asi eta besteak segi, bertsua
bukatu arte. Beste seiren bat saio egingo dituzte. Launa puntu.

Uzt: Orain bertsuari
eman puntu bana.
Bas: Orrela egingo degu
komeni dan lana.
Mat: Nik ere segi behar
lagunek errana.
Xal: Bizi dadin pixka bat
jana ta edana.

Bas: Guk zerbait esan eta
jende dana irriz.
Mat: Gu ere etorri gaituk
leku hunta berriz.
Xal: Nik ere ez dut arantiko
ixtant bat ez biz.
Uzt: Bai ibilli baziña
oraingo ontan neurriz.

Mat: Xalbador ez al da, ba,
neurriz ibilia?
Xal: Ez daukat errukiturik
gaurko itzulia.
Uzt: Atzo bazun edaririk
ezin estalia.
Bas: Jaunari esker urruti
daukat familia.

Xal: Zuek ere hor zintaten
Xalbador bezala.
Uzt: Ez det uste zu bezela
ni jarri nintzala.
Bas: Gauerako pentsatu
xelebretu zala.
Mat: Muxurtzen bai gu sarri
nola edo hala.

Uzt: Ori zerbait baldin bada
gu ere lagunak.
Bas: Noiznai ez dira izaten
olako egunak.
Mat: Serioz ibiltzeko
ez'ka etorri hunat,
Xal: Ni txarra naizela baino
hauek ere ez unak.

Bas: Moko beraka zio
or dagon txoria.
Mat: Hori eremateko da
jaun hau etorria.

Xal: Horren kolorea zer da:
beltz ala horia?

Uzt: Ez egiz tiroak emanda
orrela eroria.

Mat: Xalbadorrek ez al daki
tiroa botatzen?

Xal: Uxoeri behintzat ez tut
bertzerik bilatzen.

Uzt: Nora tira bear zaion
ez du begiratzen.

Bas: Punteri ona daukanik
nik ez dut pentsatzen.

Xal: Zuek tiratzen duzute
nahiko astiro.

Uzt: Nik ondo jotzia nai ta
emen eiten tiro.

Bas: Parisera ez omen
dator au berriro.

Mat: Olako lagun artean
ezta beti giro.

Uzt: Beraz, lagunarte ontan
eztago atsegin?

Bas: Olakoakin obe da
batere ez itz egin.

Mat: Untsa mintza baino errexo
baita emen hutsegin.

Xal: Kanta dezagun laster
eta gero aldegin.

Bas: Radiatua ote da
gaurko saioa?

Mat: Nork estimatu behar dik
hunen balioa?

Xal: Toki huntan bero bada
zabaldur leioa.

Uzt: Au kanpotik entzuteko
ez da serioa.

Mat: Denek ongi al gaituzte
hemen konprenditzen?
Uzt: Egiten bagaituzte ere
ez gera arritzen.
Xal: Gure ahalak eta lanak
ezta errez biltzen.
Bas: Bertsolariak nagusi
dira gaur Parisen.

Hern: Bigarren saiaketari asiera ematera goaz. Banaka kantatuko dituzte bina bertso, gai onetzaz: Euskal-Erritik kanpo, beren etxea utzirik, Paris'era edo Ameriketa'ra dijoan seme bateri zer kontseillu eman lezaizkioken. Beste lerro ortatik asiko gera, eta lehen-lehenik Xalbador asiko zaizue.

Bas: Amerikara zoaz,
seme, beriala;
eta sinistu zazu
miña artzen detala.
Ogia jango dezu
nola edo ala.
Betiko goguan izan
gu emen gaudela;
eta etzazula aztu
euskaldun zerala.

Uzten dezu basua,
ber-bertan mendia;
eta bakar-bakarrik
zure aita maitia.
Egin bedi Jainkoak
dun borondatia.
Seme, atxiki gogor
euskaldun legia;
ta ez beintzat utzi zere
jatorrizko bidia.

Hern: Jaun-andreak: Iduri zait bertsolariak erabili duten gai au garrantzi edo inportantzi aundikoa dela. Beraz, berriro, gaia erabili-

araziko diet, baiña beste modu batean. Aitak, kontseillua ematean, bere ondoan izango du semea erantzuteko. Eta bestalde, amak bere onduan izango du alaba. Bertsolarien gogoaz azkarra baita, iduri zait momentu batez ama izateko edo alaba izateko ez dutela eragozpenik izango. Baiñan suieta ez baita berdiña, nik emen bateri eman diot numeroz bata, besteari bia; emango ditut binazka Basarri eta Mattin, Uztapide eta Xalbador.

Basarri da aita, eta Mattin semia. Etxeko jaun Basarri; eta semea, Mattin, urrutira partitzen zaio etxea utzita.

Bas: Beti izandu zaitut
semerik maitena;
orain zu joatiak
ematen dit pena.
Lutoan geldituko
zaigu etxe dena.
Etzazula zikindu
aitaren izena.

Mat: Hor, ibilliko nauzu
zuk eman bidian,
bainan gu ezin bizi
gaur herri berian.
Ni beti ametsak
nabilka aidian.
Gauzak ikusi nahi
kanpoko aldian,
nola bizi dan jendia
mundu zabalian.

Bas: Sarritan joan zaite
eliza bidera,
zure aita zarra joaten
zan oitura bera.
Oroitzapena luza
andikan onera.
Biar edo etzi aita
egiten bazera,
zure aur maitieri
erakutsi euskera.

- Mat: Ia abiatu naiz
mundu huntan barna,
kunplitu nahi baitut
goguan dedana.
Gu gerta bagintazke
aita eta ama,
eskuara irakastiak
badu sobra lana.
Semia igorriko dut
aitatxirengana.
- Bas: Bear bada izanen
duzu milla neke;
bizimodua iñun
gaur eztago merke.
Zu gizon ibiltzia,
orixe nai nuke.
Arrixku asko dago,
ta begiak erne!
Besarkatutzen zaitut
eta agur, seme!
- Mat: Orain bat bertziaren
uztera goaza;
munduan urte batzuk
nahi nituzke pasa.
Beti aita leiala
zu izandua za.
Baldin nolakoa naizen
oroitutzen ba'za,
semian izan beti
zure konpianza.



Uztapide eta Mitxelenaren omenaldia. Oiartzun, 1963.

1960ko Txapelketa Nagusia

1960an Euskal Herriko Txapelketa Nagusia antolatu zuen Euskaltzaindiak. Eta aurreko lehiaketa haietako giroa eta ahogozoa ondo gogoan zituen hegoaldeko bertsozaleak. Komunikabideetan ere berebiziko sona eta aipamenak izan zituen 1960ko lehiaketa hark. Kazetariren batek ez zion eman nolanhiko izena ere, gogoan dugunez. “Campeonato mundial de bertsolaris” deitura alajaina, nahiz eta artean inork ez zuen uste hemendik kanpo bertsolari edo inprobisatzailerik izan zitekeenik. Eta jakinda ere, ez zuten hementzen antz haundirik.

Txapelketa hartako azken jaialdi nagusia Donostiako Victoria Eugenia aretoan egin zen. Baina han bildu ziren bertsozaleen erdiak ere ez ziren sartu aretoan, nahiko tokirik ez zegoen-eta. Halako jendearen emanik! Azkenean, altabozak jarri behar izan zituzten atarian, bildu ziren bertsozaleei nola edo hala erantzun beharrez.

Manuel Olaizola *Uztapide*, Jose Joakin Mitxelena, Jon Mugar-tegi, Jon Azpillaga, Fernando Aire *Xalbador*, Mattin Treku, Andres Narbarte *Xalto* eta Juan Perurena ziren bertsotan egun hartan; eta 1959 arte egindako txapelketa guztietan gailendu baitzen (1952an ezik), Inazio Eizmendi *Basarri* inongo kanporaketan saiatu beharrik gabe sartu zen txapelketa hartako azkenengo saiora, lehenxeari aipatutako bertsolariekin txapela jokatu. Denak ez ziren konforme izan han ere; Iparraldeko *Herria* astekariak esan zuenez, “Chapelketako legea zen Basarri zuzenez finalichta izanen zela. Baina ez zaiote hori ongi iruditu orori”.

Txapelketa hartako bertsoak Zarauzko Itxaropena argitaletxeak argitaratu zituen 43-44 zenbakian, Antonio Zavalaren hitzaurrearekin. Honela idatzi zuen ordu arteko bertsoak gogoan:

...bertsolariak kantuan eta kopiatzailleak lapitza dantzatzan; orre-la aritu ziran sayoaren denbora guzian. Gero, bertso oyek batean bildu ta argitaratu zituzten, baiña liburuaren asieran ziotenez, bearbada

noizean bein aldaketaren bat ustekabeen sartua izango zan. Etzeagoan orduan gauza ohea egiteko modurik eta naikoa egin zuten. Lan txalogarria izan zan benetan.

Orain, berriz, beste konturik dago. Azken txapelketa ontan bost bat magnetofon bazeuden agertokiaren sayetsean. Eta sayo-aldi guztian, bertsolariak kantu-lanean eta tresna berri oyen aria jira eta jira. Ari orrek eman du liburu au osatzeko bidea, baiña, oraingoan, letra bakar bat ere aldatu gabe.

Beraz, esan dezakegu abenduko sayo ori izan dala, oso osorik ta ezer ezertxo aldatu gabe jaso ta liburuan agertzen dan lenengo bertsolarien txapelketa.

Uztapide eta Basarrik egin zuten saioetako bat honelaxe izan zen. Alfonso Irigoienek eman zien gaia: Uztapide, bertsolaria da; Basarri, berriz, juraduko gizona, bertsolarien txapelketan ibiltzen dena.

Uzt: Beraz ni naiz gaur bertsolari ta
Basarri au da juradu;
len bezelaxe gaur ere egin
bearko zerbaít erregu.
Lagun zarrari guk konfiantzan
au eskatutzen diogu:
geiena danak txapelketa au
irabazi biar degu.

Bas: O adiskide, ez nazazula
aldamenetik tentatu.
Gu biok alkar ola jotzian
badaukagu zer kontatu.
Bertsolariak juraduakin
sarri ez dira kontentu.
Lenengo egin biar dana da
bertsoak ondo kantatu.

Uzt: Barka zaidazu, juez maitia,
nik esan badizut broma;
ongi dakizu ni zuretzako
gorrotuan ez nagona.

Ni izan arren barrunbe ontan
ustez bertsolari ona,
askoz obia izango degu
nere jueza dagona.

Bas: Manuel maite, etzazu artu
estuusun eta presa;
juezak duten opiziua
oso baita aldrebesa.
Errespeto aundiz esaten dana
itz bat auxe da: jueza.
Oien gustua egiten beti
eztek izaten erreza.

Uzt: Auxe esango dizut, Basarri,
nik urrengo irrintzian;
juezak egin ber duna au da,
Uztapiden iritzian:
gauz asko erabaki bear dira
emen denbora gutxian.
Gauzik bearren bearrena da
ibili kontzientzian.

Bas: Eztet pentsatzen kontzientzitik
oiek daudenik aulduak.
Sarri olaxe sortzen zaizkigu
izketarako moduak.
Pasionista ta jesuita,
gaiñera apaiz ondraduak.
Gu juzgatutzen dauden gizonak
ez dira barranderuak.

Uzt: Ni gaur goizian jaiki nitzaden
lo egin dedan oitikan.
Pentsatutzen det: Basarri irten da
berak artu dun gaitikan.
Ez dezazula zuk lagunikan
or aukeratu maitikan.
Zu zaude juez; arrazoirikan
ezta bertso oietatikan.

Bas: Bakoitzak beria esaten du
emen nola edo ala.
Manuel maite, nik pentsatzen det
ori jende ona dala.
Lagunak gera, baiña alkarri
azaldu biar azala.
Auxe opa det: geiena danak
gaur irabazi dezala.

Txapelketako legeari jarraituz, lau oinak eman zizkion Basarri-
ri Irigoien jaunak, honelaxe:

Elurra, zintzurra, bildurra, egurra.

Bas: Nekatu biarra dago
gaur emen zintzurra;
lotsagarri dagonak
gaiñetik egurra.
Menditan azalduko
ote zan elurra,
aurtengo abenduan
banuen bildurra.

Nagusi, itsusi, ikusi, erosi.

Bas: Gorputz puska bat daukat,
ez nago itsusi;
olakorik aspaldin
ez gendun ikusi.
Bilbotik etorrira
auxen da nagusi;
gizon au ezin leike
dirutan erosi.

Bakarka hiru bertso kanta zitzan beste gai hauxe eman zion
gero Basarriri, puntuen ostean: ezkontzera dijoan zure alabari ber-
tsoak.

Bas: Aita batek baditu
milla eginkizun;
biotzeko pusketa,
ez dakit dakizun.

Lenguan zeuk esana
zer asmo artu zendun.
Orri ondo beiratu,
bada or estuasun.
Begira, alaba maite,
ze egin biar dezun.

Senargai batek dauka
zuri itz emana;
pentsatuz den ondo
izango zerana.
Ainbestetxo kostata
azia, laztana,
munduko urregorritz
pagatze'etzerana.
Ez ditzazula aztu
aita eta ama.

Erljio batian
baziñan zu azi,
aita ta amaren mende
beti zintzo ezi.
Ezkonduta bizia
bear dezu irabazi.
Senarrari obeditzen
ondo ondo ikasi.
Jaunaren bildur santuz
mundu ontan bizi.

Alaba maite, nua
orain esatera:
bukatu da bakarka
zure izakera.
Bi izango zerate
emendik aurrera.
Aurtxorikan badator
zure magalera,
lendabizi gaixoai
erakutsi euskera.

Gorde famili goxo
ta zero bildurra;
alkarri beti goxo
egin zuek agurra.
Maitatu egia ta
gorrota gezurra.
Ezpaiñetan ibili
izkuntza xamurra.
Eztezazutela aztu
jaiotako lurra.

Inoiz idatzi zuenez, ez zen neurri horren zalea, bat-bateko saioetan; baina bederatzi puntukoan kantatzeko agindu zion Irigoienek, honelaxe: Bertso bat, bederatzi puntukoan, euskeraren gainean.

Bas: Bederatzi puntuan
dadukat sarrera;
Irigoienek jarri
digu karrera;
probatuko gera gu
emendik aurrera.
Noiznai ezta izaten
olako aukera.
Egin da billera,
guztiok batera;
kontuak atera,
ez goaz gainbera.
Oraindikan bizirik
dago euskera.

1960ko norgehiagoka hartako txapeldun Basarri izan zen. Eta, halaxe, zegokion txapela jantzi, garai hartan Euskaltzainburu zen Ignazio Etxaide jaunak jantzi zion. Eta garaile izatearen pozez gainezka, honela kantatu zuen errezildarrak, azkenean:

Pozak txoratzen ementxe dago
une ontan bertsolaria;
etzaio, noski, asko damutu
gaur onuntza etorria.

Neu ez naiz ezer, Jaunaren graziz
lendabiziko saria.
Eskerrik asko entzuten egon
dan jende ongi azia.
Jaialdi auk ematen dute
txertua eta bizia.
Era ontako billeratxo bat
noiz ote zan ikusia?
Izan'e txoko berezi onek
badu grazi berezia;
lur zati bat esan diteke
zerutatik ixuria.
Gozotasunen gozotasuna,
ezti guztien ezta,
zeure eskutan daukazu beti
nai dan aukera guztia.
Iñuntxo ere eztezu berdiñik,
biotzeko Donostia.

1962ko Txapelketa Nagusia

Basarri bertsolaria txapeldun haundia izan zen, ezbairik gabe. Baina 1962koaren ondoren ez zuen gehiago inongo lehiaketan parte hartu nahi izan, 1968ko sariketan izan ezik. Benetan sentituta, minduta gelditu zen 1962ko hartan. Orduko giroa ezagutu ez zuenak aski du garai hartan egunkarietan azaldu zen zenbait kronika eta idazlan irakurtzea.

1962 urteko Bertsolarien Txapelketa, San Antonio egunean –1962ko ekainaren 13an– Urkiolan hasi zen, ofizialki; eta Urtezharr bezperan Donostian amaitu. Bitarte horretan hamaikaxo bertso-jaialdi eder egin zen Euskal Herriko herrietan. Bizkaian, Urkiolan, Mungian, Markinan, Igorren, Gernikan, eta Bilbon egin ziren kanporaketak. Nafarroakoak, berriz, Errazun, Goizuetan eta Beran. Gipuzkoakoak, Bergaran, Deban, Azpeitian, Oiartzunen, Beasainen, Tolosan, Eibarren eta Hernanin. Azkeneko jaialdi nagusia, finala, Donostiako Astorian egin zen, goiz eta arratsaldez.

Azkeneko jaialdi hartan, Azpillaga, Mitxelena, Zabaleta, Lazkao Txiki, Mattin, Arozamena, Lopategi eta Xalbadorrek kantatu zuten, lehenengo saioan; eta horietatik Mitxelena, Arozamena, Xalbador eta Lazkao Txiki hautatu zituen mahaiak, bigarren saiorako.

Txapelketa hartako aukeraketa zereginetan, epaiketan, Antonio Arrue, Koldo Mitxelena, Antonio Zavala, Fernando Artola *Bordari*, Juan Mari Lekuona, Martzel Andrinua, Antonio Valverde *Ayalde*, Pedro Diez de Ulzurrun, Juan San Martin, Emile Larre eta Mitxel Itzaina izan ziren, oso oker ez bagaude; eta zuzendari eta gai-jar-tzaile, Alfonso Irigoien, berriz ere.

Aurrerako hautatu zituzten lau bertsolariez gainera, Uztapide eta Basarri sartu ziren azkenean, orduko araudiak halaxe agintzen zuen-eta.

Basarriren bertsoak, edo Basarriekin kantatu zutenenak bakarrik jasoko ditugu oraingoz hemen, aurreko sariketa eta txapelketan

bezalaxe. Gainerakoak Auspoa 22an aurkituko ditu irakurri nahi dituenak.

Mitxelena eta Arozamenak kantatu zuten lehenengo, arratsalde hartan; eta gero, Uztapide eta Xalbadorrek. Lazkao Txiki eta Basarrik hirugarrenik, zozketak horrelaxe parekatu zituen-eta.

Irigoienek Basarri jarri zizkion puntuak:

Iri. Neskatzak nonaitikan
gonen ordeztaltzak.

Bas: Ori ondo daguela
iruditzen al zak?
Batzuk zuriak dizkitek,
beste batzuk beltzak.
Ez' ailla artu beintzat
oien esperantzak.

Iri. Zure zakur gaiztoak
atzo egin dit kozk.

Bas: Ondo aditu ditut
esandako itzok.
Gure Alfontxo ez du
lurreratzen iñork.
Zakurrari ez eltzeko
nik esango diot.

Hurrengo saiorako ofizioa jarri zien gero Lazkao Txiki eta Basarri: Zer hobea da: pakea, lana, maitasuna, dirua, osasuna, gatzetasuna, adiskidetasuna, familia ala zuzentasuna. Hasiera Lazkao Txiki dauka, eta berak aukeratuko du hauetatik nahi duena.

Ltx: Emen aukeratzeko
gauza asko daude;
eta al dan ongiena
esan bear au're.
Askok egingo dute
-nor da onena? -galde.
Ni beintzat ateratzen naiz
pakiaren alde.

- Bas: Nundik asiko ziñan
guztia banekin.
Nik ere nere aldetik
nai nizuke ekin.
Zu pakiaren alde,
ni osasunarekin.
Ederki etortzen dira
biak alkarrekin.
- Ltx: Nere ustez pakia
gauza danen abe,
ta dirua jotzen det
gríña txarren jabe.
Bat izanagatikan
interesen jabe,
an ez da zorionik
pakerikan gabe.
- Bas: Interesak etzaizkit
kopetara io.
Galtzailliak dirala,
onek ala dio.
Pakiak'e luzitzen du
osasunakin geio.
Bakarka jarri ta oiek
ez dute balio.
- Ltx: Bietatik zein dan onena
ez dago esaterik,
ezin baida sumatu
tarteko aterik.
Osasuna izanda're,
ez bada pakerik,
laguna, ez dago or
ondo izaterik.
- Bas: Osasunak pakiari
aukera auxe jarri,
esan artian egon
estu eta larri.

Beso emanda ibili
gaitezen alkarri.
Konponduko dirade
Lazkao ta Basarri.

Hurrengo proban, lau oinak eman zizkion Basarriri: zerua, aingerua, ingurua, segurua.

Bas: Goierritik etorri da
kristau segurua,
ta zeñek ez estimatu
olako aingerua?
Txikia izan arren
artu nere ingurua.
Aingerutzako onek
bear du zerua.

Bertsolari guztientzat gai berdina jarri zuen ondoren Irigoien jaunak: bisigua. Eta bertso bana bota behar zuten, baina bederatzi puntukoan, Iparragirreraren doinuan edo, *Aizak i, mutil, mañontzi* doinuan. Basarrik hauxe kantatu zuen bere txanda etorri zitzaionean:

Olio eta piperrarekin
zein ez du orrek gozatuko?
Bazkari eder bat ez ote degu
egun ontan osatuko?
Bixigu begi gorri,
begira danok orri.
Nor ez da inguratuko?
Nik desapio egiten dizut
etzerala sobratuko.

Lehiaketako sei bertsolarien arteko norgehiagoka horrenbestez amaitu zen, goizean. Xalbador, Uztapide, Lazkao Txiki eta Basarri pasatu zituzten arratsaldeko lauretan hasiko zen azken saiorako.

Ondo gogoan dugu oraindik arratsaldean ikusgarrizko jendetza bildu zela. Bazkalondo hartako giroa ikustekoa zen, harrigarria.

Bertsozalea oso bero zegoen, bertso-sutan buru-bihotz sartuta. Bakoitzak bere gogoko bertsolaria animatu eta txalotzen zuen han, eta bero txalotu ere. Asko esatea izango da, baina ez dakit inoiz eza-gutu dugun halako girorik bertsoan.

Arratsaldeko jaialdiari zegokionez, lehenengo saioa Xalbador eta Uztapidek egin zuten, zozketak horrelaxe erabakita. Bigarrena, berriz, Lazkao Txiki eta Basarrik, goizean bezelaxe. Lehenengo bina puntu jarri zien aurkezleak.

Iri. Gure ondoren dabil
beti eriotza.

Bas: Orain odola berua
eta gero otza;
egizko kristau danok
gaur jaso biotza.
Jaunaren graziz dagona
ez da orren lotsa.

Iri. Itsaserri danetan
amaika umezurtz.

Bas: Olakorikan etzan
etorriko onuntz.
Munduan izan arren
zazpi milla izkuntz,
gure euskera maitia
badijoa goruntz.

Eta gero, lau oinak: astia, pixtia, bustia, Donostia.

Bas: Kantatzeko Basarrik
artuko du astia.
Goierritik etorri da
olako pixtia.
Jan-edan egin arren
ez dago bustia;
Iztuetak ondrazten du
gure Donostia.

Hiru bertso kantatzeko gaia jarri zion berehala Basarriri, honela: Zure auzoan Maritxu izena duen neskatxa gazte eta eder bat bizi zan. Orain urte batzuk Donostiara nescame etorri zan, eta gaur egunean emakume galdua da, esaten dutenez. Neskame izatetikan atera eta gauean ez dauka lan ezagunik. Gaur eguerdian Avenidan ikusi dezu automobil batean dotore paseatzen, pintatuta eta apain-apain. Hiru bertso kantatu.

Donostin egin bear
zendula serbitzu
neri esan zidazun,
ene, itsu-itsu.
Egun aretan ziñan
artaiño berritsu.
Infernuko indar ori
zeiñek eman dizu?
Orretaraiño jeitsi
al zera, Maritxu?!

Avenida kalia
begira nenguan:
sonbrerokiko jaun bat
zenduen albu.
Maritxu, jeitsi zera
galtzeko graduan.
Ezin egon ninteke
ni zure onduan.
Amaika zure antzeko
badago munduan!

Gaztia ziñan eta
apain ta kuttuna;
parre goxokua ta
alako iztuna!
Norbait izandua da
zu galdu zaituna.
Au da Jaunan legiak
eskatzen diguna:
lendabiziko gorde,
zer?, garbitasuna!

Lau bertsolariei ofizioa eman zien gero, teman egin zezaten. Gaia: Testamentua. Egun batzuk dirala baserritar bat hil da. Eta eskribauak testamentua irakurri die laurai. Xalbador, eskribaua da; Uztapide, seme zaharrena; Lazkao Txiki, seme gazteena; eta Basarri, aita zena, gelaren erdi-erdian, zerutik agertuta. Hiruna bertso, Xalbador hasita.

Xal: Horra, mutillak, nik egin behar
ditut hartu'tuztan lanak.
Ofizioak gradotxo batzuk
eni badauzkit emanak.
Ni ez nau ezertan mendratuko
papertxo hunek dionak.
Huna zer utzi nahi dauzuen
zuen aita maite zanak.

Uzt: Nere aita zanak eman zizkidan
sekulako alderdiak.
Beste gauza bat agindutzen dit
neri zeruko argiak;
abogadu onek ez baditu egin
gauzak olako garbiak,
ta beste seme txiki oneri
emaizkazute erdiak.

Ltx: Azken orduko eginkizunak
badu estuaren lana.
Bi seme gaitu aita orrek ta
ni len zoezer emana.
Baiña badakit eriotz txarrak
estuturikan daukana.
Aitona zana, zuzendu zazu
gaur aitag ezin duana.

Bas: Seme gaztiak aitonarentzat
atera digu mintzua.
Nik ondo dakit gazte denboran
etzala oso zintzua.

Orri partilla emana nion
ta oni etxe osua,
alare gaurko ume ziztriñak
gaizki artzen gurasua.

Xal: Ene lekua ez da gaur ona,
hauxe da hauxe lan hotza!
Jainko maitea, zuzen gaitzazu,
egiten dautzut otoitza.
Nik konprenditzen dut aitona
samur horren bihotza.
Ez du nahi merezi ez duenak
ditzan ondasunak goza.

Uzt: Sesiuaikin ez dago ezer;
bildu gaitezen batea.
Zuk ere, legegizona, ondo
zeure kontuak atea.
Zer balio du deretxo danak
nik dauzkadala esatea?
Gezurrik gabe obe da emen
nork berea ematea.

Ltx: Aita azkeneko arnasaz da ta
ez du arnasik lasatzen;
gu bi semeak nori zer eman
biok larri gaude emen.
Len pixkatxo bat emanagatik
berriz ari naiz eskatzen,
aita on baten borondaterik
beñere ez baita amaitzen.

Bas: Borondaterik ez da amaitzen
baiña ezin jardun ematen;
gure etxian lanik etzegok
zefon pixka eramaten.
Guraso zarragatikan ari
zerate au t'ori esaten.
Seme aueri kostako zaie
aita aiñakuak izaten.

Xal: Huntara ezkeroz ez bedi egin
hemen gehiago kalte.
Ni ere beira konpon zadien
egondu naiz orai arte.
Etzazu egin, aitona ona,
bihotz on hori bi parte.
Inposible da zuk ez dituzun
zure bi semeak maite.

Uzt: Aita maitea, mundutik juan
ziñan gaur baiño lenago;
gure aurrian zaude gaur berriz
eta nik ori naiago.
Borondatia izan dezu ta
ezin zindezke geiago.
Zerbait sarritan ein badezu ere
dana barkatuta dago.

Ltx: Bi senideak erentziagan
zertarako jarrai teman?
Aitak beriak ditu diruak,
nork gaur ez dio antzeman?
Aitak arnasa doi-doi dauka ta
itzikan ezin du esan.
Zerutikan zatoz, aitona, eta
norentzat bear du eman?

Bas: Seme zarrena, zuk etxeari
eutsi zaiozu zutik.
Seme gaztia, ez gastatu zuk
nolanai nere dirutik.
Aitaganako gorrotu txarra
kendu zazute burutik.
Lezio auxe ematearren
jeitsita nago zerutik.

Manuel Olaizola *Uztapide* eta Iñaki Eizmendi *Basarri* hautatu zituen juraduak arratsaldeko bigarren eta azkenengo saioa egiteko.

Alfonso Irigoien gai-emaiak esan zuenez, “istillu haundikoa izan da, baiña erabaki da. Aurrera dijoaz Uztapide eta Basarri”. Zotz egin ondoren, Uztapidek kantatu behar izan zuen lehenengo. Gero, Basarrik. Puntua:

Iri: Laster egingo zaio
Txirritari jaia.

Bas: Gizon ura ondratzeko
badegu garaia.
Ain zan osasuntsua,
gozo ta alaia!
Basarrik badauka beintzat
ai erantzun naia.

Iri: Donostian jaio zan
bertsolari Bilintx.

Bas: Ari egingo dizkiot
orain pare bat itz.
Aren bertso ederrak
buelbaka emen dabiltz.
Naiago nuke askoz
gaur bizirik balitz.

Lau oinak, Basarrirentzat: indarra, azkarra, baldarra, oillarra.

Bas: Goiz aldi kantatzen
ona da oillarra,
edukitzen duelako
egundoko indarra.
Eun ta amar kilorekin
ez nago azkarra;
pentsatzen jarrita're
agure baldarra.

Txapelketa gehienetan bezala, kartzelako gaiak eman zizkien gero Irigoienek Uztapide eta Basarri, honelaxe:

- a) Hiru bertso zure bizitzari.
- b) Bertsolarien patroia bat aukeratu behar duzu.
- c) Bihar bukatuko dan urteari bertso bat
- d) Ama gai hartuta, hiru bertso.

Zotz egin zuten, eta lehenengo Uztapidek kantatu behar izan zuen. Gero, Basarrik, honelaxe:

- a) Zure bizitzari hiru bertso.

Bas: Goguan artu det,
 ai, zer esan duan.
 Lan pixkat egiten det
 periodikuan;
 berriketaldi batzuk
 gero radiuan.
 Familiko goxuan
 andrian onduan,
 antxe bizitzen nazu
 al dedan moduan.

Erriz erri bertsotan
 ibilli bearrak.
 An azaltzen ditugu
 dauzkagun indarrak.
 Gozatzen dira gazte
 eta berdin zarrak.
 Eman dizkigulako
 ain doai ederrak,
 Jaungoiko altsua, nik
 biotzez eskerrak.

Irugarrena ere
 kantako det garaiz,
 tristurarikan gabe
 txit arpegi alaiz.
 Guretzat iñun ezta
 bear ainbeste eiz.

Milla duroren jabe
izan ez arren iñoiz
daukadan pixkakin
gustora bizi naiz.

b) Bertsolarien patroï zein izan, hiru bertsotan.

Bas: Alfontxo onen gaia
agertzera nua.
Bat bear bagenduke
guk patroitzakua,
Itali aldera naiz
begiratzekua.
Seme bat izan zan an
guziz grazizkua:
Aukeratuko nuke
Frantzisko Asiskua.

Ura beti ibiltzen zan
desgrazian alai;
txoriari kantatuz,
arraïari're bai.
Frantziskoren fama gaur
zabaldu da nunai;
otso zakarra ere
artzen zuen anai.
Nik beste zaindaririk
beintzat ez nuke nai.

Zaindaritzat guretzat
jarri bear dala.
Izendatu zazute,
jaunak, bereala.
Nik botoa eman det
nola edo ala.
Emen ere ikusten det
Frantziskon itzala.
Zuek eta ni luzaro
kontserba gaitzala.

A. Irigoien: Bihar bukatuko dan urteari, bederatzi puntukoan, eta hiru doinu hauetako bat erabiliz kantatu behar diozu: Iparragirrerena, *Aizak i, mutil, mañontzi*, edo *Ai gure antziñako guraso nobliak*.

Bas: Anai-arrebok, pasatu zaigu,
pasatu zaigu urte bete.
Zartutzen ari gera guztiok,
orrekin daukagu kalte.
Gaztetasun, nun ziñan?
gu're or izan giñan,
ta orain zaude aparte.
Ain urte txarra etzera izan
ta ondo ezkutatu zaite.

c) Ama hitzak burura ekartzen dizkizun asmoak hiru bertsoan.

Bas: Argitu nazazula,
Jaungoiko laztana;
badakizu Basarri
gaur kapaz eztana.
Aua betetzen duen
izena da ama.
Nola emango diot
merezi duana?

Ama ziñan zu ere,
zeruko Birjiña,
Espiritu Santuan
bidez asko egiña.
Amatxo, agerten dizut
nere atsegiña.
Nik ez nuen kantatuko
zu izan ez baziña.

Ez al du bertso onek
zerutar itxurik?
Zeiñek neurtu lezake
amaren pixurik?

Aitortu zagun danok
ementxe bildurik,
ama bat pagatzeko
ez dala dirurik.

Bi bertsolarion arteko saioa ere horretan amaitu zen; eta epaimahaiak erabakia hartu zuenean, honela zioen Alfonso Irigoien jaunak:

Nik sekula ez det ikusi juradua ain serio bakoitzak bere iritzia ematen. Bota du bakoitzak bere papera, eta gertatu da Euskalerra osoko txapelduna, Uztapide; bigarren, Basarri. Baina juraduak ez luke esango txarragoa danikan. Urreratu onera biok, or dauden sariak jasotzera.

Lehenbiziko saria Uztapidek jaso zuen, bada: Gipuzkoako Gobernadore jaunaren kopa, txapela eta 10.000 pezeta eman zizkioten. Bigarren saria, Basarri: Gipuzkoako Foru Diputazioaren kopa, eta mixiolariak Ameriketara erabiltzen duten jipi-japa eder horietakoa; 5.000 pezeta eta kartera baten barruan beste 2.500 pezeta, Gurelesak emanda.

Bere saria jaso zuenean, esker onezko bertsoa bota zuen Uztapidek. Baita Basarri ere, honelaxe:

Nere burura datorren dana
esan bear det berela:
ez gero pentsa faillo orrekin
nik penik artu detela.
Urte askoan nebillen
ta gaizkitxo zebillen.
Gaur billatu du epela,
nere lagunik maitienari
eman baitiot txapela.

Hirugarren, Xalbador izendatu zuten; eta laugarren, Lazkao Txiki. Horien ondoren, berriz, Mitxelena, Arozamena, Mattin, Azpillaga, Lopategi eta abar. Antonio Arrueren hitzaldiarekin amaitu zen 1962ko Bertsolarien Txapelketa.

Pozak eta penak, jendearen marmarrak eta eztabaidak izan ziren gero. Baina gogorragoak ziren ondorengo egunetako esames eta

istiluak. Bigarren saria eman zioten Basarriri burua berotu zioten, zoritxarrez. Bere lagun izenekoak izan ziren txarrenak.

Egunkarietan agertu ziren kroniketatik bakarren bat jasotzekotan, Bertsolarien Txapelketa amaitu eta egun gutxira Antonio Valverde *Ayaldek*, Donostiako *El Diario Vasco* egunkarian, “Basarri y Uztapide. Por Ayalde” izenpean idatzi zuen artikulua luze hau aipatu behar dugu:

Estamos ante dos grandes figuras del bertsolarismo de todos los tiempos. Uztapide ha conseguido recientemente la categoría de campeón, pero su triunfo no merma para nada el prestigio de Basarri, el versificador de Granadako erreka, Régil.

Dije una vez que Basarri es el Iparraguirre de nuestra época. Un Iparraguirre motorizado, que en su 4-4 (si no es un Daufinne) va de plaza en plaza para asistir y ser alma de los juegos populares, que escribe en vasco y castellano en diversas publicaciones, que semanalmente, desde la Radio, envía sus consejos, sus comentarios, sus canciones, hasta los lugares más apartados de nuestros montes.

Basarri es la figura providencial que, en momentos harto delicados para la lengua nativa, entregó sus afanes y su vida a ella, creando una manera nueva de ser bersolari y una escuela fructífera.

Uztapide siempre reconoció la valía de Basarri. “Es hombre leído”, suele comentar con respeto y admiración.

La humildad de Uztapide es tan grande como su bondad y sus dotes de improvisador poético. En alguna de sus actuaciones llega a momentos de arrebatado, y entonces, para él, ya no existen oyentes, ni rivales, ni Jurado, ni dificultades técnicas, fluyéndole los versos espontáneamente, expresando sentimientos íntimos cargados de auténtica ternura y exentos de toda sensiblería. Así ocurrió en el torneo último en diversos pasajes, y sobre todo al desarrollar el tema final “Ama” (tema que, sorprendentemente, dejó de citar el locutor Egui-aundi al comentar la fase final del campeonato. (La Voz de Guipúzcoa, 31.12.62)

Pues hemos comparado a Basarri con Iparraguirre, bueno estará parangonar a Uztapide con Xenpelar y tan sólo por considerar a estos últimos como los representantes del bertsolarismo agreste y tradicional.

Es curioso que perviven las ideas y prejuicios antiguos. A Iparraguirre, los rústicos de su tiempo le tenían por “señorito” porque can-

taba con estilo y hacía música. Pues bien, esta misma tarde, un vigoroso abuelo de Oyarzun, comentando el tan sonado torneo último y declarándose acérrimo partidario de Uztapide, me decía, en tono entre admirativo y despectivo, de Basarri: “Ori solfeoko gizona da” (es un hombre de solfeo). El viejo Mathias caía en el mismo prejuicio de Xenpelar y seguidores con respecto al bardo de Villarreal.

En cierta ocasión, Iparragirre propuso a Xenpelar asociarse para ganarse la vida con la música de uno y los versos del otro. ¡Lástima que el renteriano no aceptara! La negativa, debió de molestar a Joshe Mari, quien le dijo “No aceptas porque eres incapaz de hacer versos con mis nuevas tonadas”. Xenpelar contestó rápidamente, en verso y con la música nueva de Joshe Mari:

Iparragirre abilla dela
askori diot aditzen.
Eskola ona eta musika,
ori oiekin serbitzen.
Atoz gure kalera
baserritar legera,
musika oiek utzita.

No sólo el amigo Mathias, que también entre algunos intelectuales hay prevención hacía el bersolarismo letrado y hacia la culturización de esta faceta poética, creyendo al bersolarismo consustancial con el analfabetismo, la haraganería y la inadaptación social. Por mi parte, siempre sostuve lo contrario. El bersolarismo es como la tosca piedra sillar de nuestra poesía en lengua eúskara; uno bien pulido puede convertirla en joya de brillo universal. La cultura podrá, en todo caso, hacer perder ciertas facultades estimables y sorprendentes propias de los analfabetos, como es la retención mental, pero en otros aspectos prestará al bersolari multitud de ideas y conceptos nuevos, enriquecerá su léxico (y mejorará el idioma), le pondrá en contacto con la literatura de todos los tiempos y de todos los países.

En este inesperado resurgir del bersolarismo hemos visto la influencia de la nueva escuela en poetas y público. De no ser de la excepcional categoría de Uztapide, el vate a modo antiguo no agrada ya como el joven bersolari que canta afinadamente y vierte expresio-

nes elegantes. El público de hoy y los jóvenes bersolaris actuales saben leer, leen y leerán cada vez más. Es inevitable.

En Uztapide veo el esplendor, la llamarada última de una Euskal-erria entrañable que se nos va por momentos. La cultura nos traerá una etapa nueva –puesto que al bersolarismo y al euskera les ha dado por no morirse– de poesía popular, de la que Basarri es el precursor.

Iñaki Eizmendi Basarrik ez zuen onartu bere lagun Ayalderen artikulua. Entzunak entzunda, berotuta zegoen, eta laster erantzun zion berak idazten zuen *La Voz de España* egunkariko orrietan:

En defensa propia

Por Basarri

Mucho se está escribiendo, y muchísimo más hablando, sobre el último Campeonato de Bersolaris celebrado en el Teatro Astoria.

Ayer mismo no pude ocultar mi sorpresa leyendo el artículo que escribió mi amigo Ayalde en el Diario Vasco. Las comparaciones siempre son un tanto odiosas y, la verdad sea dicha, me quedé de una pieza al ver que se me comparaba con el bardo Iparraguirre. Pero, vamos a ver: ¿es que puede haber alguno que crea que Iparraguirre fue bersolari, improvisador, repentizador?

Iparraguirre componía versos y los cantaba como los compositores que escriben música y luego la interpretan al órgano.

¿En qué litigios bersolarísticos intervino el bardo de Villarreal de Urrechua? ¿Qué temas le impusieron, cuántos pies forzados, cuántas terminaciones obligatorias?

Iparraguirre se merece el respeto y la admiración de todos por la inmensa labor que desarrolló valiéndose de sus espléndidos resortes, aunque estos no fueran, ni mucho menos, resortes de bersolari.

Hay que saber distinguir las cosas, ya que es de pésimo efecto mezclar el remo cuando se habla y se debate de pelota. Bien sé yo que el admirable Ayalde sabrá hacer la distinción necesaria, pero muchos lectores tienen un concepto equivocadísimo de las cosas. Para salir al paso de tanta superchería y falsedad que circula a través del país, es ineludible una confesión sincera y verídica.

El amigo Ayalde puede comunicar al viejo Mathias y a todos los habitantes del Globo que Basarri, desgraciadamente, es un ignorante en solfeo y música; incapaz de leer las notas del pentagrama. También

andan equivocadísimos quienes me creen un hombre culto, un hombre de formación, un intelectual.

La insignificancia que soy en la actualidad se la debo a los dones que me ha otorgado el Todopoderoso.

Sean todos los que me leen que Basarri solamente pisó la escuela hasta los once años de edad; que tuvo que abandonarla forzosamente al hacer su primera comunión, para atender a las necesidades de la familia. Quien tenga alguna duda puede llegar hasta Zarauz, donde le informarán al respecto.

¿Qué culpa tengo yo porque me haya gustado tanto la lectura y porque haya devorado tantos libros?

Doy constantemente gracias a Dios por haber sentido esta vocación detestando el analfabetismo y la ramplonería. Desde los diecisiete años de edad, que empecé a cantar en las plazas públicas, hasta hoy (49 años cumplidos), he puesto todo mi interés y toda mi alma en elevar un poco el verso improvisado. Sufría horrores con el bajo e intolerable lenguaje que empleaban los antiguos bersolaris en las plazas públicas. No acertaban a versificar sino atacándose mutuamente y en tonos muy groseros e impertinentes. Las borracheras, los latrocinios, los adulterios eran los temas de aceptación. Cuanto mayores disparates soltaban, más lo celebraban los oyentes.

Pero la gente de respeto, la gente de sentido común, la gente un poco culta, huía del bersolari. Este pertenecía a la última escala de la sociedad.

He podido comprobar que aún existen quienes opinan que el verso tiene que ser eso; que el bersolari ha de ser una especie de bufón, el hazmerreír de las gentes. Muy negro veo el horizonte de nuestro país si la tendencia de las gentes es favorable a este criterio.

Caros lectores míos, Basarri ha finalizado su obra. No sé los años que me tendrá reservados el bondadoso Dios, pero he tomado la radical determinación de no participar nunca más en un certamen o en un campeonato de bersolaris. Siempre estaré dispuesto a laborar por la unión y confraternidad de todos los vascos, pero jamás dividirlos y enfrentarlos unos contra otros, como ha ocurrido en esta ocasión.

No negaré mi colaboración a los pueblos que me soliciten como número de fiesta, ni a cuantos actos se organicen para cantar en plan de camaradería con los demás bersolaris. Pero que no me hablen de

concursos y campeonatos. Bien está la “chapela” de campeón cubriendo la cabeza del gran bersolari y excelente caballero Uztapide. Pero mi misión está terminada. Queda campo libre para la juventud.

La posteridad me juzgará adversa o favorablemente. Lo que nadie podrá negar es que he puesto toda mi alma en una empresa que yo la consideraba muy notable.

Esta es la sincera confesión del más humilde autodidacta que suscribe esta sección de *La Voz de España*. Y, mientras tanto, la gente me censura por “letrado” y “músico”. ¡Así se escribe la historia!

Bere lagun minarekin sortu zuen eztabaidaren kontuak garbitu beharrez, Ayalde jaunak berriz idatzi zuen, 1963ko urtarrilaren 6ko *La Voz de España* egunkarian:

En Torno a Iparraguirre

Al parecer estuve poco afortunado al comparar a Basarri con aquel barbudo bohemio tañedor de guitarra, compositor y creador de canciones que fue Joxe Mari Iparraguirre. ¡Qué disparate! Iparraguirre no fue bersolari.

“En qué litigios bersolarísticos intervino el bardo de Villarreal de Urrechua? –pregunta Basarri–, ¿qué temas le pusieron, cuántos pies forzados, cuántas terminaciones obligatorias?”

Respondo sumisamente que creo que no debió de intervenir en ningún litigio de tal clase y que me figuro que jamás le impusieron esas obligaciones.

No, Iparraguirre no fue bersolari en el sentido que nosotros damos a la palabra, es decir, no fue un improvisador, aunque sí un autor de versos más o menos buenos, pero de una emoción, de una intención y sentimiento tales, que calaron hondamente en el pueblo.

Como Basarri puede figurarse, yo ya conocía la manera de actuar de Iparraguirre. ¿A qué viene, pues, la comparación? Yo sólo pretendía enaltecer la figura de Basarri al compararle con un personaje que tengo en gran estima y consideración, dada la influencia que su obra ejerció y ejerce aún en el país. Iparraguirre fue un aventurero, un romántico que recorrió el mundo llevando a sus paisanos expatriados, al conjuro de su guitarra, la emoción de los valles húmedos, de los

bosques dorados, de los solitarios caseríos patrios. Fue el creador de canciones aún vigentes en nuestros días, entre ellas el “Gernikako arbola”, que exaltaba la libertad, la universalidad, y la condena de la guerra, himno que hoy se escucha con respeto por gentes de diverso pensamiento y condición. Músico y poeta, fue un artista vehemente, con alma, que hizo vibrar a las multitudes.

Con mi comparación quise honrar a Basarri, no a Iparraguirre. Establecí hace años ese poco afortunado paralelismo porque he visto viajar mucho a Basarri (claro que en vuelos más limitados), siempre de un lado para otro, para asistir y organizar los juegos y deportes populares, las danzas al suelto, actuar de bersolari en las fiestas de los pueblos, etc. Como él canta muy bien, tiene una hermosa voz y gusta e influye en las gentes, por eso me atreví a compararlo con aquel señor de otro tiempo. Mil perdones. Barkatu.

Pero dejando ahora de lado esa “mezcla de remo” mía ¿qué otro pecado pudo haber cometido este continuo admirador y defensor de Basarri, tanto de su obra como de su persona? Porque en mi artículo todo fueron elogios para él, desde llamarle hombre providencial para el vascuence hasta decir que es el precursor de una etapa nueva de la poesía popular. Lo que yo ya no podía decir es que en el concurso último, el fallo del Jurado me pareciera injusto, porque, como miembro de él, hube de someterme al sentir de la mayoría, que se inclinó por Uztapide por ocho votos contra dos, aparte de cuatro abstenciones o peticiones de empate, y, por tanto, de una nueva prueba decisoria.

Sinceramente creo que la respuesta de Basarri a mi artículo ha sido injusta y totalmente injustificada. Hay un párrafo en su escrito—cuyo título, “En defensa propia”, es ya improcedente, porque nadie le ha atacado ni ofendido— que quiero comentar. Dice así “Siempre estaré dispuesto a laborar por la unión y confraternidad de todos los vascos, pero jamás dividirlos y enfrentarlos unos contra otros, como ha ocurrido en esta ocasión”.

Se refiere, claro está, al certamen último. A mí me parece, y creo que a cualquiera, que no darle a él el primer premio no significa, ni mucho menos, un intento de dividir a los vascos ni enfrentar a nadie contra nadie. Cualquier otro bersolari no vencedor podría alegar lo mismo. Hasta el pensarlo resulta pueril.

No debemos olvidar que a las competiciones se acude corriendo el riesgo de quedar el segundo, o el último. Hay que estar preparados para todo, y las decisiones –aunque íntimamente nos parezcan injustas– deben de ser aceptadas, al menos, con serenidad. Anunciar una retirada definitiva de los concursos por el hecho de no haber ganado uno de ellos, puede hacer suponer que tal decisión no se tomaría de haber sido el fallo favorable.

Renuncio a seguir comentando otras particularidades de la respuesta de Basarri. Yo espero que se serene y que no tome demasiado a mal estas cosas que aquí digo, y que, tal vez, algo desagradables, no como las de mi artículo anterior. Mientras tanto, yo estrecho efusivamente la mano que, desde la página de su periódico, nos ofrece un joven bersolari a quien siempre he admirado.

Eta bigarren idazlan honi ere azkar erantzun zion Basarrik, 1963ko urtarrilaren 16an:

Puntualizando las cosas

Por Basarri.

Es bien desagradable el hecho de que dos amigos que tan bien se quieren y se aprecian mutuamente, se vean obligados a enzarzarse en una polémica periodística.

Su primer artículo, como todos los suyos, estaba muy bien escrito y tenía un fondo admirable. Yo aproveché aquella comparación con Iparraguirre, no para dejarle a usted en mal lugar, sino para hacer una confesión sincera y verídica, puesto que estaba al tanto de las inexactitudes que circulaban por el país. Me tiene que perdonar, admirado Ayalde, por haber escogido su magnífico artículo para una confesión propia. Bien decía que usted sabría hacer las distinciones necesarias. Me dirigía al público en general, para que tuviese un conocimiento exacto de la realidad. Eran tantos los que me consideraban como músico, o con formación universitaria...

Ahora, nuevamente, vamos a hablar en plan de franca camaradería. Los que asisten a un torneo de bersolaris, los oyentes, no se dan cuenta del proceso interno de los concursantes. La tensión de los nervios, el sufrimiento moral, la inexplicable angustia... Aunque exteriormente aparentemos otra cosa, la procesión va por dentro, como vulgarmente decimos.

Se habrá dando cuenta, amigo Ayalde, que este año, un trío de bersolaris de primera línea no compareció en la semifinal de Eibar. Me refiero a Lasarte, Lizaso y Aguirre. Por evitar, sencillamente, todo esto que voy expresando; por no pasar el suplicio que comento. Si el nerviosismo tanto influye en un pelotari o en un aizkolari, que van a exponer sus facultades físicas, en un cantante, acordeonista o chistulari, que va a ejecutar en un concurso o campeonato la partitura estudiada, figúrense ustedes lo que es el ejercicio cerebral del bersolari, que desconoce en absoluto por dónde ha de empezar y terminar; los temas que tendrá que desarrollar, los pies forzados o las terminaciones obligatorias que le tocarán en suerte.

Uno que está al margen, uno que no pertenece a la familia bersolari, no se imagina lo que se habla y comenta entre nosotros. Porque los bersolaris, gracias a Dios, salvo algún aisladísimo caso que confirma la regla, como acertadamente apuntaba ayer el gran Arteché, constituimos una familia ejemplar; nos queremos mutuamente: somos verdaderos hermanos.

Quien menos ganas tenía de participar en el último campeonato era el amigo Uztapide. En dos o tres ocasiones me insinuó que estaba por no presentarse.

Yo estaba obligado a poner en juego el título. Y tengo una satisfacción indecible en haberlo entregado a ese gran bersolari y caballero que se llama Uztapide.

“Anunciar una retirada definitiva de los concursos por el hecho de no haber ganado uno de ellos, puede hacer suponer que tal decisión no se tomaría de haber sido el fallo favorable”

Aquí disentimos radicalmente, admirado Ayalde. Si tanto me halagara el título o la boina de campeón, creo que aún me queda una mínima posibilidad de poder recuperarla, de prodigarse mucho los campeonatos. Pero mi determinación está tomada tras madura reflexión. Tan contento, mejor dicho, más contento que antes, me hallo en el puesto que ocupo.

La Fandería, de Rentería, tiene el proyecto de organizar en el Frontón Beotibar de Tolosa, un gran festival de bersolaris. No será un concurso, ni menos un campeonato. Un técnico, un miembro del jurado en la última competición, el amigo Bordari, se encargará de establecer los temas, así como los pies forzados. Habrá similares ejerci-

cios; se parecerán a los del campeonato, pero los bersolaris actuaremos con otra tranquilidad, con otro estado de ánimo.

Usted sabe, caro Ayalde, que en el país vascofrancés se prodigan esta clase de festivales. Precisamente tengo sobre mi mesa de trabajo una cariñosa carta de Urrugne. Me ruegan participe en el “Día del Bersolari”, que se celebrará en la mencionada villa el día 17 de febrero.

Para el festival de Tolosa fui el primero en dar mi asentimiento y haré lo posible para asistir a Urrugne.

Quiero decir con todo esto, sin necesidad de concursos y campeonatos, se puede mantener viva la afición y se pueden organizar festivales de primer rango. No niego, por otra parte, que los concursos celebrados en Vizcaya, Navarra y Guipúzcoa han influido notablemente en el resurgimiento del bersolarismo, y que la Academia de la Lengua Vasca se ha apuntado un gran éxito con los mismos. En varias ocasiones ha recibido la Academia mi efusiva felicitación, y una vez más se la quiero hacer patente.

“Hay que estar preparados para todo y las decisiones deben ser aceptadas, al menos, con serenidad”.

Sí, amigo Ayalde. Yo fui preparado para todo, y con toda serenidad felicité al gran campeón y acepté el honroso segundo puesto. Cualquiera puede tener un mal día, y debe ser así, aunque me hubiese correspondido el cuarto lugar, lo hubiere aceptado con serenidad.

Muchas veces, lo que le hace perder a uno la serenidad no es el fallo del jurado, sino las habladurías de la gente; el propalar noticias falsas, el tergiversar las cosas, el sembrar la confusión y el desorden. Es lo que ha ocurrido, desgraciadamente, en esta ocasión, sin que usted ni yo tuviésemos la menor culpa.

En mi caso particular, no veo la necesidad de padecer tantos sinsabores y disgustos con anterioridad y posterioridad a los campeonatos. Mi temperamento es totalmente pacífico. Y el amor y la confraternidad son mis postulados. Existen en sumo grado en el seno de la familia bersolari, y por nada del mundo quisiera enemistarme con ninguno de ellos. Ni con usted, caro amigo Ayalde. No hago más que exponer con toda franqueza lo que siento en el fondo del alma. Cada cual es muy dueño de sus actos.

Bistan denez, 1962ko Bertsolarien Txapelketak ekarri zuen istilu gogor hartan suhiltzaile-lan egoki bat inork egin izan balu, askoz hobe denentzat eta, batez ere, Basarrirentzat. Euskal Herriko bertsoaritzan hainbat lan egin zuenak ez zuen halako tratu txarrik merezi inola ere. Baina gure arteko txapelketa eta norgehiagokak horrelaxe izaten dira, askotan. Lehiaketa edo norgehiagokek alderdi txar hori badute, noski. Baina bai beste abantaila on asko ere. Eta alderdi biak kontuan izanez, txapelketak onuragarri izan direla aitortu beharra dagoela uste dugu.



Uztapide eta Basarri. Tolosa, 1945.

1968: 100.000 pezetako saria

1960, 1962, 1965 eta 1967ko Bertsolarien Txapelketa haietan parte hartu nahi izan ez zuen beste bertsolari asko zegoen, noski. Adibidez, hantxe zeuden Manuel Lasarte, Joxe Lizaso, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, eta abar. Eta eten hura konpondu nahirik, edo lehenago atzera gelditu zen zenbait bertsolari gozatu eta bere mailan jartzeko asmotan, 1968ko otsailaren 4an eta 11n, ehun mila pezetako sariketa haundia antolatu zuten, Donostiako Anoeta pilotalekuan (gaur Atano III). Eta hamasei bertsolari bildu eta bi taldeetan banatu zituzten, honelaxe:

Txirrita taldea: Joxe Agirre, Manuel Lasarte, Mattin, Xalbador, Lazkao Txiki, Jon Azpillaga eta Jon Mugartegi.

Xenpelar taldea: Basarri, Arozamena, Lopategi, Joxe Lizaso, Mitxelena, Garmendia, Lazkano eta Xanpun.

Epaimahaiko, berriz, Xabier Amuriza, Juan Mari Lekuona, Juan San Martin, Mitchel Itzaina eta Jose Mari Satrustegi izan ziren, aurrekoek baino epaiketa-lan hobea egin zezaketela pentsatuta. Aurkezpen eta gai-jartzea Joxe Mari Iriondok egin zuen.

Lehenengo taldeak –Txirrita taldeak– otsailaren 4ko goizean kantatu zuen; eta Xenpelar taldeak, arratsalde, egun berean.

Puntuak jendearen bistan eman zituen juraduak, bertsolaritzaren historian lehenengo aldiz, oso oker ez bagaude, horrela egokia izango zela ustez. Baina ez dirudi besteak baino epai-molde hobea zenik. Bere defendatzailek sutuenek ere atzera egin zuten behintzat gero. Hala, 1985ean Euskaltzaindiari zenbait bertsolarik eskatutako ezinbesteko lege horrek laster egin zuen porrot, txapelketako antolaketa-lanak Bertsolari Elkarte zeritzonaren eskuetara pasatu baziren ere.

Dena dela, joanak joan ziren, eta 1968ko lehiaketa hartako Basarriren bertsoak eskaini nahi dizkizut orain. Eta, nonbaitetik hasteko, puntutan egindako saioa gogoratuko dizut lehenengo:

Iri: Festarik festa dabilz
gaur bertsolariak.

Bas: Errezegi gabiltzala
gaude igarriak.
Irtetzen dira bertso
ikaragarriak;
gurekin ezpaitauka
giro Euskalerrriak.

Iri: Idia adarretik,
saio au itzetik.

Bas Ni ez naiz ibiliko
iñoren atzetik.
Jaunak libra gaitzala
bear eztan gaitzetik.
Agurtuko zaituztet
biotz-biotzetik.

Saio honetan, batetik seirako puntuazioa eman behar zuen epai-mahaikide bakoitzak. Eta Basarrik 41 puntu lortu zituen, guztira. Lazkanok, 40 puntu. Arozamenak eta Lizasok, 36na puntu.

Hurrena, berriz, ofizioa eman eta bi-bitara egin zuten bertsolariak, bikoak zozketaz erabakita. Basarri eta Garmendiari elkarrekin kantatzea egokitu zitzaaien, gai hau erabiliz: Basarri, banku bateko kobratzailea da. Garmendia, fabrikako nagusia. Basarri, letra eskuan hartu eta kobratzera etorri zaio; baina erantzun ezin Garmendiak, letrarik ordaindu ezin inola ere.

Bas: Nolabait ere beztu bearra
dadukat nere kopeta.
Sentimentu bat daukat aspaldi
zureganako gordeta.
Diretorian aurrian kontu
eman bearra det eta,
ai, Garmendia, paga zaidazu
entrega dizudan letra.

- Gar: Fabrika bateko nagusia naiz
ta badakizu ze legez.
Krisis garaia etorri zaigu,
beteta nago naigabez.
Garai batean banun dirua,
momentu ontan ezer ez.
Kristaua baldin bazera, piska-
tez zuk itxogin, mesedez.
- Bas: Krisisa dago, ta Garmendiak
orixe garbi esan du.
Kobratzailliak orretan eztu
pekaturikan izandu.
Nere partetik eztet egiten
ez eman eta ez kendu.
Ni langille triste bat naiz eta
nagusiakin konpondu.
- Gar: Kontzientzitik garbi nago ta
nai nuke arrazoiz mintza.
Mundu onetan gizonarentzat
bai zorion ta bai gaitz da.
Neure partetik nagusiari
pasatu zaiozu itza,
danon artean partitutzeko
etorri zaigun krisisa.
- Bas: Zure itzakin negar malkuak
sortutzen zaizkit begian;
zauri aundi bat egin didazu
biotzan erdi-erdian.
Nik barkatuko nizuke zuri
sekulako errukian,
deskuido santuz baldin banengo
diretorian tokian.
- Gar: Zuk letra bat gaur neri ekarri
egundoko atsegiñez.
Momentu ontan gertatutzen naiz
ori ordaindu eziñez.

Langillek ere jornalik gabe
nolatan utzi nik miñez?
Ondo konpondu gindezke danok
alkarri lagun egiñez.

Guztira, 124 puntu metatu zituen Basarrik saio honetan; Txo-
minek, berriz, 120 puntu.

Gero, bakarka egin zuten bertsolariek, *Uso zuriarena* nahiz
Esne saltzailearena doinuak erabiliz. Basarriren gaia: Maitasuna.

Iñork ezpadaki're
egin beza galde,
zertarako gorde?
Emen bertsua dago
bertsuaren orde.
Munduko bazter denak
gerratan or daude.
Zenbat malko-jario,
zenbat atsekabe!
Eztago gauza onik } bis
maitasunik gabe. }

Maitasuna utzita
arrokeriz pil-pil,
iñor ezta umil.
Armak artuta ortxe
ainbat milla mutil.
Gure mundu kaskar au
oso gaizki dabil;
kulpa duten guztiak
atzetikan trankil.
Eta gertatzen dana: } bis
iñuzentiak il. }

Eta 85 puntu eman zizkioten Basarriri bakarka egindako saio
honetan. Goizeko talde hartan Manuel Lasartek lortu zituen adina-
xe, juxtu-juxtu. Joxe Lizasori, 75 puntu; Arozamenari, 74; eta
Lopategiri, 73 puntu.

Hurrengo bueltan ere bakarka egin zuten bertsoariak, doinu librean hiruna bertso boteaz. Basarriren gaia: Itsasoan ontzia hondatu zaizu, eta ohol zahar bati helduta zaude, itoko ez itoko.

Gertatua nazute
desgrazi aundikua;
ta dana esatera
oraintxe nijua,
ondoratu dalako
Basarrin barkua.
Ol zar bat gertatu zait
nola alakua.
Erruki zaite nitzaz,
nere Jaungoikua!

Biziaz ateratzen
eztaukat erreza.
Nere alde zeiñek ingo
luke gaur trabesa?
Doi-doi larririk nabil,
eta jakin eza.
San Antonio, egiten
dizut nik promesa:
aterako dizkizut
berrogei bat meza.

Berriro ere zerura
egiten det otoitz,
gertatu zaidalako
oinbeste zorigaitz.
Ai! gure modukuak
arriskua du maiz.
Jauna, abisatutzen
dizut, arren!, garaiz:
zeure eskutan artu
ondoratzen banaiz!

Saio honetan Migel Arozamenak tabakoari bota zizkion bertsoak izan ziren punturik gehien lortu zutenak; eta Basarri izan zen bigarrena.

Horrela, bada, igande goizeko saiotik honako hauek pasatu ziren otsailaren 11rako: Uztapide eta Lasarte, 367na punturekin; Mattinek 356 lortu zituen. Eta Xalbadorrek, 346 puntu. Arratsaldeko saiotik, berriz, beste hauek: Basarri, 374 punturekin; Arozamena, 362 punturekin; Jon Lopategi, 347 punturekin. Laugarren Mitxelena, 344 punturekin.

Eta halaxe etorri zen 1968ko otsailaren 11ko saioa ere. Haste-ko, bertsolari denek libre-librean egin zuten lehen agurraren ondoren, bina punturi erantzun behar izan zioten.

Honatz berriro ere Basarriren bertsoak:

Iri: Aberats izan baiño
izen ona obe.

Bas: Diru orrek ematen du
milla atsekabe.
Xentimoik eztegu ta
ain gustora gaude.
Au zero txiki bat da
dudarikan gabe.

Iri: Beti ongi nai duna
sarri gaizki dabil.

Bas: Euskaldunan izakera
oraindik ezta il.
Zar eta gazte, aundi,
txiki, neska, mutil,
gauza au ikusita
txoraturik nabil!

Saio honetako puntuak honelaxe banatu zituen mahaiak: Mattinek, 46 puntu. Basarrik, 45. Uztapidek, 44 puntu; Lasartek, 43. Arozamenak, 41; eta Xalbador eta Mitxelenak, 40na puntu.

Hurrengo eginkizuna, binaka eta ofiziotan bete behar zuten, bikoak zozketaz erabakita. Basarri eta Mitxelenari elkarrekin lehian jardutea egokitu zitzairen, hiruna bertso botatzeko gaia hauxe zutelarik: Hemengo bizimoduaz aspertuta, Basarrik Ameriketara joan

nahi du. Mitxelenak, berriz, Ameriketarik Euskal Herrira itzuli nahi du, han oso aspertuta dagola-ta.

Bas: Negar malkuak aixa datozkit,
nago illun ta serio.
Erri maitia, gogozko zaitut
baiña nun det alibio?
Lanikan ez ta gutxi irabazi,
borondatek ez balio.
Amerikara joan bearra,
ia, zer erremedio!

Mtx: Ameriketan gaudenak ere
badaukagu geure kezka:
emen gabiltza lengo kabia,
ai, bagenduke! galdezka.
Euskaldunentzat lana ta arrazoi
txarrak bakarrik daudez-ta,
emen gaudezi negar malkotan
joateko dirurik ezta.

Bas: Pasa bearra daukat derrior
Atlantiko arrigarria.
Malko mingotzez estalitzen da
Basarri zarran begia.
Emaztea ta lau seme-alaba,
naiko famili aundia;
nunbait ere nik irabazi bear
eguneroko ogia!

Mtx: Nik naio nuke baldin banengo
lenagoko sorlekuan!
Uste genduen intxaur betiak
oi ziradela kanpuan.
Onuntz etorri, gose ta egarri,
begiak erdi malkuan.
Naiago nuke gaur banengoke
neu sortu nintzan lekuan!

Bas: Asko poztuko nintzake ni ere
al bazindezke etorri;
baiña ni Ameriketán nago
nere lurraren egarri.
Sortuagatik toneladaka
zillar eta urre gorri,
sekula etzaitut iñoiz aztuko,
biotzeko Euskalerrí!

Mtx: Ameriketak izena dauka,
baiña ezta iñorentzat;
emen arrosa uste ta joan da
billatzen da arantzetzat.
Nik oi sufritutzen det neronek
ta esaten det danentzat:
emen bertan do Ameriketa
zintzo jokutzen danentzat.

Begira nola banatu zituen puntuak epaimahaiak: Basarriri 118 puntu eman zizkion; eta 117 puntu, Mitxelenari.

Gero doinu jakinean bina bertso botatzeko Basarriri eman genion gaia: 18 urteko neskatxa bati bi bertso, Basarri. Doinua, berriz, *Uso zuriarena* edo *Esne saltzailearena* erabili beharko duzu.

Kantatu bear dizut,
nere aingerua,
nere aingerua.
Begiratuta mende
daukazu zerua;
baiña jokabidea
ezta segurua:
emezortzi urtetan
etzaude eldua.
Deskuidatzen bazera } bis
betiko galdua.

Emezortzi urteko bat
 nork eztu maiteko,
 nork eztu maiteko?
 Garbitasunikan zuk
 nola ez beteko?
 Ondatutzen bazera
 zeuretzat kalteko,
 biar-etzi aldarera
 osorik joateko.
 Saiatu zaite ama }
 ona izateko. } bis

Hurrena, berriz, gai bati buruz hiruna bertso bota behar zuten
 bertsolariek, baina bakarka. Basarriri gai hauxe eman genion: Base-
 rria utzi eta kalera joan zinen behin batean. Baina orain lanik gabe
 zaude kalean. Zer egin?

Ara nolatan etorri leiken
 gizon batentzat katia.
 Mesede zala uste nuan ta
 egokitu da kaltia.
 Baserrian triste nenbillen,
 neke gogorrez betia;
 orain kalian kostatutzen zait
 ogi koskor bat jatia.
 Ontara nola ekarri ninduzun, }
 nere Jaungoiko maitia? } bis

Eman zaidazu aurrerako ere
 bear dan pazientzia.
 Makiña batek artu bear du
 etsipena ta etsia.
 Lagundu ezkeror lurra or dago
 birtute onez jantzia.
 Gaur kalerako daukagu danok
 berebiziko antsia;
 makiña bati damutu zaio }
 len baserria utzia. } bis

Ederki nengon nere txokuan,
 danetatik maitatua.
 Griña txar bat sortu zitzaidan
 t'aren ezin barkatua.
 Kalerako asmo bizi bat
 zorigaitzian artua;
 an bukatu zan basarriko
 nere betiko tratua.
 Orain neronek pagatutzen det } bis
 egindako pekatua.

Orain arte egindako saio hauen ondoren, sariketarako alde zurretik hartutako erabakia bete behar izan zen: zortziko taldean hamar puntu baino alde gehiago izaten ez zutenek berriro jokatu beharko zutela; eta bigarren beste saioaren ostean, berriz ere bost puntu baino alde gehiago ez zutenen saria batu eta erdi bana eman beharko zela. Hamar punturen barruan sartu ziren Xalbador, Lasarte eta Basarri: Basarrik 364 bildu zituen guztira; Lasartek, 361 puntu; eta Xalbadorrek, 360. Gero Uztapide zegoen 352 punturakin. Baina hiru lehenengoak hamar punturen barruan zeuden, bistan dagoenez.

Hala, bada, kartzelako gaietan jarri genituen lehenengo hiruak. Eta Xalbadorrek kantatu zuen lehenengo, zozketak halaxe erabaki zuen-eta; Lasartek bigarren; eta hirugarren mailan, Basarrik.

Kartzelako gaiak: a) Gizona, hiru bertso. b) Neska bat maite duzu. Baina bere aita ezin zenuen konkistatu orain arte. Azkenik ere, neskatxak esan dizu aitaren baimena baduela; eta pozaren pozez tabernara joan eta han ikusi duzun gizon bati baso bat ardo hartu eta paparrean behera bota diozu. Gero ohartu zera neskatxaren aita zela. Hiru bertso.

Basarrik honako hauexek bota zituen, lehenengo gain:

Kantatu bear nuke
 al dan xamurrena;
 ola alaituko da
 Basarrin barrena.

Eman bearra daukat
gizon aitormena,
biotzaren onduan
anima duena.
Jainkuak egin duen
gauzik aundiena.

Bigarrena ere daukat
nik berealako,
unetxo ontan ala
komeni dalako.
Gauzak egin dituzu
klase guziraiko.
Jauna, nik esker ona
daukat zuretzako.
Eskerrak, bai, gizona
sortu zendulako!

Gure pekatua da,
o Jauna, aundiña,
nik esan gabe ere
munduak dakiña:
gurutze batian il,
zu bait ziñan fiña!
Guk itza ederra ta
ikusit eziña.
Ondo bear genduke
kristauak bagiña.

Kartzelako bigarren gaiari Basarrik bota zizkion bertsoak:

Ola izaten dira
munduko kasuak;
amaika disgusto txar
badauzkat jasuak.
Neskatxarengana eman
nituen pausuak,
eta maitatzen nindun
aingeru gaixuak!

Zer eragozpen jarri
bear gurasuak?

Bigarren bertso ontan
artu danok nota:
urrengo egunian
tabernan errota.
Guztiok an jarriak
gu bero-bero ta,
deskuidatuta kolkuan
nik ardoa bota!
Ori barkatzekua,
eztio inporta.

Irugarrena dijua
Basarriren autik;
sinismen artu zazute,
ai, guztiok gaurtik.
Neska txoragarria,
jetsia zerutik!
Aita zarra, ezazu egin
orrelako faltik.
Alaba eman gabe ez utzi
ardo tantagatik

Guztira, 125 puntu eman zizkioten Basarriri lehenengo saioan, eta 113 puntu, bigarrenean. Denera 602 osatu zituen, bada. Xalbadorrek baino 4 puntu gehiago, juxtu-juxtu. Beraz, sariketarako alde zuretik finkatutako arauak beteaz, lehenengo eta bigarren saria pilatu eta erdi bana jaso zuten Basarririk eta Urepelekoak: 75.000na mila pezeta haundi bakoitzarentzat. Lasartek, berriz, 40.000 pezeta jaso zituen, hirugarren saria horixe zen-eta. Laugarren mailan Uztapide sailkatu zen, 352 punturekin; bosgarren, 349 punturekin, Jon Lopategi; seigarren, Mattin, 348 punturekin. Hurrena, Jose Joakin Mitxelena, 341 punturekin; eta zortzigarren Migel Arozamena, 317 punturekin. Bertsolari denek izan zuten saria. Bestalde, lehenengo igandean atzera gelditu ziren bertsolariei bosna mila pezeta eman zitzaizkien.

Ordu arte bertsotan sekula egundo izan ziren saririk onenak izan ziren 1968ko sariketa hartan, ezbairik gabe; eta, gero jarraipenik izan ez bazuen ere, sona haundiko sariketa izan zen.

Sariketa hartarako diru-babesa Orioko Onena pentsu-etxeak jarri zuen; eta hari eskerrak emanez bertso bana botatzeko eskatu genien azkeneraino iritsi ziren hiru bertsolariei. Honatx eskerrak emanez kantatu zituztenak:

Bas: Izketarako bear
genduke kemena;
orain ez naiz izango
ni lengo laurdena.
Orrek bai jarri dula
gaur emen ordena!
Pentsu etxetan ere
fama du *Onena*.

Xal: Eginkizun onek badute
beti bere ondorena;
ta ni etxe baten famatzeko
harturik nago ordena.
Aise beituko zaitut nik orai,
etxe maitea *Onena*.
On asko izango dira baina
zu denetan hoberena.

Las: Ezer itz egiteko
ez nintzan aurrena,
baina saiatuko naiz
al dan ondoena.
Dana pakez bukatu,
au da ondorena.
Agur, ta abixatu
al dan azkarrena!

Bat-bateko beste zenbait bertso

Han eta hemen, herriz herri egindako zenbait saiotako bertsoak jasoko ditugu ondorengo orrietan.

Batez ere, 1960-1970 hamarraldian jaialdiz jaialdi jaso genuen zenbait ale, eta Euskadi Irratiari (Nikolas Aldai eta Joxe Alkain) esker bildu ditugun jaialdi batzuk hartuko ditugu gai. Txomin Garmendia, Joxe Mari Letxundi, Markos Manterola, Joxe Agirre, Juan Mari Narbaiza eta beste bertsozale askok gogoan gorde dituzten batzuk ere bildu ahal izan ditugu hemen. Eta denei eskerrak eman nahi dizkiegu, bihotzez!

Inazio Eizmendi *Basarri*, lehen ere askotan esana dugunez, irrati-gizona, kazetaria eta idazlea zen, Baina, batez ere, bat-bateko bertsolari haundia. Hitzetik hortzerako hizkuntzan maisu haundia, ezbairik gabe. Herriz herri, Euskal Herriko bazter askotan egindako ehunka saiotatik, honako hauexek bildu ditugu, ezinbestean:

1961eko urtarrilak 6

Egun hartan Bilboko Arriaga antzokian izandako jaialdian jasotako bertsoak dira ondorengo hauek.

Bertso-egarri haundia zegoen Bilbo aldeko euskaldunen artean, eta egundoko jendetza bildu zen Arriaga antzoki ederrean. Izan ere, goi-mailako bertsolari-taldea programatu zuten hango antolatzaileek: Uztapide, Xalbador, Balendin Enbeita, Mitxelena, Bautista Madariaga, Andres Narbarte *Xalto*, Azpillaga eta Basarri, alajaina! Ez ziren noiznahi elkarrekin ikus zitezkeen bertsolariak. Alfonso Irigoien zena izan zen antolatzaile, gai-jartzaile eta zuzendari. Basarrik bilbotarrei egindako lehen agurra:

Ezpañetara irten zaitea,
ene euskera kuttuna.
Danok ikasi al dezute ondo
Azpillagak esan duna,

kolpez gustora utzitzeko gaur
emen jende euskalduna?
Begoñako Ama, eman zaiguzu
bear dan argitasuna.

Lehen agurraren ostean, Azpillaga, Mattin eta Basarrik, hirurok elkarrekin, ofiziotan egin zuten saioa honelaxe izan zen. Gaia, hitzez hitz: Azpillaga da gizon ezkondua; Mattin, mutilzaharra; eta Basarri, gizon alargundua.

Azp:

Gaia artuta asi bearco
oraintxe zerbait esaten,
solterua ta alarguna gaur
nola etorri zeraten.
Iñola al bada andre on bana
artu nai luteke aurten.
Orain kontatu bear duzute
zer moduz bizi zeraten.

Mat:

Azpillaga da oraingo huntan
gure zirika hasia;
mutil ederra nola dagoen
gazteik hartu emazia.
Nik eztut eiten horrek bezenbat
bronka edo edatia.
Horrena baino librego da
mutilzaharraren etxia.

Bas:

Nik emazte bat banuen berriz
goxua eta kuttuna,
mundu ontako urre guztiak
ondo balio zituna.
Ogeita amabost urterekin
gelditu naiz alarguna.
Orain ta gero egin dedilla
gure Jainkoak nai duna.

Azp:

Alargun danak pena daukala
au ez degu ukatuko;
bainā mutilzar onentzat beste
itzik badet eratuco.
Andreak bezin ondo eztizu
iñork oirik berotuko.
Ezkondu zaite al dan azkarren
ta etzazu damutuko.

Mat:

Hik ere ondo ezagutzen'tuk
gazte ezkondu hoi en faltak.
Festa frango ibili behar
baitute ama ta aitak.
Ume batek trajia falta,
besteak berriz galtzetak.
Izertu ederrik hartu behar dik
ezkonduaren kopetak.

Bas:

Famili on bat nik izan nuan
gure Jainkoak emanda.
Gau illunian bizi naiz orain;
au bizimodu txarra da!
Bainā mutilzar au kontsolatu
nai det nik ere, al bada:
oraindik gaztetxo daukat bainā
gordeko dizut alaba.

Azp:
Etxian daukan gauzik onena
eskeinka da alarguna;
len ere garbi jakin da emen
zertsu bizi dan daukana.
Baiña mutilzar onek'e neri
ematen ditana pena:
otzik kalean izan omen da
mutilzarraren azkena.

Mat:
Bien artian ezarri naute
frango ateka ertzian.
Ezkondu hori atera nahia
askotan dago etxian.
Andria hasten zaio aldetik
bronkan eta erasian.
Mutilzaharra festara doa
berak nahi duen guztian.

Bas:
Askok eztute konprendituko,
ai, alargunaren penik.
Jakiñian ez leike egon
ur ortan pasa eztanik.
Bere berririk gabe eskeintzea
oso gaizki egin det nik.
Nere alabak eztu maiteko
kalbo zabala duanik.

Azp:
Au esan bear, alargunakin
ezin da entendituta,
berak lenguan festara esan du
joaten da presak galduta.
Gero andikan goizalderako
etxeratu mozkortuta.
Azken arnasak botako ditu
sastrakan baten sartuta.

Mat:
Azkenian berotu naute
bien artian ezkontzeko;
Basarri jaunak alaba on bat
omen du enpleatzeko.
Burutik soila harek ere eztu,
naski, deusikan galtzeko.
Halako zerbait beharko nuke
arrazza kanbiatzeko.

Bas:
Gaur Bilbaora etorri gera
jarri dituzten pesteta;
uste ez dala sortu da emen
makiñatxo bat nasketa.
Nere alaba azia dago
izardi asko kostata;
oneri nola emango diot
metro ta laurden ezta-ta.

Bakoitzak hiru bertso botatzeko gaia eman zien ondoren Iri-goienek denei, banaka-banaka. Baserriri jarritako gaia: Aita baten esanak oraindik haurra dan seme bati, bere bizitzan euskera estimatu dezan.

Guraso batek nere ustetan
au da egin bear duena:
seme-alabak berekin artu
al duenik goxuen.
Ta erakutsi gabe ez bedi
lasaitu bere barrena,
jainkotasuna lenbiziko ta
gure euskera urrena.

Aita ta ama zeraten danok,
ekin sendo eta bero.
Pena izatea alperrikan da
denbora joan da gero.
Itsasorikan ezpaldin bada
arrairik ezin espero.
Euskalerrriak zer balio du
euskera galdu ezkerok?

Urte auetan galtzen ari da,
begira danok noranai.
Erremedio bada oraindik,
ta oraintxe degu garai.
Euskera ama maite, zuri guk
esan nai dizugu, bai!
Zu il ezkerok guk eztegula
lur santu ontan bizi nai

Aspaldi ontan sartu baizaio
ain naigabezko zaputza,
lurpera ortxe dijoa eta
askotan geronek bultza.
Bere tokian ikusi dedin
gu euskaldunon izkuntza,
Jaungoiko maite alguztiduna,
egin zaiguzu laguntza.

Tolosan, 1962ko martxoak 18

Bertso-jaialdia antolatu zuten Tolosan, eta Uztapide, Basarri, Jon Azpillaga eta Joxe Lizaso eraman zituzten bertсотara. Gai-jartzaille, berriz, Fernando Artola *Bordari* jauna izan zen.

Lehenengo agurra egin eta berehala, honako gai hauxe eman zien lau bertsolariei: Alde batetik, Basarri eta Uztapide, baserritarak izango dira, eta itzaiak. Bestaldetik, Lizaso eta Azpillaga txoferrak dira, kamioi haundi bana hartuta bide zabal eta estuetan dabiltzan txoferrak. Bakoitzak bina bertso.

Bas:

Berriro asiko dira
gaur bertsuak dantzan;
olako zerbait festa
Tolosan bear zan.
Azpillaga, egon zaite
entzun esperantzan:
txofertzan baiño naio
det askoz itzantzan.

Uzt:

Gu ibilitzen gera
eskubi ta ezker.
Zuena ere esan
bear degu laster:
ikusi izan ditut
makiña bat txofer
ibilitzen itzaiak
diran bezin oker.

Liz:

Itzai abek ezautzen
ditut aspalditik,
noizean bein jeitsitzen
dirade menditik.
Alare ez dira ibiltzen
beti eskubitik;
atzo're libratu ziñan
arrisku txarretik.

Azp:

Au ere esan bear det
bildurrikan gabe:
ezjakiñak dirala,
zertarako galde?
Korritzen degu emengo
trolebusen pare.
Zuek kamiñu erditik
bartzarrera alde!

Bas
Diru pixka bat dutela
ta erosi kotxia;
ezta errez jende oni
gaur aguantatzia,
ezpaitakite zer dan
zuzen ibiltzia.
Erdiak merezi dute
karneta kentzia.

Liz:
Basarri, ez da asi bear
alkargan burruka;
nola ibiltzen zeraten
etzazute uka.
Iriari jardute'ira
gaiñetik akulka;
ganauak pagatu bear
itzaiaren kulpa.

Uzt:
Gure faltak nai zinduzke
zuk adierazi;
baiña neurritik kanpora
ez gero emen asi.
Txofer ikasi baiño len
kotxia erosi.
Orregatik pasatzen da
oinbeste desgrazi.

Azp:
Au esatera ere
bainaute beartu,
izan ere gu emen
baigera alkartu.
Era dan tokietan
tabernara sartu.
Gero kamiño batean
ezin da kabitu.

Lehenengo saioaren ondoren, berriro ere lau bertsolariak elkarrekin jarri zituen bertsoan Bordarik, gaia hauxe emanda: Basarri eta Lizaso artekariak edo korredoreak dira. Uztapide eta Azpillaga, berriz, apustulariak. Bina bertso, berriz ere.

Bas:
Garbi emango dira
emen seiñaliak,
ez gera disimuluan
ibilizaliak.
Aspalditxoan gaizki
gu korredoriak.
Txartel asko dauzkagu
kobratu gabiak.

Liz:
Korredoretzan gabiltza
aspaldian jo ta ke!
Txartelak kobra ezinda
orrenbeste neke.
Jokua egiten dute
gezurraren truke.
Abekin argi samar
ibili liteke.

Uzt:

Abek ibiltzen dute
milla enbusteri;
tarteko pekatua
jarriko'et agiri:
kobratzen ari ziran
euneko amabi;
aurretik kobratuta
daukazute ori.

Azp:

Zelakuak diraden
jarri agirian:
Uztapidek esan du
nolakuak dian.
Pelotariak erosi
juan da segidan.
Orrelakorik ez dago
Jainkuan legian.

Bas:

Aspaldian izan dira
milla nobedade;
artzeko galankikin
triste asko gaude.
Ezagutu ez bagiñu
geuretzako obe!
Jokatzeko beti pronto
xentimorik gabe.

Liz:

Berriz'e orruntza nua
poliki-poliki;
gure auzi gogorra
orra erabaki.
Abekin tratatzen dunak
zer diran badaki:
dirua gutxi eta
txartela galanki.

Uzt:

Sesio polita zegon
emen sortzekua,
au bai dala buruan
ongi sartzekua:
Beti daukate txartela
ustez saltzekua.
Guk ez degu zorrik eta
abek artzekua.

Azp:

Bestien gaitzak eta
segi'ituzte gogotik,
bizi nai dutelako
oik gure lepotik.
Galdutzen deguela,
etzan orregatik.
Etxe bat badadukat
egaña jokotik.

Bas:

Lenguan estuasuna
Tolosan ikusi:
Latasan alde sartu
ziran bizi-bizi.
Gero diru kobratzera
nintzarian asi,
Arruiz baiño azkarrago
etxera igesi.

Liz:

Nik arrapatu nitun
kalian ertzian;
otsan asko egondu zan
lepotik eltzian,
gizona umiltzen da
dirua galtzian.
Pagatzeko agindu ziran
txekorra kentzian.

Uzt:
Itz egiteko ez gaude
oso apartian.
Obe ibili ez bagiña
iñoiz alkartian.
Eztegu irabazitzen
lautatik batian.
Trankil egon zaitezte
irabazi artian.

Azp:
Bein egindako utsak
kontatzeko gaude.
Lagunak ez bagiña
askozaz'e obe.
Gaur jokatuko degu
Atanoren alde.
Iñoiz joanak gera
bate kobra gabe.

Uztapideri bizpahiru puntu jarri zizkion gero; eta, berriz ere, lau bertsolariak elkarrekin ipini. Gaia: Batzuek arrantzaleak eta besteak nagusiak. Nagusiak, Azpillaga eta Basarri izango dira. Arrantzaleak, Uztapide eta Lizaso. Baina ez dira itsas-arrantzaleak, erreka-koak baizik. Nagusiak, erreka alperrik galdu duten Papelerakoak dira.

Bas:
Len goi samar giñanak
azkar goaz bera;
aspaldiko urtetan
oso larri gera.
Ez dute ontzat artzen
gure jarduera,
baiña tristexe zio
gure Papelera.

Azp:
Onek arkitu dira
arrantzale piñak.
Ortik ote dituzte
diruak egiñak?
Gure pabrika kentzen
onen alegiñak.
Papelak aiña ematen
al du amorraiñak?

Liz:
Nik itz egin nai nizun
alakoren baten,
gauzak esaten sarri
ezpaita jakiten.
Errekari ez diote
gauz onik ematen.
Benenoik gabe eztaki
papela egiten.

Uzt:
Asmatutzen dituzte
abek aitzakiak,
baiña guk erre kara
dauzkagu begiak.
Beneno botatze oiek
ez dira egokiak.
Agur garai bateko
gure izokiak.

Bas:
Errekak benenuak
dituela galdu.
Ortara jarria gu,
geuk daukagu damu.
Kulparik gabe asko
artzen dute kargu.
Zerbait egin bearra
guk jango badegu!

Azp:
Esan bearra daukat
itza degularik:
arrantzaliak dira,
eztago dudarik.
Abek eztute beiñere
jaten okelarik.
Baña len ez gendun jan
onen angularik.

Liz:
Basarri, jarri zaituz
erreparatuzten,
arrantzale koskorrak
nolatan gabiltzen.
Gaixo asko ziraden
orrekin sendatzen.
Amorrai ona ezta
diruaz pagatzen.

Bordarik, berriz ere, elkarrekin jarri zituen lau bertsolariak, gaia honelaxe jarrita: Gu bizi geran herria zeharo nahastu zaigu. Eta, hain xuxen, herri hontako alkatea Uztapide da. Lizaso, berriz, sekretarioa. Azpillaga, maixua; eta Basarri, herriko apaiz jauna. Zergatik nahastu ote da horrela gure herria?

Bas:
Zerutar jaunak egin ninduen
ni animaren karguko.
Oso bildur naiz ez ote diran
errian asko galduko.
Motiborikan izan ez banu
ez nuke autan artuko:
alkate ona izan bagendu
erririk etzan nastuko.

Azp:
Ni maixu koxkor bat besterik ez.
Zer nai dezute esatea?
Zeretzat aña azaldu dezu,
Basarri apaiz maitea.
Juez au berriz tabernan beti,
basoa ondo betea.
Gauza guztien kulpak dituna
izango da alkatea.

Liz:

Gure erriko apaiz jaun ori
degu olako iztuna;
maixua ere agindu batzuk
orrekin egiten duna.
Alkate jauna, guretzat dago
ain bizimodu astuna.
Errian degun maixua dago
euskerarikan eztuna!

Uzt:

Dotriñarikan ez dakiena
jarri dute erretore;
maixutat berriz or da bestia
gure izkuntzarik gabe.
Sekretaio au eginda dago
bizio guztien jabe.
Alkate onik ez da abentzat
edozein ipiñita're.

Bas:

Beraz, dotriña ez dakiena
jo nazu beko klasera?
Alkate jauna, etzait gustatu
zure ortikako asera.
Erria gobernatuko balu
kristau jatorren antzera,
auzo errira ez litzake ori
juango konfesatzera.

Azp:

Aldamenetik asi dirade
maixuaren faltak artzen;
baiña apaiza jatorra izanda
alare ez dute abonatzen.
Alkate ori zertan asi da
besteri konduta kentzen?
Bera ez dakit nola dabillen,
ez baidaki irakurtzen.

Liz:

Alkate jauna, gure errian
gauza onik ez espero.
Ez dakigu guk zertara, baiña
Donostira egunero.
Kontu aundiak zuk neretzako
dakazkizula illero.
Lau traje berri egin dituzu
alkate jarri ezkerero.

Uzt:

Apaiz jaun ori len asia da
alkatiaren kargura;
konfesatzera beregana ez da
orrek dadukan ardura.
Oraindik ere ez al zerade
zu eroria kontura,
gizonak jua izan dirala
gizonak diran lekura?

Bas:

Apaiz jaun batek etzun entzungo
olako desafiorik.
Gizona ez naizela entzun bear,
ezta erremediorik.
Baldin betetzen ezpazu, alkate,
erriko kondiziorik,
nigana etortzen bazera ere
eztezu absoluziorik!

Azp:

Alkate eta sekretaiuak
kulpak dituzte lepuan.
Igual sinistatuko dezute
bertso au esandakuan.
Naiz-ta erria ona eduki,
beti dago jaleuan,
sekretaiua ta alkatea
mozkorrak diran lekuan.

Liz:
Maixu tzar onek gaur egiten du
berak gizonen itxura.
Sartu zanian kilo aundirik
etzun ekarri pixura.
Pixkat loditu zaigula orain
gure errian kontura.
Kontentu ezpada juan dedilla
len etorri zan lekura.

Uzt:
Au ere esan bear dizuet
kostatzen ez dan kasuan:
irurak etorriak errira
bururik ezin jasuan.
Gaizki esaka or ari zaizkit
eguardiarte osuan.
Nai baldin banu irurak sartu
nezazke kalabozuan.

Saio honen ostean, berriz, nahi zuten gai eta doinuan bina bertso kantatzeko eskatu zien:

Bas:
Sarritan izaten degu
bertso eta txistu;
ilda dauden biotzak
nai ditugu piztu.
Laukote onek iñoren
kejarikan eztu;
esaten degun gauzik
ez beintzat sinistu.

Azp:
Jo ta su emen gabiltz
gu laurok lanian;
etzaitzela sartu
gure esanian.
Alkarrekin etorriak
gerade onian,
ta berdin juango gera
bukatzen danian.

Liz:
Aitortza egitia
nai nuke aurretik:
bertsolarien berri
dakite aspalditik.

Ez giñan ari kontra
egitiagatik,
nolabait ere broma
pasatziagatik.

Uzt:
Bertsotan emen ai gera
bi zar ta bi gazte;
asarretu ta aixkidetu
eiten degu laste.
Baiña entzule jatorrak
etzauzkagu triste.
Txalotzen ai dira guk
merezi ainbeste.

Bas:
Tolosako entzuleak
porta dira jator.
Txalo mordo ederrik
onuntza badator.
Iñoiz asarre-paperak
ein bear derrior.
Baiña makil autsiakin
ez sartu emen iñor.

Azp:
Makillarik eztegu,
ez gera errena;
gure konbertsaziua
gauza nabarmena.
Etzazutela sinistu
esan degun dena.
Laurotatik zar ori
daukagu txarrena.

Liz:
Kantatu degu zerbait
arrazoi egizko;
berriz ere, lagunak,
ez jarri bekozko.
Aurreko jendeak'e
oinbeste txalo jo.
Danori, entzule onak,
eskerrikan asko!

Uzt:
Gazte orrek argi dauka
bere memoria,
orain'e karga nigana
baita eroria.
Emen konpondu eziñik,
au da komeria!
Azpillagan dotriñak du:
zu pekataria.

Artikutzan, 1962ko San Agustinetan

Zaindariaren jaia zela-eta urtero bezala antolatu zuten bertso-saioa Artikutzan. Basarri eta Uztapide eraman zituzten, goiz eta arratsalde bertsoan egin zezaten.

Goizeko bertsorik ezean, arratsalde egin zuten saiotik honako hauek jaso dizkizut hemen.

Bas:

Egun aundia izango zala
oso bistakoa zegon;
zuen artera azaltzeko ni
txit deseatua nengon.
Lendabiziko, anai-arrebok,
biotzez arratsalde on.
Bertsoak entzun nai dituen
piskaten ixillik egon.

Uzt:

Goizian erten etxetik eta
bear nun zerbait laguntza;
egualdia're alakua ta
ipar-aiziak dit bultza.
Lendabiziko gaur urte bete
etorri nintzan onuntza.
Zenbat geiotan ikusi eta
ederrago Artikutza!

Bas:

Artikutzakin neroni ere
oso nago txoraturik,
ikusten baitet baso ta mendi
ta erreka inguraturik.
Mundu onetan tontoarentzat
sekula ezta konturik.
Ai, Donostiko erriak eztu
egin olako traturik!

Uzt:

Zuk esan dezun bertso neri,
Basarri, ein zait graziko.
Donostik etzun tratu orretan,
ez, gutxi irabaziko.
Ura seguratu eta dauka
bere denbora guziko.
Gaur artu bear izan bazuen
diruz etzun erosiko.

Bas:

Alde batera utzi dezagun
orain diru-kontu itza;
beste gai on bat artuta gero
ez ote gindezke mintza?
Ai, Artikutzan nere ustetan
gauzak xelebren dabilta:
altabozari eusteko ere
dute bertako apaiza.⁷

Uzt:

Apaiz jaunaren kontuan eztek
jarri ik gai bat motela.
Ta pentsatu zak beste gauza bat
ere nik jakin detela.
Ori esango dit bildurrik gabe
apaizak esan ditela:
emengo ume txikiak bate
euskeraz ez dakitela.

Bas:
Itz egiteko ekarri det nik
makiña bat borondate,
ta Uztapiden ateraldiak
indar ematen didate.
Artikutzako gaztetxoeri
eman nai diet gaur parte:
zerutan etzeatela sartuko
euskeraz ikasi arte.

Uzt:
Oraintxe bota deken bertsua
ere izan dek bikaiña.
Arritzekua dek erdera orrek
artzia Artikutz gaiña.
Atzenerako euskeraz aztu
emen ere, alajaiña!
*Aita Gurerik ez omen zekiek
pater nosterra* bai baiña.

Bas:
Gauza oiekin biotz guztia
jarritzen naiz naigabean.
Erri maitea, egun batez zu
sartua zorigaitzean!
Bertako danak itz egin naian
kanpokoaren klasean.
Gure izkuntza norik maiteko du
geronek maite ezean?

Uzt:
Len eztakien batek bear du
ikasitzen abiatu;
ta apaiz jauna, bearko'ituzu
aur maite oiek giatu.
Baserrik dio salbatzeko ere
ez litekela piatu!
Orregatikan euskera ikasten
bear litzake saiatu.

Ohitura zen bezala, lehenengo saio honen ondoren, Basarrik
puntutuan eraso zion, bat-batean:

Bas: Mudatuko al degu
pixkatxo bat gaia?
Uzt: Baneukan neronek'e
gauza orren naia.
Bas: Aurreko aldean dek
txit jende alai.
Uzt: Zer zala uste uen,
ba, Artikuzko jai?
Uzt: Ainbeste jendetatik
iñor eztek triste.
Bas: Ala dagoenikan
nik eztiat uste.
Uzt: Poza dek botatzia
iru edo lau txiste.
Bas: I ere etortze aiz
gauza auen eske.

Bas: Zer iruditua zaik
gaurko bazkaria?
Uzt: Luzia uken baiña
ederki jarria.
Bas: Ik ere artua dek
or betealdia.
Uzt: Etzaigu damutuko
onuntz etorria.
Uzt: Oillaskoa bai uen
ta naiko txanpaina.
Bas: Aiek danak bukatzen
bazan naiko lana.
Uzt: Ur freskua ere bai,
mendi onexek emana.
Bas: Bere partia badu
zar onek edana!

Bas: Kontzejalak jatorrak,
baita're alkatia.

Uzt: Ni nago txoramenez
ziaro betia.

Bas: Merezi litekek, ba,
esker ematia.

Uzt: Pena aundiena dek
emendik juatia.

Uzt: Ez al dituk lenago
jaun oiek eskertu?

Bas: Alare oraindikan
ezin nauk aspertu.

Uzt: Berriz etortzeko're
gu gatxaudek gertu.

Bas: Artikutza nun dagon
ik goguan artu.

Bas: Emango al diagu
geure despedida?

Uzt: Berriz emango bada
Artikutza jira.

Bas: Etorri nai genduke
guk olako tokira.

Uzt: Lastimaz gaur joan bear
ik oso urrutira.

Uzt: Urrengo urtian ere
artu naiko'ek parte?

Bas: Bai egonagatikan
erri au aparte.

Uzt: Pazientzia artu
zazute bitarte.

Bas: Agur, anai-arrebak,
ta ikusi arte.

⁷ Altabozari behar zen tokian eusten bertako apaiza baitzegoen.

Tolosan, 1962ko abenduak 9

Aldian behin antolatu ohi zituzten halako bertso-jaialdiak Tolosako Sakramentinotan. 1962an Uztapide, Basarri eta Lopategi eraman zituzten, Jon Lopategi ikasten hantxe egona zen-eta. Bazkalondoko giroan egin zuten bertso-saioa jaso dugu hemen.

Bas:

Argitasun bat eman deidala
zeruko Jaun laztanak;
lenago ere une ederrak
baditu guri emanak.
Onenbestexe merezi degu
gaur emen bildu geranak.
Guziori on dagizutela
bertako jan eta edanak.

Uzt:

Iritsi zaigu Tolosa onetan
kantatutzeko eguna.
Auxe da jende umilla eta
auxe da jende leguna!
Alde batera begiratuta
ikusitzen det laguna.
A zer nolako arratsaldia
pasatu bear deguna!

Lop:

MaiXu bi auek azaldu dute
barruan daukaten zaiña.
Nai nuke izan neronek ere
auek dadukaten maiña.
Eskerrik asko lendabiziko,
ain zan bazkari apaiña!
Bertso berritan izandutzen da
bertsolarien ordaiña.

Bas:

Maitar auetaz kanpo or dauzkat
gazte mardulak aurrian;
edertasuna ikusten degu
gaur Tolosako lurrian.
Gu guzioren bitarteko bat
dago Jaunaren aurrian.
Alkartasun au gorde olaxe,
o Santu Pedro Julian!⁸

Uzt:

Askorik ez dit erakutsiko
neri pentsatzen egonak,
ta esan egin bearko ditut
etxe onetako sonak.
Gizon aundiak badaude emen,
mutikoak'e bai onak.
Orain gazteak diraden auek
dira geroko gizonak.

Lop:

Gure Uztapidek nola dituan
esakera aintzagarriak,
onenbestian saiatu nairik
momentu oso larriak.
Gure aurrian gazte ta abar,
praile ain txalogarriak.
Oietxek dira gaur eguneko
Pedro Julian berriak.

Bas:

Gaur poz artu det Lopategi au
nik emen ezagutua;
Bizkai aldeko txapela dauka
bertso obetan artua.
Iaioa eta azkarra dala
nago ni konturatua.
Nabarmen dago etxe onetan
dala au edukatua.

Uzt:

Pozik entzuten ditut nik ere
Lopategin itz legunak.
Guri're eztingu kalte egingo
au bezelako lagunak.
Eskola gabe pasa giñuzen
guk gaztetako egunak.
Gero zartzian balio dio
gaztetan ikasi dunak.

Lop:

Berriro onuntz azaldutziak
barrutikan nau ni poztu.
Izotza ere zakarra zegon
baiña biotza eztit oztu.
Gaur egunian munduan zear
nere antzekokin nastu.
Emen ikasi nitun gauz onak
guziak eztitut aztu.

Bas:

O, Uztapide maitagarria,
buruz etzera debilla.
Orain esango dizut nik au ta
goguan izan dedilla:
gu gaztetan ez giñan ibili
jakintza on baten billa,
ta orain iñola ezin eman guk
Lopategiren kurpilla!

Uzt:

Zure bertsua entzundakuan
txaluak irtetzen zaizte.
Ikasten asi baziña zuk'e
ikasiko zendun laste.
Zu zeurekiko saiatu zera
ta eskolaz etzaude triste.
Pentsatuzten det badakizula
edozein frailek ainbeste.

Lop:

Entzun dezute gure Uztapiden
xelebrekeri goxua.
Onenbestian kantatutzeko
zeiñek ez dauka lausua?
Eta gaztiak sarri askotan
errutzen degu pausua.
Liburutikan etzun ikasi
baiña bertsotan maixua.

Bas:

Abixu eder bat bialduko det
belarriaren ertzera;
gu emen eta zu an Gernikan
inguruan bizi gera.
Bixita sarri egin ezazu,
arren, Gipuzku aldera.
Jator zerala ezagun dezu
eta konponduko gera.

Uzt:

Sinista zazu, zu Lopategi,
asko poztutzen naizela
ikusitzian Muxikatikan
Tolosara zatozela.
Gu asi gera ostua joaten
arbola zarrak bezela.
Poz bat daduka nere biotzak:
gaztiak badatozela.

Lop:
Nik ere nere sentimentua
gura dizuet bialdu,
ain biotz onez zeratelako
biok nerekin azaldu.
Bizkaian ere bertsolaritza
oraindikan ez da galdu;
baiña nik ez nun kantako iñoiz
berton ikasi ezpanu.

Horrela, bertsotan bero-bero ari zirela, doinua aldatu eta zortzi-ko txikian hasi zen Basarri, jaialdiaren erritmoa bizituz:

Bas:
Alai ibiltzen gera
erririkan erri;
Euskalerra guztiak
daki gure berri.
Lopategi, Uztapide
ta ni naiz Basarri.
Batzuk kanta ditzagun
gaztien pozgarri.

Uzt:
Bertsoz asten danian
gure nagusia,
gu ixiltzia oso
gauza itsusia.
Gazte jendia dago
entzuten asia.
Oiek poztiagatik
al degun guzia.

Lop:
Poza jarri nai degu
guk oien gogotan,
gogoz ibil ditezen
oraingo arlotan.

Alegre bizi beti,
gustora bertsotan,
eta euskera izanik
guztiok besotan.

Bas:
Beti izan zazute
euskeran moldia;
izkuntza ez eduki
barrenen gordia.
Doblatuko litzaiguke
gure abildadia,
Manuel, baldin bagendu
oien edadia.

Uzt:
Indarrak bajatzen ta
estutzen arnasa;
era orretan ezin
bizi leike lasa.
Guk'e len izan gendun
sasoi ta jolasa.
Edade ori zaigu
azkar asko pasa.

Lop:

Gauza ortan nik ere
auxe azalduko:
gazteakin mundua
ez dala galduko.
Ezin litezke izan
zar auen moduko,
baiña zartuko dira
ainbeste ein orduko.

Bas:

Gaztiak beti ematen
didate inbiri.
Ortatik sartu nai nik
iru edo lau ziri.
Urtiak pasa zaizkigu,
koloriak zuri.
Zeiñek artu lezaken
edertasun ori!

Uzt:

Pozetan bizi dira
sasoiko egonik;
seguru ez nago baiña
ala pentsatzen nik.
Gogoratutzen gera
urtiak juanik,
naiz gaztetan ez uste
zartuko geranik.

Lop:

Ez gera konturatzen
edadez sarritan,
naiz-ta ikusi arren
zar auek begitan.
Begira nola dauden
orain inbiritan.
Gazte ez gera izango
iñor bi alditan.

Bas:

Olako tokitan egin
litezke gaur lerrak;
erremeritu zaizkit
atzoko okerrak.
Jan ditugun platu danak
ain zeuden ederrak,
etxeko sukaldariei
eman, ba, eskerrak.

Uzt:

Atzo're egin giñuzen
otordu bikaiñak!
Zerbait esan liteke
berria dakiñak.
Basarrik ekarri onuntz
sekulako miñak.
Seguru sendatuko du
emengo txanpaiñak!

Lop:

Ni ere aritzen naiz
auen esanian;
emen izandu gera
danok afanian.
Eta oso gustura
jan ta edanian,
neurrik ezpaidegu
debalde danian.

Bas:

Basarri zarra, askatu
zure memoria,
goitik bera ez baldin bada
oso eroria.
Goizian Uztapide're
triste ta nagia.
Zuk ere bazenduen
txanpaiñan premia.

Uzt:
Pasatzen gera sarritan
jan ta edanian
etxetikan kanpora
juaten geranian.
Urrengo egunian
nola asi lanian?
Laguna're ongi ez
bat gaizki danian.

Lop:
Bertsotan gogor eta
lanian suabe,
bertsolariak ola
ibiltzen gerade.
Gaur gure trabeneru
ainbeste abade.
Bertsoak grazirik eztu
edanikan gabe.

Tolosako Sakramentinotan egindako bertso-saio honen azkenean, elkarri azken agurra egin zioten bertsolariak:

Uzt:
Jarraitu, Lopategi,
bertsozko langintzan;
jakingo degu nundik
noratan zabiltzan.
Gaur portatu zerade
gizon baten gisan;
eta Muxika aldian
ondo-ondo izan.

Bas:
Estimatuko zaitugu
ta maitasun aundiz;
zure izena aitatuko det
makiña bat aldiz!
Gaur ikusi zaitut lelengo,
dakitela, begiz.
Gustatu zera eta
azaldu azkar berriz!

Lop:
Zuekin ibiltzeak
ez dit egin kalte,
maixu paregabiak
biok baizerate.
Ez nuke izandu nai
arlotan aparte.
Agur biotz erditik
Donostira arte!

⁸ Sakramentinoen fundatzailea.

Donostian, 1963ko urtarrilak 12

Yon Etxaide idazleari eta Basarri eta Uztapide bertsolariei omenaldia egin zieten Donostiako Aita Mari elkartean egun hartan. Bazen han bertsoa, kantua eta soinua! Pepito Yanzi maisu haundiak soinua jo zuen bikain, bertsolariekin txandatuz. Euskal kantu zahar ederrik ere izan zen tartean. Jaialdi hartantxe Basarri eta Uztapide-ri grabatutako zenbait bertso hementxe duzu.

Uzt:

Arratsalde on! Entzule danak
bear ditugu agurtu;
t'emen dagoen lagun talde onen
maitetasuna agertu.

Eta zenbat poz guk artzen degun
aitortzeko gaude gertu.

Ain gaude famili onian eta
gu emen nola aspertu?
Merezi duten anai maiteak
bearko dira eskertu.

Bas:

Nik kantatzeko bururatuta
daukat nere esamiña.

Auxe da lagunarte ederra,
auxe da jende piña!

Merezi gabe erregali bat
badiguzute egiña.

Berriro ere zuek serbitzen
eingo degu alegiña.

Uzt:

Poz artzen degu bertsolariak
gu saritutzia ola;
esker utsakin ezin ordaindu
liteke ori iñola.

Baiña sinistu biotzetikan

txit samurtuta nagola.

Badakizute guk daukaguna
zuen eskuan dagola.

Bas:

Bein bear eta txoko eder ontan
nola baigeran gertatu;
lenago urruti bizi giñanak
une batian gertutu.

Nai bada ixillik egongo gera,
eta nai bada kantatu.

Berriz'e premiz izan ezkeru
gu biorekin kontatu.

Uzt:

Zuek serbitutzeko gaude gu
gutzizko borondatian.

Nik uste nuen sartu nintzala
emen zeruko atian.

Eta ixillik egondu gera
lenago pixka batian.

Kantatu gabe nork iraungo du
olako anaiartian?

Bas:

Ai, arrats onek izan lezake
makiñatxo bat garrantzi;
talde jator bat dagon tokian
danok txapela erantzi.
Danak batera esan gabetan
obe pixka baten utzi;
txanda egiteko soiñuarekin
or dago Pepito Yanzi.

Bai, esan bezala, Pepe Yanzik bere saioa egin zuen soinuarekin, maisutasunez. Eta ondoren, berriz ere, bertsolariak hasi ziren kantari, bertsozaleak eske zeuden-eta:

Bas:

Kantatu bearra daukat
luze edo motxa;
akaso izango degu
egal baten mantxa.
Lenago beian zegon da
orain gora altxa.
Zeiñek ixilduko du
gure lagun Galtxa?

Uzt:

Aspertuta nengoan
geldi egoniam;
ni enaiz ongi egoten
ola nagoniam.
Galtxa jarria zan berriz
umore oniam.
Ori zeñek ixildu
sasoiz dagoniam?

Bas:

Berriro entzun zazute
Basarriren autik,
jendia enteratuta
gelditzen da gaurtik.

Orri etzaio inporta
ez ezerengatik:
ori dan tokian ezta
xaltxa onaren paltik.

Uzt:

Noiznai eztira izaten
onelako bromak;
eztigu kalte egin
ori emen egonak.
Len ere entzuten nitun
gizon orren sonak.
Kuadrillan beti bear dira
olako gizonak.

Bas:

Gaur badago ementxe
amaika testigu.
Kantatu edo ez, guri
inportik eztigu.
Txaltxa jaun onek tranpa
noiznai eiten digu.
Antiojuak kenduta
or etorri zaigu.

Uzt:
Kuadrilla ontan daukagu
sekulako briska.
Nik nola ukatuko
jakin dedan piska,
diranak esateko
etorria naizta?
Txaltxak beti argi du
itza eta bista

Bas:
Neronek erantzungo det
euskaldunen gisan.
Onekin sentimenturik
eztedilla izan.
Bista kontuan ezer
ez nezake esan.
Zintzua izan balitz
lenau ezkonduko zan.

Gero, berriz, Basarriren *Nork egin du gure galde?*, eta beste zenbait bertso zahar kantatu zuten Uztapide eta Basarrik, duo ederki asko eginez. Azkenik, berriz ere, bat-batean hasi ziren bertsoetan.

Bas:
Manuel Uztapide
lagun zar laztana,
berriz ere kantari
nator gaur zugana.
Itxuraz egiteko
etxe ontan lana,
kantatuko al ditugu
dozena erdi bana?

Uzt:
Mundu onetan dauzkagu
ain egun laburrak;
lengo zarren kontuak
eztira gezurrak.
Garbi asko esan du
Txaltxaren sudurrak,
esposatzeko dagola
andrian bildurrak.

Uzt:
Nere lagun zar au da
ain gizon justua,
oraingo bertsuare
bota du prestua.
Lagun jatorrak daudela
egin det juzkua.
Al bada egin bear deu
auexen gustua.

Bas:
Ederki betiak gaude
gainetik testiguz;
jan eta edanetik'e
izan degu erruz.
Ondo serbituak gu
kanpoz eta barruz.
Lagunarte au ezta
pagatutzen diruz.

Uzt:
Lagunarte onetan
eztago, ez, tranpik;
nai baiño len eztet sartu
toki ontan ankik.
Jan eta edanian'e
etzan ezen faltik.
Pena da ateratzia
etxe onetatik.

Bas:
Alde batera utzi
naigabe ta penak.
Bildu dira emen iñun
dauden jatorrenak,
beren odola ukatzen
iñoiz ez dakitenak,
sortutako lur maitia
maitatzen dutenak.

Uzt:
Arrats au eliteke
nolanai atzendu.
Eztiot nai ezertxo
daukanari kendu.
Eztakienak zerbait
ikastia on du,
ta gaurkoa eztedilla
atzena izandu.

Bas:
Len ere bururatu zait
makiña bat aldiz,
Basarri eztabil emen
tranpaz ta pikardiz.
Zuek ikusteko beti
bai gaude egarriz,
pentsatzen dezutenian
dei zazute berriz.

Uzt:
Pentsatzen dezutenian
deitutzia obe,
bestela guretza
litzake naigabe.
Zuek zeratelako
bi bertsolain jabe,
al badegu ezin gelditu
zuek serbitu gabe.

Azpeitian, 1963ko otsailak 23

Gaixorik zegoen Jose Mari Galdos herriko gaztearen aldeko jaialdia egin zen Azpetiko Soreasu antzokian egun hartan; eta Basarri, Lazkao Txiki, Jose Agirre eta Imanol Lazkano izan ziren bertsoetan. Gaiak eman eta jaialdiaren aurkezpena Joxemari Iriondok egin zuen, askotan bezala.

Jaialdi hartan Basarrik botatako bertso batzuk jaso ditut hemen, bere lehen agurrarekin hasita.

Nik ere biotz-biotzez orain
Jainkoak gabon denori,
gaurko festa au ikusi asmoz
etorri zeratenori.
Lau birigarro zuen aurrean
asiak gaude kantari:
Lazkano Lazkao Txikirekin,
Agirre eta Basarri.

Soreasu antzokian egindako jaialdiko giroa berotu eta entzuleen bihotzak ikutu nahi-ta, Galdos gazteari bertso bana kantatzeko eskatu genien lauri.

Laz:

Itzez askotan entzunakarren
lanak ditu sinisteak;
Kristok gorputzez bat egin giñun
erri eta erbesteak.
Ta batek estu min daukanean
sentitutzen du besteak.
Era ortantxe jarritzen gaitu
gaur gure Galdos gazteak.

Ltx:

Etxe batera sartu omen da
naigabearen illuna.
Eskerrik asko erri guztia
dala txit biotz biguna.
Gaitz txar batekin oean dago
baiña irria leguna.
Galdu bitarte ezta estimatzen
dadukagun osasuna.

Bas:
Gaitzaren mende oiean dago
erritar zuen laguna,
askotan ezin pasa gaba ta
ezin pasarik eguna.
Gogoan daukat San Paulo batek
beingo baten esan zuna:
zeruetara ez da sartuko
karidaderik eztuna.

Agi:
Mutiko ori da gaztetikan
nik ezagutzen nuena.
Garai batean geure auzoan
bizi izan genduen,
emezortzi urte berekin eta
osasunik eztuena.
Au entzutean kupitu bear
anairik maite duena.

Azpeitian egindako jaialdi hartan, Joxe Agirre eta Basarriri gai hau ere eman genien, ofiziotan kanta zezaten: Basarri jauna Oargiko⁹ langilea da; Agirre, tabernan haiengatik gaizki-esaka ari dena.

Agi:
Dantzari oiek ikusteko ez det
zenbaitek ainbeste gogo;
inoiz denbora pasa izan det
ortan baino errezago.
Oitura txarra ez da izango,
ni orren kontra ez nago.
Baiña saltoka ikusi baiño
tabernan egon naiago.

Agi:
Nik aitortzen det, nik'e baditut
nere oitura zabarrak,
baiña auei're arkitzen zaizkit
zerbait erantzun bearrak.
Jendian bistan eitten dituzte
iñoiz itxura ederrak.
Fintasun baiño planta geiago
dezute oargitarrak.

Bas:
Oargikoak gu ari gera
komeni diran lanetan;
gure premia badago, noski,
orain euskal errietan;
eta zenbaitek olako gauzik
aintzat artzen ez ezertan.
Arrano onek ezer ez daki
ardo edaten bestetan.

Bas:
Oargitarrak bear bezela
luzitzen dute gaztea;
bai eta zuzen erakutsi ere
zeruetako bidea.
Auetxen amets bakarra beti
beltzetikan edatea;
Santa Ageda argatik dago
guztia eroz betea.

⁹ Oargi izan zen Soreasuko jaialdiaren antolatzailea.

Agi:
Nik aitortzen det: ardo beltz ori
da neretzako atsegin.
Baiña Oargiko jendeak ere
ez du gutxitan utsegin.
Era ontako billera auetan
euskaldunak dantzan egin;
gero jendea artean sarri
berak erderaz itzezin.

Bas:
Eztiran gauzak ari da garbi
gaur emen itzegitea,
Oargitarak baldin badegu
esan dun utsegitea.
Gaizki-esaka, marmarioka
tabernan sartu gaztea.
Orrelakoak merezi luke
bere mingaiña moztea.

Agi:
Zuk zeria ta, ai, nik neria,
ai gera alper-alperrik.
Lengo bide orri jarrai nai diot
ez badet ezer okerrik.
Emendik aurea egin nai nuke
beltzetik trago ederrik!
Tabernaria ez da konforme
dantzariekin bakarrik.

Bas:
Tabernaria ez da konforme,
ori esaten du ongi.
Dantzak baiño naiago ditu
beti mozkor bat edo bi.
Gaztedi onek egiten dio
Euskalerriri argi.
Zeruan izarrikan dan arte
bizi dedilla Oargi.

Bina puntu bertsolarientzat. Basarriri jarri eta hark erantzunak:

Iri: Zer poz ematen duen
gaurko Soreasuk!

Iri: Esker ta irribarrez
gure lagun Galdos.

Bas: Nik ez nekien baiña
ala esan dezu zuk,
mugitu diralako
azpeitiar zenbaitzuk.
Oraindik biotz ona
badaukate batzuk.

Bas: Ori pentsatzen jarrita
ni bete naiz malkoz.
Gaixo eta samiñak
nunaitikan datoz.
Sendatuta balego
nik naiago askoz.

Lau bertsolariak gai bati buruz kantatzen jarri genituen gero,
honelaxe: Oranda, aita da; Lazkao Txiki, etxean lanean ari den
semea. Basarri, etxetik kanpo lana egiten duena; eta Lazkano, kan-
potik ondasun bila datorren semea. Aita zaharra hiltzen dago.

Agi:
Seme zarra portatu zait
seme on antzera;
bigarrena'e etortzen zan
bisitatutzero.
Gazteena aillatu zan
aita ondatzero.
Nere azken orduan
etorri al zero?

Ltx:
Anai zarra ipiñi
dezute minbera;
izan ere, au al da
etxeko abera?
Kanpoan lan eginda
etxian jatera.
Ai, aita, ametitzeko
kontua ote da?

Bas:
Ez pentsa ez dedala
maitatzen etxerik;
sarritan etortzen naiz
kariñoz beterik.
Aita, ematen ez baidazu
bear dan parterik,
iñola ez daukazu
zerura joaterik.

Laz:
Etxetik aldegin arren
jaio eta laste,
gaizki portatu naizenik,
aita, ez det uste.
Kanpoan mantendu naiz
ni jai eta aste.
Etxea ez det ondatu
Basarrik ainbeste.

Agi:
Azken arnasatan nago
bizirik arlote;
ta gauza orrekin badet
neuk'e naiko kalte.
Seme mutur-zikin auek
batere ez naute maite.
Eriotzako orduan ere
gaizki artzen naute.

Ltx:
Arrazoi dezu, aita;
kontuak oiek dira;
lenago txupatu eta
berriz'e ai dira.
Eriotzako orduan
orrenbeste jira!
Oiek alproja zar batzuk
besterik ez dira.

Bas:
Seme zarrenak zuri,
aita, artu zizun maiña,
etxean eukitzeko
ona ez da baiña.
Bigarrena zergatikan
zan kanpora aldegiña,
etxean etzegolako
danontzako aiña.

Laz:
Aita, mundutikan gaizki
etzazu aldegin;
emendik juaterako
gauzak ondo egin.
Senide jendea gero
ondo izan dedin
dadukazun interesa
partitu zuk berdin.

Agi:
Auek maitasunikan
etzuten aitantzat.
Orain begiak zorrotzak
bere diruentzat.
Parte txikia utziko det
bi gazte auentzat.
Geiena izango da
seme zarrantzat.

Ltx:
Bi anaiak daude gaur
bikote apaiña;
ederki bizi dira
nunbait, alajaiña!
Partea nai dute gaur
zarren onek aiña.
Kanporako obeak dira
etxerako baiña.

Bas:
Seme zarraren alde
zuk testamentua;
txiki-txikitandikan
zendun begiz jua.
Metro ta laurden inguru
du neurri juxtua.
Pentsatzen jarrita're
au maiorazkua!

Laz:
Onekin bukatuko
det daukan disputa.
Aitagandikan mundura
nago ni sortuta.
Azken orduan utzi nau
erdi baztertuta;
etzera zeruratuko
nik errezatuta.

Bertso-girorik ederrenean ordu eta erdi inguru iraun zuen jaialdia amaitzeko, azken agurra egin zuten bertsolariek:

Agi:
Barka zazute, bukatzera goaz
orain kantu lanekoak;
eta eskerrak artu nigandik
txoko onen barrukoak.
Aurrera ere izan zaitezte
borondate onekoak;
gero zerutik lagunduko'igu
aurki aruntz jun berrekoak.

Ltx:
Lagundu bear danean denok
abiatzen zerate gogoz.
Beste erri bat anaitasunez
beteagorik ez da askoz.

Gaixo daudenak alde egiten
begiak bustirik malkoz.
Ni saiako naiz otoitz egiten
sendatu dedilla Galdos.

Bas:
Agur danori, anai-arrebak;
agur Azpeiti kuttuna.
Zuk badakizu lendanik ere
Basarrik maite zaituna.
Eta erregu egin nai dizut
azkenik, zeruko Jauna:
komeni bada Galdos orreri
emaiozu osasuna.

Laz: Au esan gabe, nere entzuleak,
ez nua zuen artetik:
kalterik ez da inoiz izaten
biotz oneko izatetik.
Diru pixka bat bildu baita gaur
zuen borondatek.
Biotz barrendik nere eskerrak
galdostarraren partetik.

Zarautzen, 1963ko apirilak 7

Egun hartantxe Zarauzko Zinema pilotaleku zaharrean jasotako bertsoak dituzu orain irakurriko dituzun hauek. Uztapide, Basarri, Lasarte, Agirre, Lazkao Txiki eta Mitxelena ziren bertsoetan, eta gai-jartzaile, *Patxi Barbero* jauna.

Jaialdia Zarauzko Koralak antolatu zuen, herriko Paskualtsoro baserriari laguntzeko. Bertsozale eta laguntzaile, jende asko bildu zen Zinema pilotalekuan, zorionez. Eta Zarautzen lehenengo aldiz egun hartantxe kantatu zuen Lazkao Txikik.

Bas: Zuen aurrian egin nai degu,
jaunak, kantu ta irrintzi.
Goiz partetikan Eibarren giñan
ta lentxiago iritxi.
Neu bizi naizen erri maitia
aztuta ezin nik utzi;
maitasunezko agur goxo bat
eskeintzen diot Zarautzi.

Patxi Barberok Basarri lagunari jarritako puntuak:

Bar: Basarri, iritxi da
orain zure txanda.

Bar: Zarauzko semea
zan Lizardi zana.

Bas: Ez naiz bate asarratzen
zuk ori esanda.
Zumaitik etorri gera
bazkai ona janda;
orain gu ixillarazten,
Patxi, emen lan da.

Bas: Gure lur eder ontan
lezio emana.
Erritarrak azaldu
biotza beregana,
noizbein errezatua
Aita Gure bana.

Uztapide eta Basarri ofizioan jarri zituen gero. Gaia: Uztapide, Zarauzko ostalaria da. Basarri, fabrikako nagusia; eta biok kontzejal daude udaletxean.

Bas:

Lenago ere kantatua naiz
amaika bertso graziko;
Zarautzi zer komeni zaion
eztidazu erakutsiko.
Hoteleruen kontra izketan
batere ez naiz asiko.
Baiña gaur lana seguratzia
ori da lendabiziko.

Uzt:

Biok giñaden itz egin bearrak,
bota zenduen sakia;
orain orri nik erreparatzen
badaukat naiko nekia.
Udazaliak etorritzeko
guk bear degu pakia;
eta oientzako gauza txarra da
fabrika oietako kia.

Bas:

Emen bakoitzak defenditzen du
komeni dan alderdia.
Uda tartian Zarautz onek
ematen dun inbidia!
Hotelerua eztago, noski,
jornalian ibilia.
Baiña ke beltzak ematen digu
eguneroko ogia.

Uzt:

Aitu ezazu nere esana,
nola geraden lagunak:
hoteleruak ibiltzen ditu
urtero esku legunak.
Gu giñan lenbiziko asiak,
ta orain asi nai dunak.
Ez al dakizu dana galtze'ula
munduan dana nai dunak?

Bas:

Dirua beste ezertxo ere
zuk eztaukazu kontuan,
ikusi gabe udara batek
emen zer arrisku duan.
Asko dabilta bere gorputzak
ezin disimulatuan.
Zenbat pekatu erainazten dun
seigarren mandamentuak!

Uzt:

Zenbaitenzako nunaitik daude,
Basarri, animako gaitzak;
gu plaia alde orretan beti
animaz garbi gebiltzak.
Eta goguan izan itzatu
hotelero baten hitzak:
guk tapatutzen ditugu sarri
fabriketako krisisak.

Zaldibian, 1963ko otsailak 9

Zaldibian, egun hartan, Justo Salaberria omendu zuten herritarrek, bertako Gaztelu arrantzale eta ehizatarien elkarteko lehenengo presidente izandakoa. Esker onez, eskumuturreko erlojua opari egin zioten Justori. Eta bertso-jaialdi ederra antolatu Basarri eta Lasartekin.

Bas:

Zaldibi ontan kantu ta bertso
beti izan dira graziko,
bestela kosta aldetik ez giñan
gu onuntza iritxiko.

Lasarte, bildur dira askotxo
ez ote geran asiko.

Zerutar Jaunak danori gabon,
orixe lendabiziko.

Las:

Lasartek ere zuk bezelaxe,
lagun, nai du alegindu,
Jaunak eman zigun memoria
ez bada oso arindu.

Gaztelutarren txoko maite au
bear degu atsegindu.

Zuen mendeko etorri gera,
nai dezutena agindu

Bas:

Lasarte maite, nun arkitzen da
olako zorionikan?

Eztet pentsatzen zeru erdian
arkitzen ez naizenikan.

Ainbat aingeruz inguratuta
nola egin ez lanikan?

Eztet pentsatzen gure kejarik
emen izango danikan.

Las:

Auen artean noiz izandu da
olako txoramenikan?

Alkartasunak bearko dira
noizik eta bein benikan.

Basarri maite, guk ere ez degu
etorritako penikan.

Nik une ontan ez det pentsatzen
zeruan ez gaudenikan.

Bas:

Oso atsegin izandu baita
zuk egin dezun sarrera,
seguru nago ez gatzozela
oso paraje txarrera.

Pentsamentua beti egaka
gendun Zaldibi aldera.

Berrizko ere arriskua da
gaur portatutzen bagera.

Las:
Pentsamentuak azkenerako
ara guri egan eragin.
Bagenekien bertso esperantzan
asko zirala Zaldibin.
Basarri maite, al baldin bada
lana ondo nai degu egin,
ondorenia entzuletan
kejarik izan eztedin

Bas:
Geure denboran ikusi degu
makiñatxo bat gizarre,
eta gaur emen gertatutzea
ez al da pranko suerte?
Zaldibitarrak dauden tokitik
auxe ondo entzun bezate:
zuen mendeko ementxe gaude
Basarri eta Lasarte.

Las:
Ondo itz egin, onez oneko
bidea deramanari.
Nik ere pozez erantzun naia
Basarriren esanari.
Zuen artean gogo sendotan
eldu diogu lanari.
Orain eskerrak emazkiogun
Salaberria jaunari.

Bas:
Aitatu bear nuke derrior
don Justo Salaberria;
era ontako seme batzuek
ondratzen dute erria.
Onek egin dun lana ez al da
mirari izugarria?
Ikuillu zar bat zegon tokian
soziedade berria!

Las:
Gaztelu omen zan lendabiziko
zortzi lagunek asia;
Salaberriak gero iriki
itxita zegon esia.
Danen artean au izandu da
oso gizon berezia.
Eman dioten erregalia
zuen ondo merezia.

Bas:
Zaldibi erria goraldtu dezu
makiña bat aldetara.
Zuk egin dezun lana jartzen da
guztion begietara.
Orrelako bat gertatu ezkerro
aitormena eman bear da
Soldadu utsak zertako dira
kapitan on bat ez bada?

Las:
Gure izketak gogozko dira
auen belarri ertzian,
ain dira iturri zabalak emen
depositua lertzian.
Nik banekien zuen tarteko
goraberak gaur zer zian.
Beste saio bat egingo degu
laster kafia artzian.

Agindu bezalaxe, kafea hartu, puru ederrak piztu, eta berriz ere bertsotan hasi ziren Basarri eta Lasarte:

Bas:

Gaztelu ontan gertatzen gera
guztizko maitasun aundiz.

Ai, onelako aukera sarri
gugana iritxiko balitz!

Len lan pixka bat egiñagatik
jendea dago egarriz.

Lasarte maite, aspertu ezian
asiko al gera berriz?

Las:

Poz aundia zan entzulentzat
zure oraingo bertsoan;

nik iñola're ezin itz egin
ain modu kuriosoan.

Baiña maitatzen saiatuko naiz
maite gaituzun kasoan.

Komeni zaizun dana itz egin
zuk konfiantza osoan.

Bas:

Berriro ere buru zarretik
beste bat nai det atera,
zuen Zaldibi jatortzen ari
baita urtetik urtera.

Erri onetan oraindik ere
sendo euskaldun izakera.

Ez nuen uste oinbeste jende
etortzerik entzutera.

Las:

Emen jendea legun ta goxo
itzez nai degu igurtzi.

Ikusi dezu ez gaituztela
biok bakarrikan utzi.

Paraje onak ikusten dira
baiña olakoak gutxi.

Gaurko eguna ez da Lasartek
nai ordurako iritxi.

Bas:

Ai, Gipuzkoak erri askotxo
ditu bere baztarretan.

Gu iritxiak izango gera
amaikatik amarretan.

Lasarte maite, duda aundirik
etzazu izan orretan.

Era ontako giza arterik
ezta pagatzen urretan.

Las:

Gu Zaldibira pozez etorri
gera illunabarrean,

eta gauean gera gaur, lagun,
al dana egin bearrean.

Lagun zar asko bildu bai gera
alkartasun ederrean.

Ori egiten degun artean
ez gera zoritxarrean.

Bas:

Ixillik dagon gizon bateri
nai diot zerbait erasan.

Oso seguru gaur arte ez nekin
bere bizitza nola zan.

Justo Salaberri aitzateko
nago orain esperantzan.

Olakorikan ez omen da iñun
eizean eta arrantzan.

Las:
Justu maitea ikusten degu
ain umil eta ondradu;
nik ere zerbait esango diot
zeruko aitak nai badu.
Lagun batzuek artuta ola
antolatu du Gaztelu,
baiña etzan ain apain ikusiko
laguntzik izan ezpalu.

Bas:
Salaberritar Justok badauka
arrantzarako sugarra,
kaiñabera bat manejatze
askok ez duen indarra.
Baiña katiatzen bazaio
amorra urdin-nabarra,
beste fallorik eztauka ezer:
bide askon jaso bearra.

Las:
Altua da ta jaso bearra
dauka biaje luzian;
baiña eziñik ezta ibiltzen
beste askoren klasian.
Salaberria afiziotsu
arrantzan eta eizian.
Erlojua're eman diote
esnatu dedin goizian.

Bas:
Oraintxe ere ateraldi bat
egin bear du Basarrik.
Nik nai nukena ez izatia
gaur auxe beste okerrik.
Erregalo bat egin diote
Justori alper-alperrik;
goizian esnatzeko ez dauka
erlojuaren bearrik.

Las:
Oraindik ere sortu liteke
emen nai ainbeste txiste;
omenaldia dun egunean
zertarako egon triste?
Justu maitea, iñork aztuko
zaitunik etzazu uste.
Lenago maite zaituztenak zu
beti maiteko zaituzte.

Bas:
Nere buruan pasata daukat
auxe makiña bat aldiz,
itz erditxo bat ez tet egingo
maliziz edo pikardiz.
Amorra danak utzi ditzagun
erreketako ur garbiz;
soziedade au etzan izango
Justorik izan ez balitz.

Las:
Zerbait geiegi itz egin arren
emen ez dago gerrikan.
Justori iñola guk ezin eman
merezi dun eskerrikan.
Zuk esan dezu erlojua're
berak dula alperrikan,
eizerako ez baita izaten
trena artu bearrikan.

Bas:
Bertsotan emen ibili gera
orain danetik edanez.
Aspalditako oitura da au
nik kalkulaten dedanez.
Oker pixka bat gerta liteke
gu latosoak izanez.
Orain denbora pasa zazute
kontu zar batzuk esanez.

Moztualditxoa egin zuten bertsolariak berriz ere, jendeak kontu zaharrak esan eta komentarioak egiteko astia izan zezan. Eta gero, bertso-lanari heldu zioten Basarri eta Lasartek.

Las:
Uste gabeko katxarrotxo bat
jarri didate aurrean¹⁰,
bertsolariak izan gaitezen
beti alkarren urrean.
Esan liteke bizi gerala
Aralarko tontorrean.
Guri gustatzen zaigun tokian,
Euskaljerri jatorrean.

Bas:
Manuel maite, nik erantzuna
emango dizut itz bian;
alde ontako berri batzuek
lendik ere banezkian.
Itxi liteke anparu ontan
Aralar orren azpian;
nik beintzat emen segiko nuke
nere bizitza guztian.

Las:
Bolada ontan ez da ikusten
bertso gabeko bromikan,
eta Zaldibin iñor ez dago
gustatzen etzaionikan.
Lasarte beintzat aurretik zegon
iñun ezin egonikan;
gaur ez banintza onuntz etorri
ez nuen zorionikan.

Bas:
Au esan gabe ez det egingo
emendikan erretira;
gure lantegi auxe iritxi
leike oso urrutira.

Orain artean bertsolariak
pardel batzuk izan dira.
Euskaldun kanta gaur eldua da
tokatzen zaion tokira.

Las:
Lenago ere kantatu degu
guk makiña bat klasetan;
bertsoen faltik ez da izandu
Euskalerriko plazetan.
Orain arteko urteak guri
joan zaizkigu aizetan.
Onez aurrera gure txoriak
kantatuko du goizetan

Bas:
Erantzun bear dizut, Manuel,
ituruzko dan klasean:
ilda egongo zan festa eder au,
ai, gu mogitu ezean.
Txoriak beti kanta dezala
gabean eta goizean!
Bertsoa itsatsita baitago
euskaldunen biotzean.

Las:
Saiatzen gera beti kunplitzen
gu izketa txukunetan,
beti alegiña egin degu iñork
agindu izan digunetan.
Beti ondo irten zaigu, Basarri,
amets egin degunetan;
gaurkoarekin oroitzen giñan
aspaldiko egunetan.

¹⁰ Mikroa jarri zuten nonbait bertsolarien aurrean, saioa grabatu ahal izateko.

Bas:
Esan bearra dauka derrior
emen bakoitzak berea;
oraintxe dala bosteun urte're
au zan emengo legea.
Jauna, ez luke sinistatuko
egin digun faborea:
mai santuaren erdian degu
erriko erretorea.

Las:
Bosteun urte aitatu ditu
Basarri nere lagunak.
Ogeita amabost oraintxe dauzkat,
nik eztitut ezagunak.
Baiña biotzak ume dauzkagu:
apalak eta bigunak.
Gure izkuntza nolatan aztu
besterik ez dakigunak?

Bas:
Nere izketa aldrebetea
gertatzen da oso nekez.
Esan bearra daukat au ere,
egia da, dudarik ez;
euskaldun askok egiten baitu
bere barrutitik iges,
berea aztu nolanei eta
kanpokorik ikasi ez.

Las:
Iñorentzako eztu kalterik
biotz pixka bat izanak.
Basarri maite, goguan artu
zuk Lasarteren esanak.
Bere lurrean bizi izatia
beti zailla dute danak.
Etorri nairik ikusten dira
kanpora joan ziranak.

Bas:
Kanpora joan nai dutenentzat
terreno zabalak daude;
aien inbiriz ez gera bizi,
gu emen gustora gaude.
Izkuntzak ere zenbat geiago
jakitea askoz obe.
Ori guztia egin liteke
nork berea aztu gabe.

Las:
Jaiua nunai bizi liteke
bere umillidatean.
Geren lurrean bizi gera gu
degun abillidatean.
Egunez triste dabiltzan asko
esnatzen dira gauean.
Gu ere jarri gerala uste det
len baiño sasoi obean.

Bas:
Izkuntza kontu ori genduen
lenagotik aitatua;
amarengandik ikasi nuen
ta beti det maitatua.
Euskera entzuten jende asko da
lur onetan nazkatua.
Jaunak eman zun pitxi bat degu,
ezta geuk asmatua.

Las:
Bide batetik amets egiñaz
bizi gera gau ta egun.
Basarri maite, itz eingo dizut
nik xuabe eta legun.
Oso kontentu bizi gerala
emen ez al da ezagun?
Berrian billa abittu gabe
geuria maite dezagun.

Herriko bi bertsolari gazte ere baziren Zaldibiko lagunartean; eta bina-hiruna bertso kantatu zuten. Baina bietako batek, “eta berriro as ditezela / Basarri eta Lasarte” kantatu zuen bere bertsoan; eta halaxe egin zuten: bertsotan hasi berriro ere.

Bas:
Lasarte, apunte bat dijoa
Basarri zarran listatik;
ez nuke naiko galdutzerikan
nik pareja au bistatik.
Zaldibitarrak bertsolariak
baitira lengo kastatik;
auek emen egonda nola
etorri gera kostatik?

Las:
Itzerditxo bat bada, Basarri,
Lasarteren memorian.
Zu oraindikan ikusten zaitut
kontura ezin erorian.
Danen gustoa egingo duen
askorik ezta perian;
lore ederrak egoten dira
obearen inbirian.

Bas:
Plazarik plaza emen gabiltza
ta oiturari nai eutsi;
sarritan artu bearra dago
zazpi milla pazientzi.
Zuen jarduna txarra zanikan,
ai, nik ez diot iritzi.
Okerragoak gabiltz kantari
gaur amarretatik zortzi.

Las:
Zuen saioak bati biotza
nola eztio lertuko?
Pentsatzen nuen itz gaiztorikan
etzutela agertuko.
Baiña, Basarri, Zaldibin gu're
ez gaituzte baztertuko.
Zortzi bat egun pasa ezean
ez ditugu aspertuko.

Bas:
Beste bat ere sortuko baitet,
etzaitezela estutu.
Manuel maitek bide eman da
nik ordaiña det prestatu.
Libre zerate, gaizki edo ondo,
nai dan eran juzgatu;
alegin dana egin ezkeru
geiago ezin eskatu.

Las:
Nik ez nezake itzez baldartu
biotzez maite dedanik.
Ainbat talentu badet buruan,
Zeruko Aitak emanik.
Ez derizkiot, Basarri maite,
aldrebes ari zeranik.
Zaldibitarrak ez dute esango
oso alperrak geranik.

Beasainen, 1963ko otsailak 10

San Martin Loinazkoaren mendeurrena zela-eta, Beasaingo Usurbe antzokian egin zen bertso-saioan, Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki eta Lasarte izan ziren bertsotan, 1963ko otsailean.

Gaiak Jesus Lete *Ibai-ertz* itsasondoar bertsozale ezagunak prestatu zituen, eta Inazio Mari Atxukarrok eman, beste askotan bezala. Jaialdiaren erdi aldean Urretxuko antzezleek saio polita egin zuten, Joseba Markiegik euskeratutako *Txerren zubiko gertakaria* obra antzetzuz.

Basarriren lehen agurra:

Ainbeste anai-arreba gaur'e
barren ontara etorri.
Pozaren pozez txoraturikan
arkitutzen da Basarri,
toki askotan ezpaitakite
ondo txoko onen berri.
Beasain maite, gaur bai zerala
benetako Euskalerri.

Atxukarro herritarrak puntuak jarri zizkion Basarriri:

Atx: Gizentzen ari zera,
lagun zar Basarri.

Atx: Nekazarietzako
aurten urte txarra.

Bas: Atzo baiño gramo bat
geio eztet ekarri.
Aizazu, Atxukarro,
Zegaman zer berri?
Barau egiten ez tula
nork eztu igerri?

Bas: Alde guztitan bada
sua eta garra.
Galduko ote da, ba,
Gipuzkoa zarra?
Datorrena dago emen
gaur artu bearra!

Eta gero lau bertsolariak gai librean eta puntutan ere jarri zituen.

Uzt: Zer iruditzen zaizute gaur emengo jaia?

Bas: Jendiak bazedukan au ospatu naia.

Ltx: Au kolore txurikoa, ua jende alai!

Las: Noizpait ezagutzeko bagendun garaia.

Bas: Sasoi onean dago Lazkaoko txiki.

Ltx: Beste batek izango du nik ainbat aitzaki.

Las: Gabean nun ibili dan beronek eztaki.

Uzt: Anka nun jartzen duan mutillak badaki.

Ltx: Gauean ibilli naiz betiko moduan.

Las: Ia noiz ikusten zeran gizonen graduan.

Uzt: Gaztiak joaten dira bi edo iru leguan.

Bas: Onek luzituko du tontuen onduan.

Las: Ondo ikusten degu tontua eztala.

Uzt: Gurekin ezin ziteken ibili bestela.

Bas: Azi egin bear luke nola edo ala.

Ltx: Eskerrak orain ondo nik jaten detala.

Uzt: Baserri gutxi janda egin da aundia.

Bas: Lazkao Txikik ere badauka premia.

Ltx: Basarri, zuretzat ere sobra da tokia.

Las: Ia irabazten dezun danontzat ogia.

Bas: Batek nola irabazi lezake laurentzat?

Ltx: Oi sarri gertatzen dala iruditutzen zat.

Las: Lazkao txikia da ta egizu onentzat.

Uzt: Bakoitzarena eginda zertan inñorentzat?

Ltx: Txikiak egiten degu aundi askontzako.

Las: Oni egia esateko inportik etzako.

Uzt: Geiegi saiatutzia komeni al zako?

Bas: Onek erruki aundirik eztu neretzako.

Las: Eztegu izaterik danen errukirik.

Uzt: Eztauka guretzako zertan edukirik.

Bas: Maite det eta ezin kendu nik begirik.

Ltx: Oi etzaidazu kendu ezpaidet besterik.

Ondoren binaka jarri zituen lanean Atxukarrok, ofizioa emanda: Basarri aste bete pasatzera Aralarrera doan sendagile donostiarra da. Iztueta, Aralarko artzaia.

Bas:
Eguna pasatzen dezu
dotore arditan,
etzanaldiak egiñaz
ordu en erditan.
Gu berriz etxerik etxe
gaixoen bisitan.
Artzaia, emen bizi naiz
zure inbiditan.

Ltx:
Ara zer ezaugarri dan
ni ondo izan ta:
ikusitzen dezute
artzai onen planta.
Alare ongi nagola
berak lelen kanta.
Nere partez medikuak
lepondo galanta!

Ltx:
Beraz, gustatzen zera
Aralarko tokiz;
ta lekua dago beti
aizearen premiz.
Zu al zabilta emen
artzai ainbat aldiz?
Sarrigo etorko ziñake
toki ona balitz.

Bas:
Neri ori esatea
egin du azaiña!
Txotxa dirudi onenak,
eztauka bikaiña;
eztio asko luzitzen,
beintzat, alajaiña!
Eztizut erregalatuko
nai zenduke baiña.

Bas:
Gazta ta baba, urdairik
etzaio oni falta;
alare eztaukagu
mutiko galanta.
Osasun zaildua dauka
ta ondo kostata.
Medikua alperrik onek,
gaixotzen ezta-ta.

Ltx:
Artzaiak eitten ditugu
ibilli galantak,
ta medikuentzako
iñoizeko faltak.
Guk baditugu saio
lanian galantak.
Beti zituderako
arkume ta gaztak!

I.M. Atxukarro: Laurak gipuzkoar izanik, Gipuzkoaren aunditasun eta edertasunak aupatzen ari zerate. Uztapide, Urola aldekoa da; Basarri, Beterrikoa; Iztueta, Goierrikoa; eta Lasarte, itsasaldekoa. Txandan egin zuen saioa.

Uzt.

Laurok gerade gipuzkoarrak,
laurok euskaldun garbiak;
nor arrazoidun ikusitzeko
jarri begiak argiak.
Batzuek nere kontra izango'ira,
ta alde beste erdiak.
Orain esango ditugu emen
geure lurren alderdiak.

Bas:

Gure Gipuzku maitagarria
nik juzgatzen det loreztat;
munduan eskin bat ezta dukat
geurea baiño obetat.
Gaia're ala jarri dute ta
auxen bururatutzen zat:
Beterrri aldea bezelakorik
ezer eztago neretzat!

Ltx:

O, Gipuzkoa maitagarria,
egin nai dizut laguntza.
Len ia erorin zabilta baiña
gora nai nizuke bultza.
Une onetan etzera arkitzen
len ziñaden bezin utsa.
Zu bai zerade gure izkuntza
gordetzen diguzun kutxa.

Las:

Nik Gipuzkoa maitatuko det
iñoiz baiño apaiñago;
ementxe bizi naiz ni ere eta
orretarakoxe nago,
geure aldea goratutzeko
edozein baiño prestago.
Udaraldea kosta dan baiño
politagorik eztago.

Uzt:

Guztiak dira maitagarriak
Gipuzkoako eskiñak,
baiña Urola errekek dauzkan
intxaurrak eta gaztaiñak.
Ni sortu nintzan Zestuak berriz
oso iturri bikaiñak.
Orrek sendatu izandu ditu
danen gibebeke miñak.

Bas:

Arbol, itsaso, mendi ta zelai:
Gipuzku bedeinkatua!
Klase guztitik ikusten zaitut
ondo asko osatua.
Baiña seme txepelak gera,
au da gure pekatua.
Beste penarik ez daukat ezer:
euskera atzeratua!

Ltx:

Guk'e badegu gauza eder asko,
o Goierriko anaiak!
Gure bitartez zuzentzen dira
toki askotako maiak.
Gureak dira geientsuenak
maite ditugun artzaiak,
gure lurretik jaten baidira
arkumeak ta gaztaiak.

Las:

Beste konturik ezta izaten
gu anaiak alkartzian;
seme bezela jokutzen gera
Gipuzkoak beartzian.
Lena're esan det gure arteko
komeri danak zer zian:
txori guztiak goxatzen dira
udaran plaia ertzian.

Uzt:

Lau anai gera ta obe degu
alkarri esku ematia;
bertsolariak orretarako
badegu borondatia.
Gipuzkoa da jardín polit bat,
guztia lorez betia.
Beste faltarik ez dauka onek,
txikitxua izatia.

Bas:

Metroz erririk ezta neurtutzen,
o Uztapide prestua!
Goierrri eta Beterri ta itsas,
eman alkarri eskua,
danon artean osa dezagun
pamili itxurazkua.
Danen gaiñetik bear dezu zuk,
biotzeko Gipuzkua!

Ltx:

Gaztaiña fresko, itsasoko arrain,
arkume, gazta ta abar;
oiek batera bildu ezkerro
zorion bikaiña dakar.
Orregaitikan lotu gaitezen,
zertako ibilli bakar?
Alkartasuna indarra da ta
denok ar dezagun alkar!

Las:

Gure izketak ezer ez tute
alperrikan kentzekorik,
baiña eztegu abildaderik
okerrak zuzentzekorik.
Bat altxatzeko ez genduke nai
bajatu gaiñontzekorik,
baiña munduak iñun ote du
Gipuzkoan antzekorik?

I.M. Atxukarro: Uztapide, gizona da. Basarri, emakumea. Zuen arteko eztabaida: zeñek egiten du geiago euskeraren alde?

Uzt:

Euskera nundik galtzen ari dan
jarria nengon begira.
Au pentsatzeko eztago jua
bearrikan urrutira.
Naiz errian ta naiz basuetan
naiz jua zaite mendira,
emakume auek euskaldun izan
t'erderaz aritzen dira.

Bas:

Beti gureztat izaten dira,
jaunak, fallorik aundiñak.
Gauzak garbitu lezazke ondo
martxaren berri dakiñak.

Emakumeak egonagatik

pekatu asko egiñak,
aizu, kontuan mintzatu zaite;
danok ez gera berdiñak.

Uzt:

Emakumea, arrazoirikan
eztet nolanaiz utziko.
Aurtxo bat ere itzez amakin
asten da lendabiziko.
Erderaz egin eta euskeraz
eztiozu erakutsiko.
Zuek orrela zeraten arte
ezkera ongi biziko.

Bas:
Negoziotik negoziara
beti burua austera.
Beren lurrian gutxigi balitz
or dijoaz erbestera.
Gero ostatutan lujoz beterik
batetik eta bestera;
bi peztatatik saltzen dezute
gaurko gizonak euskera.

Uzt:
Errieta asko izate'itugu
etxera goazenian;
jenio txarra dadukazute
Jainkuaren izenian.
Damutasuna pasata gero
izango da onenian,
baiña alperrik presa egitia
ura juaten danian.

Bas:
Ura juanda presa egiten
asitzen danak du kalte.
Emakumea ezta ibiliko
bere izkuntzatik aparte.
Egia da bai, gaztetxo batzuk
aize asko dadukate.
Baiña euskerak iraungo du emen
gu bizitzen geran arte.

Uzt:
Emakumiak euskerai dio
maitasuna agertuta;
egia bada ni egongo naiz
iñoiz ezin aspertuta.
Eztegu ezer egingo biok
gaizkian asarretuta.
Ia pixka bat indartzen degun
guztiok alkar artuta.

Bas:
Alkartasunez lotu gaitzen
maitasunaren katean,
emakume ta gizonezkoak
joka dezagun batean.
Zer negarra ta zer istillua
izkuntza galdu urtean;
orduana lotsaren lotsez danok
sartu gintezke lurpean!

Bi bertso eskatu zizkion Manuel Uztapideri. Gaia: Zure bizitza guztiko adiskide bati. Basarri laguna hartu zuen gaitzat Uztapidek:

Lendabiziko lagun zar on bat
bear burura ekarri;
asi baiño len dezute zuek
zein izango dan igarri.

Ain gera lagun biok,
berai kantaiko diot
estuasuñik gabe sarri,
biotz-biotzez nola maitatzen
detan or dagon Basarri.

Nere ustetan bertso batekin
nuen lan dana amaitu,
baiña oraindik gure Atxukarrok
pixka bat tentatzen gaitu.
Nola geraden anai,
Basarri, biok jarrai;
euskerak danak bear ditu.
Zu zeralako ni ere pixkat
eiten ari naiz aunditu.

Tolosan, 1963ko otsailak 3

1963ko neguko arratsalde hartan, Tolosako Beotibar pilotalekuan jaso genituen ondorengo bertso hauek. Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki eta Mitxelena ziren bertsotan, eta herriko Miserikordiaren alde antolatu zen jaialdi hartan sekulako jendetza bildu zen. Gai-jartzaile Inazio Mari Atxukarro izan zen.

Bertsolariak Amasan bazkalduta etorri ziren, berek esan zute-nez. Basarriren lehen agurra:

Anai-arrebok, entzun zazute
Basarri zarraren boza.
Zuek aurrean ikusi eta
nik sentitzen dedan poza!
Frontoi onetan bizirik dago
oraindik euskal biotza.
Zorioneko Euskalerra ta
zorioneko Tolosa!

Gai hauxe jarri zion Basarriri: Minbizia da gaur eguneko gaitzik txarrenetakoa. Ez ote da lehenbailehen sendabiderik izango hori sendatzeko, Basarri?

Bear bezala egin nai ditut
Tolosa onetan lanak;
arreta bizi jarri zazute,
entzuten zaudeten danak.
Zorion eta zorigaitz danak
dira Jainkoak emanak,
eta pasatu bear ditugu
mundura sortu geranak.

Minbizi edo kantzer gaizto ori
aipatuko det berela.
Munduan millaka iltzen dira,
dakizute nik bezela.
Mediku argi jakintsu askok
lo asko galtzen dutela.
Komeni bada erremeiua
laster billa dezatela.

Abantail baten ondorengoak
ementxe bizi gera gu;
gozamen eta naigabe asko
lur xixtrin ontan daukagu.
Ta gerorako zer dadukagun
geronek bai al dakigu?
Kristautasunez artu dezagun
Jaunak bialtzen badigu.

Puntuak ere jarri zizkion Inazio Marik:

Atx. Otzaren bildurrikan
al dezu gaurkoan?

Atx. Tolosan karnabalak
umore onean.

Bas: Barru ontan eztago,
baleike kanpoan.
Amasan egon gera
suaren ondoan.
Nik lotsak botatze'itut
bazkaldutakoa.

Bas: Buelta bat egingo degu
etortzen danean.
Atxukarro naiko nuke
nik aldamenean;
zer pesta bi errezildar
biltzen geranean!

Eta gero, lau bertsolariak puntutan jarri zituen, buelta bakarrean Uztapide hasita.

Uzt: Oraingo saioa da
puntua jarrita.

Mtx: Beraz, egiten du onek
geure aitzakia?

Bas: Zerbait egin bear da
onuntz etorrita.

Uzt: Aundia izan bazan'e
bazegon tokia.

Ltx: Lana izango zala
nengon igarrita.

Ltx: Ala ere beterik
dago gaur geiena.

Mtx. Gustorik asko ematen
zuen belarrita.

Mtx: Danetan bera degu,
noski, txikiena.

Bas: Pentsatzen jarrita're
au dek laukotia.

Uzt: Tolosako erria dago
danetan goiena.

Ltx: Iru aundiak dirade
eta ni txikia.

Bas: Bertotan ere ez al da
berori onena?

Mtx: Lazkao dadukagu
txiki aundizkua.
Uzt: Orregatik eskeintzen
diogu eskua.
Bas: Ona zala aspaldi
neukan begiz jua.
Ltx: Guk altxatu bearko
degu Gipuzkua.

Puntutan egindako saio labur honen ostean, berriz ere Uztapide eta Basarri jarri zituen lanean Atxukarrok. Ofizio.: Basarri senarra da, eta Uztapide, emaztea. Hamabi urteko seme bakarra dute, eta fraile joan nahi du berak.

Uzt:
Nik, senarra, nai nuke semiai
bide on bat ematia;
ta berak ere pentsatua du
kolejiara joatia.
Zuri etzaizu gustatzen baiña,
arren, konforma zaitia.
Ez al degu, ba, kunplitu bear
semian borondatia?

Bas:
Amabi urtetan umetxo oiek
inozentiak dirade;
gero emezortzi-emeretzitan
bada milla nobedade.
Emazte maite, zu egin zaite
nere arrazoiaren jabe:
len'e frailletik naikoa bada
gurerikan joan gabe.

Uzt:
Orain artian beti gorde det
nere senarran itzala,
baiña badakit seme kontuan
nere kontra zabiltzala.

Gure semea Jainko maitiak
fraille eraman dezala.
Ez nuke ikusi naiko senarra
orain dabillan bezala.

Bas:
Oraintxe ere aundi samarra
bota dezu zuk ortikan;
pazientzitik nik asko daukat
eta eztit inportikan.
Erri guztiak badaki auxe
zuk ori esanagatikan:
gure etxian andre-semiak
eztute ezer paltikan.

Uzt:
Orain artean andre-gizonak
ez gera izan biurri,
baiña asi zait orain egiten
atzo jun ta gaur etorri.
Ta badakizu, senarra, ori
da pamilien galgarri.
Ta nai nuke nik agudo jakin
semean karreran berri.

Bas:
Andrea, ori izan dedilla
gu biok baiño obia.
Prakak jantzita ere zai dauka
zeru ta lurren jabia.
Atzo joan ta gaur etorri da
biontzat nobedadia.
Eguneroko aspergarria
baita olako andria.

Lasarteko krossa edo lasterketa famatua egin berria zen; eta gai horri lotuta Basarriri lau oinak eman zizkion: Galtzak, ertzak, beltzak, arrapazak.

Bas:
Lasarten izan dira
korrikalai beltzak;
negua izan arren
baju ziran galtzak.
Aiek pasa zituzten
erdi eta ertzak.
Etziok etsairikan,
ura arrapatu zak.

Gero, baserria gai emanda, bina bertso kantatu zuten lau bertsoariak.

Uzt:
Atxukarro onek eman dizkigu
baserriko lezioak.
Beti baserriaren bearra
du erri ta nazioak.
Bera bakarrik ez leike bizi,
bear ditu sozioak.
Lenbizi egin bear dana da:
kendu kontribuzioak.

Bas:
Lendabiziko kontribuzio
eta karga danak kendu,
nere lagun zar Uztapide onek
bertso batian esan du.
Jainkoagatik basarri santu
ori ez dedilla galdu.
Kalian ere ezta jaterik
lurrak ematen ezipadu.

Ltx:

Baserri oiek galtze orrekin
datorkiguen galera.
Obe genduke galdu baiño len
denok kontuak atera.
Agintariei eman nai diet
lendabiziko aitzera:
lagundu len dauden piska oiek
jeitsi baiño len kalera.

Mtx:

Baserritarrai kontuak emen
garbitu naian zebiltzak,
obetoago jartzeakarren
baserrikuen bizitzak.
Libre utzitzen badizkiote
beren etxetako giltzak,
gero nolatan bizi ber dute
kalean dauden *lapitzak*?

Uzt:

Ez itzazute bromatan artu
bertsolarien esanak.
Baserriari eutsi nai zutik;
badira naikoa lanak!
Eman bearra dadukazute,
bada, erreztasun danak;
bestela gu're kalera gatoz
lurrian ari geranak.

Bas:

Entzun zazute, ai, baserriko
seme on baten antsia.
Esan diteke alde batera
zedukatela utzia.
Zu zera gure izkuntza eta
oitura danen bizia.
Baserri maite, zu galdu ezkerro
galduta dago guztia.

Ltx:

Kaletarrok'e izan zaitezte
baserritarren lagunak.
Oien bidetik pasatzen dira
gure gau eta egunak.
Laguntzen saia al dan guztia
o, adiskide kuttunak!
Oinbeste pentsa bear genduke
ogia jaten degunak.

Mtx:

Baserritarrak egin ezean
kaleai elduko etzaio,
ta esan leike bizi gerala
etxe batean sozio.
Baserritarrei kendutzerikan
ez, ba, amets egin geio.
Kendu ez baiño baizik lagundu
beti egin bear zaio.

Saio hau burutu eta, berriz ere, lau bertsolariak batera jarri zituen, gai hauxe emanda: Oraindik orain, eskale bat hotzak hilda aurkitu dute Chilen. Baina etzan hain pobrea ere: Koltxoipean milloia eta gehiago peso gordeta omen zeuzkan.

Uzt:
Zerbait esan ber Chile alderako,
eta ez nago trankilla:
milloi bat koltxoi azpian eta
zebillen limosna billa.
Eta atzenian onek dionez
da kalean otzak illa.
Era ortako bizimodua
zakur batek jan dedilla.

Bas:
Esan dituzte Chileko baten
naigabeak eta penak.
Azken onikan eztu izaten
sekula kristau zekenak.
Miloi bat peso paseak zitun
ark gordeak zituenak.
Ementxe ere askotxo daude
ori egiten dutenak.

Ltx:
Alde batera pena artzen du
kristau on baten biotzak.
Gizon bat mundutik aldentzea
orrelako eriotzak,
milloi ta geio pesuak edu-
kirik eskalean poltsak.
Auxe da gauza penagarria:
kamiñoan il du otzak!

Mtx:
Chile aldeko eskalari oi
ain gendun gizon noblia;
bai omen zuen gaurkoan berez
askorek daukan doblia.
Milloi bat peso omen zedukan
koltxoi azpian gordia.
Nai nuke nik neu ni banintzake
aren moduko pobria!

Uzt:
Olakorikan izaten zanik
nik ez nekian lenago;
beraz, batzuek dirua dute
bizia baiño naiago.
Milloi bat peso koltxoi azpian
ta eskatzen zuen geiago.
Il bada're aren animarentzat
salbaziorik eztago.

Bas:
Aren animan kontra, Manuel,
etzaiozula eraso.
Komeni bada goiko juezak
artuko zuen txit gozo.
Elur ta jelaz beteagatik
euskal mendi eta baso,
ni berotuko nintzake bapo
baneuka milloi bat peso!

Ltx:
Olako batek eztu merezi
ez negar eta ez txalo;
obego zuen bere dirua
obeki ibilli balo.
Beraren kulpaz bide ertzean
gelditu da betiko lo,
esaera degun bezela: beti
zurraren poltsak bi zulo.

Mtx:
Gizona ura zer izango zan
neu ere antzemandu nago:
Bere burua gozatzeko
etzeukan ainbeste gogo.
Ni milloi bat pesoren jabe or
neroni baldin banengo,
berari su emango nioke
otzak il baino lenago.

Sariketa eta txapelketa askotan bezala, kartzelako gaia ere eman zien Inazio Mari Atxukarrok. Eta hasteko Basarri aukeratu zuen: Iparragirreren doinuan edo bederatziz puntukoan, arkume erreari bertso bat bota behar diozu, Iñaki.

Arkumeakin jarri didazu
zuk, Atxukarro, jolasa;
ta bertso txo bat kantatuko det
orain nik denborapasa.
Kentzeko asarria
gauz ona da erria,
baiña ni buruz kapaza.
Oso pozikan jango nuke nik
neuk sobre ezpaneuka grasa.

Eta puntuak:

Atx. Kanpoan otz da baiña
emen dago epel.

Atx. Buruko miñarekin
erretira atzo.

Bas: Gure Atxukarro jauna
eztek oso txepel.
Onek ezagutzen ditu
fonda eta hotel.
Gu toriatzen gaitu;
gero: kaixo, motel!

Bas: Gertatzen nintzalako
elbarri ta mantso.
Orain albotikan onek
egiten dit kaso.
Badakit bera're ondo
eztabillela oso.

Lau oinak Basarrirentzat: lapurra, muturra, zakurra, kizkurra.

Bas:
Bi metrokua bazuen
jaun arek muturra;
arpegiko azala're
bastante kizkurra.
Ala moduzkoa daukat
etxeke zakurra.
Arek urrutiratzen du
aixa asko lapurra.

Beste gai bat Basarrirentzat: Pazko eguna degu gaur; eta kristau on bezela eskerrak eman gure Jaunari.

Pazko eguna da-ta
itzeiteko noiz da;
au ixildutzia gaur
neretzako gaitz da.
Jesus, zureganako
daukat nere bista,
zuri zor baitizut nik
orain naizen piska.

Pazko eguna da-ta
nik gaur otz-otzean
ementxe artu zaitut
nere biotzean.
Anparu egin zaidazu
denbora luzean,
gau illuna bait dator
zu aldentutzean.



Seguran, 1963ko martxoak 9

Beste askotan bezala, Uztapide eta Basarri Segurako parroko aretoan ziren bertsoan egun hartan. Baina argi-arazo asko izan zen, eta ez genuen izan saio osoa grabatzerik. Han kantatutako bertso bakar batzuk hementxe dituzu, ordea.

Uzt:

Erri ontan izan gaituk
gaur baiño lenago;
emen daudenen aurrian
ikusia dago,
ixildu baiño kantatu
degula naiago.
Ta Segurak merezi dik
au baiño geiago.

Uzt:

Emendik aldegin bearrak
jartzen gaitu triste;
ta nortanai're joan
bearko degu laste.
Kontrariozik degunik
emen ez tet uste.
Etxian bezin ongi
artutzen gaituzte.

Bas:

Kantatu bearco dit
aora datorrena;
emen dek iñun danik
jende jatorrena.
Arrera ere egiten
ditek nabarmena.
Emendik aldegiteak
ematen dik pena.

Argia behin eta berriz joan zen. Etorri zen batean honela ari ziren bertsolariak, erdi ilunpetan:

Uzt: Ematen dik zegola
zerbait aitatu zai.

Bas: Guk kantatu diagu
illunpean lasai.

Uzt: Argia etorrita're
ez al digu sasoi?

Bas: I neskezarra intzan,
ni niñuken artzai.

Bas: Jendia pozik zio, atzetikan parrez.

Uzt: Obetuago egoten eztek, mutil, errez.

Bas: Portatu geralako jator eta legez;

Uzt: gu zer giñan jendiak bazekiken aurrez.

Uzt: Laster eman bearko digu bukaera.

Bas: Jendia joango dek gaur goitikan bera.

Uzt: Batzuek zai zeudek or joateko kalera.

Bas: Aspertuko baitituk emendik aurrera.

Bas: Bertsoa gauza ona dek bere neurrian.

Uzt: Ala gustatuzten dek Segurako errian.

Bas: Berriz izan ezkeroguz bion premian,

Uzt: abixatzeko esan asmua danian.

Gero, *Nork egin du gure galde?, Aiako arritan gaude*, eta abar kantatu zituzten Basarri eta Uztapidek, umore ederrean. Jendearen poza eta atsegina! Sekulako txalo zaparrada eskaini zieten azkenean.

Araotzen, 1963ko martxoak 17

1963ko San Jose bezpera bezperan Araotzen ziren Basarri eta Uztapide, bertsoan. Goiz eta arratsalde, saio bikainak egin zituzten. Bai, goizean eta arratsaldean kantatu zuten, herrietako saiorik gehienetan egiten zuten bezala. Hona hemen goizeko saioan jasotako bertso batzuk.

Bas:

Bertsotan asi bear degula
orain apal edo umil.
Emengo giro au ikusita
odola jartzen da pil-pil.
Agertu bear litzake ori
beti egon gabe ixil.
Danen gaiñetik nabarmendu nai
ta mingaña kaskar dabil.

Uzt:

Lagun maitea, goguan artu
Uztapideri entzuna.
Zuk badakizu onek gezurrik
zuri esango eztizuna.
Fede orrekin joango naiz ni
Araoztik Oartzuna.
Nere mingaiñak beti esaten du
biotzak sentitzen duna.

Bas:

Merezi ere badezu eta
ortxe dijuaz bapuak.
Nik ondo ezagututzen ditut
goikuak eta bekuak.

Beti betetzen dituzula zuk
mingaiñez esandakuak;
beste guztiak ez gera ordea
zu zeran bezelakuak.

Uzt:

Berriro ere nik erantzuna
emateko daukat merke,
gogoratutzen dana esaten
ezpaita ainbeste neke.
Borondatea agertuko det
ta gorrotua giltzape.
Danak berdiñak izan ezkeron
ni ere txarra nintzake.

Bas:

Neurri berdiñik eztagoela
esan det amaika aldiz,
naiz ta ibili erririk erri,
naiz eta mendirik mendiz.
Gauza auek emen aitatutzen
gu zer arranetan gabiltz?
Apaiz jaun auek alper-alperrik
pekaturikan ezpalitz.

Uzt:
Berrero ere kantatuzera
ni nago bearturikan,
eta nekea sortutzen zaigu
zer egin pentsaturikan.
Gaizki egiñari zertan etzaio
izango gorroturikan?
Apaizak zertako dira guretzat
ezpai'do pekaturikan?

Bas:
Ez al dezute ondo artuko
Basarri onen txisterik?
Alaitasuna izan leikela
zertako egon tristerik?
Guk naita ere gaur eztaukagu
pekatu oitan asterik;
noizik eta bein ezta izaten
pentsamentuak besterik.

Uzt:
Damututzen zait zer esan dedan,
Basarri, bertso lenguan.
Gogoratu ez apaiz jaunikan
zegonik gure onduan.
Tentaziuak beti bueltaka
emen dabilta munduan.
Apaizik izan ez balitz noizbait
pekatu egingo genduan.

Bas:
Ez naiz batere arritu, aizu,
zuk kontu ori esanda.
Makiñatxo bat egongo dira
zuri tankera emanda.
Larri zabilta urtien karga
ondo ezin eramanda.
Apaiz-bildurra sortu zaio oni
abildadia juanda.

Uzt:
Basarrik esan ditun gauz oiek
danak etziran egiak.
Relijioko kontuetan gu
ezkera olain nagiak.
Gu baiño kristau txarrago asko
mantendutzen du ogiak.
Txarren txarrena izena degu
askotan bertsolariak.

Bas:
Saio luzea txarra da eta
egin bear degu kera;
batzuek gora joan litezke,
eta beste batzuk bera.
Bertan daudenak jarri ditezen
kontu batzuk esatera.
Beste saio bat egingo degu
emendik piska batera.

Beste askotan bezala, *Nork egin du gure galde?*, eta abar, batek besteari duo egiñez kantatu zituzten gero, aparteko graziarekin. Eta saio bat puntutan egin zuten gero, hamaikatxo aldiz egin ohi zute-nez.

Bas: Manuel, jartzen dizut
lelengo puntua.
Uzt: Iñork ez ezer entzun nai,
atarramentua!
Bas: Ikusten danez jendia
etziok tontua.
Uzt: Eztitek ondo ateratzen
geroko kontua.

Uzt: Neska ta mutil, danak
ar zazute alkar.
Bas: Bakarka ibiltze orrek
kalte asko dakar.
Uzt: Emakumia joanda
mutil guztiak zar.
Bas: Bururik gabiak daude
amaikatik amar.

Bas: Jango badegu derrior
bear degu lurra.
Uzt: Iñork lanik ez egin ta
auxe da bildurra!
Bas: Etsaiak jarriko digu
eundoko muturra.
Uzt: Lengo piska kastatzia
da gauza samurra.

Uzt: Eztago zer janikan
eiten ezpada lanik
Bas: Etzazute pentsa ori
bromazkua danik.
Uzt: Lurrik labratzen ezpada
eztago gauz onik.
Bas: Bere tokitik ezta
mugitu pertsonik.

Bas: Irabazia nunbait
bear du gaztiak.
Uzt: Zer egin bear digu
aitona tristiak?
Bas: Basarrian ez tira
kabitzen guztiak.
Uzt: Gauz ori neri, mutil,
eakutsiko eztiak.

Uzt: Kalia ere oraintxe
ez al zaigu bete?
Bas: Gai ortan itz bi eingo
dizkit derrepente!
Uzt: Mutil, ni're emen niok
ire onduan tente.
Bas: Extremeño danak onuntz
etorri nai dute.

Bas: Uztapide, izan al aiz
Pazkua egiten?
Uzt: Entzuten al dezute
zer galdetzen ditzen?
Bas: Onen berririk eztu
apaizak jakiten.
Uzt: Iaz izan niñun ta
oindik goiz dek aurtan.

Uzt: Oraindikan eztituk
etorri Pazkuak
Bas: Gero're izango dituk
bai egun on askuak.
Uzt: Sarri egin bearrik ezтик
gizon tajuzkuak.
Bas: Onen itzak ez tira
danak egizkuak.

Bas: Zer mandamentutan daukat okerrik geiena?

Uzt: Batian etzeukat nik ta ik ori pena.

Bas: Au ere izandu zan lenago azkarrena.

Uzt: Au sarritan ibiltzen da arraitik irtena.

Uzt: Laster eman bearko digu bukaera.

Bas: Bein asi ezkeru olaxe ibiltzen gera.

Uzt: Kotxiakin eramango al nauk ik trenera?

Bas: Uztapiderekin ezin santurik atera.

Bas: Nik eraman ta artuko dek Zumarragan trenan.

Uzt: Ori egiten badek kunplitzen dek dena.

Bas: Emendik joatiak ematen dun pena!

Uzt: Etortzia izaten dek onuntz errezena.

Uzt: Eman al dizutegu bear ainbat grazi?

Bas: Brometan ez gera gu plaza ontan asi.

Uzt: Milla esker nai dizutet nik adierazi.

Bas: Agur, anai-arrebok. Danok ondo bizi.

Beste hauek arratsalde parteko saioan plazan kantatu zituztenak dira:

Bas:

Bost eta erdiak ditugu laster, auxe're ezta gezurra;

Araoztikan Zarautz errira ez da biaje laburra.

Gaur egun motza izango zala banuen naiko bildurra.

Manuel maite, egin daiogun jende on oni agurra.

Uzt:

Morroia naiz ta lana egitera orain ere beartuta;

ementxe nago aparatu au nere eskutan artuta.

Ai, jende jatorra dago emen ta biotza samurtuta.

Beste baterako ere goazen onez onian agurtuta.

Bas:

Emen jendia bizi da eta lentxio jakin det nola:

Baserrietan bere gustorik ezin dute egin iñola.

Notizi batek berotua du gaur Basarriren odola.

Jakin det Araoz inguru ontan mutilzar asko dagola.

Uzt:
Oraintxe ere etzera asi
zu alain gai makalera;
mendi tartetik neskatz guztiak
doaz leku zabalera.
Baserririkan gustatzen ezta
danak igesi kalera.
Ta orrek dakar maiorazkuentzat
berebiziko galera.

Bas:
Kalia modan dagola orain
ondo nago antzemanik;
baserrietan eta lurrian
eztute egin nai lanik.
Ez leike ondo izan guztiok
toki batera juanik.
Neskatxa oietan ez al da iñor
kontzientzirik duanik?

Uzt:
Neska gazteak, joka zazute
danak kontzientzi garbiz.
Itxura danez eztu busti nai
emen iñortxok izardiz.
Len'e aiziak bueltak eman
ditu makiña bat aldiz.
Ia kalia utzita onuntz
etortzen zeraten berriz!

Bas:
Kalian ere arrosazkua
ezta izaten bizitza.
Zer eta nola dabillan ondo
pentsatzen jarri bakoitza.
Deskuido santuz etortzen bada
industrirako krisisa,
makiña batek esan biar du:
ai, bate etorri ez banintza!

Uzt:
Emen aspertzen asiak dira
maiorazko mutilzarrak;
derrior daude neurri gogorrek
orretan artu bearrak.
Baserrirako gauz orrek dakar
berebiziko negarrak.
Emen zer arraio egingo dute
gizonezkuak bakarrak?

Eguna gustora pasatu zuten Araotzen. Eta Basarrik bere azken
agurra honelaxe egin zuen.

Lagun zar onek eskatutzen dit
orain azken-azkenian,
alako itz goxo estitsu batzuk
sartzeko or barrenian.

Begiratu det Araoz ontan
gaur etorri naizenian:
baso ta mendi, eta soroak
or daude aldamenian.
Ardi ta arkume ikusi ditut
baita're zoramenian.
Zuen artean gu zein gustora
aritu geran lanian!
Nere lagunak joan bear dula
gaur azkenengo trenian.
Etzaituztegu aztuko berriz
azaldutzen geranian;
burumakurka jarri nai degu
beti zuen esanian;
berriro ere deitu zazute
pentsatzen dezutenian.

Legazpin, 1963ko martxoak 18

Bertso-jaialdi bikaina antolatu zuten Legazpiko Ibaiondo zine-
man San Jose bezpera hartan: Uztapide, Basarri, Lasarte eta Lazkao
Txiki eraman zituzten, herriko eta inguruko bertsozaleen kon-
tsolagarri. Gaiak Inazio Mari Atxukarrok jarri zizkien bertsolariei.
Baina ez ziren bertsolariak bakarrik izan; hantxe ziren Legazpiko
txistulariak eta herriko abesbatza ere, eta saio bereziak egin zituz-
ten.

Hauk dira egun hartan Basarrik botatako bertsoak, lehen agu-
rretik hasita:

Gure kantu ta bertso ederrak
biurto bitez gaur ezti;
gozotasunak toki onetan
gaitz eztu egingo, noski.
Ederrak daude aurre ta atze,
esker, eskubi, gain ta azpi.
Lendabiziko agur goxo bat
eskeintzen dizut, Legazpi.

Basarriri jarritako bi puntuak:

Atx. Zenbatsu bide dago
zerutik lurrera?

Atx. Goierrian badegu
ur onaren fama.

Bas: Etzaidazu galdetu
emendik aurrera.
Zu eroriko baziña
an goitikan bera,
ijiton batzuk laster
lirake jatara.

Bas: Legazpiko erriak
orixe darama.
Atxukarrok'e dotore
egiten du lana.
Badakigu ur utsakin
ibiltzen ezтана

Jarritako puntuen erantzuna entzun eta gero gai hauxe eman zien: Zu, Basarri, pentsu saltzailea zera. Iztueta, nekazaria. Negu txarra izan da eta zor asko egin dezue. Hiruna bertso.

Bas:
Kantatu bear ditugu emen
berebiziko bertsuak.
Lenago ere ontan dijoaz
aspaldin urte osuak.
Nekazariak ere guztiak
eztira izaten zintzuak.
Noiz arraio pagatu bea'ituzu
eramandako pentsuak?

Ltx:
Almazenista, bear diozu
urte txarrari begitu.
Urte onetan nekazariak
eitteko ainbat lan baditu.
Lenoko zorrak pagatu eta
borratutzen'e eztitu.
Lenagokorik etzeguen or
txukun eraman balitu.

Ltx:
Urte onetan bizi gerade
gu oso urte estuan.
Belarrak ere aittuak eta
arbirik ezta soruan.
Pentsuzalea, barkatu zazu
Jaungoikuaren moduan;
zor diran oiek ordainduko'ira
txekorrra saldutakuan.

Bas:
Gure etxera beti badator
faktura jende ugaria.
Aiek danari erantzun bear,
nik daukaten komeria!
Aldamenetik sortutzen zaigu
olako nekazaria.
Pagatu nai eztunak beti
urte txarran aitzakia.

Bas:
Pazientzia badet nik eta
baita kontseju ederrik.
Zintzo samarra izan baziña
batere etzegon okerrik.
Txekorrra saldu ta ze eiten dezun
ondotxo daki Basarrik.
Aurreko koskak'e badituzu,
ezta aurtengoa bakarrik.

Ltx:
Ni nekazaritzan bizi naiz ta
almazenian zaude zu;
aurten gaizki artzen baldin nazu
kliente gabe zera zu.
Eta zer urte izan deguen
zedorrek ondo dakizu.
Ukatzen eztan bitarteraiño
barkatu bear didazu.

Basarrik bakarka botatako hiru bertso datozkizu orain. Gaia: euskera galtzen ari dala, eta horren errua, kanpotarrari bota izan diogu askotan. Hala ere, errua ez ote da geurea?

Makiñatxo bat erru badauka
gu jaio giñan erriak;
pentsatu utsez negar-malkotan
betetzen zaizkit begiak.
Gure euskera ez al du galdu
geronen zabarkeriak?
Beste iñori ez eman kulpik,
geu gera pekatariak!

Etxe askotan egin zazute,
anai-arrebok, bisita.
Guraso asko ere eztaude
talentuz ondo jantzita,
seme-alabei beren izkuntza
eztiote erakutsi-ta.
Aitzakirikan zeñeri eman
kuadro oiek ikusita?

Uztapide eta Basarriren txanda eta gaia etorri ziren gero: Uzta-
pide, gurasoa da. Basarri, Afrikara soldadu doan semea. Despeira-
ko momentua da orain.

Uzt:
Seme maitea, gudaritzari
bearko diozu eldu;
joan bearra etorri baita,
nik etzaitut ez bialdu.
Gizon bezela bear zenduke
Afrikan ere azaldu.
Erregutze'izut, sinismenikan
beintzat etzazula galdu.

Bas:
Afrikaraiño joan bear eta
asi zera itzagitzen.
Zer tristura nere biotzak
lur ontatik aldegiten.
An zer suerte izan gentzaken
aurretik ezta jakiten.
Aita maitia, saiaturko naiz
zure esanak egiten.

Beste bat ere naiko nuke nik
zuen burutan jartzia:
legazpiarrak, komeni zaigu
neurri estuak artzia.
Denbora joanda gero negarrez
alperrik da ibiltzia.
Euskera iltzen dan egunetik
geuk obe degu iltzia!

Uzt:
Bi egun barru beartu zera
zeure aita agurtzera;
baiña urte bete berriz bazoaz
lur ontara biurtzera.
Nere esanak ondo egindako
seme jatorra zu zera.
Guztiak maite izango zaitue
ola portatzen bazera.

Bas:
Afrika ortan sortutzen dira
makiña bat katramilla!
Euskaldun onak gelditu dira
lur aietan ainbat milla.
Bizirik akaso azalduko naiz,
ta gerta ninteke illa.
An eta emen Jaungoikoaren
gogua bete dedilla.

Uzt:
Seme maitea, gauza etzazu
artu orrelain serio;
zu gabe geldituko ote naiz
gerra dalako medio?
Eztet pentsatzen orrelakorik
eta zu ere izan fio.
Kristau jatorrai gure Jainkuak
beti lagundutzen dio.

Bas:
Esan bezela, sinismenari
gogor nai nioke eldu,
ta goitar Jaunak onelako bat
errez ez lezake galdu.
Afrikan dagon soldadu batek
laguntza sarri bear du.
Kartak sarritan jasoko'ituzu,
diru piska bat bialdu.

Basarriren azken agurra, Legazpin:

Basarri onek itz egitia
emen oso atsegin du.
Barrunbe ontan oinbeste jende
sarri-sarri ezta bildu.
Ta egindako arrera ona
guk nolatan gaur ordaindu?
Zerbait utsegin badegu ere
etzerate beintzat mindu.
Gure premirik izan ezkero
berriro noiznai agindu.

Zestoan, 1963ko martxoak 19

San Jose egunean, Zestoako lasalletarren San Jose ikastetxean egindako jaialdiko bertsoak jasoko ditugu berehala. Basarri, Uzta-pide, Joxe Agirre *Oranda* eta Imanol Lazkano eraman zituzten bertsoetara egun hartan.

Jaialdiaren antolatzaile ikastetxe hartako ikasle ohiak izan ziren, urtero bezala. Gaiak Joxemari Iriondok eman zizkien, aurreko urtean bezalaxe. Basarri eta Agirreren txanda: Basarri eta Agirre, harakina eta baserritarra dira.

Bas: Aspalditako nere
ezagun zera zu.
Iñoiz ikuillu ederra
edukitzen dezu.
Arakiñaren galdera
gaur entzun zaidazu:
neretzat moduko txalik
bai al dadukazu?

Agi: Basarrian mixeria
ta nago motela,
eindako kasturikan
buelta ezin detela.
Sinistu zazu premian
arkituak gaudela.
Baiña zekorrra ordaindu
gizonak bezela.

Bas: Baserritar au beti
eztegu prestua.
Batzutan gordetzen du
malizi gaiztua.

Tartetan onen txalak
txima arro askua!
Nik artuko dizut baiña
kalidadekua.

Agi: Premian ikusirikan
orain bizitzeko,
asmuak ditu nigandik
aprobetxatzeko.
Intentzioa txekorrra
gaur merke artzeko.
Au dek au elementua
iñoi laguntzeko!

Bas: Nere laguntzan paltik
zuk eztezu izan;
danok ondo dakigu
zein nola gabiltzan.
Erraldeko pagatzen det
tokatzen dan gisan.
Irabazia bear det,
Joan Debalde il zan.

Agi: Ganadua gobernatzan
ni enaiz makala;
aurten ere berdintze'itut
nola edo ala.
Atze ederrak dauzka,
aurria zabala.
Nolanai eztezu artuko
nik daukadan txala.

Saio honen ostean, bikotea aldatu eta Basarri eta Uztapidek kantatu zuten. Gaia: Uztapide, aitona da. Basarri, billoba. Hiruna bertso.

Uzt:
Zurekin nua itz egitera,
nere billoba maitia.
Nik kontsejuak eman artian
ixillik egon zaitia,
aitona zarrak eskarmentua
artuak izan baitia;
ta gaurko txorakeriarekin
burua ez izan betia.

Bas:
Erantzun bear dizut derrior,
ta kontuan artzekua.
Auzi au degu bion artian
oso garbi jartzekua.
Nik txorakeri gutxi dadukat,
aitona biotzekua.
Sinistu zazu ez naizela ni
beste oien antzekua.

Uzt:
Geruago're etzazu artu
gaurko gazte askon biderik.
Era orretan segitu ezkeru
ezta falta naigaberik.

Eztizu emango iñork aitonak
baiño kontseju oberik.
Gaurko egunian ezpaita leno
gendun gisako federik.

Bas:
Berriro ere entzungo dezu
zeure billobaren aotik:
txatxu oiek gutxi baldin balira
neri elidake inportik.
Buru guztia aizez betia,
txorakeria gogotik.
Amorrazita aldegiten det
olakuaren ondotik.

Uzt:
Nere billoba, asko pozten naiz
zure itzak aditzian.
Garai bateko oitura onak
alde auetatik joan zian.
Kontseju txarrrik eztezu izan
beñere zeure etxian.
Sinistu gauza onik eztala
sinismena galdutzian.

Bas:
Egiten dezu iñoiz, aitona,
makiña bat zalaparta.
Billobak ere izaten ditu
milla utsegin ta falta;
baiña orrekin etzaite jarri
zeure onetik aterata.
Libertadia bear degu guk'e
gazte samarrak gera-ta.

Bazkalondoan jarraitu zuen bertso-festak, mahaian eserita zeuden lau bertsolariak txandan lanean jarrita. Gaia: Zestoako herrian baserritarrak galtzen ari dira, eta lanbide-eskola bat sortzea ona izango litzake.

Bas:
Nere barrenak sentitzen dunik
iñola ezin det gorde.
Ai, lur onetan badaduzkagu
makiña bat bizimolde!
Jaungoiko maite, toki onetatik
egiten dizut nik galde:
kalia ez al leike aurreratu
baserririk galdu gabe?

Laz:
Kalean ere aurrerapenai
eman bear zaio tokia.
Ai, alegiñik aundiña ere
ortan ezta geiegia.
Baiña ez dezala alde batera
iñork utzi baserria,
bestela nundik jan bear degu
eguneroko ogia?

Uzt:
A ze nolako gaia diguten
gaur ementxe aukeratu!
Basarrik esan duenarekin
zerate ongi enteratu.
Baiña nerea esan gabe ni
ezin ninteke geratu.
Baserririk ez dedilla galdu
ta kalea aurreratu.

Agi:
Eskolan asko ikasitzeak
on aundia egiten du.
Al baldin bada gerora beira
gauza ortan ez egondu.
Baiña Lazkanok egi mardula
nere ustetan esan du:
lurrak ematen ez baldin badu
kalean ezin mantendu.

Bas:

Jaun gazte orrek emana digu
albiste edo notizi:
Eskola aundixeago bat eman
komeni da lendabizi.
Amaika urtetan praka motzetan
ezin gintezkela bizi.
Aurrera ondo egitekotan
lelengo eskola ikasi.

Uzt:

Eskola kontu ortan al degu
oraingo gure sarrera?
Mundu onetan txit tristia da
pobre baten etorrera.
Zailla izan arren guk ematea
gere semiai karrera,
ofizio on bat ikasi leike
amaika urtetik aurrera.

Laz:

Ai, bi zar auek eman digute
gaur arrazoi garbirikan;
ta erantzuna eman nai diet
nik martxa ikusirikan.
Jakindurian aurreratzen da
eskola ikasirikan.
Zer egia dan: jakinduriak
eztu bear lekurikan.

Agi:

Nere kristauak, ezjakin batek
eztu munduan luzitzen.
Nik neregandik erreza daukat
gauza ori ikusitzen.
Eskola onak lanerako ere
ezpaitu galerazitzen.
Ai, gurasoak, saia zaitzte
al dana erakutsitzen!

Bas:

Eskola eta lana bizitu
litezke alkar artuta;
or ikusten da estranjerira
piska bat begiratuta.
Gure umerik bear bezela
eztegu eskolatu ta
berrogei urtez atzera gaude
aiekin konparatuta.

Uzt:

Azaletikan len ez giñan ari,
goazen arrazoi aundira,
iñor ezpaita joaten ikasten
emen kaletik mendira.
Esan deguna: eskola piskat
ikastia komeni da.
Guraso asko semeagatik
basotik jetxitzen dira.

Laz:

Eskola ondo ikasitzera
ni ez nintzaden iritxi;
beragatikan daukat nerekin
onen jakinduri gutxi.
Ai, gurasoai au esan gabe
nik ezin nezake utzi:
zeuen aurtxorik maite bazute
eskola ondo erakutsi.

Agi:

Nik ere arrazoiz itz egin naita
eztakit itz egin nola.
Kristau maiteak, artu dezagun
arreta eta ajola.
Aitortu degu bear-bearreko
gauza bat dala eskola;
baiña sinistu jango badegu
egin bearra dagola.

Bazkalondoko saioaren erritmoa aldatu nahita, bi-bitara jarri genituen gero bertsolariak. Gaia: Basarri, ikasle zaharra da; Lazkano, maisua. Hiruna bertso.

Bas:

Ogei urtian kanpo aldetik
makiñatxo bat komeri
sinistu gero ikusitzia
gertatu zaitela neri!
Bastoiarekin errenka dabil
leengo maisu zar ori.
Maitasunezko besarkada bat
eman nai diot berari.

Laz:

Baserri maite, biok ezker
maitasunik gabekoak;
San Jose egunez gaur bildu gaitu
gure antziñako txokoak.
Zer disparate egin nizkizun
bakarrik daki Jainkoak!
Barka zaidazu ordun nik zuri
emandako kaskarrekoak.

Bas:

Motibo gabe kaskarrekorik
zuk etzenduen emango;
seguru nago pekatu egiña
neu nintzadela lelengo.
Zure eskolak zenbat bentaja
ein didan ez tet esango.
Zuretzat zerurikan ezpada
iñontzat ezta izango.

Laz:

Ikasle onek gaur ni pozten nau,
ain arkitzen da otsan-da.
Zorionean gaur iritxi da
alkarganatzeko txanda.
Iñun kulparik etzaigu azaldu
batek besteai esanda.
Segi dezagun al degun arte
alkarri esku emanda.

Bas:

Bastoiarekin, ai maisu zarra,
aurrez ikusten deguna.
Sinistu gero milla naigabe
orrekin sortzen zaiguna.
Gaur gogorturik arkitzen zaizu
lengo belaun pare biguna.
Derrigor artu bearra dago
Jaunak bialtzen diguna.

Laz:

Aitortutzen det, ez naiz arkitzen
ain osasun erosuan;
gure Jainkoak ia artu nau
eriotzaren lazuan.
Gau eta egun jarraiko diot
nik berari errezuari,
era ontantxe bildu gaitezen
betikotasun osuan.

Puntutan ere saioa egin zuten; eta bazkaldarrak pozik haiek entzuten.

Agi: Lagunak, bazkariak
on egin dizute?
Laz: Ni oraindaiño artean
jator naukazute.
Uzt: Gu bertsoan ater gabe
aiko gaituzute.
Bas: Berriz ere nai danian
otsegin zazute.

Laz: Jan onduan umorea
jartzen du bertsuak.
Uzt: Guri on eitten ziguk,
baiña deskantsuak.
Bas: Gora ikasle eta
baita gurasuak.
Agi: Berriz'e ein bear dira
olako batzuak.

Uzt: Gaur eztago ez emen
kontentu ez danik
Bas: Ez al degu eskertuko
Jaungoiko laztanik?
Agi: Ori egin gabe ezin egin
komeni dan lanik
Laz: Aspaldian eztet egin
orrelako janik.

Bas: Zer iruditu zaizute
gaiñeko txanpaiña?
Agi: Neretzat beintzat ori
zan edari apaiña.
Laz: Orrek gozatu digu
bazkari bikaiña.
Uzt: Nik pozik edan diat,
ez gustatzen baiña.

Eibarren, 1963ko apirilak 7

Jaialdi haundia eta ederra egin zen Eibarko Amaia antzokian egun hartan. Egitarau bete antolatu nahita, dantzariak, txistulariak eta bertsolariak eraman zituzten, alafede!

Bertso-saioari zegokionez, Uztapide, Basarri, Mitxelena eta Lazkao Txiki aukeratu zituzten. Hain zuzen, 1962ko Urtezahar bezperan Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketan azkeneraino pasatu ziran lau bertsolariak. Baina Xalbadorri ama hil zitzaion eta, haren orde, Joxe Joakin Mitxelena eraman behar izan zuten. Gai-jartzaille, Alfonso Irigoien.

Lau bertsolariei Xalbadorren ama zenaren aipamena egiteko eskatu zien jaialdiaren hasieran:

Bas:
Berri triste bat etorri zaigu,
eta oso beranduan;
malko zakarrak jabetu dira
Basarrin begi onduan.
Olako seme azkar, bizkor bat
sortu duenak munduan
merezi du-ta deskantsu on bat
izan dezala zeruan.

Basarriri puntuak:

Iri. Eibarren egiten da
josteko makiña.

Bas: Irigoien jauna da
gauz ori dakiña.
Etxera eraman zuen
ta bat oso piña.
Arraio onek andregairik
billatu eziña!

Iri. Edari bikaiña da
matsaren zumua.

Bas: Aren pama ederra
ematera nua.
Aurten txakoliñetik da
eundoko mordua.
Probatu nai badezu
orain da ordua.

Ofizioan hiruna bertso botatzeko gaia: Basarri, baserri bateko zakurra da. Lazkao Txiki, baserri hortara lapurretara doana.

Bas: Disgustuak dauzkagu
urtian-urtian;
lagun txarrak eztabiltz
oso apartian.
Berriz azaltzen bazera
etxeko atian,
jan egingo zaitut nik
alakon batian.

Ltx: Lapur txikiak mejora
ortan balu parte,
sartzeko naikua du
edozein zulo-tarte.
Txikitasunak gauz ortan
eztaduka kalte.
Leiotik sartzen naiz au
lo dagoen arte.

Ltx: Lapurra inork jateko
nola etzan jaio,
bestek jatia baiño
geuk jatia naio.
Lapurra ixillikan
joaten bazaio,
orren errez jatia
kostatuko zaio.

Bas: Amaika litxerreri
zaude zu egiña;
eztezu errespetatzen
Kristoren dotriña.
Leiotikan sartzeko
dauka bere griña.
Gorputz kaskarra eta
atzapar zikiña.

Bas: Gure lapurra ezta
artaiño azia;
txiki gelditziakin
dauka desgrazia.
Auek libre uzten dituzte,
au da justizia!
Txakurrak egin bearko
al duen guztia.

Ltx: Gure txakurrarentzat
ni ez bainaiz zurra.
Ogiz engaiñatzen det,
ez eman egurra.
Olakuakin zertan
batek artu bildurra?
Nausiak zertako du
olako txakurra?

Basarrik bakarka egindako saioa. Gaia: Lana.

Entzun zaidazu, aurreko aldeko
entzule maitagarria.
Kastigutxo bat jaiotzatikan
guregana etorria:

“Zeure izerdiz jango dezu zuk
eguneroko ogia...”
Aspalditxoko kontua degu,
ez gaur goizian jarria.

Batzuek fabrika-zuloetan
pasatze'ituzte egunak;
beste batzuek kanpo librian
dauzkate beren jardunak.
Batzuk beso ta anka ta buruz
eman al duna al dunak.
Bizitzeko eztu eskubiderik
lanik egiten eztunak.

Jaialdiaren bigarren zatian, dantzariak eta txistulariak izan ziren Eibarko jaialdian. Eta gero, bertsolarien bigarren txanda.

Puntuak Basarriri:

Iri. Amoriua zeukan
Joxepak zugana.

Iri. Txerrikume bat izan
omen du zekorrak.

Bas: Ori da lelengo aldiz
gaur entzun dedana.
Aurretik egin ber zuen
tokatzen zan lana.
Ixillik egon zalako
ondata zan dana.

Bas: Eztu ondo ibilliko
aurtengo legorrak.
Ikusi bearko ditu
istillu gogorrak.
Jaiotakuak pagatu
bear ditu zorrak.

Basarri eta Mitxelenari ofizioa hauxe jarri zien aurkezleak:
Hasarre zaudeten bi neskaxa zerate; eta batek besteari mutila
kendu omen diozute.

Bas:
Azaldu bear degu nolabait
dadukagun baliua.
Jakin zazute neri gertatu
zaidan misteriuia.
Mutil gazte eder batentzat
nedukan amodiua,
ta aldameneko neskazar onek
ukatu dit nobiua.

Mtx:
Zu bezelaxe ni ere nengon
beterikan maitasunez;
ta neoni're ez nintzan joaten
iñoiz arpegi illunez.
Zenbait jornada ein izan ditut
aruntz gau eta egunez,
ta azkenerako nigandua da
gaixua biotz bigunez.

Bas:
Onetxek ere bere defentsa
ondo asko egiten du.
Nik esperantzak banitun baiña
ezin ninteke ezkondu.
Kondizio bat biar zenduke:
besteri ezer ez kendu.
Ni pakian ibilitzen nintzan,
zu zeuriakin konpondu.

Mtx:
Ni bezelaxe joaten ziñaden
eitera zenbait alako,
nonbait'e zure biotza ere
bere zale zegoalako.
Ajol gabeak galdu izan du
munduan zenbait olako.
Ta beronekin atzendua da
parranderua dalako.

Bas:
Mutiko eder, trebe batekin
eginda neukan tratua.
Aldamenetik beti lanian
etsai madarikatua!
Ta neska xixtrin onek dit neri
nobiua pujatua.
Barkaziorik eztuena da
egin dezun pekatua.

Mtx:
Mutilla orrek bazeukan neri
berak zerbait esan naia.
Esaten zidan: "Zu zera oso
polita eta alaia.
Beste orreri emango diot
bizi guztirako jai.
Arrautz prejitzen eztaki eta
zertan olako andregai!"

Puntutan ere saio bat egin zuten, baina gaia jarrita: Ahal dituzuen gezurrik haundienak esan!, agindu zien gai-emaileak.

Bas: Itsasotik barrena
etorri naiz trenian.
Uzt: Ni berriz kotxian an
uren barrenian.
Ltx: Sinistuko dizut anbat
asten zeranian.
Mtx: Ni oiñez etorri nauk
kotxian gaiñian.
Uzt: Asi dira azaltzen
egunez muxarrak.
Ltx: Gauez argitzen digu
gure eguzki zarrak.

Mtx: Bost urte besterik ezтик
gure mutil zarrak.
Bas: Zine oni azaldu
zaizkio adarrak.
Ltx: Zer belardia dagon
gaur zine onetan!
Mtx: Segakin ebaki leikek
momentuan bertan.
Bas: Uztapidek aingerutxo
asko du gaur praketan.
Uzt: Baita ere eguak
jarriak anketan.

- Mtx: Gaur Eibartikan bera
ikusi det Arrate.
- Bas: Praille batek egin dit
zazpi milla kalte.
- Uzt: Diabruak mesedia
egiten didate.
- Ltx: Ni berriz elbarriak
indartutzen naute.
- Bas: Buruaren tokian
jarri zait besua.
- Uzt: Ni anak lotu eta
korrikai gozua!
- Ltx: Kopetan antijuak
ipintzera nua.
- Mtx: Orduan obetogo
ikusiko du ba.
- Uzt: Aldrebesena emen
bertsotan onena.
- Ltx: Fiñikan ez jardutia
ori daukat pena.
- Mtx: Edozein mediku da
bera senda lezakena.
- Bas: Biar goizian omen da
munduan azkena.
- Ltx: Argi bat izango da
illargia aiña.
- Mtx: Zeruan sartuko dala
bazekiat baiña.
- Bas: Uztapidek ekarri du
eundoko polaiña.
- Uzt: Orrek neurtuko dik iri
zeruaren gaiña.
- Mtx: Gaur Donostian bi zakur
ai ziran izketan.
- Bas: Kaputxino bat ere
antxe zegon bertan.
- Uzt: Zaldiak umia egin
aurtengo festetan.
- Ltx: Mitxelena iarrena
kuadrilla onetan.
- Bas: Zazpi atso ikusi ditut
goizian burruka.
- Uzt: Eta guriak istillu
aundia daduka.
- Ltx: Beste bi eskumotzak
zeuden mutur-joka.
- Mtx: Besuak kenduta jotzen
orrek zun erronka.
- Uzt: Orain aingeru guztiak
daude infernuan.
- Ltx: Jakin det Judas sartu
zaigula zeruan.
- Mtx: Ta zakurra daduka
berakin onduan.
- Bas: Lazkao Txiki jarri dute
San Pedron lekuan.
- Ltx: Ateak jarri ditut
giltzarikan gabe.
- Mtx: Alare iñor barrura
ezin joan dirade.
- Bas: Azaltzen ezpazerate
zeuentzako obe.
- Uzt: Diabru aundiena
ate orren jabe.
- Mtx: Gaur apaizak altareik be
eman digu meza.
- Bas: Orko airoplanua
eztek aldrebesa.
- Uzt: Ori ibillitzen dek
beti arrastaka.
- Ltx: Areoplanuak lurtean
ibilli bearra dauka.

Bakarka egiteko gaia eman zion gero Basarriri: Gaur goizean bide bazterrean ikusi dituzun ijitoiei, hiru bertso.

Arreta jarri zazute
oraingo itzian:
oientzat gorrotua
badet biotzian.
Ijito mordo bat billatu
baitet gaur goizian.
Zer lapurtu ote zuten
atzo arratsian?

Ez kasorik eiteko
ematen du gogo;
danak berdintsuak dira
oraingo ta lengo.
Ikusten duten guztia
berentzako dago.
Ez lirake orrela
justizik balego!

Jenerazio ori
or dabil jo ta ke!
Urrian ori zeñek
aguanta lezake?
Etxian nai ba'ezute
zorion ta pake,
ijitotatik danok
ibili aparte.

Ordizian, 1963ko maiatzak 1

Herriko Etxezarreta antzokian, Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki eta Lasarte bertsotan. Eta Goierri aldeko bertsozale asko jaialdi eder hartan. Bertso-saioa hasi eta laster San Jose langileari bi bertso botatzeko eskatu zien bertsolariei gai-jartzaleak. Eta Basarrik honelaxe bete zuen bere egitekoa:

Gaurko eguna Erromatikan
zuten ederki autua;
premia ere bazegola-ta
norbaitek zun asmatua,
oso illuna ezpaitegu gaur
an degun Aita Santua.
Langillerikan eztan garaian
galduta dago mundua.

Nazaretoko estalpe artan
Jesus, Jose eta Mari;
alkarren anparuz antxe gogor
ekin zioten lanari.
Andik argia zabaltzen zaio
oraingo mundu danari.
Oberik ezin autatu zeiken
langille danen zaindari.

Lau oinak:
Zarra, garra, zakarra, parra.

Bas: Batzutan negarra ta
besteeetan parra,
emen piztu bear degu
sua eta garra.
Iñoiz otsana da ta
batzutan zakarra:
Olakoa dezute
Atxukarro zarra.

Euskera ikasten ari dan hogeitau urteko gazte beti bertsoak botatzeko eskatu eta honako bertso luze eta eder hau bota zuen Basarrik Ordiziako jaialdian:

Gazte maitea, oraintxe zaude
udaberriko lorean;
ogei bat urte dituzu eta
bikain zaude edadean.

Gogoan izan jaio ziñala
 euskaldunaren lurrean,
 ta izkuntza bat izan zendula
 sukalde txoko batean.
 Izkuntza ori arriskuan da,
 gaude erdi negarrean.
 Ozta-ozta dabil, larri ta estu.
 Laster ote da lurpean?
 Gazte maitea, erabaki bat
 arturikan ikustean,
 portatu zaite kristautasunez
 euskaldunaren legean.
 Orain da sasoi, orain da garai
 erasotzeko lanean.
 Eguzkirikan ezta izaten
 gaua etortzen danean.
 Nik irrintzi au egin nai nuke
 emen gaurko egunean:
 beste guztiok galduak gera
 euskera galtzen danean!

Lehenaz gainera, zeharo piztu zituen Basarriren bertso luzeak
 Etxezarretan bildurik zeuden bertsozale goierritarrek. Gero, binaka
 jarri zituen. Uztapide eta Basarri gai hauxe eman zien: Uztapide
 baserritarra da; Basarri, ijitoa.

Uzt: Eroztura bat egiten
 egin nun gastua,
 baiña ijituak beti
 bere arrastua.
 Saltzaile au izan da
 ain gizon gaiztua.
 Itsua atera zait
 saldu zun astua.

Itsuaren aitzakia
 botatzen dek baiña,
 mutil, arek ikusten dik
 beretzako aiña.

Uzt: Erosi nuanian'e
 egin zendun duda,
 itsua ote zegon
 asto urdin ura.
 Baiña batere eztit
 alare ardura.
 Eskerrak enion eman
 dirua eskura.

Bas: Konfesio txarra dauka
 jaun onek egiña.
 Ontxua eman niola
 ori daukat miña.

Bas: Au ere entzun bear dezu
ijitoan autik,
sinispen eder bat izan
dezazun zuk gaurtik:
nik emandako astoak
eztu ezen paltik.
Onen aitzaki danak
ez pagatzeatik.

Uzt: Zuri asko ibili zan
gizon au tratuan,
ta nik'e pozik artu
sano zalakuan.
Baiña akordatu nintzan
berealakuan.
Orain an dago astua
juezen eskuan.

Bas: Au entzutia etzaio
izango gogozko.
Alare eman lezake
gero eskarrik asko.
Prenda bat bialdua
badet pozik asko.
Len asto bat zan tokian
oin dira bi asto.

Elkarri puntuak jarriz egin zuten ondoren:

Uzt: Beraz, len asto bat zan da
gaur dira asto bi?

Bas: Parejaka're eztira
izaten geiegi.

Uzt: Zu baiña astuagoa
ote nago, ba, ni?

Bas: Nik opa dizut eta
konpondu or ongi.

Bas: Biok asto kontu ortan
guk tailla berdiña.

Uzt: Ni menderatzen egin
dezu alegiña.

Bas: Zertan erantsi didazu
kolore urdiña?

Uzt: Biok astuak bagera
au ez da txikiña.

Lau bertsolarietako gai bakarra jarri zien gero. Aldi hartan oso ohi-koa zen gaia gainera: Basarri aita da; Uztapide emaztea. Lasarte alaba, eta Lazkao Txiki, semea. Bizi zeraten etxetik bota nahi zaitue etxejabeak.

Bas:

Nere emazte, nere alabak,
ona emen esku utsik.

Baserri maite, utzitzen zaitut
eta eztaukat nik pozik.

Era onetan gertatu al da
sekulanen iñun gauzik?

Gu bota gaitun nagusi orrek
bai ote dauka biotzik?

Uzt:

Nortanai ere bearko degu
baserri ori agurtu;
baiña senarra, ez ezazula
begirik ola samurtu.
Gero ere zerbait bizimodua
guretzako dago gertu;
seme-alabak'e azi dira ta
etzaitezela bildurtu.

Las:

Nagusiak gu despeditzeko
lijerra zeukan mingaiña.
Eztet pentsatzen izan duanik
alako une bikaiña.
Aita ta ama, gauza orrekin
sustatu zera zu baiña,
anai-arrebak egingo degu
zuek mantentzeko aiña.

Ltx:

Aita ta ama eta anaia,
negarrez nago ni ia;
auxe bait nuen nere pozgarri
betirako nun tokia.
Orain bialtzera atrebitu da
toki orren nagusia,
ainbesteraiño guk maitaturik
azi giñaden kabia.

Bas:

Agur sagasti, soro, zelaiak;
malkotan nago lertuta.
Agur, ikuillu maitagarria,
gaur arte iraun dezu-ta.
Lenago gazte sasoiko giñan,
gaur gaude pranko zartuta.
Seme-alabak, lagundu guri
premia izango degu-ta.

Uzt:

Agur, basarri maitea eta
agur diguzuna bultza;
berriz eztegu deretxorikan
guk sartutzeko onuntza.
Seme-alabari erakutsi'egu
ofizio ona ta izkuntza.
Jaunari eskerrak espero degu
gazte auexen laguntza.

Las:

Kanpora goaz famili dana
baserritxo bat utzita;
bizi nai degu danok alkarri
biotza erakutsita.
Gurasoak mereziko dute
seme-alabak azita.
Ez ikaratu alkar artuta
nunai giñazke bizi ta.

Ltx:

Ni jaio nintzan baserritxo
biotzetik nuen maite;
baiña nagusi jaunak joateko
orain agintzen digute.
Aita ta ama premiz dauzkagu,
nere anaia Lasarte.
Guk beintzat mantenduko ditugu
arnasa daukagun arte.

Basarri eta Lazkao Txikiri gai: Basarri, ezkontzeko amorratzen bizi dan neskazaharra da. Iztueta, ezkondu eta asperturik dagoen andrea.

Lehenengo, puntuak.

Atx. Zer egingo zenduen ezkondu baziña?

Atx. Damututa al zaude garaiz ezkondua?

Bas: Gizona maitatzea gauzikan aundiña. Nunbait ori etzegen neretzat egiña. Auxe da bizimodu oso ezberdiña!

Ltx: Ondo probatu degu zertsu dan mundua. Zenbait artu ezkeru betiko galdua. Ni beintzat ezkondua nago damutua.

Eta puntuei erantzun ostean, aurrez emandako gaiari buruz hiruna bertso kantatu zuten.

Bas: Lagunari aitortu bear diot egiz, aspalditik jo nuen izan ere begiz. Ni beti ezkontzeko izan naiz egarriz, baiña damutu zaigu amar milla aldiz.

Bas: Auek bildutzen dira pareja petrala: gizona ere ala ta andrea zitala. Nik ikusirik beti saltsan dabilzala, askoz obeto nago nagoen bezela.

Ltx: Gizona eta biok beti gabiltz marmar. Gertuan ezin ikusirikan alkar. Biok alkarrentzako zenbat arrazoi txar! Askoz obetoago zabiltza neskazar.

Ltx: Zuk daukazuna beti ezkontzeko griña; ta gauzik okerrena billatu eziña. Ezin dezu sendatu biotzeko miña. Bai San Antoniokin egongo baziña.

Bas: San Antoniokin ego-
teko banun era;
akaso egun batez
ezkonduko gera.
Gizona asten bazaizu
gogorki jotzera,
etzera aundituko
len txiki bazera.

Ltx: Neskazar, itz egin zazu
poliki-poliki.
Itz egingo luke ori
zer gauz dan baleki.
Zu gauza orren bildurrik
ez daukazu, noski.
Zeiñek jorik eztaukana
eztago obeki.

Manuel Lasarte eta Basarri jarri zituen gero lanean, gai hauxe emanda: Bata petrikiloa, eta bestea sendagilea. Puntuak:

Atx. Zuk asko ikasi ta
petrikillo fama.

Atx. Milla ezur konpondu
dezu onezkeru.

Las: Nere titulua orduan
aiziak darama.
Erakusten nekaturik
aita eta ama.
Azkenian nik egin det
ume baten lana.

Bas: Nik jarritakorikan
gaur gaizki eztago.
Eskerrak ematen dizkit
askok bero-bero.
Kejik ezta nik eskua
erabili ezkeru.

Eta gero bertsoan egin zuten gai horri buruz.

Las:
Kuranderoa, emen zaude zu
medikuaren onduan;
berialaxe sartuko naiz ni
arrazoiaren fonduan.
Ezur konpontzen gogor zabilta
askotan kontrabanduan.
Zer eingo zendun zuk titulutik
piskat izan bazenduan?

Bas:
Ondo gogoan artu bear dezu
orain esango dedana:
estudiorik batere gabe
gogor egiten det lana.
Nere ustetan merezi nuke
esker ona eta fama.
Zuk senda ezin dituzun danak
etortzen dira nigana.

Las:
Gu iñola ezin bildu giñezke
biok platera batian;
konturatuko zera zergatik
itz erdi bat esatian.
Emen zabiltza zere lanetan
joan dan ogei urtian.
Aurrera're ola ibiliko da
nik galerazi artian.

Bas:
Gure Jainkoak guri eman zigun
oso gerezko indarra.
Gutziz egoki moldatzen degu
datorren gaixo baldarra.
Guk amaikari eman diogu
beintzat osasun ederra.
Gaurko mediku auegatican
badago gure bearra.

Bertsolari denei hiruna puntu jarri zien gero. Basarriri jarritakoak hauexek dira:

Atx. Kukuak zoriona
guztiontzat dakar.

Bas: Nik eztet aitu baiña
esan dezu azkar.
Orrek poztutzen ditu
nola gazte ta zar.
Aurtengo udaberria,
ez bedi izan txar.

Atx. Andreak agintzen du
amaika etxetan.

Bas: Au zertako sartzen da
olako saltsetan?

Las:
Goguan artu zuk, enplastero,
mediku onen esana:
gauza motxa dala uste det nik
titulu gabeko fama.
Engaiñatuta askotxorekin
zuk egiten dezu lana.
Zuk ondatuta gero etortzen
dira medikuagana.

Bas:
Nik ondatuta utzitakoak
asko eztituzu junak;
ematen ditzet nere biziko
txertu eta osasunak.
Ez itzatzute sinistu gero
jaun onek esan ditunak.
Titulu danak alperrik ditu
abiladerek eztunak.

Aritu bear luke
berorren klasetan.
Gai ontan onek itzik
eztauka ezertan.

Atx. Osasunikan gabe
ezta zorionik.

Bas: Iñor ezta egongo
ori eztakinik.
Egundoko poza ba-
dadukak orain nik.
Obeto eztet uste
gerta ditekenik.

Basarriren azken agurra:

Pena ematen du zuek utzita
joan bearra etxera;
baiña eztago ainbeste bide
Zarauztik eta onera.
Bein bear eta porta zerate
euskaldun zintzo antzera.
Gu beartuak gaude berriro
zueri erantzutera,
ta iñoiz premiz izan ezker
pozik etorriko gera,
euskaldun zintzo antzera.

Oiartzunen, 1963ko maiatzak 19

Festa bikaina antolatu zuten Oiartzunen, Manuel Uztapide eta Joxe Joakin Mitxelena omendu nahita. Izan ere, Uztapide Euskal Herriko bertsolarien txapeldun izana zen berriki; eta Mitxelena, berriz, Gipuzkoako txapeldun. Alfontso Irigoien izan zen gai-jarzaile, aipatu dugun 1962ko txapelketan bezalaxe.

Bigarren saioan, Basarri, Juan Joxe Eizmendi Errexil, Arozarena eta Xanpunek kantatu zuten, eguneko jaialdiari buruz, nahiz eta hemen Basarri eta Errexilek kantatutako bertsoak jasoko ditugun oraingo.

Bas:

Erri baten nun billatu leike
au bezelako pare?
Gure Jainkoak emanda' ezute
olako abildadea.
Urte askoan naiko nuke nik
zoriontsu ikustea.
Biotz erditik agurtzen ditut
bata bezela bestea.

Err:

Diferentia izango dira
guk kantatutako bertsoak;
baiña alare entsaiatuta
ia bada igualtsuak.
Ongi etorri egin digu gaur
aiuntamentu osuak.
Guri begira zai ortxe zeuden
zabal-zabalik besuak.

Bas:

Nik ikusten det Euskalherriak
nola alaitzen dituzuten;
eta jenderik ezta aspertzen
iñoiz zueri entzuten.
Konturutzen naiz, anai maiteok,
zenbat meritu dezuten.
Gaurko omenaldi zoragarri au
ondo merezi zenduten.

Erre:

Anai-arrebak, goazen aurrera
umorian ta pakian.
Gure Jainkuak gauz au eman du,
bai, Oiartzun parajian.
Bi bertsolari ooratzte'ituzte
biotzetik kurajian.
Eztira noiznai ola izaten
bi txapel erri batian.

Bas:
Jaungoiko maite, eman zaiezu
bi laguneri osasun.
Ortaka gure erriak badu
makiñatxo bat ontasun!
Konturatuko al ziñan, noski,
emen zein gizon daukatzun.
Pozez zoratu ziñezke orain,
biotz nereko Oiartzun.

Erre:
Oiartzun onek aitatu gabe
uzteik merezi etzuan;
uraz bestaldian bizi naiz baiña
kasik-kasikan auzuan.
Gaurko egun zoragarri au
ongi merezia zuan.
Biotzetikan opa dizuet
txapela urte askuan.

Bas:
Omenaldira etorri eta
ezin nekatu kantuan;
goralmen danak eman litezke
iru edo lau puntuan.
Oraingo nere ateraldi au
artu zazute kontuan:
bertsoen faltik ezta izango
ondo bazkaldutakuan.

Erre:
Bestiak asitako saillari
nik biar diot segittu.
Gaur erri batek eztauka iñun
Oiartzunek ainbat meritutu,
alde guziko anai-arrebak
gaur nola diran arkittu.
Bazkaltze'etorri zaitezte gukin
nai badezute geio adittu.

Bazkalondoko bertso-saioaren ostean, bertsolariak, telegrama irakurketak, kantuak eta kontuak, umore ederra izan zen Oiartzunen 1963ko maiatzaren 19ko omenaldi-bazkarian. Baita Basarriren hitzaldi errimatua ere, beste askotan bezala:

Oiartzun maite, itz bi zuretzat
pesta guztien aurretik.
Esan bear ditudan itzak
irtengo dira barren-barrenetik.
Oiartzun,
zuk eztakit zer dezun.
Gaixo nintzan denboran
zuk eman zidazun
kementasuna bezela osasun.
Ta Basarrik eztaki iñoiz
ordainduko ote dizun.
Zure mendi-gaillurrak,
zure soro-zelaiak,

bertako anai-arrebak
bezin alaiak.
Zure eliz donea,
kanpantorre zarra,
istoriaren buruz urteen urteetan
izan baitu indarra.
Nork ager lezake itz gutxitan
Oiartzunen kondaira?
Gizaldi ta gizaldi zear emen
ainbat gauza gerta baitira.
Baiña nik une ontan
apaltasun osoan,
itz bi esan bear ditut

eta biak bertsoan.
Lengo egun batez aitatzen nuen,
eta askok izango du gogoratua,
Xenpelar bat ere
Oiartzunen izan zala bataiatua.
Errenteriko seme ernea,
Errenteriko seme argia!
Ai, aren gisan guk goraldtu
al bageneza Euskalerrria!
Aren gisan ezpada,
utz dezagun erdira,
edo laurdenera.
Beintzat, al deguna egiteko
asmoz etorriak gera.
Xenpelarren ondoren,
zenbat olako!
Nik danak ezin gogoratu
ain burutsua ez naizelako.
Baiña au esan nezake:
Oiartzun izan dala
bertsolarien arrobi.
Len etzekitenak ere
entzun dezatela ongi,
arrobi bat bear dala
arri onaren lantzeko;
ta au bezelako sorlekuak
eztirala alperrik galtzeko.
Arrobi orren ondorenean,
gizalditan zear, badatoz gazteak.
Aurreko zarrak onak baziran
aien zorrik ez dute besteak.
Ta gaur nere begien aurrean
orra nun dakustan bi maikide:
alde batetik, Mitxelena,
bertako landarea;
ta bestetik, Uztapide.
Zestuako errian sortua,
baiña Oiartzunen indar arturik
ara nola ikusten ditugun

uztarri batean loturik;
eta ikasi zuten izkuntzarentzat
biotz-anima txoraturik.
Ni, ezjakin, ergel bat;
len goi xamarrean izana,
gaur bigarren mailla naizana,
baiña egia garbi aitortuko dedana:
Nere pozik aundiena
lagun trebeak galga ontan ikustea.
Goizean esan bezela,
zoriontzen ditut
bata bezela bestea.
Eta iñork ez dezala izan
erreñuaren itzalik,
iñork ez dezala izan
beregana lutoa.
Basarriren biotz zabalak
eztu ezagutzen gorrotoa.
Neretzat lagun zerate danok.
Neu naiz eskasena,
zuek askoz gehiago;
eta zuek goraltzeko ta ondratzeko
beti presturik nago.
Iñoiz, nai ezik, uste gabe,
ezertan egin badet pekatu,
lagun maiteok,
auxe eskatzen dizutet:
barkatu, eta barkatu!
(txaloak)

Egun ontan auxe eskatuko diot
zerutar Jaun altsuari:
argitasun berezi bat
eman dezaiotela nere laguneri.
Urteak aurrera dijoaz,
eta eztute barkatzen;
len sendo samar giñanak
asi baigera argaltzen.

Baiña pozaldi egundoko
bat daukat,
eta barren-barrengoia:
arbol zaarra iñoiz galtzen bada ere
badatorrela ondorengoia.
Bertsolarien arbolak
nunai eman baititu adarrak,
eta ortan daukat poztasun,
eztirala galduko gure
oitura zarrak.
Nere azken itzetan
au da aitormenik jatorrena:
Milla ta milloi bat bider zorionak,
Uztapide eta Mitxelena.
(txaloak)

Orain erriko alkate jaunak
eskutara eman nai die erregalo.
Oiek artzen dituzten garaian
biozki jo ezazutela txalo.
Artzen dituzten erregali oiek
ondo mereziak baitira.
Gizalditan frutu ugariak
bekarzkite gu sortu giñan
Euskalerrira!
Azken-azkenik, alkate jaun maitea,
ea, ba, biotz zabala izaten dezun.
Merezi dutena eman zaiezu;
ta, gora ta gora Oiartzun!
(txaloak)

Bilbon, 1963ko irailak 22

Euskaldunen eguna zela-ta, bertso-jaialdia eta festa ederra antolatu zuten Bilbo eta Bizkai aldeko bertsozaleentzat. Hantxe jasotako bertsoak dira orain irakurriko dituzun hauek.

Alfonso Irigoien izan zen jaiaren antolatzaile eta gai-jartzaile. Bertsoan, berriz, Uztapide, Mugartegi, Balendin Enbeita, Basarri, Lopategi, Arozamena eta Azpillaga.

Bere bat-bateko bertsoen bilduma egiten ari geranez, Basarrik botatako bertso batzuk jaso ditugu jaialdi hartatik ere.

Puntuak:

Irig: Ez da errez sendatzen
xarren enpatxua.

Irig: Il zan Aita Santua
ta dago berria.

Bas: Orren erremedia
esatera nua:
garaian artu ezker
ondo indiziua,
pertsonek kunplitzen du
obligaziua.

Bas: Paulo seigarrena da
aulkian jarria,
gizon azkarra eta
asko ikasia.
Aren esperantzeta
gaur mundu guztia.

Ofizioan launa bertso botatzeko jarri zien gaia hurrena: Enbeita apaiza izango da; Basarri, elizak azpian harrapatuko ez duen horietakoa.

Balendin Enbeita:
Aspalditxoan sermoi egiten
batere ez naiz aspertzen,
eliztar asko ditudalako
barren-barrendik ezautzen.

Nere alboko au baiño aspaldi
etxataz eleizaratzen.
Begira nago noiz etorriko
ete dan berau autortzen.

Basarri:
Gure errian abadiagaz
oso gabiltza aldrebes;
bide txarrean asi zan eta
zuzentzen ez dago errez.
Kalidadea emen pertsonak
ekarritzen baitu berez,
predikau ondo eiten du baiña
berak kunplitu baterez.

A. Enbeita:
Dotore samar au aurkitzen da,
eztu iñon errukirik.
Bere barrengo arrokeriak
ez eutse emoten tokirik.
Bestien ona nundik datorren
eztau orren ardurarik.
Nai dabena da aukeran bizi
bere poltsea beterik.

Basarri:
Zoritxarrean gaur elizetan
badaude onelakoak;
bere denboran ein ditu onek
gauzik okerrenekoak.
Nik bezelaxe gaiñezka dauzka
gorputzean bizioak,
ta neretzako balioko al du
jaun onen konfesioak?

M. Enbeita:
Asi bearra dago gaur emen
egiak ondo autortzen.
Zuk ere ikasi bearco dozu
bear dan eran bizitzen.
Aspalditxoan elizarikan
zuk ez badozu zapaltzen,
alper-alperrik zatoz neugana
zure obenak esaten.

Basarri:
Aitortzen dizut, pekatu asko
nago bizitzan egiña;
bateon bati esango dizkat
zuri ez esan nai baiña.
Txikitatikan beti izan nuen
nik elizarako griña.
Egunero elizan nintzake
zu apaiz ona baziña.

J. Enbeita:
Ikusten nago galdu dozula
emen zeure sinismena.
Ez al zenduan ikasi lenau
Jainkuak esaten duna?
Mundu onetan ordi gaiztoak
bai dakizu gariana;
nire okerrak ez dautzu emongo
infernurako errenpena.

Basarri:
Gaizki egiten dedala dakit
ta ondatzen naiz betiko;
baiña, jaun maite, kastigurikan
nigan ezta ereriko.
Zu zuzendutzen ezpazerade
elizara ez naiz asiko.
Abade jaunak ejenplu eman
bear du lendabiziko.

Puntutan egindako saioa:

Bas: Zer moduz arkitzen zera,
Balendin Enbeita?

Enb: Aspalditxoan daukat
bizitza polita.

Bas: Irurogeita bost bat kilo
pixuan jarrita.

Enb: Orregatikan neronigaz
bate eztu inporta.

Enb: Gure Basarri dago
sendo ta gizona.

Bas: Gazte denboran ni're
liraiña izana.

Enb: Orain loditutea
ez da gauza ona.

Bas: Muxikan ezin billatu
olako gizona.

Bas: Anboton egin degu
gaurko bazkaria.

Enb: Barriro be jango leuke
bazkari barria.

Bas: Irurogei bat pezta,
etzan garestia.

Enb: Ala ta ezin bete du
beraren tripia.

Txapelketa bat balitz bezelaxe, lau oinak eman zizkion gero
bertsolari bakoitzari. Basarriri jarritakoak auexek dira:

Traba, alaba, laga, ona da.

Bas: Orain jarri dun puntua
neretzat ona da.

Nik egin dedana gaur
gauzatxo bat laga.

Bilbon ikusten nuen
sekulako traba,
argatikan etxean
utzi det alaba.

Jaialdi hartara etortzekotan zen Xalbador; baina huts egin zuen;
eta, Lopategirentzat bikotea behar-eta, zotz egin zuen Irigoienek.
Basarriri egokitu zitzaion haren hutsunea betetzea jaialdian.

Puntuak jarrita, bigarren txandan:

Irig: Alperra direttore
paratzen danian,

Irig: Itzak legunak eta
biotza bestera.

Bas: produziorik ezta
egingo lanian.
Danok jartzen zaituztet
orain jakinian:
olako asko dagola
gaurko egunian.

Bas: Deitu zendutelako
gu etorri gera.
Zirikatzen aspaldi
gogor ari zera.
Alfontso, ez etorri
illea artzera.

Lopategi eta Basarriri ofizioa eman zien gero, teman egin zezaten: Senar-emazteak zerate, eta zakurra eta katua bezela ari zerate beti petrakerian.

Lopategi:
Bion artian ez dogu eiten
pareja oso abilla.
Zer bizimodu daruagun guk
emen azaldu dedilla
Etxera junda egun guztitan
dadukagu maratilla.
Nik trabenera alde ein bear
kontsuelo pixkaten billa.

Basarri:
Jende prestua ementxe dago
gure bertsoak entzuten.
Ai, nere senar gaizto kaskar au
nola ezautzen eztezuten!
Al dun danean esan du berak
dabil tabernara jutun;
naiago nuen gaztetan ere
ezautu ez baziñuten.

Lopategi:
Iruditzen iat gauza orretan
ondo egiten dodala;
pekatu asko ditut nik baiña
zu be etzara makala.

Esan liteke oin beranduan
damututzen asi dala.
Ezkondu aurretik bazekin onek
ardauzalia nintzala.

Basarri:
Pixka bat mudatuko ote ziñan
ori artu nun goguan.
Astero kintzena artzen du ta
or gastatzen dit jokuan.
Seme-alabakin negarrez nago
ni beti sukala onduan.
Martiri asko izango ziran, bai;
neu lelunga munduan.

Lopategi:
Mundu onetan santu egiña
aurrian degu ikusten;
baiña nor berak esanarekin
zerura ez da iristen.
Ni egunero lanian ziur,
jornal ederra irabazten;
eta geiena gastatzen du
bere pinturak erosten.

Basarri:
Naiko denboran baldin banengo
bear bezela aserik,
gure etxean ez litzake, ez,
palta pintura klaserik.
Zuk emandako diruarekin
eztadukat erosterik.
Nere senarrak ezer eztauka
prakak soiñean besterik.

Lopategi:
Zerbait pentsatu bear dozue
gizon auxe ikusita;
emaztiaren papelarekin
ez dago orren polita.

Puntutan egindako saioa:

Lop: Zu zera emaztea
ta ni naiz senarra.
Bas: Zure klasekoa obe
bait da bat bakarra.
Lop: Erosi nuanian
negozio txarra.
Bas: Nola ezagutu nuan
olako kaldarra?

Bas: Bromatakoak dira,
ez ezer sinistu.
Lop: Gu emen barrezka ta
gero ere ez istu.
Bas: Lenago beroa etzan
eta orain oztu.
Lop: Dirua gastatzeko
beti dago prestu.

Nik praka zarrak jantzitzen ditut
nere diruz erosita.
Belaun bi ditut autsiak ointxe
onek josten ez daki-ta.

Basarri:
Josten eztakit, baiña konpontzen
diot trajearen ertza;
etxetik zuri atera eta
entregatutzen dit beltza.
Gauean berriz bazterrik bazter
iru metroko balantza.
Jaungoiko maite, erruki nitzaz;
zugan daukat esperantza!

Lop: Zintzo egiten dot nik
egunero lana.
Bas: Alare emazte onek
badu zer esana.
Lop: Alperrik galdutzen du
beti nik emana.
Bas: Jainkuak nola bialdu
zuen au nigana?

Bas: Etzaitetz asarretu,
lagun Lopategi.
Lop: Gaur azaldu ditugu
amaikatxo egi.
Bas: Orain luzatu zaidazu
bosteko zar ori.
Lop: Asarre ez izatian
ezin geinke segi.

Lau oinak Basarriri:

Dakarrena, txarrena, trenna, irugarrena.

Ezta izango, noski,
au irugarrena;
esango det buruak
orain dakarrena.
Artu bearra daukat
kotxe edo trenna.
Zuek utzi bearra
ori da txarrena.

Hurrengo bueltan, bertsolariak bakarka hartu zituen A. Irigoienek. Eta lehenengo puntu bana jarri zien, gero gaia emanez:

Irig: Inuzente dagonak
sinisten du dana.

Bas: Orixe izango da
Alfontsoaren plana.
Nik ere baditut gero
aita eta ama;
tentatzera alperrik
zatoz gaur nigana.

Bertso bat botatzeko gaia Basarriri: Zerua.

Zer zeran etzaitut, ez,
lendik ikusia;
baiña zera justuen
zoriondegia.
Zugana inguratzeke
daukat egarria.
Arren, gorde zazula
neretzat tokia.

Bertsolari denei gai berdina eman zien gero, baina doinu ezberdinean bi bertso botatzeko eskatu zien: Gezurrik haundiena nork esan.

Bas: Lenengo entremesa
elefantetikan;
lau tranbia ikusi
ditut airetikan.
Bilbaotar maitiak
ikustiatikan,
igeri etorri naiz
itsaso azpitikan.

Auzoko igeltseruak
egiten du ogi;
apetituik eztunak
jaten du ura ongi.
Bilbaoko batzarrak
zerua dirudi.
Sekula eztet entzun
gaur ainbeste egi.



Basarri eta Uztapide Arantzazun.

Zarautzen, 1963ko apirilak 7

Beste askotan bezala, bertso-jaialdia izan zen Zarauzko Zinema pilotalekuan egun hartan. Patxi Barbero izan zen gai-jartzaile.

Basarri eta Agirre elkarrekin jarri eta ofizio hauxe eman zien: Basarri, nekazariarentzat antolatu den Zabalegi eskolara joan nahi duen semea da. Agirre, aita. Etzaio gustatu semearen proposamena.

Bas:

Aita maitea, entzungo al dezu
zure semian ojua,
lurrak ondo erabilitzeko
bear baita maneju.

Baimenik ematen badidazu
ni Añorgara nijua.
Ezer ikasten ezpaldin bada
etxia akabo dijua.

Agi:

Seme maitea, aitik nai dizu
gauza garbi nabarmendu:
eskolarikan ikasi gabe
ezin al leike mantendu?
Olakoik gabe zure aita zarrak
bizitza ona eraman du;
eta zuk ere zerbait baleike
lana egingo bazendu.

Bas:

Aita maitia, etzaidazula
eman orrelako miñik;
gure etxian zer gertatzen dan
zeuk bezela badakit nik.

Eskola gabe ta buru gabe
zaude lan asko egiñik,
ainbat urtian neketan eta
zorrak pagatu eziñik.

Agi:

Seme maitea, kontseju on bat
emango dizut suabe:
zuk dadukazun martxa ortatik
badatoz milla naigabe.
Ikusten zaitut ein nai dezula
eskola on baten jabe,
baiña lurrak ez dizu emango
besorik nekatu gabe.

Bas:

Eskolak lanerako eztitu
olako enbarazuak;
jakintza bidez estranjeritan
daude ain gora jasuak.
Ikasi eta saiatutzeko
izan gaitezen zintzuak;
bururik eztan tokian eztu
ezer luzitzen besuak.

Agi: Seme maitea, zu oker zaude
nere iritziz orretan;
nekau nai ezta ikusten zaitut
oso bide okerretan.
Eskolarako ilusioak
zuk dauzkatzu indarretan.
Eite'ezpadezu eztaukazu ezer
gure soro baztarretan.

Zarautzen egindako jaialdian, Basarri eta Mitxelenak saioa egin zuten, puntuka.

Bas: Puntua jartzen dizut,
lagun Mitxelena.

Mtx: Nik erantzungo dizut
emen al detena.

Bas: Portatu gaitezen, ba,
al dan jatorrena,

Mtx: laster joan eztedin
onuntz datorrena.

Mtx: Zarauzko erriak gaur
badaduka jaia.

Bas: Bazeguen, bai, emen
auxen egin naia.

Mtx: Esan leike daukala
egun bat alaia.

Bas: Piska bat esnatzeko
ez al zan garaia?

Basarrik arrantzaleei botatako bertso hauek ere jasotzekoak direla uste dugu:

Arrantzaliak illun zeduzkan
nola lur eta zeruak;
bururik jaso etzezakela
giñuzen errezeluak.

Giro onikan ezpaitu izan,
jaunak, aurtengo neguak;
eta aspaldi bukatu ziran
atunetako diruak.

Saiatu zaite aurrera ere
zu, arrantzale zintzua,
boga ta boga, beti trebeki;
eta kantatu bertsoa.
Gaurtik aurrera doblatu zazu,
aizu, zeure arraintxua.
Itxaropena eduki zazu,
ona baita Jaun altsua.

Markinan, 1963ko maitzak 26

Jaialdi haundia antolatu zuten Markinako pilotalekuan egun hartan: Jon Lopategi, Jon Azpillaga, Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki, eta Joxe Lizaso bertsoan eta Alfonso Irigoien gai-jartzaile zela. Juanito Garate *Maltzeta* trikitilaria soinua jotzen, eta Agerre I eta Agerre II, harri-jasotzen.

Basarri eta Azpillagak egin zuten saioa, A. Irigoienek jarritako gaiari lotuta: Basarri, eskolako maisua da, eta Azpillaga, eskola hortara joaten den mutikoa. Astebete honetan ez da joan, halare, etxean ezer esan gabe.

Bas: Len ere kantatua
milla bertso eder;
kontsejuak eman dizkat
nik ainbeste bider.
Mutiko onek eztu
ikasiko ezer,
orain bezela egi-
ten badigu piper.

Azp: Maisuaren esanik
eztet aintzat artzen;
aspalditikan nago
errespetu galtzen,
ezpaitet ezertxo're
zugandik ikasten.
Gutxi jakin izan banu
etorriko nintzen.

Bas: Nere ikaslia ezta
artaiño jatorra.
Meritutan etzaigu,
ez, igoko gora.

Gurasuak ezin paga
eskolako zorra,
ta onek ikasteko
burua gogorra.

Azp: Onek esaten digu
arrazoi morduak.
Lagunak ditu onek
pattar ta arduak.
Eskolara zertara
gu gaude bilduak,
tabernan pasatzen bai'tu
eskolako orduak?

Bas: Maisuak, egia esan,
maite du taberna;
baitare kunplitzen du
eskolako ordena.
Nere ikasle au degu
pixka bat kirtena.
Onen aitak eta amak
emate'ute pena.

Azp: Au ikasia det nik
juan dan astian:
alperrak asko bizi
dira erbestian.
Ikasi ezer ez arren
denbora gaztian,
alperrak bizi dira
fiñak ainbestian.

Beste txandan, Basarri eta Lopategi elkarrekin teman jarri zituen. Gaia: Bi naufrago zerate zuek. Itsasontzia hondatu eta ohol bati helduta zaudete, baina biok heldu ezkeru, hondora zoazte. Nor salbatu?

Bas:
Itsasuakin izan biar da
makiñatxo bat arreta,
egun askotan peligruetan
dana josirik gaude-ta.
Zuk bizitzeko oraindik zaude
asmo bikaiñez beteta,
nik urpera joan bearko det
puska bat zartu naiz-eta.

Lop:
Gizona ola arrazoiakin
nai nuen nik be ikusi.
Zure gorputza itsas sakonak
egingo al du iruntsi?
Bizitzak zer dun gozotasunik
ola nai dau erakutsi.
Gorputz aundi au ol txiki batek
gaiñian ezin lei eutsi.

Bas:
Ni azpira joango naiz eta
ola uzten det zuretzat.
Maitetasuna agertutzen det
nere lagun urkuantzat.

Pisuan ere eun da amar bat
kilo izango naiz beintzat,
a zer mokadu goxua nagon
urpeko tiburoientzat!

Lop:
Ala nai bozu erori zaite
ur sakonian suabe;
aita ta amak ni bizitzeko
mundura ekarri nabe.
Baiña ez uste alare emen
naizela biotzik gabe,
meza eder bat aterako dot
zure arimaren alde.

Bas:
Meza eder bat atera ezkeru
nola etzaitut maiteko?
Gazte maitia, prestatzen zera
obra ori egiteko.
Urtetan ere aurrera nua,
gerturik nago iltzeko.
Zarrak aldegin ein biar degu
gazte auek bizitzeko!

Lop: Gizona zer dan ezagutzen da
dagonian apuruan:
gure Basarrik maitetasuna
naiko du bere barruan.
Aita San Pedroi goraintzi asko
nere partetik eruan;
leku eder bat niretzat ere
gertatu zazu zeruan.

Orion, 1963ko ekainak 30

Orioko Leunda zinetokian, bertso-jaialdia antolatu zuten 1963ko San Pedrotan. Basarri, Uztapide, Joxe Lizaso eta Lazkano eraman zituzten, hain juxtu. Bertsolarien gidari eta gai-jartzaile Patxi Barbero izan zen.

Basarri eta Uztapide elkarrekin bertsotan jarri zituenean, gai hauxe eman zien: Basarri izango da anai gaztea. Uztapide, anai zaharra. Aita zanak baporea tresna guztiakin utzi zien herentzian.

Uzt: Anai gaztia, jarri
nere esanian,
enteratu baitira
Orio danian
barkua utzi zigula
aitak il zanian.
Zu alperkeriz zabiltza
eta ni lanian.

Bas: Barku ortan badabiltz
makiña bat traste;
aundiña auxe dala
esango det laste.
Konpondu giñezkenik
etzazula uste.
Aitak ni maite niñun,
aizu, zu ainbeste.

Bas: Anai zarrak guztia
nai du bere eskutan,
eta gaztiakin sarri
or dabil disputan.
Nik eztet ibilli nai
baporian puntan.
Interesan erdia
ekatzu dirutan.

Uzt: Aitaren esanetan
oso zuzen zabiltz,
baiña gu itsasuan
penaturik gabiltz.
Lanian jarraitzeko
eman zaidazu itz.
Barku ori galdu zan
ni izan ezpanitz.

Uzt: Atrebitzen al zera
ematen arpegi?
Nik botatzen dizut zuri
urrutitik begi.
Interesen erdiak
dirade geiegi.
Ori nai baldin badezu
barkuakin segi.

Bas: Anai zarra oker dabil
itsasoko martxan.
Bildurra ere banun zu-
zenduko ez ote zan.
Orain'e iru egun
parrandan ta saltsan.
Orion ez egon onen
atun-esperantzan.

Basarri eta Uztapidek puntutan egindako saioa.

Bas: Manuel, ez ote naiz
piska bat asiko?

Uzt: Zenbateraiño zeran
degu ikusiko.

Bas: Bota bear det emen
gaur milla graziko.

Uzt: Etzera nagusia
atsalde guziko.

Uzt: Esan nai du nagola
tamaiñan pasia.

Bas: Nik ondo ezagutzen det
olako klasia.

Uzt: Buruan jarri zaio
olako aizia.

Bas: Gorputza laburra ta
jan-edan luzia.

Uzt: Juan bearko dezu
entzunda zeuriak

Bas: Berorrek ere aittu
bea'ittu beriak.

Uzt: Ortako gutxi dira
zu baiño obiak.

Bas: Ikusiko dittugu
zure abildadiak.

Bas: Zer moduz bizi zera
Oiartzun aldian?

Uzt: Gaizkio're badabiltz,
bai, gure taldian.

Bas: Jai du onek astian,
berdin igandian.

Uzt: Nun afaldu bear da
gaur arratsaldian?

Bas: Toki Alaia-n dago
ondo bazkalduta.

Uzt: Ez al da obe, bada,
gizon azalduta.

Bas: Gauzak jakin ditut nik,
berak esan du-ta.

Uzt: Lagun obia nun dek
Uztapide salduta?

Uzt: Bukatzeko esaten
ari zaigu Patxi.

Bas: Segitutzeko ere
guri inporta gutxi.

Uzt: Beste lagunen txanda
dek orain iritsi.

Bas: Denak aspertu baiño
obe degu utzi.

Basarri eta Joxe Lizaso jarri zituen gero, gai hauxe emanda:
Basarri bapore bateko patroia da; Lizaso, eskabetxe-fabrikako
nagusia.

Bas:
Merezi ere baditu eta
entzungo dizkit bertsuak.
Gure etxian, arrazoiakin,
ez gaude oso gozuak,
gizentzen ari bait dira gogor
auzotako gizontxuak.
Oraindik onek zorretan dauzka
udaberriko antxuak.

Liz:
Iduritzen zait bildu gerala
biok alkarren antzeko;
neronek ere banun gogua
gizon onekin biltzeko.
Eta esan du lengo antxuak
ditudala ordaintzeko.
Leno ogei mila duro kenduak
baporia pintatzeko.

Bas:
Erantzuteko ez det artuko
estuasu eta presa;
merezi ere badu, noski, ta
erantzuna entzun beza.
Xentimorikan egundo eztu
eta aitatu interesa!
Ogei mila duro oni kentzen
ezta lantegi erreza.

Liz:
Biotzak dar-dar egiten zidan
zure bertsoa entzun ta,
ikusten danez gezurra oso
errezki esaten du-ta.
Len aitortu det nola zeguan
aurrez dirua kenduta.
Antxuak ere ordaindu nizkan
mutillez errukituta.

Bas:
Amaika olako komeri lendik
ondo ikusiak gaude.
Bein bear eta nere gainera
etorri desgrazi au're.
Lenago sarri eskatu dizut
ta eskatze'izut berriz ere:
nik baporia pagatu ber det,
portatzia ein mesede.

Liz:
Sarri askotan naiago nuke
begin bistatik aldegin.
Azkenerako arrazoirikan
beñere ez dago zurekin.
Ordaiña nago artzeko eta
odolak neri irakin.
Arrantzaliak, kontuz ibilli
olako patroiarekin.

Bakarka ere jarri zituen. Basarriri, Orioko barra gaia eman zion.

Gogoratu utsakin
datorkit negarra,
or itotako ainbat
oroitu bearra.
Orio onek gauz bat
dauka oso txarra,
arreglorik gabia,
eta zail samarra;
zure ondamentia
or daukazun barra!

Pentsatu utsarekin
jarritzen naiz miñez.
Gizonak or urpera
okerrik txikiñez.
Zenbat sartuko diran
oraindik jakiñ ez.
Itzak daude errexak
memori ariñez:
Agindu askok eta
iñortxok egiñ ez!

Azken agurra egiteko Basarrik kantatu zuen bertsoa, Orion:

Saio politak egin ditugu
geure euskera apaiñian,
pozaren pozez sartu bait gera
Orioko jardiñian.
Errespetuan egon zerate,
ixillik, zorionian.
Eta biotza alaitutzen da
au ikusitzen danian.
Gaur bezelaxe bildu sarritan
alkarren aldamenian;
gure paltarik ezta izango
osasunik degunian.
Gauza oberik bai ote dago
ezer gaurko egunian?
Anaitasunez danok bilduta
maitasun ederrenian.
Aurrera beti, aurrera gogor,
lengo bide zuzenian.
Orixe eskatu nai dizutet
Jainkuaren izenian.
Aspertu eziñik ari giñezke
ementxe kantu-lanian.
Agur anaiok, agur arrebak.
Deitu nai dezutenian.

Azpeitian, 1963ko ekainak 22

Manuel Lasarte gaixo zegoen; eta haren omenezko jaialdia egin zen Azpetiko Soreasu antzokian, operazio gogorra eginda zegoenari nolarebait laguntzeko asmoz. Basarri, Lazkano, Joxe Lizaso, Lazkao Txiki eta Uztapide eraman genituen bertsotara; eta Felix Aranzabal *Angiozarko Itsua*, soinua jotzera.

Bertsolariei gaiak eman, Artañolak eman zizkien, eta jaialdia-
ren aurkezpena Joxemari Iriondok egin zuen.

Basarri eta Uztapideri elkarrekin kantatzea egokitu zitzaizen, puntuak emanez hasita.

Art. Gizon baikaiña zaude,
lepo eta bizkar.

Art. Kotxiaz jo al dezu
iñoiz baztarrikan?

Bas: Begiratu eta onek
antzeman du azkar.
Bederatziri bat jarri,
osatzen da amar.
Oinbeste urtian beti
jan det ondo samar.

Bas: Zuri ori esanda're
alper-alperrikan.
Pagatu izan det nik
multa ederrikan;
baiña zuk eztaukazu
jakin bearrikan.

Gero, ofizioa eman eta teman biok. Gaia: Uztapide emaztea da. Basarri, senarra. Oso bihurri omen dabilta aspaldi honetan.

Bas: Ezkontzeko egin gendun
biok ajustia;
Ez nun uste urte auek
ola ikustia.
Bururik ezin jaso,
bizitza tristia!
Merke salduko nuke
nere emaztia.

Uzt: Eskerrik asko, senar;
ein dezu grazia.
Zure borondatia
dago ikusia.
Baldin bazaude nerekin
aspertzen asia,
nai detanian daukat nik
zeiñek erositia.

Bas: Badakit erostunik
eztezula bate;
erronka juagatik
zeuretzako kalte.
Garbitasuna daukagu
etxetik aparte.
Oitik etzait jaikitzen
amabiak arte.

Uzt: Larunbatian jaso
asteko soldata;
astero dator etxera
tabernan botata.
Semiak azten ai naiz
ederki kostata!
Iges ein obe nuke
gizona ezta-ta.

Bas: Ez ote det serbituko
emaztian platerik?
Askok pentsatuko zuten:
“arrazoi ote dik?”.
Proba ez tunak ez tu
pasatzen nekerik.
Emazte onek ez tu
andrian tankerik.

Uzt: Ematen dizkizut zuri
amaika enkargu.
Zorigaitzez egin nintzan
gizon onen kargu.
Arrazoiakin daukat
ezkondua damu.
Zerbait baiño obe nuen
ikusi ez banu.

Bas: Biurrituta beti
muturka or gabiltz,
amaika aldiz bekokia
beterik izardiz.
Neri're damutu zait
zazpi milla aldiz.
Bentaja ederra nuen
monja sartu balitz.

Uzt: Orain au erremeditzen
neretzako lana.
Jakingo dezu bidetik
atera zerana.
Monja juango dala,
bai balitza ama!
Ortxe esan du berorrek
gizona ez dana.

Basarriri gaia bi bertsoarako: gaurko jaialdia aipatu.

Matrailonduak sarri
malkua daukate,
lagun estimatua
baitago aparte.
Gaitzak ekarri dio
makiña bat kalte;
ori arindu asmoz
etorri zerate.
Lagunak badauzkazu,
aiskide Lasarte.

Era ortako ezbearra
badakigu zer dan,
ta familira zenbait
oker etortzen dan.
Sano balego naio
genduke aukeran.
Karidadia azaldu
beti gaurko eran.
Geuk ere eztakigu
nola izango geran.

Basarri, Uztapide, Agirre eta Lazkano elkarri puntuka.

Bas: Basarrik emango du,
beraz, asiera?

Uzt: Beti lana ta lana,
au dek biziera!

Agir: Gu're al dan gutzia
saiatuko gera.

Laz: Alare, ba, saririk
ezin degu atera.

Uzt: Geiago ezin liteke
saiatu alegiña,

Agir: danak eztute ori
pentsatuko baiña.

Laz: Ezer faillorik bada,
ori degu eziña.

Bas: Motelena izan zan
Basarrin mingaiña.

Agir: Sasoian etorri da
lagun zar Basarri.

Laz: Kolorera beiratur
diot nik igarri.

Bas: Premia zegola eta
bai pozik etorri!

Uzt: Lanik txarrena eman
ber diu erorri.

Laz: Gizon aundi au ezta
iruron bildurrak.

Bas: Saioa egiten degu
lauk edo irurak.

Uzt: Ez itzakela egin
bizkorren itxurak.

Agir: Olako gutxi daduka
euskaldunan lurrak.

Bas: Uztapidek bizkortzat
du bere burua.

Uzt: Uste izanagatik
eztek segurua.

Agir: Iñor zirikatze
zar au aingerua.

Laz: Nik pozikan artzen det
zarren anparua.

Uzt: Toki onera zatoz
anparuen billa.

Agir: Lazkano berau ere
eztago trankilla.

Laz: Zar pare au etzaigu
etorri umilla!

Bas: Au're aguretu da,
leno zan mutilla!

Agir: Zu tentatu nai zaitu,
lagun Uztapide.

Laz: Ori guztioekin
dago adiskide.

Bas: Parre egingo bada,
baita komeni're.

Uzt: Naikua zer esana
ni naizela bide.

Laz: Aitortzen det, Manuel:
badegu premia.

Bas: Azkena omen zan ta
ezta gegiegia.

Uzt: Azkar ixildutzia
gauza komenia.

Agir: Agur ta eskerrik asko,
jende maitagarria.

Azkenik, Azpeitiko Soreasuko jaialdia amaitzeko, Basarriren agurra:

Azpeitiako anai-arrebok,
artu nere zoriona.
Komeni zan da, au jaialdia
emen eskeiñi zaiona!
Gaur errukitan bete zaitia,
zeruetako Jaun ona,
eta lenbailen sendatu zazu
gaur ain gaixorik dagona!

Oiartzunen, 1963ko abuztuak 5

Gai librean egindako ondorengo bertso hauek Oiartzungo herri-ko plazan jasoak dira, 1963ko abuztuaren 5ean. Basarri, Mitxelena, Lexoti eta Kosme Lizaso ziren bertsolari, hain justu, nahiz eta ez dugun saio osoa jasotzerik izan. Basarri hasi zen lehenengo:

Bas:

Lendabiziko agurtzen ditut
erritar eta erria;
berealaxe izango da or
Basarri onen berria.
Lenago ere amaika aldiz
gustora asko etorria!
Babes goxo bat eman zaidazu,
Oiartzun maitagarria.

Mitx:

Guri begira emen zaudete
nik eztakit zenbat lagun;
iñor etzaigu asarre jarri,
guztiak biotzez bigun.
Sanistebanen festa ederrak
nola errian ditugun,
al baldin bada, umore onez
danak pasatu ditzagun.

Lex:

San Estebanek mundu onetan
pasatu zenbait martiri;
ta geroztikan ezagutzen det
erri ontako zaindari.
Aingerutxu bat bialtzen dio
bitarteko mandatari,
baldin premian arkitzen banaz,
arren, laguntzeko neri!

Kox:

Nere partetik nik ekarri det
jendeantzat zer esana;
auxe da poza golpe-golpetik
barrura sartu zaidana!
Oraindik ere ikusten degu
bertsozaleen afana.
Nere partetik entzule danoi
gaur beintzat egun on bana.

Bas:

Ai, mintzatuko baldin banintza
komeni dan bezin trebe!
Bide okerra eta zuzena
aukeran jarrita daude.
Zaindari maite, egin zaitetz zu
gure eskarien jabe;
bertsolariok ezer ez gera
zeruko laguntzik gabe.

Mitx:

Sanistebanen berririk ondo
eztaki, ez, Mitxelenak;
baiña beraren martirioa
entzun oi degu geienak.
Oiartzundarrak gera sarritan
fama asko deguenak.
Orduan ere oiartzundarrak
ote ziran il zutenak?

Lex:

Erdi alegre bizi gera ta
eztago bertso tristerik;
Basarri onek eztu merezi
kontestik gabe uzterik.
Etzuten uste gu oiartzundarrak
ontaraiño iristerik:
emen arrika eztira ibiltzen
txakur batzuek besterik.

Kox:

Entzun degunez bizia utzi
zun era negargarrian.
Danok dakigu zer pasatu zan
berakin gure errian.
Bere bizitza agurtu zuen
ark azkenengo arrian.
Santuaren zai an egongo da
zeruan erdi-erdian!

Bas:

Ai, nere txanda etorri da ta
kanta biar det berela.
Oiartzuarrak maitatzen ditut
nere anaiak bezela.
Sinistu, jaunak, nik notizi bat
nunbaite jakin detela:
egia al da Lexoti jauna
santu egin bear dutela?

Mitx:

Ori entzunda gure Basarri
zer pentsatzen ote dago?
Lexoti jauna gure errian
santu ein bearrik omen dago.
Baldin itz ori ez al da beintzat
egiazkoa izango!
Bestela eliza len joate'iranak
asko eztira joango.

Lex:

Jator izketan ai dan gizonak
eztu merezi kartzela.
Mitxelena orrek ez uste arren
entzun biar du epela.
Danak dakite Lexoti jaun au
relijosua dela.
Eliza jon ta lo eztit iten nik
ik itten deken bezela.

Kox:

Askorik uste etzan gizona
azkar jungo da santora;
bide orretan jartzen badute
laster da betikan gora.
Diabru uste nedukan baiña
ola egitia on da;
iñork au santu egiten badu
geldi asko egongo da.

Bas:

Alkar tentatu biar da eta
guk esan biar kontuak;
beste ondorenik eztu izaten
bertsuak eta kantuak.
Bizimodua aldatutzeko
artu ezik pentsamentuak,
Lexotirentzat firmik eztauka
oraingo Aita Santuak.

Mitx:

Basarrik ere arrabiz badik
iñoiz, bai, itz egiteko.
Zuk nondik dezu ezaguera ori
orren berri jakiteko,
esanaz oaingo Aita Santuak
eztula bera maiteko?
Urrena jartzen dana're il da
Lexoti santo eiterako!

Lex: Oso ezagun aundia det nik
gaur dagon Aita Santua.
Erroma jon ta itz egiteko
batek ber du talentua.
Santu itteko intentziua
nik badadukat naikua:
eun urterako jarriko da emen
Lexotiren estatua!

Usadioa zanez, puntutan egin zuten gero lau bertsoarielik:

- | | |
|--|---|
| Kox: Beste dozenerdi bat orain puntuetan. | Bas: Gizonak badauka beintzat satisfaziua! |
| Lex: Zuk'e bertsua eraman artutako letran. | Kox: Gu irurantzako dauka amorrasiua. |
| Mitx:Neonek'e aukera ona dadukat gaur bertan | Lex: Zuek uste ez arren gradutan iyua. |
| Bas: Laugarren nago ta eztaikit zer esango detan. | Mitx:Aitatzen du izarren kongregasiua. |
| Lex: Diabru zar auen artian ni emen aingerua. | Kox: Bera santu jartzen da disimuluakin. |
| Mitx:Estimatzekoa da onen enplegua. | Lex: Egingo niñutela len ere banakin. |
| Bas: Ori esateko, mutil, galdu al dek burua? | Mitx:Itz egiña omen dago Aita Santuakin. |
| Kox: Onek esaten duena ezta segurua. | Bas: Guk errezatutzia alperrik onekin. |
| Mitx:Beste iruak ote gera zabar eta lasai? | Lex: Basarri, Zarautzen badet andregai polita. |
| Bas: Gaur ere makiña bat badaude orren zai. | Mitx:Oain etorri zaion estranjera baita. |
| Kox: Eta Lexoti maite era ortan etsai. | Bas: Ura tentatzeko ere izan zendun gaita. |
| Lex: Ok ardi bezela eta neoni nago artzai. | Kox: Orrelaxe akordatzen da Kaskagorri aita. |

Mitx:Fabiolak ekarria
dauka Beljikatik.

Bas: Ori etzazu aita,
Jaungoikuagatik!

Kox: Balduinok egintako
lanak eitiatik.

Lex: Erregiñaren aizpa
artuko'ik Lexotik.

Kox: Egingo al degu, ba,
gure bukaera?

Lex: Aspertu dirala oek
emai'ot tankera.

Mitx:Jendea joan dedila
oin bazkaritera.

Bas: Lexoti bialdu zagun
Beljika aldera.

Bas: Berak esaten du ta
norberak sinistu.

Kox: Itzalita zegon sua
nai lukia piztu.

Lex: Neskazarrak besterik
ikusitzen eztu.

Mitx:Eskerrak ezkontza ezton
Lexotiren esku.

Elgoibarren, 1963ko abuztuak 31

Herriko zaindari San Bartolomeren jaiak zirela-eta, *Baserritarren eguna* antolatu zuten Elgoibarren, urtero egin ohi zuten bezala. Alde batetik, karga-jasotzaileak izan ziren, eta bestetik, bertsolariak: Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki eta Joxe Lizaso. Gai-jartzaile, Prudentzio Egiguren *Artañola* jauna.

Basarriren lehen agurra:

Bigarren txandan Basarrik ere
kanta nai du borondatez;
zuen artean egokitu naiz
zorionez ta suertez.
Oraintxe ere plaza betea
dago anai-arreba maitez.
Elgoibar ontan kanta dezagun
joan dan aspaldiko partez.

Gero, bertsolari bakoitzari ofizioa eman zion, deman egiteko: Lizaso baserritarra da. Uztapide, guardia zibila. Lazkao Txiki, moxaillea. Eta Basarri, epailea, jueza. Lizasori kortatik astoa harrapatu omen diote.

Liz: Baserritar bat emen nago ni
bastante ernegatua,
eztira gizon zintzuak baiña
guardiarengana bildua.
Bart arratsian ostu didate
ikuilluan nun astua.
Lazkao orrek eraman dula
dadukat errezelua.

Uzt: Beraz, ijito orri erantsi
bearko dizkat eskuak.
Oietan ere izaten dira
batzuk gizon tajuzkuak.
Zuri samarrak ere ijituak
baitu berriz Gipuzkuak.
Ia aldrebes irtetzen diran
baserritarran juzkuak.

Ltx:
Guardia zibillak arrazoi ona
atera digu azkenik,
orrek baitaki iñun astorik
ezetela arrapatu nik.
Oinbeste kulpa ote daukagu
guk ijituak izanik?
Ez pentsa gero lapur guztiak
ijitanuak geranik.

Bas:
Asto zaar bat palta dalako
ikuillun onen etxian,
erritar onek ijito zarrak
ekarri dizkit traillian.
Erabakia ni garbi nago
orain eman bearrian,
ta gezurrikan ez esan beintzat
juez jaunaren aurrian.

Liz:
Biotzeraiño sartu zait neri
juez jaun onetxen itza.
Baiña badaki nolakua dan
ijituaren bizitza.
Nere ondoko guardi onek'e
ez dio egin nai gaitza.
Nere iritziz bi gizon auek
alkar artuta dabilta.

Uzt:
Eztira oso ondo egiñak
egin dituzun ametsak;
guk ez ditugu egin izandu
olako lan aldrebesak.
Zuek biak ondo konpondutzen'e
eztaude ain lan errezak.
Egin ber nuna egin nuen nik;
orain esango'u juezak.

Ltx:
Basarritarra, nik astorikan
eztizut arrapatu ta
nik al dadukat zuri astua
ikuillutik faltatuta?
Ara zer gauzak etortzen diran
lenago fama artuta.
Lapur aundiak libre dabilta,
txikiak gaude lotuta.

Bas:
Egun batian oilloak dira,
beste batian astuak.
Juezarentzat etortzen dira
onelako disgustuak.
Ijituentzat izaten dira
sarri besten pekatuak.
Baserritarrak ere guztiak
ez dira oso santuak.

Liz:
Kale aldera jeitsi biarra
neretzako da negarra!
Noranai joan bear ta ere
nik banuen asto zarra.
Jueza ere ez al daukagu
orain erosi samarra?
Karga guztiak ibiltzeko gaur
nekazarien bizkarra!

Uzt:
Fama pixkan bat galdu ta gero
ez ote zaude lenago?
Baliteke nik oker egiña,
ori pentsatutzen nago.
Saldu dezula esaten ari
dira bat baiño geiago.
Esan dutenez asto zar ori
txorixo egiña dago.

Ltx:

Ijituaren juzgu dirade
lapurreta ori egiñak.
Orrelakorik ez du merezi
ijito on eta fiñak.
Sarritxotan gu izaten gera
zuzenen eta garbiñak.
Gaur ijitano zuriak dira
ijitorikan aundiñak.

Bas:

Itxura pranko egiten dute,
ta auek danak trankillak;
ondo dakite noiz eta nola
iriki're maratillak.
Juezak nola emango ditu
epai zuzen, biribillak,
ijituakin alkar artuta
badabiltz guardi zibillak?

Donostian, 1963ko irailak 17

Donostiako Euskal Festak zirela-eta, irailaren 17 arratsean jaialdi haundia antolatu zuten San Telmon. Bertsotan, Basarri eta Uztapide izan ziren; Donostiako Udaletxeko txistulari banda, eta Oñatiko Irrintzi zortzikoa, Andoaingo Labher zortzikoa eta Donostiako Sine Nomine zortzikoa, eta Joxe Antonio Villar oñatiarra. Oso eguraldi txarra egokitu zen, eta Sestaoko zortzikoa ez zen etorri.

Jaialdiari hasiera emateko, Basarri eta Uztapidek kantatu zuten lehenengo. Bina bertso eskatu eta hiruna kantatu zuten, azkenean Uztapidek gogoratuko duenez.

Bas:

Jaungoikoari eskatzen diot
argitasun ta grazia,
poz-atsegiñez uzteko emen
entzuten dagon guztia.
Bein bear eta babes goxora
emen nazu etorria.
Biotz erditik agurtzen zaitut,
Donosti maitagarria.

Uzt:

Zorionean ikusten zaitut,
Donostiko erri prestua;
nik beti pozik luzatu dizut
zuri len ere eskua.
Gaur egualdia txarra degu ta
jendea pixkat oztua.
Baiña etorri diradenari
ia eitte'ieun gustua.

Bas:

Bein bear eta egiña degu
Donosti aldera bixita;
ikaratuta egonak gera
zeru aldea ikusita,
oinbeste euri nola liteken
agorrera etorrita.
Denbora txarra erremitzen da
arpegi ona jarrita.

Uzt:

Ez al dakizu txarretik beti
nola asarria datorren?
Egualdi onak egin ditzala
erregutzen degu arren.
Baiña gauz onik udazken onek
eztu ekarriko emen.
Kosetxak pixkat altxa ditzagun
ondu dezala lenbailen.

Bas:
Lenago ere amaika klase
bada lur ontan artua;
aurten trumoaia eta tximista
dago barrena sartua.
Orrek eztauka bueltarik eta
det esateko ordua:
udarik eztegu ezagutu,
urte guztiko negua.

Uzt:
Au esan degu; eztu balio
berriz gauz bera esateak.
Biña kantatzeko esan dute ta
iruna dira boteak.
Jende oni pena emango dio
guri entzuten egoteak.
Oraingoz bukatzen degu eta
asi bitez Otxoteak.

Halaxe, Oñatiko Irrintzi, Andoaingo Labher eta Donostiako
Sine Nomine otxoteek kantatu zuten, zeinek baino zeinek hobeto.
Gero, Basarri eta Uztapideren txanda berriz ere, puntutan:

Bas: Manuel, zer iruditzen
zaizu gaurko jai?

Uzt: Baneukan aspaldian
au ikusi naia.

Bas: Donostik esnatzeko
ez al du garaia?

Uzt: Gaurko eguna jarri
digute alaia.

Uzt: Donosti orain al da, ba,
esnatzen asia?

Bas: Gaur billatzen diot beintzat
zerutar grazia.

Uzt: Emen sortutzen dute
nai duten guzia.

Bas: Zuri damutu al zaizu
onuntz etorria?

Bas: Gure partez beste oiek
zeukatek or boza!

Uzt: Lagunak edukita're
ematen du poza.

Bas: Oien ondoren kantatzen
nik daukaten lotsa!

Uzt: Beti geralako gu
ain bikote motza.

Uzt: Mundu ontan bear dira
txarrak eta onak.

Bas: Arrazoi oberik eztu
emango gizonak.

Uzt: Alare txalo jotzen du
entzuten dagonak.

Bas: Diruz eztira pagatzen
olako pertsonak.

Bas: Bukatuko al degu
biok oraingo txanda?

Uzt: Igual beste biña
puntutxo emanda.

Bas: Etorriko al zerate
Basarrik esanda?

Uzt: Berriz kantatzekotan
juanak ziran-da.

Basarri eta Uztapideren bertso-saioaren ostean, berriz ere Otxo-teen saioak etorri ziren San Telmoko jaialdi ederrean. Gero, hirugarren eta azkeneko saioa egin zuten bertsolariek, Oñatiko Irrintzi eta Joxe Antonio Villar kantariari txanda eman aurretik.

Bas:
Bederatziak jo dute eta
jendea zegoen nekean,
Otxote eta bertsolariak
saiatu arren lanean.
Berriro ere bildu bearrak
gaude soka eder batean.
Lengo itsuana esan dezagun:
agur ikusi artean!

Uzt:
Aspalditxoko partez giñaden
lagunakin juntatuta;
ixillik nola egongo giñan
bizi giñan kontentu-ta?
Baiña bukatu ein bear omen da
beste biña kantatuta.
Berriz beartzen bazerate ere
izan gutaz kontatuta.

Bas:
Au Oiartzunen bizi da eta
Zarautz eztago aparte.
Zuenganako guk badaukagu
makiña bat borondate.
Donosti degu danen burua,
ta emen artu nai parte.
Etxean lasai egongo gera
berriz zuek deitu arte.

Uzt:
Pena ematen du toki ontatik
geren etxera joateak.
Ordu ta erdi pasa ditugu
guk emen pozez beteak.
Berriz etortzen bagera ere
zabalikan nai ateak;
ta bitartean ondo bizi ta
agur, anaia maiteak.

Araman, 1963ko urriak 8

Ordizia inguruan dagoen Araman, Basarri eta Uztapide zituzten bertsoan, omenaldi bat zela-eta. Izan ere, Venezuelara mixiolari zijoan Frantzisko Albisu goraldtu nahi zuten egun hartan. Festa ederra antolatu zuten: lehenengo, meza ederra izan zuten, Joseba Ula- zia azkoitiarra sermoigile zela; eta gero, bertso-saioa, Basarri eta Uztapiderekin, udaletxeko balkoitik.

Bas:
Argitasun bat eskatzen dizut,
zeruko Ama lastana;
danen gogozko izan dedilla
gaur emen kantatzen dana.
Gure premian ziñala jakin
ta etorri gera zugana.
Agur goxo bat eskeintzen dizut
biotz erditik, Arama.

Uzt:
Esan nai nuken zerbait eztaikit
deten adieraziko.
Amaika aldiz aldamenetik
nuen Arama ikusiko.
Beti promesa egiña neukan:
"joan gabe etzaitut utziko".
Barka zazute, aramatarrak;
gaur nator lendabizko.

Bas:
Zuen Arama gaur ikusten det
zerutar lorez beterik;
eliza apaindu ta obrak egin,
emen eztago besterik.

Don Frantzisko artzai jatorra
etzegoen nekatzerik!
Apaiz on batek zer balio dun
eztago kalkulatzetik.

Uzt:
Artzai onak zer balio duen
ezta errez esatea;
ta zail izaten da ardi danen
gustokoa izatea.
Baiña don Frantzisko ori zuten
ardi guztiak maitea.
Aramak duen penik aundiña
bera emendik joatea.

Bas:
Sermoilariak ondo esan du,
asi naiz ni konturatzen:
arbola zarrak aritu bear
beti eman ta zabaltzen,
lana egin nai dunarentzako
iñun ezpaita paltatzen.
Zu, don Frantzisko, saia gogotik
ango animak salbatzen.

Uzt:
Bertsotan ezin esan liteke
jaun jator orretxen fama.
Guk bururikan baldin bagendu
balegoke zer esana.

Animan billa entregatu du
orrek bere bizi dana.
An ere ezta txarra izango
emen ona izan dana.

Bas:
Guraso eta senide danak
tristetu dira lenbizi.
Orien pena nolakoa dan
nik ezin adierazi;
erri guztia ere negarrez
dijoalako igesi.
Baiña bokaziorik dunari
ezin leike galerazi.

Uzt:
Tristura bearrik ez degu eta
zertan itz egin geiago?
Guk badakigu bertan egonda
zutela askoz naiago;

Lehenengo egindako saioaren ondoren, gai bat eman zieten bertsolariei, zortziko txikian bixi-bixi kanta zezaten: Baserri nagusia izango da. Uztapide, morroia. Ez zerate ondo konpontzen.

Bas: Kantatu bear degu
oraintxe dotore;
badakit etzaigula
kostako batere.
Gure etxera etorri ezpalitz
neretzako obe.
Daukaten morroiarekin
ez nago konporme.

baiña andikan etorri leike
egun bat baiña lenago.
Ondo pentsatzen jarri ezkerro
gaur urrutirik ez dago.

Bas:
Zortzi orduan pasatu leike
andik onuzko bidea;
goiko egazti egalariak
badute abildadea.
Zuri biotzak eskatu dizu
mixiotara joatea.
Orain ta gero egin dedilla
Jaunaren borondatea!

Uzt:
Gogoia ala baldin bazendun
zertako ez, bada, bete,
sazerdoteak lan ortarako
eiñak baldin bazerate?
Neri emen gaur bat baiña geiok
alaxen esan didate:
erri guztiak izan zaitula
zu aita bat bezain maite.

Uzt: Zuen etxean nintzan
lanean asia.
Arrazoi txarrak entzun bear,
au da desgrazia!
Indartzen ai zitzaizun
naikua sasia.
Nik egiña daukazu an
dezuten guzia.

Bas: Goizean mugitzeko
milla zalaparta;
soroan asteko berriz
du gogoa palta.
Morroi onek daduka
nagusian planta:
lan gutxi egin eta
soldata galanta!

Uzt: Esango nizkizuke
makiña bat egi.
Lanari egiten diot
asi eta segi.
Nagusiari're eman
bearko'iot arpegi.
Soldatarik ez det eta
lana det geiegi.

Bas: Onekin ez naiz arkitzen
ni, jaunak, kontentuz!
Lanean saiatzeko
ari naiz erreguz.
Goizian agindu diot
buillaz eta orruz,
ta azpiak atera gabe
etorri da onuntz!

Uzt: Goizian goiz igo det
goiko zelai-malda;
belarra ebaten ardu
eguzkian galda.
Berak txuleta jan du ta
neri porrusalda.
Ni morroia izan arren
arrazoizkoa al da?

Bas: Morroi klase au ezin
artu leike ontzat.
Disgustua izan da,
ai, pamiliantzat.
Betiko ondabidia
badator neretzat.
Porrusalda geiegi da
orrelakuarentzat.

Uzt: Onek oraindik dauka
txarrerako asmua;
eztaduka leno gaizki
egiñan damua.
Baiña nik aterata
dadukat planua:
beste bat billa zazu,
ni etxera nua.

Launa bertso horrela kantatu eta puntutan egin zuten hurrena:

Bas: Iru edo lau puntu
jarriaz alkarri,

Uzt: gustua ematiarren
aramatarrari.

Bas: Lendik badakizute
gu bioren berri.

Uzt: Estu artzen nazula,
lagun zar Basarri.

Uzt: Zer iruditzen zaizu
Aramako plaza?

Bas: Onek balio ditu
makiña bat gauza.

Uzt: Ementxe lasaitzen da
gizonan arnasa.

Bas: Itzultzerako onek
egingo du dantza.

Bas: Ez gero ezer sinistu
len esandakorik.

Uzt: Iñoiz etzaigu falta
guri olakorik.

Bas. Itxura pranko baiña
ezta gorrotorik.

Uzt: Bertso bat eztegu guk
gaur benetakorik.

Uzt: Errez konpontzen gera
biok alkarrekin.

Bas: Gizona uztartzen da
ondo gizonakin.

Uzt: Aspaldi nabil beti
ain lagun onakin.

Bas: Sekula kejik ez tet
izan nik onekin.

Bas: Bukatuko al degu
goizeko saioa?

Uzt: Luzaro segitzeko
ez nago iaioa.

Bas: Onezkero egin zaizu
jateko gogoa.

Uzt: Aren ondorenian
ardo beltz tragoa.

Uzt: Aski saio badala
esaten didate,

Bas: entzuleak oraindik
egon arren puerte.

Uzt: Zuek'e aspertutzen
ariko zerate?

Bas: Agur, anai-arrebok,
arratsaldera arte.

Eguerdiko bertso-saioaren ostean, lagunarteko bazkaria etorri zen gero. Eta bazkalondoan kafea hartu baino lehen hasi ziren bertsolariak suspertzen, berriz ere.

Bas:
Itz erditxo bat egin bear det,
ez iñontzat kalterako:
zer lagunarte zoragarria
estalpe on baterako!

Zuzendari ta buruzagia
ori baita danentzako,
txalo bero bat eskatutzen det
alkate jaunarentzako.

Uzt:
Nik ere itz egin nai nizuteke
sekulakorik jatorren,
eta, Basarri, kontuan izan
ondorena zer datorren.

Alkate jaunak barkaziua
emango al digu, arren!
Gaur lenbiziko bikaiua da
ta alkatea bigarren.

Bas:
Arrazoi aundia eman dezu
orain, Uztapide maite;
bere ordaiña izango du ta
zu or lasai egon zaite.
Biak batera ibiltzeakin
bada emen milla kalte.
Elizak alde batera bear du,
eta erriak aparte.

Uzt:

Basarri jaunak bertsuak zuen
bai bear zuen neurria,
ezagutzen da dala ni baiño
geiago irakurria.

Legian, noski, ala egongo da
orain baiño len jarria:
erretoriak eliza eta
alkate jaunak erria.

Bas:

Lenago ere amaika olako
nere denboran botea.
Esan det len nik berezi bear
dala muga apartea.
Ala're danok osatzen degu
oraingo giza artea.
Guztiz lagunak izan litezke
erretore ta alkatea.

Uzt:

Berriro ere kantatutzero
nola nagon beartuta,
ongi konpontzen dirala biak
nik badakit ziartu-ta.
Lau urte ontan ibilli dute
ainbeste milla tratu-ta,
erria oso ondo daukate
bi jaunek alkar artuta.

Bas:

Segi bearra dago, kristauak,
bein asitako erari.
Mai ortara begira nago,
bada jendea ugari.
Gorapenak eman dizkagu
len don Frantzisko jaunari,
ta aitamen bat komeni orain
bere aita ta amari.

Uzt:

Emen nengoen don Frantziskoren
gurasoeri begira;
eta oiek'e arratsalde ontan
aitatzia komeni da.
Gurasoak'e seme bat azten
asko nekatu oi dira;
baiña olako bat daukatenean
zorionekoak dira.

Bas:

Aita ta ama maitagarriak,
mintzatzen naiz emendikan.
Biok batera nik etzinduztan
ikusiak oraindikan.
Seme jatorrak dituzutela
ezta esan bearrikan.
Arbola onak sekula ere
eztu ondoren txarrikan.

Uzt:

Guk ixildutzen bai al dakigu
bein itz egiten astian?
Baiña guraso maite oriek
eztaude estadu tristian.
Sazerdote bat zuten semia
olakua ikustian,
orrek laguntza egingo'izute
mundu ontan ta bestian.

Bas:

Beingoz agurra eman nai nuke
nere oraingo bertsoan;
nekatzen ere ari zerate
gu bai gabiltz luzaroan.
Negar-malkorik ez ikusi nai
iñoren matraillondoan.
Beste saio bat egingo degu
kafea artutakoan.

Kafea hartu ostean, musika eta kantu, umore ederra izan zen Aramako bazkalondo hartan. Uztapide eta Basarrik, duoa egoki asko eginez Basarriren *Aiako arritan*, edo *Nork egin du gure galde?* bertsoak kantatu zituzten.

Ereñozun, 1963ko urriak 20

Txirrita bertsolari haundiaren omenezko bertso-jaialdia antolatu zuten Ereñozun, urriaren 20an. Urmia elkarteak antolatuko jaialdia, goiz eta arratsalde egin zen, Uztapide eta Basarri bertsotan zirela. Txirritaren irudi bat ere jarri zuten egun hartan, Ereñozun.

Bazkalostean, berriz, Uztapide, Basarri, Paulo Zubiarrain, Arozamena, Patxi Etxeberria eta Lazkao Txikik saio hauxe egin zuten.

Uzt:

Esan digute bertso kantari
ez ote geran asiko.
Nik agindua kunplitu gabe
al badet ez tet utziko,
bestela pena izango nuke
nere denbora guziko.
Esango`etana: on ein daiela
danari lendabiziko.

Bas:

Bat asi da ta besteak ere
egin bear beren lanak,
adituzeko arreta biziz
nola zaudeten or danak.
Manuel zarrak arrazoi sakon
batzuk baditu emanak.
Gaurko janak on egin dezala
eta gaitzik ez edanak.

Pau.

Len oiek biak kantatu dute,
txanda etorri zait neri.
Agindu naute eta jarraitu
bearko diot lanari.

Len beste biak gorantzak eman
edaria ta janari.

Nik`e auxe eskatutzen det: bai, on
egin deizuela danari.

Aro:

Aspalditikan kantatuzeko
emen neukan barrenian;
nik`e nerea aitortu bear
ontaratu geranian.
Pozez beterik ementxe nago
gaurko laguntasunian,
egun eder bat igarotzeko
Txirritaren izenian.

Etx:

Ainbat euskaldun bildu gerade
gustoko kabi batea,
eta nik nai det danen aurrean
gauza garbi esatea.
Txirrita zanai opatze`iogu
zeruetako pakea.
Nai nuke arrek izan dezala
zeruko glori betea.

Ltx:

Txirrita zana alderdi ontan
ibillia da lenago.
Emengo zarrak badakizute,
esan biarrik eztago.
Berriro ere bera goraltzen
ni pozik eta prest nago.
Bazkaltzen ezta maiean baiña
gaur ere gurekin dago.

Uzt:

Gogoratutzen asia nago
Lazkaon esanetikan,
gaur oroimenak ditu Txirritak
alderdi danetatikan.
Urte batzuek aldegiñikan
gure aldamenetikan.
Urumea erreka tristetu egin da
Txirrita il zanetikan.

Bas:

Txirrita zana bere denboran
izandu zan baztertua.
Zar eta gazte aitortu zagan
egindako pekatua.
Urte gutxian ainbesteraíño
aldatu zaigu mundua!
Bertsolariak aintzat artzeko
iritxia da ordua.

Pau:

Bein bear eta egi jator bat
kantatu digu Basarrik:
Ainbeste balio zun gizona
egoten zan bazterturik.
Euskalerriko erri danetan
txalo gogorak arturik,
baiña alare, gizarajoa,
jateko ezin sorturik.

Aro:

Neonek enun ikusi baiña
jakinda nago bestetik,
gaitza txar batek eraman zula
ibillitzen zan mundutik.
Gaizkittu eta ekarri zuten
auzoko plaza batetik.
Eriotzian pasa omen zan
bera jaio zan etxetik.

Etx:

Orra Txirrita, gertatu zaizu
makiña bat diferentzi.
Gizona ezin leiteke, jaunak,
nai baiño geiago bizi.
Zure penetan emen gabiltza;
ez al gaituzu ikusi?
Ordun jantzita lutozko trajeik
oraíndik ez deu erantzi.

Ltx:

Gaur ikusi degu nuntsu jaio zan,
ta jaio omen zan antxe.
Gaur erdi eroririkan dago,
len izan omen zan etxe.
Erdi erorita, untzaren mende,
gaur illikan zaude, Latxe,
gaur omendu ta goratzen degun
gizon ori bezelaxe.

Uzt:

Gaur entzun degu nola ziñaden
Latxe Zarrean jaiua.
Untzak itxirik ikusten da gaur
zure kuartoko leiua.
Urumeako erreka ortan
bai sortu gizon iaiua!
Nerekin egin zendun, Txirrita,
zuk atzen bertso-saiua!

Bas:

Aitamen on bat eman deiogun
maian dagon jaun bateri.
Orretaz ere denbora gutxiz
esan nezazke bi egi.
Txirrita ondo atera dezu,
nola gorputz ta arpegi.
Merezi du ta txalo bero bat
orra or, Joxe Lopetegi.

Pau:

Lopetegiri botako diot
nik Baserririk bezela.
Arriarekin ola eiteko
etzera langin txepela.
Orrek esan du arpegi dana
bera zan bezel-bezela.
Ta nei linguak iruitu zaizkit
belarrik eta txapela.

Aro:

Ogeita zazpi urte dirade
juan ziñala mundutik,
t'eske goxo bat egingo dizut
neure biotzan barrutik.
Maitetasuna beti izan det,
Lujanbio, zuregandik.
Eriotzian otseingo dizut
arkitzen naizen lekutik.

Etx:

Ai, Lopetegi, izango zera
gizon bat zoragarria,
lanean paregabekoa ta
burubidetan argia.
Baserrik eta Paulok esan du:
Txirritan gorputz erdia.
Ta nik len bezela ikusi dizkat
petxua eta gerria.

Ltx:

Txirrita zana arrian dago
oso ongi eta noble;
erretratotik ezautu degu
beste iñork esan bare.
Baiña gauza bat dago an txarra,
ni ezin naiz egin jabe:
Txirrita zana zertako egin
sagardo kupelik gabe?

Uzt:

Latxe aldean or izan gera
danok Hernaniko mугan,
ta, Lopetegi, Txirritarekin
ipiñia nauzu dudan.
Nik pentsatu det: an egongo da
udara eta neguan.
Jakín al leike Lopetegi onek
abilidade ori nun duan?

Bas:

Lazkaok akats txiki bat zeukan:
or kupelikan etzala.
Nik pentsatzen det artaraiñoko
pekatu astuna eztala.
Esan degu guk eskultorea
Joxe Lopetegi dala;
beko partea egin duena
Anastasio Zabala.

Pau:

Jaunak, nik ere kantatuko det
bertso bat berri-berria.
Ikusi degun irudi ura
nola dana dan arria,
betikan apain altxata zegon
ta arrigarria goia.
Baiña Txirritak an falta zuen
len ibiltzen zun bastoia.

Aro:

Ara juanda Txirrita zana
guztiok degu ikusi;
animan alde "Aita Gure" bat
errezatu're lenbizi.
Oi gizon batek pentsatu zuen
baita're egiñerazi.
Ereñozuko don Juan apaizak
ez al du zerbait merezi?

Etx:

Pekatariaik gerade denok,
egite'itugu okerrak.
Deskuidoa gertatzen zaigu,
ez gera gizon alperrak.
Merezi diran lekuan eman
oso arrazoi ederrak.
Don Juani're eman dizkagun
bear dituen eskerrak.

Ltx:

Don Juan oni emanik orain
lendabiziko galoia,
baiña Hernanik esan dun ori
ez nezake jaso goia.
Etzait iruitzen busto orretan
daukanikan arrazoaia.
Ankarik eztu agiri eta
zertarako du bastoia?

Uzt:

Kasorik ezin egin liteke
bestiaren esanari.
Bastoirik etzaiola tokatzen
ankarik eztaukanari.
Oinbeste aitzaki gabe ez al leike
jarraitu bertso-lanari?
Nik faltarikan ezin billatu
ura egin duanari.

Bas:

Pazientzia artu zazute
bertso au entzun arteko.
Basarri zarrak ere zerbaitxo
badaduka esateko.
Batek kupelan falta billatu,
bestek bastoia jartzeko.
Zenbat terreno bearko ote zan
Txirrita konpletatzeko?

Pau:

Jaio ta gazte izaten da bat,
gero etortzen da sasoia.
Entzun det eta bai jaso ere
Lazkanoren arrazoaia.
Kantatu digu bertso gogor bat,
zearo arrigarria.
Ta, mutil, anak faillatutzian
eskatutzen dek bastoia.

Aro:

Bera mundutik juan zan eta
emen utzi zun itzala.
Pentsatuko du aren lurrian
oraindikan gabiltzala.
Luistarrak'e portatu dira
arek merezi bezala.
Txirrita ere mundutik juan zan
oraindik luistar zala.

Lagunarteko bazkalondo gehienetan egin ohi zuten moduan, *Nork egin du gure galde?*, edo *Aritxuleiko mutillei* Basarrik jarritako bertsoak kantatu zituzten Basarri eta Uztapidek, bazkaldar guztiekin batean. Eta gero, berriz ere, aurreko sei bertsolariek beste saio bat egin zuten. Lehenengo bertsoa Latxeko Joxemari Etxeberriak kantatu zuen.

Jox:

Nere ustetan gaurko onetan
izango gera anaiak;
baiña aitortu bear ditugu
batak bestiaren penak.
Eta nik orain deklaraturko'ittut
zuek ixildu'ituzutenak.
Pixka bat goratzia ez al zun
merezki don Pepe jaunak?

Pau:

Bertsolariak bizitzen dira
alkarrengandik aparte;
erriak eta barriotara
jira bakan egite'ute.
Barka zazu zuk don Pepe jauna
ezpadeu aipatu bate;
bertsolariei zein zer diraden
esan ein bear zaiote.

Uzt:

Aldamenetik Etxeberria
jarri da ia minduan.
Gizon aundin bat eztakigula
gendukan geure onduan.
Ari danikan diskuido gabe
ezta izaten munduan.
Don Pepe zein zan jakin bagendu
guk goratuko genduan.

Aro:

Kolpetik gizon bat etorri ta
asi zaigu ondotikan,
ta min aundia neri jarri dit
orretzek biotzetikan.
Emengo berri nik enekien,
etorri naiz kanpotikan.
Don Pepe jauna, barka zaiguzu;
guk eztaukagu kulpikan.

Bas:

Auditxoren bat ixildu degu
txikik esaten asita;
zelebrezkoa ez ote da izan,
ai, gure gaurko bisita?
Bertako iñork ezertxo ere
eztigu esan guri ta,
emengo berri nola jakin nik
Zarauztikan etorrira?

Etx:

Ai, Uztapide, erantzun naia
daukat zure bertsoari.
Arrunt bildurtu nazu lenguan
itzein ote'idazun neri.
Etxeberriak bi gera emen:
ni bat naiz, ta bestea, bi.
Nik Frantzisko det nere izena
eta oi zan Joxemari.

Ltx:
Orregatikan, zu jaun maitea,
ez uste ez zaitugula maite.
Zureganuntza pozez gaude-ta
lasaikiro egon zaite.
Barkatu zazu len ezpadegu
zure merezia bete;
orain aipatu nai zaitut pozez:
gora ta gora don Pepe!

Uzt:
Asko utsegin degula eta,
don Pepe, gure bildurra!
Gu ezjakiñak gerade baiña
biotza degu samurra.
Oiek nun izango zan bustua
nola bait zuten makurra,
ta zuk eskeiñi omen diezu
lan orretarako lurra.

Bas:
Zuk egin dezun mesede ori
dago gogoan artua;
Ereiñozu ontan pixka batean
etzera izango aztua.
Zer borondate agertu digun
orain esatera nua:
Txirrita zarran estatu orrek
bearko zun terrenua.

Pau:
Berealaxe esango'izutet
zer dabilkiten goguan:
alaba monja eta bi seme
jesuita dittu munduan.
Don Pepe beti bizi izan da
emen santuen moduan.
Iltzen danian an jarriko'ute
Txirrita zanan onduan.

Aro:
Lendabiziko Urmia danak
zabaldu zuen atia.
Don Pepek ere erakutsi zun,
bai, bere borondatia.
Pentsatu zuen Txirritarentzat
lur pixka bat ematia.
Danon artian maite dezagun
lengo gure alkatia.

Etx:
Barrio ontan oraindik ere
badaukate egarria,
esanaz sarri badaguela
alkate on baten premia.
Itxura danez gobernatu du
bear bezela erria.
Don Pepe jauna ezagutu det
gizon bat arrigarria.

Ltx:
Don Pepe jaunak Euskalerrian
oso ongi egiten du.
Orren izenik puska batian
ezin liteke atzendu.
Ezin duenai zeozer eman,
geiegi dunari kendu.
Euskalerrian konpon gindezke
ori egingo bagendu.

Basarrik aspaldi idatzitako *Sarako neskatxa bati* izeneko ber-
tsuok kantatu zituzten Basarrik eta Uztapidek. Eta gero, herriko pla-
zan beste saio txiki bat egin biek:

Bas:

Gaurko jaialdi au jarria da
motibo baten peskisan,
bestela beintzat Zarautz aldetik
ni etorriko ez nintzan.
Txirrita maite, bate kezkarik
etzazula beintzat izan.
Ikusi ondo zure ordekoak
emen nolatan gabiltzan.

Uzt:

Gogoratutzen zaizu erria,
baita're zure auzuak;
oraindik emen kantatzen dira
zure aurreko bertsuak.
Urumeako lagun zar aiek
dituzu alain gozuak,
zure alderako eiten dituzte
egunero errezuak.

Bas:

Jende guztiak ala uste du-ta
ez neukake esan bearrik.
Txirrita maite, guri're etzaigu
palta kantuzko indarrak.
Esker beroak toki ontatik
eman nai ditu Basarrik;
arbola zarra izan ezpaltiz
etzan sortuko adarrik.

Uzt:

Arbola zarra ona izan zala
gaude aitortu bearrik;
gure lurrian emen gabiltza
arturik bere indarrak.
Baiña badakit bertsoik onenak
dira arenak bakarrak;
aren onduan ondorenguk
gerade oso kaskarrak.

Bas:

Manuel maite Uztapideko,
nik ezin gaizki tratatu.
Motiboa're eman dit eta
auxe nai diot kantatu:
maixu jatorra gendula ura
mundu guztiak juzkatu.
Guk ere al dana egiten degu,
geiago ezin eskatu.

Uzt:

Ni ari nintzan esaten eta
esan bearra bainean,
ezpaikera gu eskarmentatzen
gaur lendabiziko zaunkan.
Guk egiñala egiten degu,
ezkera aritzen tranpan.
Gutxi egiten badegu ere
ezkera saiatu faltan.

Plazan zortziko nagusian egindako saio honen ondoren, puntu-
tan egin zuten.

- Bas: Orain jarriko dizut
puntutuko bidia.
- Uzt: Saio bat egiteko
arturik idia.
- Bas: Erakutsi dezagun
abilidadia.
- Uzt: Bestela aspertuko da
entzuten jendia.
- Uzt: Orain asi gerade
boza mudatuta.
- Bas: Klase guzietatik
aukera degu-ta.
- Uzt: Ainbeste kristau zeuden
or inguratuta.
- Bas: Ni're enaiz galduko
au lagun artuta.
- Bas: Zer iruditu zaizu
zuri Ereñozu?
- Uzt: Gauza modua orain
galdetu didazu!
- Bas: Len ere urte askotan
izana zera zu.
- Uzt: Etorri bakoitzian
txoratutzen nauzu.
- Uzt: Onlako baillararik
eztu Euskalerriak.
- Bas: Gauza orreri gaude
ondo igerriak.
- Uzt: Borondate ona ta
euskaldun garbiak.
- Bas: Argi egin deiela
zeruko argiak.
- Bas: Soltero ziñanian
bai al zan bisitik?
- Uzt: Eztizut erantzungo
oraingo bertsoetik.
- Bas: Onek tranpia dauka
alderdi guzitik.
- Uzt: Txoria ezin arrapau
ain kabi goxotik.
- Uzt: Bisitak egin nitun
baiña alperrikan.
- Bas: Nunbait etzun emengo
iñon bearrikan.
- Uzt: Ez al da orrekin beintzat
izango okerrikan!
- Bas: Damututa're ezta orain
bate kalterikan.
- Bas: Zer moduz bizi zera
Oiartzun aldian?
- Uzt: Goizian lan eginda,
jai arratsaldian.
- Bas: Gero bertsoan berriz,
beti, al danian.
- Uzt: Al bada zu're kontuz
ibilli lanian.
- Uzt: Batzutan jai eiten det,
bestietan aste.
- Bas: Biok berdin gabiltza,
nik alaxe uste.
- Uzt: Emen'e pasako da
beste orrenbeste.
- Bas: Onuntza etorri da
milla peztan eske.
- Bas: Len ere badaduka
dirua sobrian.
- Uzt: Asko ez tet ikusten
nik nere kofrian.
- Bas: Noiz tokatuko zera
paraje obian?
- Uzt: Ba al dakizu diruak
nun kobratzen dian?

Uzt: Egiña al daukazu
emengo tratua?

Bas: Apaizarekin nintzan
ni izketatua.

Uzt: Gauz orrekin ez nengon
ni enteratua.

Bas: Zuri emango dizut
sobratutakua.

Bas: Emango al diogu
lanari azkena?

Uzt: Naiz joatia izan
guretzako pena.

Bas: Bertan gelditutzia
genduke onena.

Uzt: Agur ta gero agindu
zuek nai dezutena.

Urruñan, 1964ko otsailak 2

Honako bertso hauek Urruñako Itsas-Mendi antzokian egindako saio batean jasoak dira. *Euskararen eguna* ospatu zuten han, otsailaren 2an; eta, besteak beste, bertso-jai handia antolatu zuten, Mattin, Xalbador, Uztapide, Errexil, Xanpun eta Basarriekin.

Basarri eta Juan Joxe Eizmendi *Errexilek* egindako saioa jaso dugu lehen mailan. Errexil, Errezilgo Loidisaletxe baserrian jaio zen 1917an; baiña Urruñan bizi izan zen, soldaduzka egiten ari zela Iparraldera ihesi joanda. Hil ere hantxe hil zen, 47 urterekin. Hargina zen ofizioz.

Urruñako jaialdian honela agindu zien aurkezleak: Errexil, hargin langilea da, eta Basarri, fabrikako nagusia. Langilea alfer samarra ote den-edo, hika-mika haundiak dituzte gaur biek.

Bas: Asieran uste nuen
oso ona zala,
itxurak zituanez
mutiko formala.
Eskarmentua artu det
nola edo ala.
Lo egiteko ez dizut
pagatzen jornala.

Bas: Altutikan dabilki
Errexillek boza;
noizko konponduko du
onek arri-losa?
Pekatua aitortzeko
bera ezta lotsa.
Etixeratu ta billatu
det lantoki utsa.

Err: Errespuesta eman gabe
ezin zaitut utzi.
Errexil langille ta
Basarri nagusi.
Lo pixkat egitera
nijuan igesi.
Alare gure bizkar
au ederki bizi.

Err: Bakarrik utzitzen nau
lanarekin griñan;
biak aitzeko kontutan
arreglatu giñan.
An nekatua zala-ta
eskapatu ziñan.
Nere onduan aiko ziñan
langille izan baziñan.

Bas: Esan biarrak dauzkagu
bakoitzak beriak.
Au eztu ez artuko
zeruko legiak.
Diru egiteko izan
ditut abildadiak,
len euki ditutelako
langille obiak.

Err: Nausi ta langilliak
gerade ni ta zu.
Len izandakuakin
zerbait egin duzu.
Ortako arrobotikan
bialdu dituzu.
Nekin etzea aztuko,
damutuko zatzu.

Bas: Nagusia ondatzeko
artu du planua;
gure Errexil ezta
burutik sanua.
Ni ondatzeko dabillen
diabru arranua.
Ezta kanbiatuko ta
ixiltzera nua.

Err: Len'enintzan bajuan,
nola gorantz io?
Basarrik langilleari
gutxi opa dio.
Bakoitzak neurriari
ondo eusten dio.
Nekin esperantza geiok
eztizu balio.

Gero, beste saio bat egin zuen Basarrik, baina bikotea aldatuta. Mattin eta biok elkarrekin jarri zituen gai-jartzaileak. Gaia: Mattin artaldearen jabea da. Bere seme mutikoa ardiak zaintzera bidali du, baina Basarriren baratzen dabilta ardiak.

Matt:Orra nola dagon, beraz,
gaur gure auzia.
Zuri esplikatzen nauzu,
Basarri nausia.
Zaintzen bazinu ongi
zeure baratzia,
etzun irriskatuko
ardiak sartzia.

Bas: Mutikoa emen dabil
ardien atzian
gure baratzen larratuz,
erdi mixerian.

Au ilda zeguen, bai,
jun dan aspaldian
aita arrapatu banu
semian tokian.

Matt:Ori ola izanen zela
ezpaita segura;
zernahi etortzen zaizu
zuri gaur burura.
Zerbaitetako sortuak
girade mundura.
Bi gaitz egin ta konda
ehunen malura.

Bas: Artalde bat badauka
gaizto arraiua;
eta aien artzaia ere
ezta, ez, iaiua.
Semiak gaizki-esaka
egin dit saiua.
Lenengo erakutsi
edukaziua!

Matt:Semiari esan diozu
zuk duzula joko.
Zure desafiua
ziraden geroko.
Zure esana aixe dut bai
nik konprenituko:
ordaintzat nahi zinuke
bildots bat Bazkoko.

Bas: Bildotsaren inbiririk
iñoiz ez det izan;
ez nazazula artu
traperuen gisan.
Etziñezke egon ez zu
zeru-esperantzan
artaldia erabilia
besteren baratzan.

Matt:Ikaragarriak dira
hunen erasiak.
Baratzearen erdia
jan dio sasiak.
Eztu ainitz bilduko
zure maliziak.
Bildots bat eztu balio
baratze guziak.

Bas: Nere baratzan ezta
artaiño sasia,
onek jaten baitigu
an dan on guzia.
Lapurretan gazterik
dago ikasia;
eta semiari're
ondo erakutsia.

Matt:Semiari bear zaio
dakiena erakutsi,
hunen menetik kurrika
joan baita igesi.
Guk bildots eta ardi
ongi nahi bizi.
Ezten tokitik eztaike
gauza aundik ebatsi.

Bas: Eztan tokira ez jun, ba,
denbo pasatzera;
edo, Mattin maitia,
erua al zera?
Etzaitez azaldu berriz
gure baratzera;
len motxa bazera ere
bajatuko zera.

Lagunarte ederrean egin zen bazkalondoan ere bertso asko izan zen Urruñako *Euskararen egunean*. Basarri, Mattin eta Xalbadorrek bota zituzten batzuk jaso ditugu zuretzat. Mattinen semea eta familiari buruz ari dira bertsotan, hasieran.

Bas:

Mattin maitia, eman biarrak dauzkat goraintziak milla. Lapurditikan ez iñora irten gizon obiaren billa. Zortzi-bederatzi urte dauzka, ille gorrizko mutilla. Ezta errez baiña aita dan baiño obia izan dedilla.

Xal:

Bai, azkenean agertu zauku gure Mattin maite hura. Bazkal denbora guztian dauka gizon horrek arrangura. Basarrik zerbait orai erran du, iduri zaio ozta hura. Bi zentimetro gehiagorekin badu aitaren altura.

Bas:

Gazte maitia, nik abixu au nai dut zuri bialtzia: Ezta premizko Xalbador orren esana ontzat artzia. Ezta komeni zentimetrotan ainbesteraíño aldatzia. Bertsotarako prezisuena buru ona edukitzia.

Xal:

Ni lorietan begira nago Mattinen familiari. Mattin den baino lagun hoberik ezta aurkitzen nunahi.

Emaztia ere ainekua du, hoi zer ari den badaki; eta semeak ekar dezala burrasok bezanbat argi.

Matt:

Ni Xalbadorrek altxatu nai nau merezi bainan gorago; hunek egitan maite gaitula, gaurko kasua hola dago. Semea nola aterako den beti ni begira nago, eta ezin irakats diot dakidan baino gehiago.

Xal:

Zer nahi duzu, lagun maitea, gaur semeak ikastetik? Gaurkoan nehork eztu sofritzen erakuslerik gabetik. Bai eta hire seme maiteak planta guztiak baditik. Hire aitak ere etzakin bainan ikasi huen hargatik.

Bas:

Bein biar eta mintzatuko naiz trunkilki eta ondradu; olakuetan Basarri onek guztizko temple ona du. Bertsolaria jaiotzatikan derrior sortu biar du. Erakustia alperrik dezu berezkorikan ezpadu.

Matt:

Gure Jinkoak eman nitian
mutil koskor au semetzat;
eta galde bat hortaz banikek
orain, Xalbador, iretzat:
nahi bezala kunpli balite
egin ditudan amentsak,
nahi nitek nik hartu baleza
hire alaba andretzat.

Xal:

Ni ere gogo bereko eta
eztuk gaizki eroria.
Hi lore bat haiz, Mattin, ainitzek
ustez-eta elorria.
Bai, aments ori kunpli baladi
bizia laikek kanbia.
Hi eta nitzat gerta laitekek
hemen zeruko loria.



Hernandorena, Basarri eta I. Murua.

Lesakan, 1964ko otsailak 20

Hauek Lesakan jasotako bertsoak dituzu. Migel Arozamena, Basarri, Mitxelena eta Lazkao Txiki bertsolari ezagunak izan zituzten han, 1964ko inauterietan. Eta Rafael Sanjurjo ere tartean zen bere akordeoi haundiarekin.

Baina jaialdia hasteko garaia heldu zen eta, giltzazalea ehizera joana izan nonbait, aretoan sartzerik ez zuten izan saioa garaiz eta puntuan hasteko. Halako batean atea ideki zuten ordea, eta bertso giroa pil-pil zegoen han, itxuraz. Herritarra, Arozamena, hasi zen kantari:

Aro:

Astera goaz etorri eta
ementxe danok kantari,
gure aurrean ikusirikan
emen jendea ugari.
Bultzaizo batzuk eman dizkate
kanpoko ate orreri.
Zorionean sartu zerate;
arratsaldeon danori.

Bas:

Ate alde ortan izandua da
naiko tirriki-tarraka;
zortzi edo amar ziran golpian,
etzan sartu nai bakarka.
Berandu samar asiagatik
zertan ibili presaka?
Lendabiziko agur goxo bat
eskeintzen dizut, Lesaka.

Mtx:

Or izan diran joera batzuk
ziran bide ergelean.
Nonbait otzakin aspertu samar
bait zeuden zenbait kalean.
Geientsuenak ikusten nitun
barrura pasa zalean.
Aber ordu bat gozo pasatzen
degun danok epelean.

Ltx:

Sinis zazute, lesakatarrak,
asko zaituztet nik maite;
ta ekarritako eginkizuna
nai nuke zuekin bete.
Eta alkarrekin bildu giñala
oraintxe da urtebete.
Arratsalde on, anai ta arrebak;
denok ongi al zerate?

Aro:
Gu entzuteko utzi dituzte
etxe edo baserriak.
Onera etorri eta itxiak
zeuden emengo atiak.
Ordaindu eta agintzen al du
orrelakorik legiak?
Leiotikan sartu omen dira
bate txartelik gabiak.

Bas:
Arozamena maitagarria,
zuk artu nere puntua.
Gauza askotxo ikusten ditut,
ez naiz mutiko tontua.
Gaur egundoko aberitxo bat
dago emen pasatua:
jakin dedanez eizera jun da
zineko enpliatua.

Mtx:
Zutik kanpoan zegonak, berriz,
eseri naia aulkian.
Orrelakuak gertatzen dira
gu sarri geran tokian.
Barkamenak'e gaizki egiñak
baditu erri txikian.
Erdiak preso geunden gauz ori
egin balitz Donostian.

Ltx:
Gu ere berriz ordu izenetik
denbora asko pasiak.
Lauetarako danak or zeuden
txartel bana erosiak.
Geroztik sartzekoan izan dira
oso gauza itsusiak.
Erri ontako aguazil jaunak
daduzka kulpa guztiak.

Sarrerako saioaren ondoren, Lazkao Txiki eta Basarrik ofizio-
tan kantatu zuten. Gaia: Lazkao Txiki kontrabandista da; Basarri,
karabineroa.

Ltx: Kontrabanduan nabil
aspalditxo ontan,
diru pixka bat neuretzat
sobratutzekotan.
Zu berriz karabinero
zaude muga ortan.
Biontzat fabore da ta
egon zaitez lotan.

Bas: Orren erantzuna ere
bear nuke bota,
karabinero jauna
ontako dago-ta.

Laster jun nai ezpadezu
zuk lur azpi orta,
etzaitzela ibili
legiaren kontra.

Ltx: Muga zai zabilta zu,
muga edo frontera;
ta alpertzen ari zera
urtetik urtera.
Aspaldian kabinatik
etzera atera.
Bere txabolatik laster
pasatuko gera.

Bas: Aspaldiko urtetan
serbizioz naiz ta
txabola barrutikan
luzatzen det bista.
Zu ere izan baziña
lanian artista,
karrera etzendun artuko,
ez, kontrabandista.

Ltx: Karabinerua zer dan
nai det adierazi;
berari beiratzia
obe da lenbizi.
Au nunbait ezta asko
nekatuta bizi.
Frantzira pasa liteke
txabola ta guzi.

Ltx: Kontrabandistak beti du
pasatzeko griña.
Eta, o entzuleak,
egin esamiña:
Au da gizon aundia,
lodi ta atsegiña.
Danak dakizute eztagola
korrika egiña.

Bas: Esan bear nuke nik
Lazkaoren kausa:
mendi oiean dabilki
puzkarra ta putza.
Amar kilo ezpaita,
oso gauza utsa.
Pakete bat eamateko
au ezpaita gauza.

Bas: Karabinerua etzazu
jarri konpromisuan,
aurrez utzitzen zaitut
ondo abisuan.
Bide oitan ez bazabiltz
jokera zintzuan,
Lazkao txiki itoko da
Bidaso putzuan.

Berriz ere Basarri eta Lazkao Txiki elkarrekin jarri zituzten,
baina gaia aldatuta: Basarri apaiza da; eta Lazkao Txiki, behin ere
elizara joaten ez dena.

Bas: Apaizak zabaltzen du
federako garra;
errespetatu bear da,
ai, dotriña zarra.
Aldameneko au daukat
tentatu bearra.
Auxe degu kristau bat
txikia ta txarra!

Ltx: Apaiza, ez eidazu bota
arrazoi astunak,
ta ez illunduerazi
garbi ditugunak.
Oindik ez gaude gero
fede danak junak.
Geu bakarrik gera gu
sinisten degunak.

Bas: Txarrerako badauka
abillidadia.
Apaizak ezagutzen du
debillidadia;
zeruratzeko alare
badauka idia.
Noiztikan aztu zaizu
eliza bidia?

Ltx: Apaiz jaunak, zuek ere
etzabiltzate fin;
au jakin dezazuten
nai nuke itzegin.
Gauzak gaizki esatiak
neri ematen dit min.
Guri lana galerazi
eta berak egin.

Bas: Irugarren bertsua
artu zazu ontzat.
Bide txarrian zoaz,
ala iruditzen zat.
Zu ola ikustia
disguto neretzat.
Apaiz onik eztago
kristau txarrentzat.

Ltx: Bide bi dauzkagu guk,
bietan aukera.
“Bide ortatik joan zaite”,
esaten ai zera.
Ni andik abituta
zu berriz bestera.
Batenak bagerade,
kristauak al gera?

Bas: Berrogeita amar bat kilo
altunez izango da,
puska izugarririk
eztu ortik gora.
Mejorutzen bazera
zeuretzat mejora;
bestela laster zoaz
Judasen ondora.

Ltx: Poz ematen al dizute
onen itzegiñak?
Apaiz jaun batentzako
ez dira atsegiñak.
Zeruratu nai ditu
munduaren griñak.
Gorputzez diferenteak,
animaz berdiñak.

Lesakako jaialdian beste gai hau jarri zieten Jose Joakin Mitxelena eta Basarri: Goizeko ordu bietan tabernatik etxera bidali ezin duten senar mozkorra da Mitxelena. Basarri, bere bila etxetik etorri den emaztea.

Bas.
Bere denboran oitua dago
oso toki lasaietan,
gutziz ondo artzen baitute
dabillen leku oietan.

Nere senarra beti berdin da
astegun eta jaietan:
Familiaren erruki gabe
goizeko ordubietan.

Mtx:

Zu, emaztea, garai beranduz
ni tabernan egonik,
eztet, ba, uste neronek ere
ez oso gaizki nagonik.
Zure ibillerai baizikan nago
ni antzik ezin emanik.
Ordu oietan onuntz biltzeko
etxean ez al zan lanik?

Bas:

Lana baneukan baiña, senarra,
ondo goguan eduki:
arrane onek seme-alabak
nola eztitun erruki.
Etixerako poltsa estutua
eta tabernan ideki.
Gizon mozkorra probatu arte
zer dan iñortxok eztaki!

Mtx:

Zere gizona botatzen dezu
utsan urrengo gauzera,
etxetik irten gauean eta
biltzen naizela goizera.
Nik daduzkaten fama guztiak
nunai galdutzen ai zera.
Zeuk familia jasoko dezu
zeu orren ona bazera.

Bas:

Aldare santu batian neri
onek eman zidan itza:
zintzo ibilliko zala beti ta
gero sortu zaio gaitza.
Ume gaixuak erdi gosiak
jantzi ariñian dabilta.
Onezkero aiek illak ziraden
piña izan ez banintza.

Mtx:

Sinistatutzen ere lan dago
andreai oiek aittuta,
beronek ere akats batzuek
gaixo onek baditu-ta.
Gure umeak ez daduzkagu
jan geiegiz nagituta,
nik aientzat eamate'ittudanak
andreak jaten ditu-ta.

Puntutan, Mitxelena hasita.

Mtx: Puntutan kantatuko
al degu, ba, pixkat?

Bas: Egundoko kontuak
gaur esango dizkat.

Ltx: Ni ere segitzeko
presto nago beintzat.

Aro: Emen ari gerade
builla ta erristak.

- Bas: Zer iruditzen zaizute
gaur emengo festa?
- Ltx: Au baiño ederragorik
orain iñun ezta.
- Aro: Mordoxka bat bildu da,
mutil eta neska.
- Mtx: Laster bukatzen dala,
oi dek nere kezka.
- Bas: Bateko gabardina,
besteko bujanda!
- Ltx: Oraindik eztaukat
sasoia juanda.
- Aro: Oraindik etorriko al zaio,
noizpaite txanda.
- Mtx: Ain gizon eskasa ezkontzen
eoeziñekin lan da.
- Ltx: Gizonezko asko dago,
emakume gutxi.
- Aro: Nunbait denborarekin
eztira iritxi.
- Mtx: Gure Lazkao falta da
gauza ori iritzi.
- Bas: Onuzkero mutilzar
bearko dek bizi.
- Ltx: Mitxelena aundia da,
baiña lurrezkua
- Aro: Jaungoikoak ola eginda,
ori berezkua.
- Mtx: Gure Lazkao ote degu,
jaunak, urrezkua?
- Bas: Korputz txikia du ta
bai odolezkua.
- Aro: Andregaiia billatzeko
badauzka urtiak.
- Mtx: Eztio laguntzen nunbait
Jaunan birtutiak.
- Bas: Pentsatzen jarrita dauzka
tailla dexentiak.
- Ltx: Gaur bati badizkiot
nik begik botiak.
- Aro: Denborak etzion utzi,
nunbaite azitzen.
- Mtx: Ontaz aurrera indarrak
ai zaizkidak gutxitzen.
- Bas: Batzuk igotzen lana,
bestiak jetsitzen.
- Ltx: Arri aundien onduan
ez al det luzitzen?
- Mtx: Ari begiak botata
nola ikusten duk?
- Bas: Andregairik etziok
emen itz biren truk.
- Ltx: Begi gabe're jende au
ikusten degu guk.
- Aro: Dama gazteguak'e
badira ezkonduk.
- Mtx: Oraindik azitzeko
badu esperantza.
- Bas: Nik oni ematen diot
aingeruan antza.
- Ltx: Munduan denok daukagu
zedozerren mantxa.
- Aro: Orregatikan dauka
onek'e balantza.

Bas: Denbora badaukazu,
etzaite estutu.

Ltx: Len estua naiz eta
ezin naiz altutu.

Aro: Nunbait orixe zaio
orain bururatu.

Mtx: Orren aundirik ere
ez, ba, inguratu.

Ltx: Aundi txarra baiño obe da
txikia ta fiña.

Aro: Zu etzera txikia,
baizikan pittña.

Mtx: Nunbait'e txikia zer dan
berak'e eztakiña.

Bas: Zuek txistua jo ta
onek danboliña.

Aro: Iritxitzen ari da
bukatzeko ordua.

Mtx: Uste't kantatu degula
gaur naiko bertsua.

Bas: Zuk ez beintzat gaizki artu
guk esandakua.

Ltx: Onekin bukatuko
al det iñautitakua.

Eta, azkenik, Basarriren bertsoak, Lesakako jaialdikoak amaitzeko:

Zuen eliza maitagarria
barruz ikusia det nik.
Erri erdian errekatxo bat
bidetik ezin ertenik.
Zoratzen nengon danai begira
ia burua juanik.
Ez leike esan zuen Lesaka
zeru puska bat eztanik.

Lesaka maite, iraun zazula,
iraun, bai, millaka urte.
Nere begiak kabi polit au
sarritan ikus nai dute.
Lau bertsolari morrontzarako
beti prestu gauzkatzute.
Gure paltarik ezta izango
ta noiznai deitu zazute.

Zumarragan, 1964ko otsailak 23

Zumarragako Zelai-Aristi aretoan egin zen jaialdi batekoak dira beste bertso hauek. Basarri, Uztapide, Lasarte, Lazkao Txiki eta artean ezezagun samarrak ziren Patxi Beloki (Bidania-Telleriarte) eta Alberro (Brinkola) ziren bertsotan. Gai-jartzaille, Prudentzio Egiguren *Artañola*.

Lehenengo lau bertsolarien jarduna hauxe izan zen, jarritako gaiari erantzunez: Garizuman gaude. Basarri erretorea izango da; Uztapide, sakristaua; Lasarte, bertako serorea; eta Lazkao Txiki, monagiloa. A zer disgustoa izan duen erretore zaharrak: meza emateko ardorik gabe gelditu omen da.

Bas: Eztute artzen erretore errukia.

Garbi esplikatuko det nik alderdia: sei illabetian usturteko zagia.

Esku ederretan ziok nere parrokia!

Uzt: Sankristauak zintzo egin oi du bere lana.

Nik aitortuko dizut emen pasa dana: lenago nik izan arren edalian fama, gaur rejimedian nago, ezta nik edana.

Las: Sakristauak egiak dizkigu esanak; nik ere beti ditut txintxuaren famak.

Seroriak egite'itu elizako lanak.

Akolituak dizkigu arduak edanak.

Ltx: Ardo ori eztago neure abeleran; ta monagilloari kulparik ez eman.

Seroria, badakigu nolakua zeran: bistan zintzua baiña ezkutuan edan.

Bas: Gizonikan txikiñak tragorik aundiñak; disimuluan galantak baditu egiñak!

Serore ta sakristauak auk'e alegiñak. Bat zuzenik eztaukat; irurak berdiñak.

Uzt: Zelebria izan da
ardo kontu ori!
Bildurra ematen diana
orain dator neri:
konfesatu bear laster
bikaio jaunari.
Orduan agertuko da
zein dan pekatari.

Bas: Ai, zer jende klasia
sartu nun etxera!
Denbora junda gero
damutuak gera.
Ta ez nua arrastoa
ondo ateratzera.
Auzora joaten baizaizkit
konfesatutzera.

Las: Bikaioa arrazoian
dago indarrean,
seroria ere egia
esan bearrean.
Monagilloa dabil or
itxura txarrean;
erdi mozkortuta atzo're
eliz bazterrean.

Uzt: Auzia bear degu
nolabait bukatu.
Deklarazioak zaitze
danari eskatu.
Orain pekatari nor
or zeñek juzkatu?
Besteren aitzakian
danari gustatu!

Ltx: Serorea ta parrokoa're
eztabiltza triste.
Akordatzen enaizenik
etzazula uste.
Parrokuak badu kulpa
ortan nik ainbeste.
Mezetatik kanpora
ustutzen dituzte.

Las: Goguan ar zazute
zer aitortuko dedan;
emen konfesiua
egin degu bertan.
Bikarioa jarri da
trantze estuetan,
zagia utzi zulako
gure eskuetan.

Ltx: Ongi egiña dagonik
eztiot iritzi,
ta bear degu elizan
geiago sinetsi.
Damutu ez gaitezen
biar edo etzi,
auxe esaite'izutet:
lapurretak utzi.

Bertsolariak binaka ere jarri zituen lanean. Basarri eta Uztapi-
deren bertsoak dira hauek, lehenengoari jarritako puntuetatik hasi-
ta.

Art. Basarrik obe luke
barau egitea.

Art. Biraurik esateko
oiturik ez artu.

Bas: Pentsatzen jarrita're
ori esatea!
Ez al dakizu nagola
aizetan betea?
Noizikpein komeni zait
goxotik jatea.

Bas: Orretan ez tet sarri
egiten pekatu.
Euskerazalia naiz,
orra deklaratu;
ta euskerak ezpaitu
ori baliatu.

Eta gero, ofizioa: Biok baserritarrak zerate. Basarri, baserrirako
laguntzak espero dituen; Uztapidek, ostera, eztu inolako esperan-
tzarik. Bapo meriendatu ostean, honelaxe asi dira berriketan:

Bas:
Lagun maitea, entzun zaidazu,
kantari noa astera.
Nik ondo dakit gauza auetan
fedea aundikoa etzera.
Batzuk azaldu zaizkit lenguan
diru pixkat eskeintzera.
Zuk'e premirik baldin badezu
juan azkar eskatzera.

Bas:
Manuel maite, zer asi zera
aldamenetik esaten?
Propiñarikan edozein moduz
orain ezpaita izaten.
Ta diru ori ematen dute
korritu kaskartxo baten.
Ogei urtian eztadukazu
saia bearrik ematen.

Uzt:
Beti premian izaten gera,
nai genduke anparua;
baiña artu baiño lenago pixkat
nekatu bear burua,
bestek eskeintzen duan gauz ori
nola ez dan segurua.
Atzera bueltatzekotan al da
ematen duten dirua?

Uzt:
Lenago ere amaika gauza
olako entzun ditugu.
Gu engaiñatzen ez al dabilza
danak, uda eta negu?
Oain eztizute ezer eskeintzen,
gero ikusiko degu.
Baiña ezer izango bada emen
nor berak egin bear du!

Bas:
Norberak egin bear duela,
orretan egon etsia!
Alperrarentzat ezta jarriko
diruzko komenentzia.
Zeure bazterra ikusi nai
badezu pixkat jantzia;
kanpotik inguratu bear dezu
ematen duten guzia.

Uzt:
Beti tristiak izan dirade
baserritarren egunak.
Zuk diozunez orain badira
aldamenetik lagunak.
Nere ustetan gero're izango
ditugu karga astunak.
Jaten errezak izango dira
bestek ematen ditunak.

Bakarka kantatzeko gaia Basarrirentzat: Sinismenik eztuen
gizonari bertsoak.

Sinismenik eztunak
zer egiten duan:
beti dago kezkatan,
beti amorruan.
Itxaropenik eztu
jaun orrek geruan.
Eta ibili bear
beti endreduan.
Gauza tristiagorik
bai al da munduan?

Bas:
Baserritarrak badu oraintxe
makiña bat eginkizun!
Kanpo-laguntzik ezpaldin bada
gure martxa onek egin zun.
Ni beintzat bide ortara nua,
zuk nai ezpadezu ez jun.
Gero damua alperrikan da,
pentsatu zer egiten dezun.

Uzt:
Emandakoa artu gabe onek
eztu pentsatzen uzterik;
ta nik pentsatzen ezpaidet berriz
ortik ezertan asterik.
Guk eztaukagu sekula ere
mailla onera iristerik.
Bestek lagunduko duen ori
ezta kontua besterik.

Milloika izar eder
zeruan or daude;
bere bidez or dabil
itsaso aundia ere.
Baso ta mendietan
arbol ta landare.
Gu ere egin gaitu
gorputz-animan jabe.
Zu ere etzera bizi
Jaungoikorik gabe!

Uztapide hasita lau bertsolariek puntutan egin zuten gero,
Zumarragako jaialdian.

- Uzt: Beraz, puntuak jarrita
ein dezagun lana.
- Bas: Orren desiotan dago
emen jende dana.
- Ltx: Au da gure maixuak
agintzen duana.
- Las: Onena izan zala
nengon antzemana.
- Bas: Zumarragari egin
zaiogun agurra.
- Ltx: Oek utzita joaten
eztago xamurra.
- Las: Egin degun saioa
ez al da laburra?
- Uzt: Bedeinkatua izan
bedi olako lurra.
- Ltx: Era ontan segitu
emendik aurrera.
- Las: Beti ezta izango
olako aukera.
- Uzt: Beti pozez eiten degu
onuntz etorrera.
- Bas: Lazkaon bodetan onuntz
etorriko gera.
- Las: Noiz izango ote da
Lazkaoren boda?
- Uzt: Oraindik pentsatzeko
badago denbora.
- Bas: Lengo ama sorgiña're
ortxe egongo da.
- Ltx: Gaur au aditzen badu,
asarretuko da.
- Uzt: Laster bukatuko dira
aren asarriak,
- Bas: eramaten badizka
zillar ta urriak.
- Ltx: Pasatu berko ditu
istillu gorriak!
- Las: Eztitu ez erosiko
ark etxe berriak.
- Bas: Ez beintzat txartzat artu
onian esanda.
- Ltx: Denok dakizutena da,
bromarako izan da.
- Las: Berriz ere sortuko da
olakoxe txanda.
- Uzt: Berria billatu bear
lenguena juanda.
- Ltx: Damutan omen dago
nei ezetz esana.
- Las: Lendik etzan egongo
ondo antzemana.
- Uzt: Au bera're ezpaita
txintxua izana.
- Bas: Orrentzat txarra baiña
nik maite det dama.
- Las: Iñork eztaki onek
zenbat maite duan.
- Uzt: Pozik egoten zan beintzat
len onen onduan.
- Bas: Gaur ere portatu da
gizonen moduan.
- Ltx: Amak utzi baldin balu,
neretzako nuan.
- Uzt: Orain bukaera eman
zaiozu, Lasarte.
- Bas: Ez genduke bizi nai
emendik aparte.
- Ltx: Bertso onekin nai degu
gaurko lana bete.
- Las: Agur, anai-arrebak,
nai dezuten arte.

Ondarroan, 1964ko udaberria

Txomin Agirre zenaren mendeurrena zela-ta, jaialdi bereziak egin ziren Ondarroan, 1964ko udaberri hartan. Besteak beste, bertso-jaialdi bat ere egin zen, Ibarzabal, Balendin Enbeita, Urtubixa-ko Peru, Jon Azpillaga, Jon Lopategi, Jon Mugartegi, Manuel Uzta-pide eta Basarri bertsolari zirela.

Bertsolariak eta Txomin Agirre gaia emanda, honela kantatu zuen Basarrik:

Iru liburu dauzkat zureak
pitxi modura gorderik;
euskeraz ezta gaur arteraiño
idatzi askoz oberik.
Ondarru maite, egon zindezke
zu poztasunez beterik.
Gure izkuntzak izan ote du
mailla ortako semerik?

Euskal anima zer dan agertuz
emanik ainbat albiste,
berdingabeko zure lan oiek
gorantzak bear dituzte.
Merezi duna eskertze ontan
bagera nornai ainbeste.
Euskaldun bertsolari apalak
pozik oroitzen zaituzte¹¹.

¹¹ *Boga Boga* aldizkaria. Ondarru, 1964ko maiatza-ekaina.

Elgoibarren, 1964ko ekainak 7

Euskal jai ederra antolatu eta egin zuten Elgoibarren, 1964ko ekainean. Goiz eta arratsaldeko jaia egin ere. Besteak beste, bertsolariak eraman zituzten, beste askotan bezala: Uztapide, Lasarte eta Joxe Lizaso. Goizean ezin, eta arratsaldean heldu zen Basarri. Gai jartzaile, berriz, Artañola izan zen. Ekitaldi nagusia herriko azoka plazan egin zuten. Eta hantxe ziren txistulariak, dantzariak, kantariak eta bertsolariak.

Arratsaldeko saiotik jaso ditugu orain irakurriko dituzun bertso hauek:

Uzt:

Jaialdi eder au nola izango zan
aspaldi esana zegon.

Ikuste' zute ni berriz orain
zeiñen kontenturik nagon.

Edertasun au ikusi eta
ezin ixillikan egon.

Lendabiziko, anai-arreba
guztiori, arratsalde on!

Las:

Jaun zerukoa, indartu zazu
gure memori ariña;

zer falta duan jakingo dezu
nola baitan zeuk egiña.

Gaur Elgoibarren billatu degu
biotzaren atsegiña.

Au da paraje zoragarria,
ai, bertan bizi bagiña!

Bas:

Gaurko eguna aspalditikan
danok itxaroten gendun.

Era ontako edertasunik
orain bai ote da iñun?

Elgoibar maite biotzekoa,
beti izan zaitut lagun.

Arnas pixka bat dezun artean
jarraitu zazu euskaldun.

Liz:

Agur-eskeinka nator ni baiña
ia eztaikit zer esan,

oinbeste jende ikusirikan
gaur Elgoibarreko plazan.

Anai-arrebak, gure artean
gaur au komeniko zan,

gaixorik dagon euskera zarrak
arnasa izandu dezan.

Gero, puntu hauxe jarri zion Basarri gai-jartzaileak:

Art. Euskal jai eder bat
degu Elgoibarren.

Bas: Aspaldin oinbeste jende
ezta izan emen.
Nere esana sartu bedi
biotzian barren;
olakuak sarritxo
eitazute, arren!

Ofiziotan jarri zituen gero bertsolariak, honelaxe: Basarri ehiz-
taria izango da; Uztapide, berriz, perretxiku biltzailea. Manuel
Lasarte, arrantzalea; eta Lizaso, karakol biltzailea. Hiruna bertso
txandan, Basarri hasita.

Bas: Eizerako izan det
beti nere griña,
Jaungoikoak propio
ortako egiña.
Apunteri ederra
badadukat baiña
aurten ez tet egiten
kartutxontzat aiña.

Uzt: Jeiki eta mendira
egiten det martxa.
Eztaukat bizimodua
aurten oso latza,
perretxiku-urtia
baita aberatsa.
Naikoa det erostia
olio ta gatza.

Las: Toki onik eztaukat
nai baiño geiago.
Nik daramakidan martxa
ikusia dago.

Arrantzan aspertu naiz
ber baiño lenago;
gure errio orretan
arrai gutxi dago.

Liz: Jendetza gutxi dago
goizian jeikitzen,
badakizu aspaldian
nolatan gabiltzen;
euria're sarri samar
zaigula etortzen.
Lizaso trankil dabil
karakolak biltzen.

Bas: Erriko guarda zibil bat
daukat begi betian.
Arentzako arkitzen naiz
kolera fuertian.
Eskupeta kendu zidan
jun dan elurtian;
eztiot barkatzen bi-
zi naizen artian.

Uzt: Basarri, ixillikan
egotia obe;
zuretzat ere bada
gutzat ainbat lege.
Sekula etzera egin
lizentzien jabe.
Etzerade libratuko
kartzelarik gabe.

Bas: Uztapidek artu dit
albotikan kargu.
Onek ori esateko
motiborik al du?
Baldin Basarrik kartzela
merezia badu,
perretxiku batzuek
tartetan bialdu.

Las: Nere ustez atzo egin
nuen nik azaiña:
arrai freskua arrapatu
neretzako aiña.
Goizero antzuelokin
botatzen det kaiña.
Saiatu egin bearko
alperrik da baiña.

Uzt: Barkatu zazu, Basarri,
lenago esana.
Zuk badakizu ori
benetan etzana.
Orain abituko naiz
Lizasorengana:
Karakol-biltzia ezta
euskaldunen lana.

Liz: Entzule maitagarriak,
esango det auxen:
karakola galanki jan,
argatikan gizen.
Goizian sorotara
juaten naiz zuzen,
landareak osorikan
kontserba ditezen.

Las: Lizaso or daukagu
karakol-asean;
bai beste pareja au're
dotore antzean.
Bat perretxiku biltzen ta
bestea eizean,
etzerate mantenduko
denbora luzean.

Liz: Uztapidek bertso bat
bazeukan kolkuan:
jaunak, entzun dezute
nola esan duan.
Orren perretxikua
nik jan ber banuan,
onuzkero gosiak
garbitu ninduan.

Bertso-saio honen ostean, Mutrikuko Idurre zortzikoak lau euskal kantu eman zituen Elgoibarko jaialdian; eta gero, berriz ere, bertsolariak lanean jarri zituzten. Basarriri puntua:

Art. Basarri, txakoliñik
al dezu etxian?

Bas: Sekula ez naiz egoten
armaio utsian.
Inbidirik etzazu
izan biotzian.
Nola probatuko dezu
etorri ezian?

Basarri eta Uztapideri ofizioa eman zien Artañolak: Basarri urtez kargaturik dagoen aitona da; Uztapide, hamasei urteko biloba. Mutikoa kanpora doa, ogibidearen bila.

Bas:
Irurogeita amar urtera
nago, jaunak, iritsita.
Garai batian indartsu nintzan,
orain talentuz jeitsita.
Negar-malkoak ditut begitan
nere iloba ikusita;
kanpo aldera nolatan zoaz
aitona ola utzita?

Uzt:
Aitona, gauzak ez itzazula
artu orrela serio;
nik ere naiko pena badaukat
zu zeralako medio.
Baiña emen lana egitiak gaur
nola ez duen balio,
ogian billa joan ein bear,
ia zer erremedio!

Bas:
Billoba maite, entzun zazula
zeure aitonaren itza.
Bere lur ederra utzita
gaur askotxo or dabilta.

Zuk ere azkar aztua dezu,
ai, Gernikako aritza!
Au aiñakorik eztezu izango,
alper-alperrik zabilta.

Uzt:
Eskerrik asko, aitonatxoa;
ori zan bertso sakona!
Ez dezazula pentsatu gero
ni aspertuta nagona.
Ez nua emendik iñora gero
ez dalako toki ona.
Andikan ere ez tet aztuko
gure lurra ta aitona.

Bas:
Baso ta mendi, soro ta baratz,
danak ortxe daude prestu.
Gure Jainkoak onelakorik
toki askotan egin ez tu.
Al baldin bada estranjerian,
billoba, zu aberastu;
baiña odoleko zure anaiak
sekula ez itzazu aztu!

Uzt: Nik edozeiñek ainbeste maite
det, bai, lur au nereko.
Ni an banaiz zuk ezeren faltik,
aitona, eztezu edukiko.
Joan baiño len ditut nik gauzak
itxuraz erabakiko.
Diru pixkaten billa nijua;
aitona, ez nua betiko.

Azkenik, bere agurra honela kantatu zuen Basarrik, hamalau
puntuko bertso luzean:

Egun ederra, egun bikaiña
izan da Elgoibarkua.
Sarrixeago bear genduke
gaurkoa bezelakua.
Dantzari eder, zoragarriak,
eta txistuan doiñua.
Jendea berriz alde guztitik
onuntza inguratua.
Arbol zarrari eman diogu
berebiziko txertua.
Egun au zeñek eztu eukiko
bere buruan artua?
Jaso biotzak, jaso animak!,
argitu pentsamentua!
Emen bakoitzak atera beza
oraintxe bere kontua.
Erri maitea, nolatan zaude
era ontan baztertua?
Il bear dezu, ta eriotza
ikusten ni aspertua.
Ez. Ezin leike il. Artu dezagun
guzti-guztiok tratua.
Euskaldun jende guzti-guztia
bildu dedilla bapua.
Gure kulpetan baldin euskera
badago lurperatua,
Jainkoak ere ezin barkatu
lezake ori pekatua!

Orion, 1964ko ekainak 20

Orioko Leunda antzokian egindako bertso-saio batekoak dira ondorengo bertso hauek.

Jaialdi hartan txistulariak, dantzariak, kantariak, eta bertsolariak izan ziren, herriko luistarrek antolatuta.

Bertsotan, Basarri, Uztapide, Lasarte eta Lazkao Txiki ziren. Gai-jartzaile eta zuzendari, Benito Brit Loiarte.

Jaialdiaren azkenaldeko bertso-saioa da hau, hain zuzen, Basarriren bertsoetara bilduz. Gaia: Orain dala milaka urteko giza-hezurrak aurkitu dituzte Orioko harpe batean (Altxerrin). Orduko bizi-moduaz kantatu behar duzu, Basarri.

Nere lagunak adierazi du
oain emen zer komeni dan.
Asiera orrek eman du eta
ni or nijua segidan.
Emendik Zarautz alde ortara
badakit zer ageri dan:
gure aurreko guraso zarrak
arkaitzetan bizi ziran.

Etzegon ordun adelanturik,
eiza zan eta arrantza.
Larrugorririk etorri ziran
ta abere batzun laguntza.
Otso-larruaz estali eta
pasatuaz negu otza.
Gaurko egunian eztago urre
lengo gurasuen antza!

Berrogeita amar milla urte dira
bizitzen zirala ola;
gero mudantzak izandu dira,
Jaungoikoak daki nola.
Al baldin bada geure arrazik
ez ukatu, ez, iñola!
Oraindik ere bizirik dago
euskaldunaren odola!

Eta lau bertsolariak puntutan egindako saioa jasoko dugu berehala:

- Ltx: Beraz, asi gaitezen
puntua jarrita.
- Bas: Txikia aundi dago
Oriora etorrira.
- Uzt: Beti ori esaten aitzia
alperrikan baita.
- Las: Berdin geradela denok
nago igarrita.
- Bas: Soziedadian edan
degu sagardua.
- Uzt: Onezkero sartua
badezu mordua.
- Las: Gero aztu zaiote
lanaren ordua.
- Ltx: Itsaspek debalderik
eman digu ua.
- Uzt: Debalde dan lekura
zuek azkar jua.
- Las: Apenas egon diran
jundako damuan.
- Ltx: Zuk ere izan bazendu
edango zenduan.
- Bas: Uztapide ezin ibili
gaur gure onduan.
- Las: Naiko lan ez al dauka
gaixo daguanak?
- Ltx: Alare egiten ditu
sanuaren lanak.
- Bas: Osasuna ekarri
dezaiola Jaunak.
- Uzt: Guztia eztu galdu
len edan duanak
- Ltx: Egarriak dagonari
eman edaritik.
- Bas: Oni're gustatzen zaio
oneko iturritik.
- Uzt: Batzuk basotik ai dira,
gu berriz zagitik.
- Ltx: Ez gera mozkortuko
edan geiegitik.
- Bas: Lazkaoko txikia,
ibili beintzat kontuz!
- Uzt: Orrek kantatutzen du
beti pulamentuz.
- Las: Gizona gogor antzian
daukagu talentuz.
- Ltx: Doble etorritzen zait
sagardua artuz.
- Uzt: Edariak bai al du
olako indarra?
- Las: Emen dago edan ta
lan egin bearra.
- Ltx: Gustatzen zaiona ezta
txikia bakarra.
- Bas: Maian jarritakuan
au ezta baldarra.
- Las: Edango al degu laster
danok pixka bana?
- Ltx: Lasartek'e atera du
txikiaren plana.
- Bas: Batez gonbidatzeko're
badu itza emana.
- Las: Erruki emen lurrian
diskuidatzen dana.

Lau oinak eman zizkion aurkezleak Basarriri, edozein leihake-
tatan bezela:

Alkate, naukate, kate, kalte.

Bas: Bizitza onek badu
makiña bat kate;
agintia izatia
iñoiz ezta kalte.
Oriotarrak oso
urrian naukate,
diskuido z jarri nai
banaute alkate.

Arraia, maia, itzaia, jaia.

Bas: Gu bezelako batek
bear du itzaia.
Lazkao Txiki dago
eundoko arraia!
Jaia bukatu eta
artu nai du maia;
olaxe bukatuko du
Orioko jaia.

Basarriren azken agurra:

Erri onetan oraindik ere
bizirik daude sugarrak;
mundu guztia arri lezake
dadukazuten indarrak.
Ain zintzoki etorri onera
nola gazte eta zarrak,
geroko ere, anai-arrebak,
eztira seiñale txarrak.
Zeru goitatiek dizdiz ederra
egiten dute izarrak.
Urte askoan gaur bezelaxe
gaude alkartu bearrak!
Zuzentasunez segituz beti
eta ez izan baldarrak.
Parre-irria etorri bedi,
utzi or bazter negarrak.

Aurrera ere artu itzazute
gaur eguneko zuztarrak.
Jende jatorra billatu degu
Jaungoikoari eskerrak.
Argitasunez blai-blai or daude
len triste zeuden baztarrak.
Gora Orioko erria eta
erri ontako luistarrak.

Urnietan, 1964ko irailak 24

San Migel zaindariaren jaietan urtero antolatu ohi zuten bertso jaialdia Urnietan. 1964ko irailaren 24an ere antolatu zuten, eta Uztapide eta Basarri eraman zituzten bertсотara. Usadio zaharrean, Herriko Etxeko balkoitik kantatu zuten urte hartan ere, honelaxe.

Bas:

Guri pixka bat adituzkeo
euki arreta zentzuna.
Alaitasun bat emen jartzia,
ori da eskatu zaiguna.
O, San Migel, zu zeru-lurretan
ainbat podere dezuna,
une onetan eman zaiguzu
premizko argitasuna.

Uzt:

Gorde ezazu kalea eta
gorde zazu baserria.
San Migel, zuri erregutzera
propio naiz etorria.
Emen gaude gu aspaldi ontan
beti zure zai jarria;
zu izan ezik galdua dago
Urnietako erria.

Bas:

Meza nagusi ondorenian
bertsua eta kantua;
guraso zarren oitura ederra
eztago ezkutatua.
Aurten eduki dezutelako
gu bi gizonen kontua,
biotz-biotzez eskertzen degu
erriko aiuntamentua.

Uzt:

Kantatzen asi eta momentuz
ezin gindezke aspertu.
Urnietan au serbitutzeko
beti egoten gera gertu.
Naiz eta oso zartuak egon
ez bai gaituzte baztertu.
Orregatik bear ginduzke
erri-gizonak eskertu.

Bas:

Aurreko zarrak jarri ziguten
bide zuzen ta garbia.
Orain aztutzen ari gerala,
ori da negargarria!
Saia berriro ere, mutillak;
garaitan dago jarria.
Oitura auek galdu ezkerok,
akabo Euskalerria!

Uzt:

Gure kantuen premi pixka bat
du Euskalerrri osuak.
Saiatzen gera al dan guztian
kantatzen kantu gozuak.
Emen oraindik ere zarrari
gustatzen zaizte bertsuak.
Penagarririk aundiena da:
eztu laguntzen auzuak.

Bas:

Gazte jendea ikusten dira
oso gauza nabarmenak.
Erririk erri beti gabiltza,
gu gera kezka gaudenak.
Jaiotzatikan ditugu emen
pozaldiak eta penak.
Gaztetan lautatik iru zeudek
konprenditzen ez tutenak.

Uzt:

Beste bat kanta gabe ez niteke
balkoi onetatik jeitsi.
Ain nekez baiña ontararaiño ere,
Basarri, gaituk iritsi.
Saia gaitezen, bada, bertsotan;
ez diagu bear etsi;
ta ez takiten oieri ere
al badegu erakutsi.

Bas:

Bertsolariak erririk erri
dotriña au daramate.
Al dan guztia eiteko beti
badaukagu borondate.
Konprenditutzen ez duten oiek
ortan beretzako kalte.
Guk ontan segi biar zioagu
arnasik daukagun arte.

Uzt:

Danak astindu bear dizkigu
gogoratzeko ian klasiak;
gai batetikan eztek komeni
olako saio luziak.
Udarazkena txarra zijoak,
indar zebilkik aiziak.
Denborarikan aldatze'ezpadu
galdu ber digu gosiak.

Bas:

Aspaldi ontan ez uan jarri
era ortako trantzerik.
Alkarren urre eztek faltatzen
aurrerik eta atzerik.
Lengo altxorra dagoen arte
guk etzeukagu goserik.
Denborarekin ez ai bildurtu;
eztek alako klaserik.

Uzt:

Oraintxe ere arrazoi dek ik,
eztek emen zer esanik,
euk diokanez lengo altxorra
aundi xamarra izanik.
Gure etxian eztek arkitzen
era orretako planik.
Gurean leno aurreratuak
jaten etzeukagu lanik.

Bas:

Ara nolatan sartuko naizen
arrazoi orren arira.
Bide nabarmenak utzi eta
goazen arrasto garbira.
Beti orretan gure Euskadi dek
erdi negarrez asita.
Ez beintzat ezer iñork sinistu,
printzipe gisan bizi da.

Uzt:

Baldin egia esango balu
egingo likit grazia;
danak dakite nola nagoen
ni zartzen ere asia.
Len garai baten lanian nuen
pixka bat irabazia;
orain gaixotu eta lana're
didate galerazia.

Bas:
Gure artian ezbear oiek
zetoztik indar zorrotzez.
Sarri premian gertatzen gaituk
izakera onan gosez.
Orain i ere bajatu aiz-ta
indartsu intzana jaiotzez,
osasun ori indartutzia
nik opa diat biotzez.

Uzt:
Al baldin balu osasun ona
nai likit onek ekarri.
Nik berak esan baiño lenago
egña neukan igarri.
Lenago ere laguntasunak
egin dizkidak ik sarri.
Orain eskeintzen didakanatik
eskerrik asko, Basarri.

Puntutan egin zuten gero, ohitura zutenez:

Bas: Puntu batzuk jartzeko
orain alkatiak.
Uzt: Poz aundia eman ziak
ori esatiak.
Bas: Zabaldu ditzagun, bada,
barrengo atiak,
Uzt: eztiralako naikoa
lenago botiak.

Uzt: Lenengo lana ori dek:
atiak zabaldu.
Bas: Gure jardunaren kejik
iñork emango al du?
Uzt: Fallo bakar bat diagu:
pixka bat makaldu.
Bas: Daukagun aberastasunik
ez diat nai saldu.

Bas:
Bizi nai eta ezin bizirik,
emen badek naiko lana!
Lenago ere gorabera asko
pareja auxa emana.
Derrior makurtu bear digu
Zeruko Jaun orrengana.
Artu biarra zeukagu emen
berak bialtzen duana.

Uzt:
Iñoiz onak'e bialtzen dizkit,
eta beti zai egondu.
Orain artian eztingu beintzat
egun txar asko izandu.
Guk egin bear degun lana dek:
alkarri ezer ez kendu.
Alare naiko lanak dizkia,
biok itxuran konpondu.

Bas: Gaiñera erdi petral
gu goiz partetikan.
Uzt: Ez ditzagun danak galdu
aurtengo urtetikan.
Bas: Indartu izan gaituk
arratsaldetikan.
Uzt: Gaur eztek faltik izango
gure partetikan.

Uzt: Arratsaldian izango
diagu indarra.
Bas: Bost eta erditan daukagu
guk asi biarra.
Uzt: Jendiak ein berko dik
irri edo parra.
Bas: Gustora utzi zagu
jende urnietarra.

Bas: Ondo bazkaldu zazute
bien bitartian.
Uzt: Ostatua eztegu guk
oso apartian.
Bas: Goizerako naikoa da.
Ixildu gaitian.
Uzt: Agur, ba, guztiori
atsalde artian.



Txapel zenaren omena. Azpeitia, 1969.XI.9.

Zarautzen, 1964ko azaroak 29

Aspaldian Zarautzen bizi zen Oikiako Santi Salegi pilotari haundi izanari omenaldia egin zioten egun hartan Zarautzen. Lagunarteko bazkalaurretik bertso-saioa egin zuten herriko pelotalekuan Basarri eta Uztapelek. Hemen dituzu orduko bertso batzuk:

Bas:

Santi maitea, begien bistan
zer da ikusten dezuna?
Pelotazale diran guziak
eman dute erantzuna.
Nik prontoi ontan egin nai nuke
gaur zure aitorkizuna:
pelotari ona alde batetik,
bestetik danon laguna.
Orretxegatik iritsi zaizu
merezi zendun eguna.

Uzt:

Bertako lanak gaztetan egin
ta juana zan urrutira;
Frantzi aldiaren e txapeldun jarri
eta gero erretira.
Orrek pelotan egiterikan
iñoiz etzuen kupira.
Jendia franko ikustera're
joaten oi zan tokira.
Gizon eskasaguak amaika
omena egiñak badira.

Bas:

Santi Salegik trinkete oitan
bazuen milla meritu;
eta juandako toki guzitan
jendea ondo serbitu.
Aidera eztu pelotarikan

zuk bezela iñork gelditu.

Emengo frontoi luze auetan'e
ori zeñek errenditu,
zenbaitek ditun beso zakarrak
berekín izan balitu?

Uzt:

Ori pelotan saiatua zan
sasoia zuen artian.
Kontraio gutxi izaten zuen
urrian ta apartian.
Beti ez bazan, irabaziko
zuen bitatik batian.
Frontoi auetan ona zan eta
obiagoa trinketian;
kontrariorik ere etzuen
izan bolara batian.

Bas:

Ta itsasoan patroitzan ere
iñoiz egiten zuena,
bi illarako soiñua jotzen
oso ondo zekiena,
bertsotan ere puntara ederrak
iñoiz bota zituena.
Oietzaz kanpo kondizio bat
bazun oso nabarmena:
graziarekin erronka jotzen
mundu ontan dan onena.

Uzt:

Arrazoia're izaten zuen
erronka pixkat jotzeko,
esan bezela kontrariorik
ezpaizuen beretzako.
Soiñu jotzen ta regatatan'e
bera daukagu onentzako.
Zailla izaten da, bada, balio
izatea danerako.
Baiña arraunketan ona ziñan
oikiarra izateko.

Bas:

Azkenengoa kantatutzera
Basarrin biotz zabala.
Ondo dakigu urte luzetan
gaixo arkitzen zerala;
ta badakizu lenago askoz
okerrago egon ziñala.
Erregutuko diot elizan
nik gaur goizean bezala,
Zerutar Jaunak al dan azkarren
zearo osatu zaitzala.

Orion, 1964ko abenduak 5

Orioko Leunda antzokian, beste askotan bezela, bertsolariak ziren San Nikolas zaindariaren bezperan. Eta egitarau bikaina antolatatu zuten gainera: puri-purian zegoen herriko Otxotea eta lau bertsolari, alajaina! Joxe Lizaso, Uztapide, Basarri eta Lasarte eraman zituzten urte hartan. Gai-jartzaile, Joxe Mari Iriondo.

Garai hartan behin baino gehiagotan erabili ohi zen gai bat honelaxe jarri genien: Joxe Lizaso soinu-jolea dugu; Uztapide, pandero jolea; Basarri, konjunto edo orkesta bateko bateria jolea; eta Lasarte, orkestinako kantaria.

Liz: Erromerira nator
soiñua eskuan;
beti dibertsua
dadukat buruan.
Beste lagun bat ere
badet inguruan.
Uztapide, asi zaite
orain panderuan.

Uzt: Panderua jotzeko
enaiz oso txarra;
oraindik ortarako
badaukat indarra.
Jarraitu zagon, Lizaso,
lengo oitura zarra.
Gure lur ontarako
zertako gitarra?

Bas: Uztapidek paillatu du
lenengo pausuan;
instrumentu onik etzun
ikusten auzuan.

Gitarra aiñakorik
ezta mundu osuan.
Iparragirrek ere
ori jotzen zuan.

Las: Panderistak gaizki dauka
begitako bista,
azaldu nai bailuke
bere indar pixka.
Eskerrak ni kantatzen
naizela artista,
bestela galduko zan
gure gitarrista.

Liz: Gogoan artua daukat
Basarrin galdera.
Gitarrakin sartu da
kontra egitera.
Iparragirren kontuak
dizkigu atera.
Zu ere joaten al zera
Santander aldera?

Uzt: Soiñu klase orrekin
bada milla neke;
ibili bearko dute
erri auetan merke.
Gutxi joango zaizkiote
soiñu orren eske.
Andaluzi aldera
abitu litezke.

Bas: Gitarra on batek badu
milla martingala;
auen utsunia esan-
go det beriala.
Soiñu-joliak dauka
artista dan gala,
ta ematen du astua
puzkarka ari dala.

Las: Gitarrista gogortu
zaigu lendabizi.
Kantoreak ere nunbait
bearko du bizi.
Soiñu-jolia're gogor
albotikan asi.
Juan leitezke beren
gitarra ta guzi.

Liz: Berriro ere, Basarri,
nai dizut itzegin,
lengo bertsoan nola
dezun zuk utsegin.
Jendia dibertitzen da
nere soiñuakin.
Denak lo artzen dute
zure gitarrakin.

Uzt: Gitarristari eztiot
eman nai nik gaitzik,
ala diraden gauzak
kontatzia baizik.

Baiñan eztiot emango
bear eztan itzik.
Gorputzian eztu onek
gitarristan antzik.

Bas: Gorputza ere daukat
ber dan klasekua:
neurritz artu liteke
motz ta luzekua.
Soiñu-jozaillia degu
doiñu motzekua;
eta panderista ere
bere antzekua.

Las: Orain soiñu-joleak
dauzkagu azkarrak;
eta indar berezia
berekina gitarrak.
Emen piztu dituzte
suak eta garrak!
Kulpa guztiak ditu
panderista zarrak.

Liz: Basarri etzegon lasai
zirikatu arte.
Nolabait ere orkesta
nai genduan bete.
Gitarra motela dala
ori or diote.
Azkenian bizkarrian
autsiko diote.

Uzt: Abeslari orrek ere
badu umoria!
Aspaldi ezagutzen det
orren koloria.
Neri ola itz egiteko
nun dek baloria,
musikarikan bate
eztun kantoria?

Bas: Lasarte jarri digute
orkestan kantore.
Orri're esan biarra
dadukat dotore:
boza bajua daukazu,
ain zaude xuabe!
Zer luzituko zenduke
gitararik gabe?

Las: Orain ere arrazoaia
eman du Basarrik;
baiña jaso bear du
erantzun ederrik.
Onerako gitarra
zuk dezu alperrik;
emen ori jotzen dute
zakurrak bakarrik.

Beste bertsolariak bezelaxe, Basarri eta Uztapidek ere binaka ofizioan egin zuten, gai honexekin: Basarri arrain saltzailea da, eta Uztapide, eroslea. Baina erosleak gutxi ordaintzen dio, itxura denez.

Bas: Aspalditikan zaitut
biotzez laguna;
gaur'e alkarren onduan
damakigu eguna.
Saltzailliak auxe da
zuri esan nai dizuna:
ondo pagatu zazula
erosten dezuna.

Uzt: Arraia famatutzen
zertarako saia?
Badakigu zaudela
ain gizon lasaia.
Orrek ez luke bear
olako usaia.
Urrai ustela ekartzeu ta
prezio aundia.

Uzt: Guk erabili bear
jarritako gaiak,
seguru baditugu
guk ere ezbaiak.
Ni ekarri nau onera
zerbaitxo jan-naiak.
Usai txarra botatzen du
dakartzun arraiak.

Bas: Gizon onek bere bururik
eztu asko altza:
nere arraiarentzat
orrenbeste tatxa!
Saltzaillia eztu jarri-
ko oso aberatsa.
Nere arraiak usaia du
ta onek kiratsa.

Bas: Erantzuna eman biar
nizuke berela,
eta sinistu zazu
arrazoi detela.
Sudurrak eztauzka onek
biar dan bezela.
Nik arrai piña daukat,
berau da ustela.

Uzt: Kontuz esan ezazu
orrelako itza!
Baietz esango nuke
egia balitza.
Arrazoiak kontra zera
gogotikan mintza.
Zortzi eun ontan arraiak
otarran dabilta.

- Bas: Zertan jartzen didazu
milla konpromiso?
Eskarmentun sartuko
ziñezke akaso.
Nere arraiak bentetan
eztaude ain mantso:
ekarritako otarka
saldu nuen atzo.
- Uzt: Nik ongi dakit, Basarri,
zer esaten detan.
Alperrik ari zera
zu emen gaur tretan.
Emendik zortzi egunera
or dituzu bertan,
ezpaitago saltzerikan
prezio orretan.
- Bas: Oriotar maitiak
nai giñuzen poztu;
egin biarra dago
lapurto edo ostu.
Alkarri juagatik
zazpi milla txistu,
danak gezurrak dira;
ez ezer sinistu.
- Uzt: Lenago entzun dezute
or zer esan dizten.
Berori ibili da
okasioa pizten,
arrazoia ateratzera
ez baizen iristen.
Len ere ondo nekien
etzula sinisten.
- Bas: Uztapide sartzen da
sekulako tropan.
Aunditxua bota du
oraingo bertso ortan.
- Mutil, gaur'e arkitzen nauk
ni sasoi apartan.
Ez nitek gelditu nai
arrazoian paltan.
- Uzt: Bakoitzari datorkio
zerbaitxo gogora;
gailen gelditzen danak
beretzat mejora.
Guztiok atera nai
gaillurrean gora.
Orretarako joan zaigu
oraintxe denbora.
- Bas: Etzeukat gogorik igo-
tzeko gaillurrera;
i ere etorri adi
Basarrin urrera.
Bukatu samarra dek
gu bion karrera;
erronkarik ezin jo
emendik aurrera.
- Uzt: Ementxe bertsotako
gaituzte nonbratu.
Geienak bota dira,
etzaigu sobratu.
Baiña nai degunikan
ezin deu logratu.
Erronka jotzen degu
baiña ez obratu.
- Bas: Erronka pixka bat ere
beti bidezkoa;
gure ateraldia
gaur zan legezkoa.
Azkena kantatzeko
artu det asmua:
gaizki esanak barka ta
luza zak eskua.

Elgoibarren, 1964ko abenduak 26

Urtezaharretako feria famatua zela-eta, bertsolariak izan zituzten Elgoibarren, urtero bezala. Basarri, Mugartegi, Lazkao Txiki eta Azpillaga zituzten bertsotan; eta Artañola gai-jartzaile. Ofizio haxe eman zien laurei: Famili bat egiten dezute zuek: Basarri aita da; Mugartegi, seme zaharrena; Lazkao Txiki, beti santuei erreza-tzen ari dan ama; eta Azpillaga, seme gaztea. Lana baino erromeria gehiago maite du honek. Seme zaharrak, baserrirako gogorik ez eta kalera joan nahi duela dio. Baina aitaren iritziz, baserrian ondo samar bizi liteke, saiatu ezkerro.

Bas:

Ainbeste urte munduan pasa
ta oraintxe mixerian!

Negar-malkuak jaiotzen dira
aita zarran aurpegian.

Seme batek lurrik maite ez,
bestia erromerian.

Ara zer martxa negargarria
dagon gure baserrian!

Mug:

Ezagutzen det, aita, zuk dezun
biotzeko zabalera;

bestela itz bat egin bearrez
dago amaren magalera.

Etzait gustatzen seme gazteak
damakien ibillera.

Ni ia sobre artzen naute ta
laster banua kalera.

Ltx:

Aita ta ama uzten dituzu
biotzetikan minbera;

jaio ziñaden tokia utzi
ta juan nai dezu bera.

Baiña zer dala-ta, seme zarra,
juan nai zenduke kalera?

Lengo etxeari eutsi zaiozu
seme zintzoa bazera!

Azp:

Sendi batean ondo izanik
sortu zeiken iskanbilla.

Gazte naizela ta erromeria
gustatzea al da zaila?

Seme zar au da kalezalea
ta baserritar oskilla.

Guk baserrian segiko degu;
bakarrik joan dedilla.

Bas:

Seme gaztiak erromeritan
oiua ta irrintzia.

Asentatuko zera oraindik,
kunpli zazu kutizia;

eta zarrari damutu biar
zaio etxia uztia!
Gauza eskasa izaten baita
piontzako irabazia.

Mug:

Seme zar onek egiten ditu
beti lanikan latzenak;
ta ondo dakit zer esker diran
aita eta amarenak.
Nik ortan kastatu izan ditut
gorputz guztiko almenak.
Gaurtik aurrera ez det egingo,
egin dezala gaztenak.

Ltx:

Aizu, senarra, orain jarri naiz
au artutzeko asmuhan.
Ikusi dezu zarrenak nola
nai luken kalera jua.
Eta gaztia erromeritan
beti or dabil kanpua.
Bera ezkondu bearko degu
aizeak juandakuan.

Azp:

Amak duena lan ederra da:
errosaiua birritan;
ta anai zarrak kalea dauka
buruturik pikarditan.
Ta aita zarrak zer kastatzen dun
probatan eta peritan!
Seme gazteak egingo ezpalu
lur danak zeuden sasitan.

Bas:

Ama onek ere kulpak baditu,
emen eztago txisterik.
Onen jokarak ikusi eta
ni egoten naiz tristerik.

Biar bezela semerik onek
etzun gogortu gazterik,
bere denboran ezpaitu egin
errezatzia besterik!

Mug:

Aita pixka bat gogorra degu,
ama ez errukarria.
Auen artetik zer sortuko zan
lendik nengon igarria.
Nik egindako dana txarra da,
auxe da negargarria!
Neregatikan libre zaudete
zuek eta baserria!

Ltx:

Senarra, zeu're zerekoi zera;
bai'ituzu aldi illunak.
Semeantzako ez dituzu uzten
jai eta peri-egunak.
Eta azkenik kalera nai du
nere semetxo kuttunak.
Azken ori merezi al zuen
bularra eman zizunak?

Azp:

Seme zar onek gurasoak ta
anaia utzi nai bakarrik.
Baserri baten lan egiteko
ez du doai ta indarrik.
Bere garaian etzun etxera
andre gazte bat ekarrik.
Pulamentuan ibilita etzan
kalera jeitsi bearrik.

Bas:

Oso poliki bizi giñanak
orain kolpera galduak.
Gure ondasun guztiak daude
arrasto gabe aulduak.

Zartuta gero eraman biar
era ontako traguak!
Geu eskasak izan bagera
semiak eskasaguak.

Mug:

Zure erruak dirade, aita,
ta batere etzaitez mindu,
nere denboran lana egiten
zintzo bainaiz alegindu.
Esker gaiztoa alanda ere,
orain kanpora agindu!
Ama maitea, erruki zaitut!
Baiña zer egin bear du?

Ltx:

O, nere seme biotzekoa,
min det ori entzutian!
Zu izan zera orain artean
baserrirako ustian.
Biotza bein ta berriz mintzen zait
gauza oek ikustian.
Baiña laguntza egingo dizut
bizi naizen bitartian.

Azp:

Ikusten degu irukote au
kalerako egarrian.
Ajola al da ni apurtxo bat
ibiltzea erromerian?
Pena ematen dit pentsaturikan
nola bizi bear dian.
Dijoaztela berauek, baiña
gelditzen naiz baserrian.

Beasainen, 1965eko urtarrilak 24

Goierri aldeko bertsozaleentzat jaialdi ederra antolatu zuten Usurbe antzokian. Hantxe ziren Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki eta Lasarte. Gaiak, berriz, Jesus Lete *Ibai-ertz* itsasondoarrak prestatu zituen, eta Atxukarrok eman bertsolarietara. Jaialdian zehar Basarrik kantatu zituen bertsoak jaso ditugu hemen. Hasteko, Orexako seme bikaina gai zuela kantatu zituenak.

Orexako semea
argi ta bikaiña,
gure izkuntzaren alde
ainbat lan egiña.
Zuk edertu zenduen
euskaldun jardiña.
Beti zure oroitza
bear litzake, baiña
etziñan ezagutu
zeuk merezi aiña.

Beti euskal lanian
gau eta egunak.
Talentu eman zizun
zerutako Jaunak.
Zure bertso ta itzak
goxo ta legunak.
Poema bat idatzi
zendun: *Euskaldunak*.
Ona zer dan eztaki
ua letu eztunak.

Liburu ta paperetan
ainbeste lan klase.
Euskeran alde beti,
ezin ziñan ase.
Urte batzuk baziñun
baiña zeunden gose.
Jaunak deitu ta juana
zu berealaxe.
Goitikan bedeinkatu
gaitzazu, Orixe.

Laurok ofiziotan jarri zituen gero: Basarri, Uztapide eta Lasarte fabrika bateko nagusiak dira. Lazkao Txiki, fabrika horretako eskribientea. Diruz oso larri dabilta azkenaldi honetan; baina nor ote da errudun?

Bas: Pentsatzen jarrita're
martxa arraiua!
Amaika sufritzeko
mundura jaiua.
Norbaitek egiten digu
guri aziua.
Oso gaizki dijua
or negoziua.

Uzt: Autsi bearra dago
nolabait frentiak.
Lautan eztakit zein geran
emen tunantiak.
Lenago pasa ditugu
egun dezentiak.
Izurratzen ote gaitu
eskribientiak?

Las: Nagusiak baditugu
naiko zer esanak,
orain arte nola geran
zuzenak izanak.
Gero ingurukoak
egindako lanak,
eskribiente onek
jaten ditu danak.

Ltx: Nik dirurik fabrikatik
bein'e ez det eraman;
eta eztan gauzarikan
etzazute esan.
Iru nausiak dabilta
elkarrekin teman.
Ezer eztagon fabrikan
ezin liteke jan.

Bas: Eskribienteak orain
esan du: ordago!
Bidea jarri diogu
berari lenago.

Jan badu eta ezpadu
au txikia dago.
Irukun bat baziok
oi baiño okerrago!

Uzt: Gure fabrikan gogor
egiten da lana;
len galdu det eskribiente
txiki orren fama.
Baiña Basarri au ere
ezta ona izana:
Gizen dago oso ta
asko samar jana.

Las: Nagusitan Uztapide
daukagu zarrena.
Au ere esan bear det
al dan azkarrena:
bildu geran laurotan
zein dan alperrena,
ezin leike erabaki,
au da okerrrena.

Ltx: Aitzaki danak neriak
dirade orduan,
naiz ta fabrikan ibili
onenan moduan.
Familia ortxe daukat
ezin mantenduan.
Beiratuta ezagun da
zeiñek jaten duan.

Bas: Nabarmentzen dira emen
zuri eta beltzak!
Zar onek ezautzen ditu
fabrikaren ertzak.
Bera errespetatutzeko
eman giñun itzak.
Uztapidek daduzka
kajoi danen giltzak!

Uzt: Neretzat ai dira auek
estu eta presa.
Azkenerako datorkit
kontu aldrebesa.
Gure lanteiko txarrena:
lanik egin eza.
Gu izurratzen etziok,
mutillak, erreza!

Las: Soziedadiak badakar
amaika naigabe.
Era ontan ibiltzeko
kasik ezta obe.
Auek irurak badira
diruaren jabe;
sosikan gabe ni nago,
dudarikan gabe.

Ltx: Itz egiten dizutet,
nagusiak, bare:
ni nago gauza ortan
kulparikan gabe.
Irurok or zabiltzate
joko ta kabare.
Ola gastatu liteke
asko izanda're.

Bas: Ondatu gerala nago
tankera ematen.
Egiten eztan tokian
lanikan ez jaten.
Eskribientia artu
gendun egun baten.
Eztauka lan aundirik
kontu eramaten.

Utz: Danak emen gabiltza
elkarri ujuka;
eta disputarikan
ez liteke buka.
Etxe utsian beti
txakurrak burruka.
Emen txarrenak eiten du
bestiaren kulpa.

Las: Al duena egiten du
pikaro bakoitzak;
emen alperrik dira
esandako itzak.
Joxe Migel, ik dauzkat
kajoiaren giltzak.
Al deken azkarrena
entregatu itzak.

Ltx: Eskribienteai zertan
kulpa denak bota
ni ortan erru gabe,
Lasarte, nago-ta?
Fabrika aspalditxo
dau kiebra jota.
Entregatuko dizut
ezer eztago-ta.

Zortziko txikian egindago saioaren ostean, laurok puntutan egin zuten.

Las: Beraz, berriz asi bear degu puntuetan?

Ltx: Len ezpazerate aspertu gure kontuetan.

Bas: Festa jarri bear degu gaur barru onetan.

Uzt: Epel egiten du ta luza daigun bertan.

Ltx: Emen ezta sentitzen kanpoan dan otzik.

Bas: Orregatikan gaude guztiok ain pozik.

Uzt: Alegin egin ezkeru ezta ezeren lotsik.

Las: Onuntz ezta etortzen aizearen otsik.

Bas: Larri ibili gaitu gure itsasuak

Uzt: Donosti alde oiek eztaude gozuak.

Las: Ia eraman zitun or mendi osuak.

Ltx: Triste egongo dira ango gurasuak.

Uzt: Nork erremeditu orain or diran kaltiak?

Las: Zerbait egin lezake gure alkatiak.

Ltx: Eleike egin kontzejalak, eztare alkatiak.

Bas: Gelditu bear degu zorretan betiak!

Las: Zorrak ordaintzeko beti eldu da denbora.

Ltx: Udara eldu bitarte tokia egongo da.

Bas: Ministruak egingo omen dula obra.

Uzt: Berriz ere Donosti igoko da gora.

Ltx: Petrillak autsi eta kale danak busti.

Bas: Itxura ederrekua etzegon Donosti.

Uzt: Lore tartian bizi nai genduke beti.

Las: Oraindik konpontzeko denborak datozi.

Bas: Atxukarro, noiz dauka klase onek muda?

Uzt: Ez ote dan bukatuko egiten det duda.

Las: Ez estutu, ortarako garaia eldu da.

Ltx: Lazkaoko txikia ointxe aspertu da.

Lau oinak emanda ere probatu zituen Atxukarro jaunak. Basariri honako hauexek eman zizkion: Auzoan, pausoan, gozoan, ero-soan.

Bas: Basarri mintzatuko da
euskera gozoan:
Beasain eztu billatu
lelengo pausoan.
Lagun jatorrak ere
baditut auzoan.
Atxukarro ari da
modu erosoan.

Konduta, kenduta, galduta, ezkonduta.

Bas: Batzutan irabazian,
bestetan galduta,
nik zer egingo nuke
oni ezer kenduta?
Ezagututzen dezute
dadukan konduta.
Obeto emango luke
laster ezkonduta.

Jarri, larri, ekarri, Basarri.

Bas: Goizian etorrita
otzikaran jarri;
pasako ez ote zan
egondu naiz larri.
Nai baldin banazute
Beasaina ekarri,
zuen morroi jatorra
emen da Basarri.

Basarri eta Uztapideri gai hauxe jarri zien gero: Mutila eta neska zerate zuek. Gerra dela-ta, hogeitaz aparte bizi izan ondoren, berriz elkartu zerate. Zer asmorekin, ordea?

Bas:
Ordua ere iritxi da ta
zerbaitxo esan bearko.
Egun onetan buka leikenik
eztet utziko biarko.
Neskatxa maite, gertatu zaigu
guri amaika olako.
Ogei urtian apartatuta
gerra txarren bat dalako.

Uzt:
Gerra aurretik giñaden biok
tratamentuan asita;
ogei urteren buruan berriz
egin didazu bisita.
Asko pozten naiz, mutil maitia,
zu gaur emen ikusita;
baiña obeko degu onez aurre
tratu oriek utzita.

Bas:
Izar polita, gaur ogei urte
aldendu ziñan nigandik.
Zure argirik ez ikustiak
amaika pena eman dit.
Saiatu arren zu aiñakorik
ez nun aurkitzen iñundik.
Ai, zeu oztua ezpazerade
nik maite zaitut oraindik!

Basarri eta Lasarte parekatu zituen ondoren, eta gaia hauxe eman: Lasarte herriko alkatea da; Basarri, sekretarioa.

Las:
Aizu Basarri, garai batean
guk alkar maite genduan;
orduko itzak dauzkat oraindik
burutik ezin kenduan.

Uzt:
Nere nobio maitagarria,
itz egin didazu bapo;
lenago ere esana ziñan
neri amaika olako.
Enaiz ni oztu, nere laguna,
zu txarra zeradelako,
baizikan bizimodu berria
asteko aztu gealako.

Bas:
Maitasun edo amodiua
egiten ezpadu bera,
alkarren urruti ibilita
biontzat dago galera.
Bizimodua're garestitzen
egunetik egunera.
Alaxen ere ez ikaratu,
bapo moldatuko gera.

Uzt:
Egia da, bai, zartu ezker
tristura dala bakarrik;
eta arrazoi ote dadukan
iduritzen zait Basarrik.
Bizimodua garestituta
eztaukat estuasun txarrik.
Onez aurrera eztegu izango
semeak azi bearrik.

Erriko lanak egiteko zuk
ordena artu zenduan.
Zuzen ibilli bearko dezu
alkatiaren onduan.

Bas:
Ara nolatan agertu zaigun
gure munduko bizitza.
Gizon bakoitzak artu bear du
gaur eginkizun bakoitza.
Errespetu osoz, alkate jauna,
egin nai nizuke itza:
ni zuzen ibilita zer dago
zeorri oker bazabiltza?

Las:
Alkate jaunak eztu biderik
zuri ogia kentzeko,
nola bai dezun premi gogorra
familia mantentzeko.
Lenago ere ikusi da, bai,
amaika gure antzeko.
Pareja ederra jarri gaituzte
erria gobernatzeko!

Bas:
O, alkate jaun maitagarria,
bear didazu aditu:
sekretario onek umilki
guztiak esango ditu.

Gero, Basarri eta Lazkao Txikiren txanda etorri zen berriz ere,
eta gai hauxe eman zien: Basarri morroia da; eta Iztueta, baserriko
alargun diruduna.

Bas: Etxekoandrea daukat
nik oso aparta,
suertez biok ederki
moldatzen gera-ta.
Gauza batek eiten dio
morroiari falta:
jasoko al didazu
pixka bat soldata?

Dezun karguan ezin zindezke
oita lau orduz gelditu,
zure pekatu guztiak ondo
deklaratuko banitu.

Las:
Kastilerritik onuntz etorri
ziñan zu larrugorrian,
ta alkatiak zu jarri zaitu
gizon jatorren neurrian.
Beste ordenak izango dira
datorren udaberrian.
Txintxo ezpazabiltz galdua zera;
nik agintzen det errian.

Bas:
Baiña gobernadore jauna're
oso altu dago aulkitan,
zure konduta nolakua dan
jakiteko inbiditan.
Bertso orretan nabarmendu da
au ezjala ari egitan.
Onelakorik ezta azitzen
Kastillako lur gorritan.

Ltx: Len zorionez nintzan
andre senarduna,
ta zoritxar gaitz batek
kendu dit laguna.
Morroia, au alibiu
ematen nazuna!
Zuk konponduko dezu
andre alarguna.

Bas: Jainkuak erabaki zun
laguna kentzia,
eta andre maitagarria
bakar gelditzia.
Nik pentsatu dedana
soldata eskatzia;
lotsatu egiten naiz
zu pretenditzia.

Ltx: Alargunai galdetzea
ezta morroi falta.
Nik garbi esango diot
bildurtutzen da-ta.
Eskeiñiko dizut, bai, nik
dirutza galanta,
etxean gelditzen baita
emandako soldata.

Bas: Beraz, mandatu egiten
bearko det asi.
Burua makurtzen dizut
ondo lendabizi.
Ezkondu nai dan ala ez
zerorrek ikusi.
Morroi baiño naiago det
neuk ere nagusi.

Ltx: Esan dezu entendi-
tutzekoan aiña,
zertarako dagoen,
morroi, zure griña.
Gero bazera leno
zeran bezin fiña,
juntatu bear degu
pareja bikaiña.

Oiartzunen, 1965eko maiatzak 15

San Isidro eguna baserritarren eguna zela-ta, Basarri eta Uztapidek Oiartzungo plazan kantatu zuten 1965eko maiatzaren 15ean. Saioa gai librean egin zuten, Basarri hasita.

Bas:

Bein bear eta kanta bearrak
gaude, Manuel, alkarri.
Zarautz aldetik umore txarrik
eztet onuntza ekarri.
Urrutietan zaudeten danok
nai badezute etorri,
pixka-pixka bat astera'ijuaz
Uztapide ta Basarri.

Uzt:

Beti bezela esaten ditu
Basarri onek egiak.
Guk ere zerbait erantzun ber da
auek dira komeriak!
Bere lanakin saiatu naia
badute bertsolariak,
ia pixka bat pozten ditugun
emengo nekazariak.

Bas:

Nik esker ona agertu bear
zuen txoko polit oni,
biotz gogorra izaterikan
ezpaita emen komeni.
Oraintxe dala urte batzuek
emen bizita nago ni.
Biotz erditik agur goxo bat
eskeintze'iot Oiartzuni.

Uzt:

Basarri oni etzaio falta
bere maitasun sendorik.
Eluke onek ukatu nai, ba,
jaunak, gure leengorik.
Badakizute ez dadukala
esker txarreko gogorik.
Denbora aietan etzun onek'e
olako lepo-onдорik.

Bas:

Gure Uztapidek atera dio
arrazoiari giarra.
Ogei ta sei bat urte nituen,
ez nintzan, ez, ain zarra.
Gorputza oso argaldu eta
falta zitzaidan indarra.
Pixka-pixka bat osatutzeko
banun erri onen bearra.

Uzt:

Urte gaiztuak zirala aiek
ezta aitortzeko lotsa.
Guk ere ontzat artutzen degu
onk atera dun otsa.
Alimentua etzan geiegi
eta triste zan biotza.
Justu samar jasotzen zituen
ordun pala ta pikotxa.

Bas:
Alde batera utzi dezagun
lengo gai negargarria.
Gaurko eguna ezta ortako,
ni bestera etorria.
Premi aunditan arkitzen da gaur
euskaldun nekazaria.
Erruki pixkat izan oraintxe,
Isidro maitagarria.

Uzt:
Isidro maite, nekazariak
nola gabiltzan ikusi:
nekia asko dago guregan,
badeu naikoa desgrazi.
Eskerrak aurrerapen batzuek
orain zaizkigula asi.
Makina berriak ere badia
nai dituenak erosi.

Bas:
Makina edo zerbait bear da
gure lurrian ugaldtu,
basarri danak ustuta dana
zearo ez dedin galdu.
Martxa onetan laster bai gera
ez labore, ez ganadu.
Eta ondoren nola jango da
lurrak ematen ezpadu?

Uzt:
Berriro ere botako dizut
nere biziko sakia:
baserrian bada irabazia
bai eta ere pakia.
Zerbait etortzen zaigun garaian
ezta sentitzen nekia.
Txekorren prezioa ere oraintxe
eztago oso merkia!

Bas:
Zuk eman dezun arrazoiari
nai diot pixkat eltzia;
baserriarrentzat atsegin da
zekor gizenak kentzia.
Langillari ere komeni
alimentua artzia.
Kalterako ez ote da izango
garestiegi saltzia?

Uzt:
Garestiegi ezta izango;
Basarri, egon zu lasa.
Eun pezetara igo zan eta
ura etzan ez jolasa.
Baiña orain'e arakiñaren
burua etzegon eskasa.
Orain larogeita amar inguru ortan
jarri omen diote tasa.

Bas:
Desgraziren bat baldin izaten
ezpada gure lurrian,
konparazio garbia daukat
zuen begien aurrian.
Saiatu leike lana egiten
gaur norbere baserrian.
Bizi eziñik eztauka iñork
larogeita amarrian.

Uzt:
Berriro ere bearco degu
guk lanera abiatu.
Nere alboko lagun zar onek
alaxe gaitu giatu.
Larogeita amarretik'e bera
jeisteko ezin piatu.
Guk egin bear deguna, beintzat,
al dana egiten saiatu.

Bas:

Aragi kontu oiek alde bat
ez ote dira utziko?
Egi eder au goguan artu,
biar ezpada etziko.
Industria're gauz ederra da,
ni kontra ez naiz asiko;
baiña sinistu nekazaritza
dala emen lendabiziko.

Uzt:

Nik banekien zuk etzendula
gaur gezurrikan esango.
Nola ezta, ba, nekazaritza
lenbizikoa izango?
Obeko degu lenbizi ori
ta industria urrengo.
Pentsa dezagun burnirik emen
iñork eztuela jango.

Bas:

Burnirik ezin jan litekela,
orixe bazan bertsua!
Egia dala danok daukagu
txit sinismen indartsua.
Alde batetik lurra degu ta
bestetikan itsasua.
Oien bitartez len eta orain
bizi da mundu osua.

Uzt:

Beti bezela gaur ere zera
zu arrazoiaren jabe.
Gauzak itxuran konprenditzeko
badeu naikoa edade.
Lenago ere bagenekien,
berriz entzunak gerade:
mundu guztia mantentze'utenak
ura ta lurra dirade.

Bas:

Ori guztia ausnartutzeko
sartu giñan edadian.
Jainkoagatik etzaitezela
erori debildadian!
Bertso onenak guk oraindikan
dauzkagu oso gordian.
Goiz parterako naikoa da ta
etorri arratsaldian.

Uzt:

Gaizki gabilta gu alturan ta
zuek plazan, or bajuan.
Nik'e bukaera emango diot
onen urrengo ujuan.
Zuk bukatu ez baldin bazendu
ni orretara nijuan.
Bertso geiago nai dituen
gero Estankura juan.

Elgoibarren, 1965eko maiatzak 29

Bertsozale asko zen, eta da, Elgoibar aldean; eta 1965eko maiatzean bertso-jaialdia antolatu zuten, berriz ere: Txomin Garmendia, Basarri, Lazkao Txiki eta Lazkano eraman zituzten urte hartan. Eta gaiak jartzen, berriz, herrian bizi zen Artañola errezildarra.

Hona hemen Basarriren zenbait bertso egun hartako saiotik, lehen agurrarekin hasita:

Biotza alai izan ezker
zertan denbora illunak?
Zerutan dago gorabera auek
erabakitzen ditunak.
Zar eta gazte, ala erdiko,
guztiok emen lagunak.
Illundu ere ez luke egin ber
gaur bezelako egunak.

Puntua jarrita:

Art. Basarritarrak pozik
feri egunean.

Bas: Kolperik egin bearrik
eztute lanean,
bertso batzuk entzunaz
umore onean.
Obiak dira orre-
la dabiltzanean.

Launa bertsoarako ofizioa: Basarri beterinaioa da; Lazkao Txiki, baserritarra; Garmendia, tratantea; eta Lazkano, harakina.

Gar:

Laurok dauzkagu ofizioak
ta laurok ainbeste grazi;
iñor ez gera berdiñak eta
bakoitzak bere iritzi.
Nere gogoan danan aurrean
azaldu nai lendabizi:
Bei eder bat saltzeko daukat
iñork nai badu erosi.

Ltx:

Ai, tratantea, gauz ori ezta
gaur nere eginkizuna.
Esan didazu or bei polit bat
zuk saltzeko daukazuna.
Eman diozu aspaldi ontan
illeko leguntasuna!
Neri saltzera etzaiz etorri
nik leno saldu nizuna.

Bas:

Launa bertsokin bear degula
emen pixka bat jostatu.
Entzun ditudan itz oiek neri
etzaizkit asko gustatu.
Lazkao Txiki beia erostera
itsuan ezta prestatu.
Obe zenduke lendabiziko
neri iritzia eskatu.

Laz:

Lazkao Txiki beiak azitzen
or ari da jo ta kia,
ta Garmendiak aprobetxatu
baserritarren nekia.
Orain Lazkanoi jarri zaiozu
bei ona eta merkia;
biar buruan joko det eta
nik egingo det pakia.

Gar:

Bei ori aragita saltzeko,
Lazkao, eztaukat usterik;
ogeita zortzi litro esne ditu
ta oraindikan gazterik.
Lazkao Txiki, etzazu jarri
nere aurrean txisterik!
Betenaiuak eztute egingo
dirua kendu besterik.

Ltx:

Tratantea ta arakin jauna
dauzkat tranpian asiak,
nola dituzten or martingalak
gaztetatik ikasiak.
Betenaiuak arakiñari
traste oietxek utziak.
Baserritarren bizkarretikan
mantentzen dira guziak.

Bas:

Betenaiuak artu izan du
amaika olako kolpe-ta,
beste bat ere gaur bazeukaten
auek neretzat gordeta.
Gaur eguneko tratalariak
ainbeste tranpa dute-ta,
sano-itxuran emango dizut
dana lanparoiz beteta.

Laz:

Baserritar au enuen uste
gaur nere kontra asterik.
Oraindaiñoan ez diot egin
laguntasuna besterik.
Ekartze ezpadu au bera baiño
mardulago eztagon beirik,
karnizeruak ezti izango
ze aprobetxatu aundirik.

Gar:

Bein bear eta betenaiuak
berea dauka esanda.
Oiek dirala sortu izan da
makiñatxo bat demanda.
Arakiñari saldu bearra
gaixo dagola esanda,
eta gaitzaren arrastorik ez
mataderira juanda.

Ltx:

Esan bear gabe badakizute
tratantiak duen griña.
Irabazirik nai baldin badu
zailla izatia fiña.
Aragi txarrak artuta ontzat
saltzen dabil arakiña.
Ez, albaitero jauna, gizonen
itxuran porta baziña.

Bas:

Tratante eta baserritarra
arakiñakin nastuak.
Betenaiuak ondo dakizki
kristau auen arrastuak.
Urrutiratxo ikusten ditut
nik subiaren miztuak.
Iru auetan onikan ezta,
danak baitira gaiztuak.

Laz:

Erantzuera ara, Basarri,
ta egon zaitea trankil.
Nere iritziz okerkerizko
bide oietan ez nabil.
Gaitza dadukan edo ez beiak
ikusteko zaude urbil;
ta nik daukadan mixiua da:
arrapautako dana il.

Gar:

Lanik ein gabe ondotoxo bizi
oi da modan dagoena;
arakiña ta tratantearen
ondo au da aitormena.
Baiña basarritar gixajuak
neri ematen dit pena.
Baiña orain'e betenaiuak
lepo-ondorik onena.

Ltx:

Beiratuan'e ezagutzen da
zeintsu dan gizon pillua.
Arakin eta betenario,
beti dabil istillua.
Zertarako da garbi ta txukun
ipintzia ikuillua,
gero orrek entregatze'ezkero
mataderiko seillua?

Bas:

Oso grazira etzait etorri
Garmendiaren jokua.
Nere ustetan bertso erdi batez
esanda dago naikua.
Betenario gaur gertatzen naiz,
baiña naiz txiripakua.
Karrera auxe ikasterako
nuen oraingo lepua.

Laz:

Tratante eta baserritarrak
tranpa asko'ute erabili.
Betenaiuak ere okerrak
egiñak dizkigu milli.
Gizon itxuran dabilta baiña
ai, zer iru animali.
Laban zorrotza dadukat eta
irurok kontuz ibili!

Trikitilariak, dantzariak eta antzezleriak ere baziren Elgoibarko jaialdi hartan, tarteka. Baina berriz ere bertsolarien txanda etorri, eta Basarri eta Lazkao Txikik saio hauxe egin zuten:

Art. Dantzari oietako bat
gustatu omen zako.

Bas: Basarrik ondo daki,
eztu beretzako.
Artañolak ematen du
bide txarra franko;
puntu ori nola jarri
ezkonduantzako?

Launa bertso kantatzeko gaia: Basarri senarra da. Lazkao Txiki, emaztea. Lehenago berak saldutako astoa erosi du Basarrik, Zumarragako ferian.

Bas: Albiste ematen dizut
etxeke atetikan;
ondo entzun biezu
nere partetikan.
Emaztetxo, eztegu
ezeren faltikan.
Ai, au astua dakarkit
Zumarragatikan!

Bas: Erosterako ondo
miatzen detela,
traturikan enuke
egingo bestela.
Zumarragan konpondu naiz
gizonak bezela.
Edo uste al dezu
tontua naizela?

Ltx: Berria ekartzia
ez genduen kalte,
baiña zer egin dezun
konturatu zaite.
Utsune bat orrekin
dezulako bete,
ez dizut abonatu
ondo ikusi arte.

Ltx: Tratuan ibilli zera
estu eta larri,
baiña gertatu zera
oso parregarri.
Garbi esango dizut
gaur, senar Basarri:
zerbait ein dezulakuan
lengua ekarri.

Bas: Nere emaztiak beti
badu benenua,
eta merezi duena
esatera nua.
Naiz izan udara ta
naiz izan negua,
astua berria da,
zu zera lengua.

Ltx: Gaztetan etziñaden
tratueta oitu;
orregaitik etzenion
astuari beitu.
Negoziorik ez egin
ta txanponak aitu.
Orainguan motxailleak
engaiñatu zaitu.

Ltx: Senar biotzekua,
artutzen det pena,
gogoz egin badezu
egin dezun dena.
Berriz ekarri dezu
saldu genduenena.
Orain eztakit zein dan
asto aundiena.

Bas: Au entzun bearrak ere
ematen du pena.
Onek eztu balio
gizonan laurdena.
Irakiten jartzen dit
agudo barrena.
Nik emaztia daukat
astorik txarrena.

Bas: Emaztiak eman dizkit
gaur egundokuak;
beraz, tratu guztiak
ziran tranpakuak.
Ikuilluko berri daki
len egondakuak.
Zerua seguru dauka
biotz onekuak.

Ltx: Emaztia txarra danik
etzazula uste;
tratuan eingo luke
senarrak ainbeste.
Lengo astua bera
erosi du laiste.
Gizon galanta baiña
engaiñatu dute.

Urtezaharretako jaialdia amaitu, puntutan honela amaitu zuten
bertsolariek.

Gar: Oso gustora gaude
gu onuntz etorrita.

Laz: Berriz nun ikusiko
ain jaialdi polita?

Bas: Lazkao Txiki serio
albian jarrita.

Ltx: Ni ere alaitzen naiz
zuek ikusita.

Laz: Gizon txikia da baiña
memoriz aundia.

Bas: Onek egin lezake
aisa pikardia!

Ltx: Iñoiz larrituzten det
alboko jendia.

Gar: Lazkao Txikin bildurrez
dago Garmendia.

Bas: Iru mutil zar eta
neu naiz ezkondua.
Ltx: Garai artan etzegon
oraingo mundua.
Gar: Basarrik pena bat du:
soltero ez egondua.
Laz: Baiña gizarajuak
damu berandua!

Bas: Broman esandakorik
ez artu benetan.
Ltx: Gu orla aritzen gera
erri geienetan.
Gar: Gauza oberik eztago
kantuzko lanetan.
Laz: Iñor ez gera arkitzen
barruko penetan.

Ltx: Amaitzera goaz, jaunak;
luzatu ezin zan.
Gar: Emen portatu gera
bertsolari gisan.
Laz: Alegiña egin degu
bakoitzan langintzan.
Bas: Agur, anai-arrebok;
denok ondo izan.

Asteasun, 1965eko uztaila

Pello Errotaren omenez kultur astea antolatu zuten Asteasun uda hartan. Eta, besteak beste, hilaren 11n, bertsolarien eguna izan zen. Hantxe ziren Bautista Kortajarena, Mitxelena, Lasarte, Agirre, Zepai, Lazkano, Garmendia, Etxeberria, Uztapide, Arozamena, Joxe Lizaso, Basarri eta abar. Tartean, Lourdes Iriondok bertso batzuk kantatu zituen, bere gitarra lagun zuela, Pello Errotaren goralmenez.

Basarrik botatako zenbait bertso jaso dugu, goizean plazan egindako saiotik.

Gaur ezta iñor, ez, ezkutatu;
gaur iñortxo ezta gorde.
Asteasuko plaza zabala
orra euskaldunen mende.
Zure izenian bilduta dago
emen orrenbeste jende!
Gaur txoratuko ziñake, Pello,
gure tartean bazeunde.

Azkenengua kantatuko det
urregorritzko jantzian.
O, Euskalerra maitagarria,
etzaitzez egon etsian.
Pello maitia, zure ondorenak
daude arreta bizian.
Atsedean on bat ar zazu orain
betikotasun guzian.

Lagunarteko bazkaria egin zen eguerdian, eta 400 bat bazkaldar bildu ginen gutxienez ere. Omenaldi hark merezi zuen, eta aparteko bertso-giroa izan zen han.

Lourdesen saio hunkigarriaren ondoren, berriz ere bertsolariek kantatu zuten, txandan. Basarriren bertsoa:

Alde batera utzi ditzagun
naigabiak eta penak;
zeru erdian bezela gaude
gaur emen gerta geranak.
Iraola ta Agote dira
gu serbitu gaituztenak.
Ai, zer txalo bero ta sutsuak
irabazi ditzuztenak!

Bertsolari askotxo zen mahaian bertsotarako txandaren zai. Baina horrelakoetan beti izaten den arriskua zegoen: jende asper-tuaraztekoa, alegia. Halaxe, entzule jendea zer bait aspertzen hasi zela ikusita, Basarrik aspaldi idatzi zituen *Nork egin du gure galde?* bertsoak entonatu eta kantatu zituzten, bere bertso-lagun Uztapide eta bazkaldar denak lagun zituela. Eta azkenik, bazkaritakoak amai-tu eta herriko plazan egin zuten saioa heldu zen. Denei agur eginez Basarrik botatako bertsoa jaso dugu hemen:

Asteasuko egun ederrak
koloria urregorri;
pentsatuta're oberik beintzat
iñork ez lezake jarri;
era ontako alkartasunak
bear genituzte guk sarri.
Asteasuar biotzekuak,
segi bide eder orri!
Morroi jator bat bear ezkero
ementxe dago Basarri!

Zegaman, 1965eko abuztuak 25

Ahogoza onez jendeak urteetan ere gogoan izaten dituen jaialdi horietakoa egin zen Zegaman, 1965eko San Bartolometan. Batez ere lau bertsolarik gai bati buruz egin zuten saioarekin asko gozatu zuten han bildu ziren bertsozaleek.

Inazio Mari Atxukarro zen gai-jartzaile egun hartan; eta honela jarri zituen lanean lau bertsolariak: Orain laurak jarri behar ditugu lanean, gai honexekin: Basarri, Aita Eternoa, goiko Aita Jauna izango da; Manuel Lasarte, deabrua, inpernuko txikitoa; Uztapide, berriz, Adan; eta Lazkao Txiki, Eba, Adanen saihets pertxenta. Aita Eternoa hasita, hiruna bertso, txandan.

Bas: Aundi bat kantatzeko eman dit gogoak.

Adan ta Eba emen daude,
ai, zer-nolakoak!

Deabruak'e badira
biurritakoak.

Pazientzia artu bear
Aita Eternoak.

Las: Aita Eternuak gauzak

dizkigu esanak;
len ere bazituan
ordenak emanak,
diximuluan emen
faltatu dutenak.

Diabruak ez ditu,
ez, pekatu denak.

Uzt: Gu ere, andre maitea,
emen bildu gera;
pekatu egiteko
izan degu era.

Fruta bat bialia
etsaiak onera.

Nik probatu det eta
jan ezazu, Eba.

Ltx. Aita Eternua ere
emen da onduan,
ta gabiltza onekin
ezin konponduan.

Zeruan bezelaxe
guk bear genduan
danetatikan jaten
utzi bazenduan.

Bas: Emakumea beti
deabruen pare:
Arbola bat galerazi,
ezin eon jan gabe.
Eba au exkaxa degu
alde guzita're;
aundia etzan aziko
libre utzita're.

- Las: Adiskidia, gauzak
garbi itzegiñik,
Aita Eternuak eztu
artzen atsegiñik.
Adanek eta Ebak alkarri
laguntza egiñik,
arbolan zegon fruta
jan dute gordiñik.
- Uzt: Aita Eternuak itz egin
digu len serio;
eta diabruarenak
ez al du balio?
Onek fruta ortatik
jan ber dala dio.
Asko ikasiko degula
izan zaitez pio.
- Ltx: Gu, Adan eta biok,
gerade unitu.
Sagar bat probatu gabe
nolatan gelditu?
Eztakit sugea ere
nundik dan zutitu.
Gu pakean geunden baiña
erruak or ditu.
- Bas: Agindurik ezin bete,
orixe da marka!
Pekatu bidera beti
tirriki-tarraka.
Geroztikan gizonak
gauz onik eztaka:
lanean aritu bear
beti arrastaka.
- Las: Ebari griña jaio
zitzaion burura;
Adan ere pozik bildu
orren ingurura.
- Ezbaldin badute uzten
orduko oitura,
diabruak eramango
ditu infernura.
- Uzt: Aita Eternua ondo
lanian ari zan,
baiña deabruakin
alper-alperrik zan.
Beti zulatzen giñuzen
sugiaren gisan;
guk berriz gorputzian
aragia izan.
- Ltx: Kalte asko egin digu
sagar ori janak,
sinisturik diabrutxo
zar orren esanak.
Egiñerazi digu
kalte oiek danak,
gure zoriontasuna
ezin eramanak.
- Bas: Nik jarri nizuten beintzat
paradisu apaiña.
Pekatzuz eman zenduten
golpetik ordaiña.
Gorputzera beiratuta
ezer ezta baiña
txatxu au ere izan zan
ortarako aiña.
- Las: Eba eta Adan biak
or zebiltzen larri.
Diabrua tentatzeko
egoten da sarri.
Aita Eterno koskorra
zera zu, Basarri;
garaian etzenduen
justizirik jarri.

Uzt: Eba, damututzia
obia litzake,
deabru zarrak artu
baiño len giltzape.
Ezta ezer jartzia
gerontzat neke,
gugatik sufritu bear
beste guziak'e.



Tolosako txapelketan, 1945.

1966: Usurbilgo kultur astea

1966ko maiatzaren 16tik 22ra kultur astea egin zen Usurbilen, Juan Jose Alkain *Udarregi* bertsolariaren omenez, hil zela hirurogeita hamaika urte betetzen zirela-eta. Maiatzaren 19an, Euskal kantu berri lehiaketa antolatu zuten, eta lehenengoetakoa izango zen, seguru-erik. Nemesio Etxaniz, Aingeru Irigarai eta Karlos Santamaria izan ziren epaimahaiko, eta aurkezpena Joxemari Iriondok egin nuen.

Sariak: Julen Lekuonari eman zioten abestigile onenaren saria; eta Lourdes Iriondori interprete onenarena. Garai hartako kantari mordoska polita bildu zen han: Jose Antonio Villar, Felix Sarasola, Donostiako Biurriak taldea, Paxo Olazabal, Juantxo Mingo eta Benito Lertxundi hantxe ziren.

Maiatzaren 22an, igandea, ekitaldi bereziak egin ziren herrian, orduko programak dioenez: 11:30etan parrokan eman zen meza nagusiko sermoia Fabian Loidi zenak egin zuen, bertsolariak Euskalerriaren fede santuaren sermoilariak zirela esanez. Eztabaidak ere izan ziren hori zela-eta.

Meza nagusiaren ondoren, Remigio Mendiburuk *Udarregiri* egindako irudia inauguratu zen, Usurbilgo txistulariek *Agur jaunak* jotzen zutela. Eta gero, bertsolariak. Aurkezpena Basarrik egin zuen, honelaxe:

Gaur, aspalditik esaten ari giñan bezela, *Udarregi* zanaren omena degu Usurbillen.

Udarregi zana, beste aurreko bertsolari zaar asko bezela, bide-urratzaille bat izan zan. Arbola zaarrik gabe eztago mendu berririk; eta gaur aren itzalean eta aren babesean ona emen azken urtetako gure mendu berriak. Gaur eguneko Euskalerriko bertsolariak maixu zaarri bere agurra egin nai diote.

Asko bildu dira emen; eta danak eztaukate asko kantatzerik, biña bertso izanda ere, bear bada, luze joango litzake. Baiña artuko diogu neurria.

Anai bertsolariok, bakoitzak bana edo biña bertso molda dezaizkiogun une onetan, ain euskaldun eta kristau zintzoa izan zalarik zeru goietatik guri begira eta guri entzuten egongo da-eta Juan Joxe Alkain *Udarregi* aundia. Uztapide, asi zaite zeu, zure burura eta pentsamentera datozkizunak esanaz.

Uztapide, Joxe Agirre *Oranda*, Joxe Lizaso, Mattin, Xalbador, Mitxelena, Manuel Lasarte, Txomin Garmendia, Lazkao Txiki, (Arozamenak etortzerik ez eta bere agurra bidali zuen), Jon Mugarregi, Patxi Etxeberria, Xalbador, Azpillaga, Lazkano, Bautista Kortajarena, Bittor Agirre eta abar, banaka-banaka urreratu ziren mikrora, aurkezleak agindu ahala. Eta azkenean Basarri berak kantatu zion Udarregiri:

Bide eder bat artu zenduan
eta bide orri segi;
emengo eginkizun guztiak
zuk bete ziñuzen ongi.
Jarri zenduan bide eder ori
ez ote zan ederregi?
Zure ondorenak emen daukazu
gaur, Juan Joxe Udarregi.

Lagunarteko bazkaritan ere bertso eder asko entzun genuen. Baina Basarriren bertso bat jasoko dugu hemen soilik:

Basarri zarrak aterako du
lendabiziko izketa.
Zuen artera inguratzeko
aspaldi artu nun kasketa,
orain ixilik egote ori
itxurazkoa ezta-ta.
Olakorikan ez al da egingo
kosta gerana kostata.

Oiartzunen, 1967ko apirilak 23

1967ko apirilaren 23an, don Manuel Lekuonaren omenezko bertso-jaialdia antolatu zuten Oiartzunen, meza eman zueneko berrogei-ta hamar urteurrena zela-eta. Egun hartako meza nagusia don Manuel-en hiru ilobek eman zuten: Juan Mari, Andoni eta Julen Lekuonak, alegia. Sermoia, berriz, aita Gaztelumendi jesulagun oiartzuarrak egin zuen, sutsu hala ere. Eta bertsotan, berriz, herritarrak, edo Oiartzunen bizi zirenak, Lazkao Txiki izan ezik: Uztapide, Lazkao Txiki, Lexoti eta Koxme Lizaso, hain zuzen. Basarrik ohizko hitzaldi errimatua egin zuen bazkalondoan, Lekuona zaharraren gorantz:

Oiartzun maite,
goxo ta laztana,
ona emen Basarri zarra
zutaz aztuko eztana.
Don Manuelek esan du:
ikusten det Aiako Arria.
Eta ni ere egun batez izan
nintzan orruntz etorria.
Or artu nitun goizeko intzak,
izotz, txingor, iñoiz elurte.
Aginduak betetzen
jarraitu nun, al zan arte.
Ta gero, an utsik
gendukan sabela
oiartzuarrak bai bapo
betetzen zigutela!
Nik, bizi naizen arte, Oiartzun,
emango dizkitzut eskerrak.
Zuk urte txarretan ase zenitun
nere gorputzaren bazterrak!

Denon artean *Agur jaunak* kantatuz amaitu zen lagunarteko bazkaria, euskaldunen bilera askotan egin ohi zen bezala.

Errenteria, 1969ko abenduak 8

Bai, 1969ko abenduaren 8an, herriko Onbide aretoan, Xenpelarren heriotzeko urteurrena zela-eta bertso jaialdia egin zen; izan ere, abenduaren 8a egun seinalatua izaten da herri honetako bertsozaleentzat. Xenpelar haundia 1869an hil zen, 34 urterekin, baztanga gaitzak jota.

1969ko abenduaren 8ko bertso-saiorako Manuel Uztapide, Txomin Garmendia, Lazkao Txiki, Mitxelena, Mattin, Mikel Arozamena, Joxe Luis Gorrotxategi, Koxme Lizaso, Xalbador eta Lasarte aukeratu zituzten. Eta gaiak Errenteriako talde batek prestatu zituen, eta Basarrik eman bertsoalariei.

Bazkalondoan ere jende askok kantatu zuen. Baita gai-emaielak berak ere, bertsoarik onenarentzat kopa jarri zuen Olaizola jaunari eskerrak emanez:

Bas: Portatu zeralako
bikain eta prestu,
makiña batek emen
artzen zaitu estu.
Txoko eder au nola
zuri iñoiz aztu?
Erdi-bizirik etorri
eta aberastu.

Zumarragan, 1967ko abenduak 10

Xalbador bertsolariari egundoko omenaldia egin zioten Urola garaiko bertsozaleek, Zumarragako Itzalon aretoan. Eta gero laurogei bat bazkaldar edo gehiago bildu ziren Urola jatetxean, lagunarte ederra egin. Basarri ere hantxe zen, eta ez zuen isilik egon nahi izan:

Negu beltzean txori alaia
gertatu leike ain itun;
mendi-basoak elurrez zuri,
lurmenik ezpaitu iñun.
Ikusi det nik Xalbador onek
gaur zer malko bota ditun.
Egin zaizkitzun guzti-guztiak
ondo merezi zenitun.

Xal:

Nik gizon onen artian sekula
ez det pasa une txarrik;
lagun jatorrak banituen gaur,
hor ez nindagon bakarrik.
Baina ene bihotzak eztu
urtzeko askoin beharrik.
Maite nazue, lagunak, baina
ez egin hartaz nigarrik.

Bas:

Berriro ere, Xalbador maite,
gu ain lagunak izanik,
eztet pentsatzen egun batean
ni diskuidatu nintzanik.
Zeru erdira garamazkizu
zure bertsoak entzunik.
Berriro emen sortuko ote da
zu bezelako gizonik?

Uzt:

Xalbador, ez al dek pentsatuko
zurikeritan ai naizenik;
mingaiña eztek ari izketan,
biotzez esaten dit nik:
zein i bezela bertsolari ta
i bezain gizon zuzenik?
Oraindik ere ez ditek eman
merezi dekan izenik.

Xal:

Ni egun oroitgarri huntaz niz
pozez ta lotsez lehertu,
baina geroko ene bidea
hunek asko du edertu.
Orai kezka bat etorri zeraut,
hau ez dezaket baztertu:
nik ez baitakit zuen bihotza
ala Jainkoa eskertu.

Bas: Berriro ere jarraitu bear
asi dan festa oneri.
Sotanadunak, bertsolariak,
ala esan didate neri.
Etzaio ezer asko kostako
meza eman duanari.
Kandela ori luza zaiozu
or Orbegozo¹² jaunari.

Gero, Basarrik hitza artu zuen, bazkaldarrak isilaraziz, eta honela hitz egin zuen, Xalbadarren gorantzán:

Lazkao Txiki maitagarriak
eman du bere berri.
Ta urrengoan zu, Mattin,
arrebarekin etorri,
ea bion artean sortzen dezuten
egitazko euskal kabi.
Beste jaialdi bat egingo genduke
ori gerta al baledi.

Ta goazen gaurko egunaren
aztarnak ematera.
Etxera abiatu bear ta
azken itzak noa esatera.
Gaur mendi ta baso,
elurrez zuri.
Bear bada ekaitzak
kanpotan indar,
baiña euskaldunen biotzak
Zumarragan su ta gar.
Egunaren ederra nork
konta ote lezake?
Beste eun aldiz jarrita ere
etorriko nintzake.
Zaude, Izazpi;

¹² Joxe Agustin Orbegozo pasiotarra zegoen han tartean.

zaude, Beloki.
Zaudete, mendi maiteok,
zeuen tokitan;
baiña al bada olakoak izan
ditzagula sarritan.
Izan ditzagula Euskalergiaren
animari eusteko;
auek ezpaitira, anai maiteok,
bazter batean uzteko.
Ta ni azkenik, biotz zabalez,
gordinki eta jator,
bein eta berriro, anaia,
zugana nator.
Urepelgo seme azkar,
bertsolarien argi dizdizari,
Xalbador maite: besarkada bat
eskeiñi bear zuri.
Ona emen, beti ta betirako
zure adiskide maiteak.
Zabal-zabal arkituko dituzu
Gipuzkoako ateak.
Egun batean txistu jo zizutenak
damaturik daude;
ta damu duenari barkatu
egin bear, dudarik gabe.
Zure biotzak nola barkatu ez?
Barkatu eta geiago
zer egin eztakilla dago,
ta ni ori ikusten nago.
Esan zazute gaurko egunaren
berri, esan emen eta or,
gizon jatorrik iñun bada,
bat emen dala:
Xalbador!

Eta omen egun hura honelaxe amaitu zen Zumarragan bildu ziren bertsozaleentzat, hurrengo batean Mattin ere omenduko zute-la hitz emanez.

Donostian, 1968ko urtarrilak 21

Manuel Olaizola *Uztapide* haundiaren omenez antolatu zen Donostiako Astoria aretoan egin zen lehenengo bertsolari egun hura. Eta hantxe bildu ginen ehundaka bertsozale.

Bertsolari askok kantatu zuen, Donostian egin izan diren beste omenaldi guztietan bezalaxe. Baina lehenengoa zen, eta egun aparta gainera.

Astoriako jaialdia amaitu eta gero Alde Zaharreko Urbia jate-xean (Donostian) lagunarteko bazkaria egin zen, eta han, goizeko ez gainera, bertsolari eta bertsozale asko bildu zen. Urdaila ondo bete eta zintzurra berotzean, bazen bertsoa ugari! Uztapide eta Basarrik kantatu zituzten bertso batzuk bakarrik jasoko ditugu hemen.

Uztapideren lehenengo bertsoa hamar urteko mutiko Sebastian Lizasok kantatu zituen bertsoei erantzunez izan zen:

Uzt:

Gaur arteraiño enuen entzun
zure semien abotsik;
orrek bezela iñork eztit gaur
neri mogitu biotzik.
Errez da ikusten eta negarra
begietatikan pozik.
A zer gizona irtengo duen
berorren aita ezetzik.

Bas:

Amar urteko mutikoa da
kuadrillan dagon txikiña;
aitak ez ezik buru ona du
eta boza ere fiña.
Esan diteke berezi dala
lan ontarako egiña.
Esaera da aspaldikoa:
beti zakutik iriña.

Eta Uztapide lagunari kantatu zion hurrengo bertsoa Basarrik:

Gure gizon au serbitu degu
oso goi-mailla graduau;
zeuretzat ere irabazia
ta gu ez gera galduan.
Aldamenean eseritzeko
zaletasuna genduan.
Ezeren kezkit etzazu eduki,
dana merezi zenduan.

Gero, bigarren Bertsolari Egunean, 1969an alegia, entzuleen botoz omenduko zutenaren izena eman zuen Jose Salaberria zenak. Urepeleko Xalbador hautatu zuten Astorian bildu ziren bertsozaleek. Eta haren izena ematean, Uztapide eta Xalbadorrek elkar besarkatu zuten. Gero, berriz ere, bertsoak hasi ziren: Uztapide, Xalbador, Basarri eta abar. Iñaki Eizmendi *Basarrik* honela kantatu zuen:

Euskalerrriak berekin ditu
emen dauden bien sonak,
zein baiño zein baitira biak,
oso trebe eta onak.
Eguzkiak nun berotu inoiz
auek aiñako gizonak?
Erria zeuen alde dezute;
artu nere zorionak.

Joxe Agirre *Oranda* ez zegoen erabat ados bertsozaleen erabaki harekin:

Agi:
Euskaldunaren tartian bada
gaur dan moduko indarrrik,
urtero-urtero ikusiko da
emen jaialdi ederrik.
Xalbadorrena ontzat artzen det,
ezdago esan bearrik.
Baiña nere ustez orrek ainbeste
merezi zuan Basarrik.

Xal:
Urren urtean ene omena,
Uztapideri zen aurten.
Gauzak ez dira beti itxura
den bezala iragaiten.
Nik ene baitan argi handirik
eztet, bada, gaur ikusten.
Ez dakit, bada, Gipuzkoarrak
zendako maite nauzuten.

Bazkalondo gehienetan egin ohi zen bezala, bertso-saio luzea egin zen. Baina Basarrik honelaxe eraso zion:

Bas:

Azken jator bat eman nai nuke
komeni zaigun antzera;
jai goxoena mikaztutzen da
neurritz kanpo luzatzera.
Gaur urte bete gu emen gatoz
Xalbadorren baratzera.
Egun ontako aski degu ta
goazen nor geure etxera.

Uzt:

Badakizute neretzat zala
lenbiziko momentua.
Goguan artu gizonak emen
esaten zigun kontua:
urterik urte izango degu
omenaldi ta kantua,
Salaberriak guztientzako
ein baitu testamentua.

Donostian, 1968ko otsailak 24

Jaialdi polita antolatu zuten Donostiako Idazkaritza ikastetxeko ikasleek, Victoria Eugenia antzokian, kurtsoaren azkeneko festarako pezeta batzuk lortu beharrez. Pasaiako Oskarbi taldeak kantatu zuen, alde batetik; eta, bestetik, bertsolariak izan ziren: Basarri, Uztapide, Lazkano, Lasarte, Joxe Lizaso eta Arozamena. Gaiak eman eta aurkezpenak Joxemari Iriondok egin zituen.

Jaialdi ederra antolatu zutela esan dizut, baina jende gutxi samar bildu zen; eta aurrean entzule gutxi zela-eta, gai librean biña bertso kantatu zuten bertsolariak.

Bas:

Eguraldi ederra eta
ez da bete emen barrena,
alaz guztiaz esan bear guk
dakarkigun atsedena.
Sinistu gero gaur Donostira
atsegiñez gatozena.
Anai-arrebok, artu lelengo
agurrik maitekorrena.

Uzt:

Bertsolariak giñala emen
zabaldua zan papela,
eta sinistu agindu gisan
zintzo etorri naizela.
Entzule gutxi xamar daukagu
Basarrik dion bezela.
Nik eskatzen det dauden banakak
onak izan ditezela.

Las:

Jaunak, egun on opa dizutet
biotza bete-betian.
Al dana egin bearra dago
olako txoko batian.
Gure garaia iritsia da
eta saiatu gaitian.
Alaitasuna jarri dezagun
gure Donosti maitian.

Laz:

Lotsa ta bildur denak dauzkagu
alde batera boteak,
orregatikan pena ematen du
ixillikan egoteak.
Zuentzat zabal jartzen ditugu
gure bertsoen atea.
Lendabiziko, jaunak, egun on,
nere entzule maiteak.

Aro:

Pozaren pozez kantatutzeko
onuntz gera etorriak;
Donosti ontara beitu eta
gaur ere bertsolariak.
Au ta geiago merezi ditu
gure izkuntza garbiak!
Agur bero bat opa dizutet,
euskaldun maitagarriak.

Liz:

Len'e sarritan eskeiña det
baiña oraindik ez aski.
Berriro ere asi bearra
degu ondo edo gaizki,
entzulearen aurrean emen
egin bearrean itz bi.
Besarkadarik anaikorrena
eskeintzen dizut, Donosti.

Bas:

Jende gutxitxo ikusi eta
batere ez gera samindu.
Ai, Donosti eder maitagarriak
bere berdiñikan zein du?
Gaur guk egiten dioguna ta
askoz geio merezi du.
Zure morroiak emen daukazu
nai dezun dana agindu.

Uzt:

Nagusi batek agindutzian
morroiak etortzen dira;
ta gaur ere sei bertsolari emen
datozte teatro aundira.
Baiña egualdi ederra zan gaur,
jendea juan mendira.
Bestetik berriz bertso-saioak
sarritxo egiten dira.

Las:

Juan daneko aspalditxuan
ola gabiltz erriz erri;
gero argatik jakiten degu
leku askotako berri.
Gaur ere iñola al baldin bada
broma nai genduke jarri.
Gaurko eguna izan dedilla
betiko gogoangarri.

Laz:

Uztapide onek esan duenez
saioak geiegi aurten.
Gauz onenak'e denbora askuan
ondo eztula irauten.
Alaz ere guk alegin degu
ta zuek egon entzuten.
Euskal kutsuzko une gozo bat
ia izaten dezuten.

Aro:

Azaldu naian etorri gera
gure barrengo kemenak;
guk biotzetik esango'ittugu
emen esan litezkenak.
Batzuek onak izaten dira,
beste batzuek kirtenak;
baiña gaur ere etorri dira
bertsua maite dutenak.

Liz:

Galdera egiñaz geunden aspaldi:
donostiarra nun dian?
Batzuek Kontxan pasian eta
beste batzuek mendian.
Baiña alare entzule onak
badaduzkagu aurrian;
Donostian'e nabarmen dira
euskaldun onak zein dian.

Saio honen ondoren, Basarri eta Imanol Lazkano jarri genituen bertsotan. Gaia: Nagusia eta langilea zerate. Bankuko kobratzailea etorri zaizue, eta dirua langileari eskatu behar, nagusiak xentimorik eztu-eta.

Bas:
Aspaldi ontan gure fabrikan bada millaka aitzaki;
zenbat supritzen ari dan ere nagusi onek badaki.
Letra zaliak atetan eta dirurikan ez eduki.
Langille maite, izango al zera nagusiaren erruki?

Laz:
Ekaitz gogor bat etorri zan da geiago ezin aldendu;
gure nagusi zar onek ere dirua falta omen du.
Bost illabetez jornalik ez ta oraindik nai luke kendu.
Eskabide au ez leike egin lotsarik baldin bazendu!

Bas:
Soldatik gabe ote zaude zu joan dan bost illabetean?
Gezurra nola esan liteke ainbat jenderen aurrean?
Langille maite, portatu zaitte modurik jatorrenean;
ordain ederrak izango'ituzu buelta datorrenean.

Laz:
Amar urtean zure azpian nik jarduna det lanean;
zer izan zeran ezagutzen da denboraren joanean.
Limosna gisan eskatutzen dit, Jainkoaren izenean!
Lenago etzan ola oroitzen gauza ondo zijoanean.

Bas:
Amar urtean langille on bat nola edukiko nun nik txanponikan eman gabe eta anparo gabe iñundik?
Ez al zenduke pixkat jaso nai nausian karga astunik?
Zeruetara ezta sartuko karidaderik eztunik.

Laz:
Edukiarren lagundutzeko beste iñork ainbat gogo, nere etxeko sendia dago iñor baiño okerrago.
Aiek utzita, aizu, zuretzat gaur txanponikan eztago.
Nere sendia juzgatzen det nik bankua baiño lenago.

Bertsolariei eta aurkezleari oroigarriak eman zizkieten Donostiako Idazkaritza Ikastetxeko ikasleek, jaialdi haren oroigarri.

Basarriren azken agurra:

Geure etxe aldera
orain bagoazi;
pena aundiz anaiak
bear emen utzi.
Euskalugar oneri
orrelaxe eutsi.
Emengoak gera ta
ez al du merezi?
Ikusi arte, agur.
Danok ondo bizi

Urtain bozeolariari

Lehenengo irratiz kantatu eta gero *La Voz de España* egunkarian argitara eman zituen ondorengo bertso hauek Basarrik. Jose Manuel Ibar *Urtain* bozeolariaren borroka bat zela-eta egindako bertsoak dira, ohartuko zeranez.

Ostiral gabez jai egin genun;
inola ezin egin lo;
ta, jakitera, ainbat denbora
ez genduan itxarongo.
Gure lurrean bakarrik eztu,
noski, euria egingo.
Astelen gaba iritxi arte
eztegu ezer jakingo.

Blein alemana oraindik eztu
iñork lurrera eratsi.
Aldea dago txapela gorde
edo beste bati jantzi.
Oso goitara igo zindezke,
edo oso beera jeitsi.
Zuretzat bada or gorabera:
galdu edo irabazi.

Kontuz ibili, amak umeak
nunai izaten ditu-ta,
ez beste danak oso eskasak
dirala irudituta.
Euskaldun anai baten gorantzak
erruz poztutzen gaitu-ta,
emen ikusi nai zaitugu
titulua berrituta.¹³

¹³ 1970eko ekainaren 22an jokatu zuten azkenik Urtain eta Blein-ek; eta lehenengo aldiz puntutara irabazi zuen Urtainek.

Donostia, 1969

1969ko irailaren 21ean berebiziko omenaldia egin genion Xalbadorri, Donostiako Astoria zinetokian.

Ohi zenez, bertsolari asko bildu zen han: Lazkano, Gorrotxategi, Lazkao Txiki, Joxe Lizaso, Arozamena, Garmendia, Uztapide, Mitxelena, Mattin, Lasarte, Manuel Matxain...

Jaialdia amaitzean, ohiturari jarraituz, lagunarteko bazkaria Urbia jatetxean egin genuen denok. Eta goizekoez gainera bertsolari pila batek kantatu zuen han ere, nahiz eta hemen Basarrik, Uztapidek eta Xalbadorrek kantatu zituenak bakarrik jaso.

Bas: Janak on egin eta
gaude gu poztuak,
anaitasunez emen
txit aberastuak.
Omen au merezi zun
ain jaun prestuak.
Zuretzako biotzak,
beso ta eskuak.
Xalbador, maite zaitu
gure Gipuzkuak.

Xal: Enetzat egun handi
izan da gaurkoa,
nitaz orroitu baita
gure Jaungoikua.
Zuri erantzuteko
nik banun gogua,
bihotz bera batekin
ni bait naiz jaiua.
Nik ere maitatzen dut
gure Gipuzkua.

Xal: Honenbertze hitz samur
denen orroigarri,
pentsatzeko nolatan
pasatu zen hori.
Hari're egin nion
nik ongi etorri.
Denak eni txistuka
horrenbertze txori.
Gehiago maitatzeko
gertatu zen hori.

Xalbadorren emaztea eta alaba bazkaldarren artean ziren; eta Basarrik txaloa eskatu zuen haientzat:

Bas:
Batzuk aitatu eta besteak
nolatan ixillik laga?
Bertso au ere entzun zazute
alaxe komeni bada.
Urepeldikan gaur etorria
irutasun ederra da.
Orain txalotu Xalbador onen
emaztea ta alaba.

Uzt:
Nik gaur goizean pentsatutzean
pasako ziñala mugan,
bai al dakizu pozaren pozez
ze malko bota ditudan?
Sinistu zazu zeru alai bat
daukazula emen, ta ez dudan.
Zuk etzenduke pentsatuko ere
nik zenbat maite zaitudan!

Bertsoak eta lagunarteko giro ederrak aurrera jarraitu zuen Urbiako bazkalondoan. Eta hurrengo urtean Manuel Lasarte omentzeko erabakiaren berri eman zuen Basarrik, eta bere hitzalditxoa egin, honelaxe:

Gaur bertsoz jarraitzen badegu, jaialdiak eztu azkenik izango. Bi itz laburretan eman dezaiozun amaia pesta zoragarri eta berdingabe oni.

Gaur egunaren ederrak eztu jaberik izan. Gaur zortzi, gogoratuko zeratenez, urte-buruan izan degun egunik txarrena: estropadak Donostin eta jokutzerik ez. Gaur eztakit zergatik gaurko jaiak eztuan lengo igandekoak ainbat garrantzi, inportantzi; baiña alare egun dizdiratsua gertatu zaigu.

Goiz partean Astorian esan dedan bezela, Urepelgo izarrak egin baitu gaur argi. Xalbador txoratzen dago, eta azken bertsoan garbiki esan dio bere lagun Lasarteri: “Otoi, ez dezazula gaur nik aiña malko ixuri!”

Zer itz ederrak, zer itz sakonak, zein gogoan artzekoak!

Beti Xalbadorren bertso bakoitzak badu bere pixua, badu bere sakontasuna. Eta gaur, lenago bertsoan esan dedanez, gaur egin dan auteskundeak, botazioak, eman zezaken azkenik onena eman du. Badegu beste izar dizdizari bat Gipuzkoan. Nafarruko Leitzan jaioda da, alabearrez. Ango berri gutxi dakiena, gazte-gaztetandik gure bazketan, gure larretan azi, indartu, gizon egin eta bere bizitza emen bai-

terama, gure artean. Gizon ori Manuel Lasarte degu, eta biotz-biotzez eskertzen zaituzte ain abegi onez, ain borondate jatorrez botoak bere alde eman dituzuelako. Onelako gizonak, jaun-andreok, eztitugu dozenan amairu. Jaungoiko onak gorde dezaigula urte askotarako. Eta gaur emen bildu zeratenok, egin zazute eskeintza bat, promes bat bezela: osasunak laguntzen badizute, arnasbiderik baldin badezute, denok bat egiñik, danok arriondo bat bezela inguraturik, gaur urte bete Donostiko jaialdian, Lasarteren omenean parte artuko dezutela. Alaxe bedi.



Basarri mutiko batzuekin.

Txapelen heriotza

1969an hil zen Txapel bertsolaria. Eta urte hartako azaroaren 9an egin genion lehenengo bertso-omenaldia, Azpeitiko Soreasu antzokian. Joxe Lizaso, Lazkano, Agirre, Xalbador, Mattin, Uztapide eta Gorrotxategi izan ziren bertsotan egun hartan. Bertsolarientzat gaiak Joxemari Iriondok prestatu zituen, eta Basarrik eman bertsolariei.

Jaialdiaren hasieran, Txapel noiz eta nola ezagutu zuen kontatu zuen Basarrik:

Bederatzi-amar urte izango nituan garai artan. Eskolaumea nintzan; eta Zarauzko Antoniotarren eskolatik, ondo gogoan det bi autobus etorri giñala Azpeitiko Loiola ikustera, bisitatzera. Ume jendez betetako bi autobus, mutil koskorrez betetakoak. Ta ortxe arratsaldeko bostak inguruan, Loiolan, alaxe, eztakit zer egun izango zan edo gertatu zan, baiña dakidana au da: bi bertsolari, Loiolako sarrera edo eskaillera zabalaren ezker aldeko bi balkoitari ari zirala. Bat Itziariko Zubeltzu omen zan, gero jakin nuanez; eta bestea Eusebio Eizmendi *Txapel* zan.

Nerekin etorri ziran mutil koskor aieri bertsoak etzieten ezer esaten. Umeak ziran, batetik. Eta, bestetik, iñoiz etzuten entzun bertsorik. Eta berez etzekarkiten bertsotarako griña ori. Baiña zueri itz egiten ari dan au amar urtetarako bertsoarentzat bizi zan. Neretzat ezin ziteken mundu zabalean ura zan baiño festa egokiagorik jarri. Nik irentsi egin nitun egun artan aien ezpaiñetatik irten ziran bertsoak.

Geroztik Txapel zanarekin ezaguerarik asko izan nun. Lendabizi, nere memoria au oker ezpadago, 1935garren urtean, gerra baiño urte bat lenago, izan nun arekin kantatzeko era eta egokiera. Ez arekin bakarrik, baizik-eta bere kuñadu Zepairekin ere bai. Errezilgo Udaltxeak, aiuntamentuak, irurok Errezillen bataiatuak giñala-ta, dei egin zigun urte artako San Martiñetan. Txapel, Zepai eta onako au izan ziran urte artan kantatu zutenak, Errezillen.

Ura pasa zan, eta ondorenean beste erri askotan, ezin esan nun eta nola, baiña toki askotan alkarrekin kantatzeko egokiera izan gendun, Jaunari eskerrak.

Ni oso umea nintzala, iru bat bertsoari bete zuten Euskalerriko bertso-eginkizuna: Txirrita zana, Gaztelu zana, eta Prantses Txikia esaten genionak. Irurak ezagutu nitun, eta irurekin izan nun kantatze-ko era, oso gaztea nintzala. Etxean ostatua, tabernatxo bat bai gendun guk Zarautzen, eta Gaztelu zana igande askotan etortzen zan propio mutil gazte oni, beno, orduan umetxoa nintzan oni entzutera. Ark gozamen aundia izaten zun nerekin eta nik aundiagoa alako maixu batekin. Txirritarekin ere gertatu nintzan norgeiagokan, konkurtsotan. Eta berari Errenderin egin genion omenaldi aundi artan ere an giñan nere lagun Uztapide eta biok. Au, gerra sortu zan urtean zan, gerra sortu baiño lenxeago.

Aiek il ziran, Txirrita, Gaztelu, Prantsesa... Eta gero, utsune bat izan zan Euskalerrian. Eta utsune ori bete zutenak, Txapel, Zubeltzu eta Zepai izan ziran, urte batzutan.

Zenbat gozamen gu gaztetxoak giñala! Bein Oikian zirala, beste bein Aizarnazabalen zirala... Nik beintzat pausoak azkar aldatzen nitun Txapeli eta bere kuñado Zepairi entzuteko.

Zubeltzu oraindik bizi da, Jaunari eskerrak, bere irurogeita ama-bost urterekin, Deban; etzan plazetan ainbat ibiltzen. Gutxi ibiltzen zan. Esan bezela, Zepai eta Txapelek bete zuten utsune ori gerra ondo-rengo utsune ura.

Kontakizun honen ondoren bertso saioa hasi zen Soreasu antzokian. Basarrik berak ez zuen kantatu; baina aurreko egunean, azaroaren 8an, honako hauexek kantatu zizkigun Loiolako Herri Irratian:

Bertso nereak, kanpoetara
irten zaitezte barrendik.
Txapel maitea, ondo dakigu:
aldendu ziñan gugandik.
Jaunak ots egin zizun garaiari
ezkutatu ziñan emendik,
baiña sinistra zazu guretzat
bizi zerala oraindik.

Txapel ta Zepai, izen bi oiek
ni lilluratzen ninduten.
Triste zeudenak alaitzen zuek
ederki zendekizuten!
Gu gaztetxoak giñan artean,
biok sasoiak zenduten.
Amaika bider gozatua naiz
zuen bertsoak entzuten.

Egun batez zu ixildu ziñan,
orain besteak kantari;
seme zintzoak aitormen ona
ematen dio aitari.
Zure gorantzaz Azpeitin kantuz
gaur zazpi bat bertsolari.
Zuk bein aldatu zendun arbolak
badu prutua ugari.

Jendeak gogoz jarraitzen dio
jarri zendun bide orri.
Egin zenduen guziagatik
bai zerala txalogarri!
Zure utsune tristea baiña
badegu zerbait pozgarri:
oraindik ere bizi dirala
euskera ta Euskalerrri.

Txapelen hileta elizkizunean bertsolari askok kantatu zuen
Azpeitiko parrokian; Basarri ere hantxe zen, eta kantatu zuen:

Indar berezia du
bataio-ponteak,
antxe gelditzen gera
grazitan beteak;
an du bere sustraia
kristau izateak.
Alargun utzi gaitu
lagun zar maiteak.
Jauna, zabal zaizkatzu
zeruko ateak.

Zepairen heriotza

Asko ere asko estimatzen genuen bertsolari bat hil zitzaigun, 1971ko uztailean: Akilino Izagirre *Zepai*. Eta hilaren 24an Idiazabalgo elizan egin zen hiletan sekulako jendetza bildu zen. Zepairen iloba eta Txapel zenaren semea zen don Migel Eizmendi zena izan zen meza-emaile. Bederatzi bertsolarik kantatu zuten elizkizunean: Joxe Lizasok, Manuel Uztapidek, Joxe Agirrek, Patxi Etxeberriak, Bautista Kortajarenak, Lazkao Txikik, Imanol Lazkanok, Mitxele-nak eta Basarrik. Hona emen bere bertsoa:

Ai, zure kantuz alaitu zendun
makiña bat lagunarte!
Zure ezpaiñak, Zepai maitia,
azkena kantatu dute.
Zure ordua iritsi da ta
guria ez da aparte.
Lagun maitia, agur ta agur;
agur egun aundirarte!

1972: Zeletari omena

1972ko urriaren 15ean, Zeletaren omenezko jaialdia egin zen Lasarten. Lehenengo herri-meza izan zen; eta gero, Manuel Lekuo-naren hitzaldia eta bertsolariak, herriko Antzokian.

Lagunarteko bazkarian Agirre eta Lizaso ziren bertso-lanak egi-teko; baiña Basarriri bertso eske eta eske ari zitzaizkion, eta honela kantatu zuen:

Ez zenutela nago
falta indarrikan;
sarri egin dezute
orrelakorikan.
Bota bear dezute
gaur ere ederrikan.
Zuek ez daukazute
nere bearrikan.

Gero, Etxeberria eta Lazkano ere etorri ziren, eta Agirre eta Lizasorekin bat egin eta lauok aritu ziren bertsoan. Eta azkenean, berriz ere Basarri zutitu zen, eta jaialdia honela amaitu zuen:

Nik bezelaxe aitortuko du
gaur Euskalerra osuak,
grazi aparta izandu dula
Juanitoren eskuak.
Laguntza geio izango zuan
gure euskera gaixuak,
idazle danak izan balira
Zeleta bezelakuak.

1971: Lasarteren omena

1971ko martxoaren 19an egin zen Manuel Lasarteren omena, lehenago ere esan dizudanez, Donostian. Eta egun batzuk lehenago bertso hauek kantatu zituen Basarrik Loiolako Herri irratian:

Besarkada bat, Lasarte maite;
gaur ontara natorkizu.
Zure bizitzak aurpegi txarra
sarri erakutsia dizu.
Samiñaldi ta naigabe beltzak
ain ezagunak dituzu.
Bertsozaleen omenaldia
Donostin jasoko dezu.
Garraztasunak gozatutzeko } bis
ondo etorriko zaizu.

Zoaz, Lasarte, plazarik plaza;
zoaz trebe kantatzera.
Zoaz euskaldun bertsozaleak
ezti-tantaz goatzera,
zoaz noranai txori errexinola
berdingabeen antzera.
Zenbat alegin euskal bertsoa
gorengo maillan jartzera!
Gure izkuntza bizi dan arte } bis
gogoan izango zera!

1972: Elgetako bilera

Bilbon argitaratzen zen *Agur* astekariaren lagunak Elgetan bildu ziren, 1972ko martxoaren 25ean, astekariari suspertualdi bat eman nahirik.

Goizeko bilerako lanak burutu eta bazkaltzen bildu ziren denak. Eta han, bazkalondoan, giroa pil-pil zegoen batzartuen artean. Besteak beste, astekariaren zuzendari zen Josu Arenaza jauna gogor mintzatu zen bere proiektuaren alde. Basarri ere bazkaldarren artean zegoen eta jaiki eta bi bertso kantatu zituen, sutsu.

Negargarritzko ikusten degun
jokera gaizto narratsa:
nola liteke egun-argia
biurtutzea arratsa?
Len lore oi zan tokian orain
sasia eta arantza.
Alkar gaitezen, garbitu zagun
berriro euskal baratza.

Ikusitzen da euskeran alde
daudela gure botoak.
Beste batzuek or badabilzki
egundoko gorrotoak.
Baiña gu orain esnatu gera
ez baigera ain tontoak.
Ai, euskeraren tokirik ez du
iñolaz euskerantoak!

Tolosan, 1972ko azaroak 9

Goiz-Argi astekarikoen bilera egin zen Tolosan, 1972ko azaroaren 19an, Uxola berri-emaileak 1972ko abenduko *Goiz-Argin* aipatzen duenez. Aurreko urrian hil zen Joxe Sagarzazu Etxeberria zestoarra gogoratu zuten egun hartan, bereziki. Goizean meza izan zuten. Berri-emaileak dioenez, meza ederra, bikaiña, zoragarria. Meza-emaile, aita Balendin Zabalo, ikastolako arduraduna; eta berarekin, alboan, aita Intza, Koldo Baraiazarra, Txanton Goiria eta Jesus Gaztañaga. Sermoia Gaztañagak egin zuen, Joxe Sagarzazuren gizatasuna, kristautasuna eta trebetasuna goraipatuz. Aldarera igo eta bertso hauxe kantatu zuen Basarrik elizkizun hartan:

Txiki-txikitan euskal biotzak
artu baitzión ari su;
beste guztien gaiñetik beti
arentzat izan zifian zu.
Zure maitale sutsua zifnez
zan Joseba Sagarzazu.
Orain goxoki beti-betiko
zeure ondoan daukazu.

Joxe Sagarzazu zenaren alaba batek aldarera igo eta bere eta senide guztien esker ona eman zien, hitz laburretan.

Gero, hamaika t'erdietan, *Goiz-Argi* aldizkarikoen batzarra egin zuten, aita Garate, Zaloña eta Joseba Murua batzarburu zirela. Batzarkideen artean, Ixaka Lopez-Mendizabal, Antonio Maria Labayen, aita Intza, aita Onaindia, Lino Akesolo, Ambrosio Zatarain, Berrondo, Arenaza, Kamiñazpi, Xabier Peña, Basarri, Jon Oñatibia, Zeleta, Aurre-Apr aiz, Nemesio Etxaniz, Hernandorena, Olazar, Abeletxe eta *Goiz-Argiren* beste laguntzaile asko.

Batzarraren ostean, batzuk bere etxera joan omen ziren. Baina laurogeita hamar bat lagun edo gehiago ostatura, jatetxera bildu

ziren, bazkaltzeko. Basarrik honako bertso hauek kantatu zituen han:

Gogor girotan alkartutzeko
iritsi zaigu ordua;
iru eta lau ez gera izan,
berebiziko mordua.
Nai dun bezela alda dedilla
gu bizi geran mundua,
baiña iraunik lengo lepotan
daukagun gure burua.

Gaur ikusi da alkartasunak
zer balio dun ederki.
Beste batzuntzat gu txarrak gera,
badegu milla aitzaki.
Zerutan dagon gure Jainkoak
zer egiten dun badaki.
Ekaitzaldi au baretuko da,
ez beldurrikan eduki¹⁴.

¹⁴ *Goiz-Argi*, 1972ko abendua.

Ixaka Lopez-Mendizabali omena

1973ko abenduaren 16an, bertso-omenaldia egin zioten Ixaka Lopez Mendizabal langile aspertezinari, Tolosan. Joxe Luis Gorrotxategi, Lasarte, Garmendia, Mattin, Xalbador eta Lazkao Txiki izan ziren bertsoan; gai-jartzaile eta zuzendari, Joxe Mari Aranalde.

Bertso-jaialdiaren azkenean, Basarrik ere kantatu zuen bertso bat.

Ainbat urtean arrai bat ezta
lanean ori gelditu.
Oraindik ere bizkortxo dago,
badu zerbait espiritu.
Lotan zeudenak gure Ixakak
millaka esnatu ditu.
Euskalerriko laino beltz auek
ez ote leizke argitu,
gure izkuntzak au bezelako
langille asko balitu?

1974: Zubeltzuren omena Deban

1974ko urtarrilaren 6an, Zubeltzu bertsolaria omendu genuen Debako Zubeltzu zineman, jaialdi eder bat eginez. Eguraldia ikaragarri hotza zen egun hartan, baina Zubeltzu antzokian giro ona, beroa. Gaiak Joxemari Iriondok jarri zizkien bertsolariei.

Bertso-saioan ez zuen parte hartu; baina jaialdiaren azkenean tauladura igo eta honela kantatu zuen Basarrik.

Deban omendu degu
Zubeltzu laguna;
danok badakizute
merezia zuna.
Nun billa ote leike
olako euskalduna?
Jesus Aurra, badakit
zuk maite dezuna.
Komeni bada luza
bere osasuna.

1974: hiru azpeitiarren omena

1974ko martxoaren 10ean, Joxe Lizaso, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano hiru herritarrak omendu zituen Azpeitiko Karmelo Etxegarai ikastolak, Izarraitz pilotalekuan. Jaialdiak bi helburu zituen, besteak beste: herriko hiru bertsolari zaharrenak omendu eta esker-tu, eta txanpon batzuk bildu behar gorrian zegoen herriko ikastolarantzat.

Basarri ez zen izan jaialdi hartan, baina honako bertso hauxe bidali zigun jaialdirako:

Lizaso, Agirre eta Lazkano,
aspaldiko lagun zarrak,
Izarraizpeko kabi gozoan
dizdizka dauden izarrak.
Zorion bero eta sutsuak
gaude gaur eman bearrak.
Gizon bezela apartak eta
ain bertsolari ederrak.
Azpeitia da arbola zarra,
ta zuek iru adarrak.

1974ko Urtezahar gauean

Urteroko ohiturari jarraituz, irratsaio berezia egin genuen Loiolako Herri Irratian Urtezahar gau hartan ere, amaitu zen urteko gertakari batzuk azpimarratu eta gogoratuz bertsoan. Gai horietako bat, Joxe Manuel Agirre *Endañetak* 1974an harri haundiarekin egindako markak ziren; eta hauexek dira Basarrik eman zizkigun bertsoak.

Jaunak ainbeste indar
nola eman dio?
Arritzarrak jostaillu
biurtzen zaizkio.
Nunai ta noiznai garbi
aitor bear zaio:
orrelako semerik
ez da iñoiz jaio.

Indarra neurritz kanpo,
odol berokoa.
Nolatan sortu ziñan
zu orrelakoa?
Onak asko ditugu,
au jakiñekoa,
ta zu gertatu zera
danen gaiñekoa!

1975: Leitzak Lasarteri

1975eko martxoaren bigarren eguna zen. Leitzako herriak bere omena eskaini zion herriko seme Manuel Lasarteri. Eta ez zuten nolanhiko programa antolatu horretarako: herri-meza, hitzaldiak, bertso-saioak, kale bati bertsolariaren izena eman eta haren irudia ezartzea... Egun gogoangarria izan zen huraxe Lasarterentzat, eta bertsolaritzarentzat, zalantzarik gabe. Jaialdian, bertsolari askok kantatu zuen. Baita Basarrik ere, honako bertso hauexek:

Pozik mendia, pozik erria;
eguzkia dizdizari.
Zeru ta lurrak, Manuel maite,
ongi nai dizute zuri,
beren omena eskeiñi nairik
gizon baliotsuari.
Emen jaio ta ekin zenion
zuk munduko bizitzari.
Nere eskerrik biozkorrenak
Lasarteri eta Leitzari.

Segura, 1976ko azaroa

Zuk ondo dakizunez, 1976ko azaroaren 7an, igandez, hil zen Fernando Aire *Xalbador* bertsolaria, bere *Odolaren mintzoa* (Auspoa sail nagusia) liburuaren aurkezpen eta omenaldi egunean. Hileta-elizkizuna Urepelgo elizan egin zen, asteartean.

Gero, urte hartako azaroaren 24an, bere omenezko bertso-jaialdia antolatu zuten Segurako parrokian. Eta Basarri, Lasarte, Lazkao Txiki, Lazkano, Mattin eta Gorrotxategik kantatu zuten. Gai-jartze eta aurkezpen-lanak Joxemari Iriondok egin zituen; eta hantxe jaso nituen Basarrik kantatu zituen honako bertso hauek:

Bere omen-egunez
azkena etorri:
ori gertatu zaio
lagun Xalbadorri.
Pozikan komeni ez
biotz aundi ari!
Begi-ondoak malkoz,
biotzak ler-zori.
Luto beltzez jantzi da
gure Euskalerrri.

Urepeleko izar
dizdiratzailea,
bertsolari, poeta
aundi ta trebea,
sentipenak agertzen
berdiñik gabea.
Gure euskera zarraren
egizko abea.
Zeiñek bete bear du
zure utsunea?

Euskal baratzak zuen
lore indartsuena
kolpez agortu zaigu.
Au naigabe, pena!
Baiña, Jauna, zu zera
Jaunik altsuena.
Badakit nik Xalbador
maite zenduena.
Emaiozu betiko
pake ta atsedena!

1976ko Urtezaharretakoak

Loiolako Herri Irratian 1976ko Urtezahar gauez kantatu zituen ondorengo bertso hauek Basarrik. Eta gero *Goiz-Argi* astekarian argitaratu zituen, honelaxe.

Bertso maiteok, irrintzi gisan
poztu millaka belarri.
Erri zar onek ase eziñik
badu amaika egarri.
Zure aurrean txapela kenduz
kantuan dator Basarri.
Zerbait eskatu nai nizuke gaur,
biotzeko Urteberri.

Ainbat burruka ta petralkeri,
liskar eta iskanbilla!
Irabazirik iñundik ez da
alde guztitik makilla.
Alkarri zerbait amor emanik
goazen pakearen billa.
Gizon artean zentzu pixka bat
arren, ugaldu dedilla!

Gure griña ta gure jomuga
beti alkar galtzekoa.
Egun bi pasa bear emen ta
ez al da arritzekoa?
Urte alai bat amesten degu,
ez bekozko beltzekoa.
Urteberri, zu ez izan beintzat
aurrekoen antzekoa.

Utzi txarkeri danak albora,
utzi ezin ikusia.
Bakoitzak bere soroan badu
lanean nundik asia.
Batak bestea errespetatuz
egiña dago guzia.
Auxe da gure euskal lurrian
nai degun demokrazia.

Egundo iñoiz iñor ez artu
derrigorrean katetik.
Goiz-argitarrok, aurrera sendo
dakigun toki batetik.
Beste bide bat artu dutenak
or konpon bere aldetik.
Guk jo dezagun beti kementsu
egizko erri-bidetik

Auek nituan, o Urteberri,
zuri esateko itzak.
Uxa itzatzu gure artetik
denborale ta ekaitzak.
Oraindik ere senda ditezke
gure izkuntzaren gaitzak.
Elur-bilduak urtuko ditu
datorren eguzki-printzak.

1977: bertsolariek bertsolariei

1977ko otsailaren 26an, Galarretako pilotalekuan, oraindik hil berriak ziren Xalbador eta Arozamenari omenaldi sentibera egin zitzaien. Hona hemen jaialdi hartan Basarrik kantatu zuen bertsoa:

Xalbador eta Arozamena,
gogoan ditu Basarrik.
Erruz balio zutenak ziran,
eztago esan bearrik.
Aiek galdu ta kalte aundia
izan du gure Euskalerrik.
Gogotsu lana egin zenduten
ta etzan izan alperrik;
erein zenduten azi bikaiñak
eman du frutu ederrik.

1977: Joxe Lizasori omena

1977 urteko Bertsolari eguna zela eta omenaldia egin genion Joxe Lizasori. Bertsolari eta bertsozale, a zer nolako jende pila bildu ginen Donostiako Astorian egun hartan!

Jaialdian kantatu zuten bertsolarien aurkezpena egin eta gaiak jartzea Joxemari Iriondok egin zuen. Eta, aldi berean jaialdia grabatuz honako bertso hauxe jaso zion Basarri:

Irrazaizpeak emanak ditu
makiñatxo bat landare.
Mardultxoena, Joxe, zu zera;
dudik ez dago batere.
Ainbat urtean erririk erri
beti kantatuaz trebe.
Bertsolaritzan printzipe zera,
gizatasunez errege.

Donostia, 1979ko abendua

Don Manuel Lekuona oiartuar maisuari omenaldia eskaini zioten bertsolari eta bertsozaleek, Donostiako Balda pilotalekuan. Eta, beste bertsolari asko ez ezik, Basarri ere hantxe izan zen maisu onari bere omen maitakorra eskaintzeko, bi bertsoaren bidez, jaialdiaren azkenean.


Burumakurka agurtzen zaitut,
gure izar dizdizkorra;
nere barrengo sentipen danak
agertuko ditut, orra:
ain izan zera langille trebe,
korajetsu ta bizkorra,
lenago oso beian geundenak
jaso ginduzun txit gora.
Zu izan zera gure babes,
gure ospe eta ondra.
Omenaldi au antolatzia
oso gendun derriorra.
Ain zera argi, apal, zuzena;
ain zera maixu jatorra.
Alare eztago ordaintzerikan
zugana daukagun zorra.

Zu sortu arte, o Lekuona,
gauzak oso zeuden illun,
bertsolaririk aintzakoz ere
ezpaizuten artzen iñun.
Jende ikasia kontrario zan,
erri xia gure lagun.
Zure liburu zoragarria
orduan azaldu zendun.
Begi-makarrak kentzen geroztik
ainbat eta ainbat euskaldun!
Biotz-biotzez aitortzen degu
zenbat on egiña zigun,
bere garaian zuk gure alde
arpegi eman baizendun.
Mailla ontara iristeko guk
zure biarra bagendun!

1980: Uztapide seme kuttun

1980ko maiatzaren 25ean, Manuel Olaizola Uztapide herriko seme kuttun izendatu zuten bere sorterri Zestoan. Jaialdi hartan bertsolari askok kantatu zuen; baita Basarrik ere:

Manuel, erdi negarrez ziok
Basarrin biotz debilla;
sarritan eskatu izan diat
argia etorri dedilla.
Lenago biok bakarrik giñun
euskal giroaren billa,
ta ondorenez orain kantatzen
ikusten dizkiat milla.



EGUNaren sortzailei saria. Ajuri-enea.

1981eko urtarrila

Donostian 1981eko Bertsolari eguna zela-eta, Errezilgo Antonio Mari Eizmendi *Loidisaletxe* eta Hernaniko Paulo Zubiarrain *Hernani Txikiaren* omena egin zen.

Urteko bertsolari egun nagusia izaki, bertsolari eta bertsozale asko bildu zen, Euskal Herri guztitik. Basarri ere hantxe zen, beste bertsolari askoren artean; eta jaialdiaren amaieran bertso hauxe kantatu zuen:

Gaurko omenaldia
zuten erabaki;
baita jendia ere
portatu ederki.
Gizon bi jator auek
izan dute toki.
Merezia zutela
jende danak daki.
Gora Loidisaletxe,
gora Paulo Txiki!

Bertso-jaialdiaren ondoren, ohitura zenez, lagunarteko bazkaria egin zen Donostiako Urbia jatetxean. Eta bazkalostean bertso asko, beti bezalaxe. Basarrik, bestela ere nahiko bertso bazela han, eta hitzaldia egin zuen:

Jaun-andreok: bertso utsarekin ere, neurritz kanpora kantatu ezkerro, jendea zerbait gogaitu edo aspertu egiten da. Emen eztago olako bildurrik.

Gauza bat billatzen det ain egoki eztana: bekoak eta goikoak alkarri desapioka aritzea, au jokoa balitz bezela. Eta au ezta jokoa. Bear du olako zerbait, bear da eztenkada, bear da zirikada. Bertsolariak au berezkoa du; ta au galduko balu, bertsolaritzak puska aundia galduko luke.

Alare, saia gaitezen. Urak bere bidean neurritz dabiltzanean dira onak. Guk ere ortan alegindu bear degu. Lengo zarrak eskarmentuz esan zuten: ura ta sua belaunez bera dirala onak.

Gaurko eguna, egun dizdizlaria, egun berdingabea. Lagunak ditut ondo nola Paulo Txikia ala nere erritar Loidisaletxe. Ernioren orpoan jaiok gera biok. Lengo bikario txikiak bataiatuak, ponte bateko ura artuak. Eta Paulo, berriz, urte asko da ezagutu nuala, lelengo bertso saioak alkarrekin egin genituala. Urteak igaro dira. Bat gogoan det: Santo Tomas egun batez Azpeitiko Udaletxeko, Aiuntamentuko bal-koitik egin genduana. Antxe genduan tarteko gure Paulo.

Lengo batean idatzi nuan nik Loidisaletxe bere erriak eskeiñitako omenaldi bat artua zala, baiña ez nuala gogoan Paulo Txikiak egundo iñoiz omenaldirik jaso zuanik. Bereala deitu zidaten Hernaniko Erei-ñozu baillaratik, ango Urmia alkarteak egun batez omenaldi polit bat, atsegin bat, anaikor bat, familiko bat eskeiñi ziola esanez. Asko poztu nintzan len ez nekian berria jakin ondoren.

Gaur egon gindezke pozik billera ontan dauzkagun gizonak mai-buruan dauzkagulako: Aristegi jauna –Donostiko Turismo etxearen lendakari dana–, Errafael Agirre Franco jauna –sekretario nagusi dana–. Auek eta aueri esker egiten ditugu jaialdi auek.

Alare nik samintasun eta naigabe aundi bat daukat. Beti lenengo puntan, aurreko aldean ibili dan gizon bat palta degu gaur emen: Jose Salaberria, alegia. Ezta osasunez ongi aurkitzen. Baiña Bertsolari egunak asko zor dio berari. Eta aitormen au izango al degu beintzat. Gure Jainkoak nai dezala lenbailen bere oneratzea.

Euskal jardiña era ontan ikusteak zer atsegin ematen duan eztago adierazterik. Izango ditugu geure pentsamoldeak. Bat izan liteke ezkerreko, bestea eskubiko, bestea erdiko. Izan ditezke zuri, beltz eta gorri; baiña euskaldunak gera, anaiak gera. Eta olako billeratan nabarmen-tzen da au beste edozein garaitan baiño geiago. Bertsolaritzak, Jauna-ri esker, badu aparteko adur bat danak alkarganatzeko, danok biltze-ko, gero eta gero famili osatuago bat egiteko.

Gaur Paulo Txikia eta Loidisaletxe omendu ditugun bezela, dato-rrer urterako beste gizon bat izendatu da. Nolako gizona, ordea! Ez urrez eta ez zillarrez ordaindu ezin leikeana: Jon Mugartegi bizkaitarra. Apaltasunaren eta umiltasunaren ispillu eta eredu. Asi beko azkaz-kazaletatik eta goiko tximataraiño gizon oso-osoa, bertsolari jatorra.

Biotz zabalekoa, etsairik ezagutzen eztuana, eta naigabeak eta samirñaldiak illabete eta bear bada urte askotan etxetik irten gabe edukiarazi dutena. Eztu suerterik izan. Gaixo, elbarri gertatu da. Baiña ikusten det gaurko izendapen onekin poz aundi bat emango geniola, eta itzalita zeukan barruko sua gaur asko piztuko geniola.

Zorionak, Mugartegi. Eta urte on askotarako.

Hitzaldi honekin amaitu zen Urbia jatetxeko lagunartea.

1982: Jon Mugartegiri omena

1982ko urtarrilaren 17an, urteko Bertsolari eguna zela-eta, Jon Mugartegi berriatuarra omendu genuen bertsolari eta bertsozaleek, Donostian. Eta beste bertsolari askok bezalaxe, Basarrik ere kantatu zuen egun hartan, besterik ez bazen ere, agur egiteko.

Gizon osua eta
izketan aingeru;
on egitekotan da
ori danen buru.
Mugartegikin konta
liteke seguru.
Jaun au pagatutzeko
nun bear aña diru?
Olakuak eztaude
dozenan amairu.

1982: Aita Santua Loilolan

Aita Santu Joan Paulo II.a Loiolara etorri eta han eman zuen mezatan, Basarrik honako bertso hauexek bota zituen, meza erdi-koan:

Kristoren jarraitzaille
beti gau ta egun,
bataioa ortako
artua bai gendun.
Loiola onetan gaur
zer eguna degun!
Batasunean danok
bear degu lagun,
Kristoren artaldea
indartu dezagun.

Nekez oi da berdiña
danon iritzia,
kristau artean ere
badago auzia.
Baiña, Kristo, zu zera
danon nagusia;
zu gure itxaropen,
eta poz guzia,
guztionatik eman
bait zendun bizia.

Arren, argi oraintxe,
bai, argi indartsu,
gure Jaun eta Jabe
nola baitzeran zu.
Kristau danok jokatu
gaiten bateratsu!
Zeruan ta lurrian
aginpide dezu.
Une illun auetan
argitu gaitzazu!

1983: Uztapideren heriotza

1983ko ekainaren 8an hil zen Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolari haundi eta maitea. Eta bere lagun maite eta bertso-lagun minaren hiletakoan honela kantatu zuen Basarrik:

Alkarrekin guk
ogei ta sei urte,
Euskalerra osoan
kantuz artuz parte.
Maitagarria intzan,
ta erriak maite.
Jaunak deitu dik orain,
ordua zaik bete.
Agur, lagun zar ona.
Agur aurki arte!

1987: Saran

Urte hartako urtarril hotzean omenaldi beroa eta maitakorra egin zioten Teodoro Hernandorena jaunari Saran, hainbat urtetan euskara eta bertsolaritzaren alde saiatu zela-eta. Sara, Azkaine, Urruñia eta Hendaiaiko bertso-eskoletako neska-mutikoek, eta Iparraldeko zenbait bertsolarik kantatu zuten, bereziki. Basarri ere hantxe zen, lagun maiteari bere omena egin nahita. Eta bertso bat kantatu zuen jaialdiaren azkenean:

Begira ondo, anai-arrebok,
nolako aitona polita!
Mutil koskor bat dirudi oraindik
aurrez aurre ikusita.
Ainbat urtean euskeran alde
lanean ola ari-ta,
txalo bero bat jo dezaiozun
danok zutikan jarrita.

1989: Lopategiri txapela

1989ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapela Jon Lopategiri eman zioten; eta hari txapela jaztera gonbidatu zuten Basarri. Bizkaitarrari txapela jantzi eta honako bertso hauxe kantatu zion gero:

Ekarri naute garailleari
txapel eder bat jaztera.
Bertsolariok, jarrai gogotsu
erri batetik bestera;
gure lurrian guk eztaukagu
zertan egon buruz bera.
Une onetan aitor dezagun:
bagera edo ez gera!
Bertsolaritza bizi dan arte
biziko baita euskera.

1990: Euskadiko sei orduak

Urtero egiten den *Euskadiko sei orduak* jaia zela-eta, Donostia-ko Belodromoan omendu zuten Basarri, 1990eko otsailaren 5ean. Egun hartako bertso-saioa, Xabier Perez *Euzkitze*, Sebastian Lizaso eta Jon Lopategik egin zuten.

Honatx Basarrik kantatu zituen hiru bertso, eskerrak emanez:

Lopategi ta Lizasorekin
Euzkitze gazteak tarte,
merezi gabe gaur arratsaldez
zerutara jaso naute.
O anai bertsolari maiteok,
geiegizkoak zerate!
Ala egun au etzait aztuko
arnasarik dedan arte.

Ustela naiz ta begiondoak
beterikan dauzkat malkoz;
alaz guztiaz esatekoak
garbi esateko asmoz.
Azken urtetan arkitutzen naiz,
ta onek ematen dit poz:
zarrok betiko bagoaz baiña
gazte bikaiñak badatoz.

Gutxi izan da nere bizitzan
egin al izan detana.
Nola liteke ainbat maitasun
agertzea neregana?
Aurrera ezin jarrai nezake,
ontan bukatzen da dana.
Milaka esker guztiori ta
besarkada estu bana!

1992: Zerainen

Jon Azpillaga eta Lopategi bertsolariak omendu zituzten Zerainen, 1992ko ekainaren 7an, garai batean bertsotan askotan izan bait ziran herri horretan. Basarri eta Lasarte ere gonbidatu zituzten zeraindarrek.

Bazkalondoan, bertsolariak berehala hasi ziren kantari, beti bezalaxe. Eta hala ari zirela, kantari hasi zedila eskatu zion Basarri Joxe Agirrek; eta txanda etorri zitzaionean, baita mikroa eskura eman ere Lazkao Txikik. Bertso bakarra kantatu zuen Basarrik lehenengo txandan:

Gure denbora gertatua da
oso garai beranduan,
nai bezelako gauzik ezbaita
izaten bear dan orduan.
Etzan girorik, etzan babesik,
ez gendun ezer onduan.
Baiña guk ere al zan gutzia
orduan egin genduan.

Bigarren txanda etorri zitzaionean, berriz ere mikroa eman zioten eskura; eta, bat ez, bi bertso kantatu zituen:

Geure denboran alegin danak
geren partetik egiñez,
alde guztitan ibili giñan
pozik eta atsegiñez.
Batzutan ondo asmatuaz ta
beste iñoiz uts egiñez.
Zein nolatan gerta leikian
aurretik iñork jakiñ ez.
Gauza bat burura etorri eta
bestia esan mingaiñez.

Nere bertsoa artu zazute
guztiok ondo gogotan:
ibili gera Euskalerrian
ta erri asko, prankotan.
Gauza guztiak esan nai eta
ezin esanik askotan,
edukiarren pentsamentuak
buruan eta gogotan.
Sinistu gero: gauz erreza da
gaur aritzea bertsotan.

1994: Lazkao Txikiri omena

Beasaingo Antzibarren Lazkao Txikiren omenezko jaialdia egin zuten 1991ko abuztuaren 15ean, lazkaotarrak 65 urte betetzen zituela-eta.

Basarri zerbait jaitsita zegoen ordurako, eta erdi gaixo. Hala ere, mikroa eskura eman eta zirikatu zutenean, pasadizo zaharrak kontatu zituen, eta bere hitzaldia egin, egun hartan omendu zuten Lazkao Txiki goralduz:

Arratsalde on, danori,
gizon eta andreak.
Olako gozamenik etzuan artuko
aspaldian jendeak.
Opari bat artuta nere lagunak.
Oparia da milla pezta.
Pentsatu gero, auntzaren
gauerdiko eztula ezta.
Eskerrik asko. Milla esker.
Nere oparirik onenak
zuretzat dira,
biotzak ditun itzik biozkorrenak.
Urte askoan izan zaitezela
gaur bezin egoki,
ta Goierrri ta Euskalerrriak
gorde dezala
gure Lazkao Txiki.
Ainbat bertso eder
plazetan emana.
Zuk jarri dezu bazter
guztietan zeresana.
Batzuk esaten dute
jostalaria zerala,
zirikalari ta ariña.

Nere ustez, ordea,
klase guztietarako egiña.
Badakizu bertso sendoak
eta sakonak mamitzen
eta ongarritzen.
Badakizu entzuleak,
aurrean dauzkazun entzuleak
guztiz arritzen.
Badakizu irriparre,
txiste, gozakai,
arinkeriak esaten.
Badakizu jendeak eta entzuleak
gozamen artu dezaten.
Badakizu aien antzekoa
eta irudikoa izaten.
Badakizu.
Gizon txikia zera gorputzez,
baiña aundia zentzunez
eta gizalege utsez.
Iristen zeran tokian
beti zabalduko dituzu atea.
Eta zukanako beti izango dira
asmo on eta borondateak.
Gaur Beasainen ondo ikusi degu.

Emengo jaialdiak pozaldi
ikaragarri bat eman digu.
Gustora ziran, pozikan ziran
senar eta emazte.
Pozik eta gustora ziran,
–nola uka?– zar eta gazte.
Olako beste bat sortuko danik
emen ezpaidet nik uste.
Eta Jaunak eman deizula
urte askotarako osasuna,
gure artean bear baitegu
era ontako euskalduna.
Gaur nola gabiltza?
Lau katu, ta laurok
alkarren kontra.
Itz bat eztegu onik,
eta gorrotua ta burruka.
Au penagarria da.

Tristea da.
Eta alaitu eziña.
Ai, Jaungoiko maite,
neri entzuten egongo baziña:
etorriko al da gaurko egunaren
biarko biaramona.
Etorriko al da gure aldean
jarriko dan giro ona.
Orixe nai degu guztiok.
Gaur besterik izan emengo jaija.
Danok daukagu, noski,
alkar ondo ikusi naia.
Bukatzeko, itz bat, azkenik.
Eta au izan dedilla egoki
eta txukunki:
Jaunak urte askotarako
dezala gure Lazkao Txiki.

Zerainen goizeko bertso-jaialdia hastean, lehenengo bertsoa Basarriri eskatu zion aurkezleak; eta bertsozaleen txalo artean, mikroa eskuetan hartu eta hirurogei eta bost urte bete zituen bere laguna goraiatu zuen:

Pasa dituzu ingurutako
mendiak eta basoak;
zeiñek kontatu jarri dituzun
une alai ta goxoak?
Irurogei eta bost urte ditu
Goierriko txoritxoak.
Geroztik beti zugar zorretan
euskera ta euskal bertsoak.

Han eta hemen jasotakoak

Han eta hemen sakabanatuta Basarriren bat-bateko bertso asko aurki daiteke oraindik. Guk entzun eta irakurri ditugunak jaso ditugu hemen.

El Gran Libro de la Pelota Vasca –L. Bombin Fernández eta R. Bozas-Urrutia– liburuaren 1.033 eta 1.034 orrialdeetan esaten denez “El día de Reyes de 1962 en San Sebastián, por imposición del jurado, jugaron una partido de pelota entre ellos, Basarri, Xalbador, Uztapide y Azpillaga”. Eta Auspoa 10, 1962.

Gaia: Basarri eta Xalbadorrek partidua irabazi diete Uztapide eta Azpillagari. Hiruna bertso kantatu zuten:

Bas:

Asi bear ta jartzen dituzte
emen istillu gorriak.
Gu zein giñaden ikusitzera
plazara asko etorriak.
Sendo dauzkagu besuak eta
bigun belaun ta gerriak.
Oiek zeukaten fama baiña
gu gera pelotariak!

Xal:

Aitzakiaren ematen laster
ondotik zaizkigu hasi,
partida galdu ta fama ere
joango dela igesi.
Goizian azkar ziraden baina
indarra etzaiote hazi.
Aleginak egin ere baina
ez daukute irabazi.

Uzt:

Partidu orrek irauna zuen
oso denbora luzian,
bear bezela gorputzetik'e
ez bainengon ni goizian.
Baiña alare bikote ori
ez da ibili jolasian.
Galduko zuten baldin pelotak
guriak izan bazian.

Azp:

Gaurko goizian jardunak gera
indar aundiko lanian,
alkar probatu bearra dago
epoka daguanian.
Pelotak ere ariñak izan
dira gaurko egunian.
Obeto proba bearra degu
buelta etortzen danian.

Bas:
Ai, Xalbador: bueltaren billa
dago Azpillaga asia.
Erantzun ere egin bear diot
aora datorren guzia.
Beren pelota gustokua
ez dutela ibilia.
Galtzen duenak beti izaten
du zerbaiten aitzakia.

Uzt:
Oraindik ere bikotetxo au
jokatutzeko gauza da.
Bat irabazi ta arrotzia
berriz oso eskasa da.
Baldin ta berriz juaten bagera
bi oien kontra plazara,
ez dute asko pentsatzen baiña
a zer nolako pasara!

Xal:
Partida hori ari zeneko
jarri ziran bildurrean;
gero bai lotu ere bizkorki
gu bentzutu beharrean.
Arras patxara gaixtoan zeuden
erditan eta lurrean.
Ta ni gibeletikan ez txarra;
Basarri ona aurrean.

Azp:
Pelotariak eraman dute
dana orien graziak.
Nik atzetikan eraman ditut
etorri diran guziak.
Nere lagunak tranpa asko ditu
Atanori ikasiak.
Pelotagatik izan ez balitz
gu giñaden nagusiak.

Bas:
Partidu ori nolakua zan
nik ez dadukat aztua,
guri txaloka arrotu baitzan
gaiñeko jende prestua.
Ai, Xalbadorri ta Basarri
galtze'ezpazaie eskua,
len galdu dunak berriro ere
izango du arriskua.

Uzt:
Pentsatu ez gerala bildurtzen
biarko edo etziko.
Beste bat jokatu gabe beintzat
guk eztiogu utziko.
Oien txapela iduritzen zait
oso denbora gutxiko.
Urrengo jokatutzen deguna
ez dute irabaziko.

Xal:
Zure ideia zuk erakutsi,
oi, bertso nabarmenean;
bihotzetikan min daukazula
erran duzu azkenean.
Baina gu hemen orainik ere
ez gaude zuen menean.
Berriz partida jokatu da
zuek nahi dezutenean.

Azp:
Gu bikote bat egiñak gaude
zarra eta gazteriak.
Baiña ez dira ondo probatu
geren abillidadiak.
Zer ziran nere lagunak zitun
boleak eta airiak!
Berriro jokatutzen badegu
gu gera adiskidiak.

Auspoatik jasoak

Zepai hil eta handik laster atera zuen bere Auspoa saileko 107 liburua (1971) 36. orrialdean honako bertso eta kontakizun hauek egiten ditu Antonio Zavalak.

Basarri, Uztapide eta Zepaik egindako saio bateko bertsoak dira, eta honela dio tolosarrak, bertsoak aipatu aurrez:

Eskuz idatzitako kuaderno batetik artuak; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion kuaderno ori.

Bas:

Ixkiñan jarri kordela eta
oker berrogei aldeta;
lana egiteko gizonak bear
pixka bateko arreta.
Ikuste'ituzun nagusi jaunak
daude asarrez beteta,
bart arratsian eroi dalako
zure atzeko pareta.

Uzt:

Porlanan billa goizian juan,
aillegatu da berandu;
orregatikan nere paretak
mortero txarra izan du.
Zerbait esaten asi ezkeroz
kopeta beltza jartzen du.
Naiago nuan duro bat baiño
azpian artu bazindu!

Zep:

Arrazoi orri aldamenetik
eldu bear diot nik, rau!
Lenago ere tripako miñak
pasa izan det zenbait gau.
Sei eun lanian aritu eta
abonatzen dizkigu lau!
Pioiak baiño lenagotikan
despatxatu bear da au.

Bertso hauek beste era honetara ere jaso zituen Antonio Zavalak:

Bas:

Kordela jarri kantoian eta
oker berrogei aldeta;
obra onikan ezin atera
zu argiñ txarra zera-ta!
Zerbait esaten asi ezkeru
bezten du, berriz, kopeta.
Aiziak atzo an bota zuben
zuk egindako pareta.

Uzt:

Oker dagoen gauza ez dezu
askotan egin zuzendu;
porlanan billa goizian baiña
gero etorri berandu.
Orretxegatik nere paretak
mortero txarra izan du.
Duro bat baiño naiago nuben
azpian artu bazindu!

Zep:

Bein nonbait edo ala bear da
juntatu ziñan gugana;
ta bialdu nai egin ezkeru
ez daukat denbora joana.
Lana gaizki egin ta pagatu bear,
nagusiak oi du pena.
Beangatikan bialdutzeko
artuta nago ordena.

Uzt:

Neri pailluak billatzarren
gezurra esaten dezu, rau!
Aspalditxo ontan tripako miñez
badaramazkit zenbait gau.
Sei egunian lana eginda
apuntatutzen dizkit lau.
Argiña baiño lenagotikan
despatxatu bear da au!

Handik eta hemendik hartuak

1950 urtean Donostiako Fronton Gros pilotalekuan kantatuak. Kristino Arruti Lertxundi, *Errikotxia* izenez ezagutzen zan bertso-lariaren billoba. Andu baserria, Orio (Auspoa 107).

Bas: Zenbat angularekin
naikua zenduke?

Zep: Ori karkulatzerik
ez daukagu guk'e
Ortarako bear da
markes edo duke.
Iñork eman ezkerro
berak jango luke.

Beste behin, Antonio Zavalak dioenez, Azpeitiko Santo Tomasetan omen ziren Uztapide, Zepai, Basarri eta Txapel; eta puntutan honelaxe egin zuten:

Bas: Gaur goizian sentitu
al dezute otzik?

Uzt: Nik ez det sentitu ta
oso nago pozik.

Zep: Egia esateko
eztu biar lotsik.

Txa: Sekula eztet ikusi
olako izotzik!

Bas: Ibilli al zera beiñe
areoplanuan?

Zep: Ez naiz ibilli baiña
asmua banuan.

Bas: Zu ibilliko ziñala
nik pentsatzen nuan.

Zep: Asko eroitzen dira ta
ezin leike juan.

Lizar-adarrez apainduta zegon bertso-lariak kantatu behar zuten tokia, eta huraxe hartu zuten gaitzat puntutarako.

Bas: Toki au apainduta
daukagu lizarrez.

Zep: Olako zerbait egin
bear zuten aurrez.

Bas: Ementxe egiten da
bertsuetan errez.

Zep: Olare obetago
zigarroa errez.

Zep: Garai ona da orain
erretzeko bana.

Bas: Au moldatutzen ere
badet naiko lana!

Zep: Aiba papela ere,
ta gaiñera ona.

Bas: Ori ere da atzo
neronek emana.

Basarrik Nafarroako Arbizu herriari eskainitako bertso hau jaso zuen Nikolas Aldaik 1977ko ekainaren 24ko *Deia* egunkarian, “Herri baten pozak. Arbizu: Nafar eta euskaldun” izenburuarekin idatzi zuen artikulu batean:

Zu, izkuntzaren gaztelu sendo;
zu, egitazko zentzudun.
Betiko gabak ez estaltzeko
zure bearra bagendun.
Nafarroaren ispillu zera;
ortan jarrai gau ta egun.
Azken arnasa eman artean
iraun zazute euskaldun.

Bertsozaleek gogoan

Bertsoa klinex baten antzeko omen dela irakurri dugu noizbait: erabili eta botatzen den zerbait, irauten ez duen zerbait omen dela. Bertso asko, beharbada gehienak, halaxe izango dira. Auskalo. Baina bertso on asko buruz ikasi izan du bertsozaleak. Honelako edo halako bertsolariren saio asko, bertsoz bertso gogoan duen bertsozale asko ezagutu izan dugu. Horrexegatik, bertsozaleak gogoan gorde izan duen zenbait bertso biltzen ahalegindu gera, Basarriren bat-bateko bertso-bilduma hau hobeki osatu nahirik.

Urte askotan Basarriren bertso-lagun apartekoa izan zen Uzta-
pidek bere *Lengo egunak gogoan* eta, *Uztapide berriz plazara* libu-
ruetan kontatzen duenez, Getariara urtero joaten omen ziren urta-
rrilaren 17an, San Anton jaia izaki, 1940 urtean hasita. Lehenbiziko
urtean *Asteasu Txikia* deitzen zioten bertsolari batekin joan omen
zen endoiarra. Gero, Lamitegirekin, Zepairekin eta abar ere bai.
Basarri trabajadoreetatik etorri zenean, berarekin hasi omen zen;
eta gero, urte asko egin zuten elkarrekin.

Behin batean, Uzta-
pide berandu heldu omen zen Getariako pla-
zara, eta Basarrik honela kantatu zion, berak kontatu zuenez:

Bas:

Bakarrik ez naiz ni atrebitu
bertso-lanari ekiten.
Uztapidetzaz galdetu eta
iñork nun zan etzekiten.
Getariako jendea gogor
asi zaigu itzegiten,
bestela ezin ezer egin da
altabozez otsegiten.

Uzt:

Basarri ori etorria da
deitu eta derrepente.
Orrenbestian agertutzia
ez al du egin dexente?
Lotsa gutxikin egongo ziñan
denen aurrian, presente!
Ordubete ontan zai zeguen au
bertsotan asteko, tente.

Bas:
Ai, Uztapide egun auetan
dago ederki kostia,
orregatikan aurkituzten da
naikua samar bustia.
Emen erriko gizonak ere
oso konforme ezta.
Lanik ein gabe nai al zenduke
soldata irabaztia?

Uzt:
Olakuari ere badakit
iñoiz ondo erantzuten.
Nere euskaldun anai-arrebak,
jarri zaitezte entzuten,
Basarri ori len bakarrikan
nola ikusi dezuten.
Au ere etzan emen egongo
gonbiratu izan bazuten.

Uztapidek bere liburuan kontatzen duenez, Arruako Zugazti-
haundiko Julian Buenetxeak hartu omen zituen bertso hauek, baina
ez magnetofoiz, buruz baizik. Basarriren beste hau ere berak jaso
zuen:

Guk iru egun pasa ditugu
irurak edarikuak.
Entzun zazute, nere lagunak,
kanpo ta Getarikuak,
emen zaudeten zar eta gazte,
bekuak eta goikuak.
Biotz-biotzez lendabiziko
arratsalde on Jainkuak.

Seguran ere urte askoan izan ziren Basarri eta Uztapide elka-
rrekin, San Juanetan bereziki. Joxe Intxaustik bere *Beti bertsoa*
buruan (Auspoa 276) liburuan esaten duenez:

Zenbaiten bertsolaritza oi da
eten gabeko txintzarri;
iru orduan igual jardun
elduaz zenbait itz txarri.
Urtean beingoz naiz-eta entzun
Uztapide ta Basarri,
aien moduko maixu batzuek
nik bear nituan sarri.

Bikote ona ziraden auek
naiz orain sasoiua juanak;
amaika aldiz poztu zituzten
Segurako San Juanak.
Oien bertsoak ziran lenbizi
onak entzun nituanak,
nere buruak urte askoan
gorde izan dituanak.

Hogeita sei urtez elkarrekin ibili ondoren, omenaldi ederrik izan zuten Basarri eta Uztapidek Seguran. Uztapideren liburueta jo, eta honako hauek aurki genezazke, adibidez:

Bas:

Biotz-biotzez eman bearrak
milloika esker ta grazi;
biotz onetan zer gertatu dan
nik ezin adierazi.
Barruan ezin egonda, jaunak,
ditut malakoak igesi.
Seguratarrak, oinbeste onra
guk ez genduan merezi.

Uzt:

Nere eskerrak entzun artean
pixka baten egon zaizte.
Pozez beterik gelditua naiz
leno nenguen triste.
Abek gizonai meritu asko
ematen len'e dakizte.
Baiña gaurkoa geitxo izango zan;
gu ez gerade ainbeste.

Bas:

Une batian jarri nazute
sentimentutan betia;
aur bati bezela gertatu zait
ortxe negar egitia.
Ezin asmatu nezake orain
emen esker ematia.
Zeruko Jaunak onetsi beza
dezuten borondatia.

Uzt:

Gaurko eguna zoragarria
Segura aldian degu;
ai, bertan bizi bear bagendu
beti, uda eta negu!
Egin dizkigun kantu ederrak
estimutzen dizkiogu;
ta kapaz geran arte etortzeko
berriz'e agintzen diogu.

Bas:

Erri ontako erretoria
ez det nai gaizki artzia;
komeni zaigu kontu guztiak
beren neurrian jartzia.
Ain da umilla ta ez luke nai
bere izenik aitatzia,
baiña ez da errez ainbat balio
duen jaun bat ixiltzia.

Uzt:

Parroko jaunak eginkizuna
ederki asko du bete;
era ortako gizon bat nola
ez degu izango maite?
Ni beintzat emen txoratu eta
gelditua naiz dexente.
Zure bearra Segurak ere
badaduka, don Bizente.

Bas:
Bide zuzen ta ona darama,
ezagun da baztarretan;
seguratarrak danak zaudete
beregana zorretan.
Erriak ez du atzera eingo
lengo oitura zarretan.
Goiko puntara iristeko ere
ez dago esku txarretan.

San Pedrotan ez zen bertso laririk falta izaten Eibarren, han bertsozale asko izan baita beti. Uztapideren liburuan jaso ditugun bertso hauek, San Pedro eguneko bazkalondo eder batekoak omen dira, Endoiako semeak berak kontatzen duenez.

Bas:
Zu, Uztapide, jakiñik nago
nola ama dezun illa.
Lengo batian eliza juanda
antxe artu nuen silla.
Belaunikatu nintzan bertan da
egin nun otoitz umilla:
zure guraso agurgarria
zeruan gerta dedilla!

Irungo San Juan plazan bertso-saioa egin eta bazkaltzen ari zirela, Jose Mari Manterolak sindikatuko ordezkaria aurkeztu omen zien Basarri eta Uztapideri. Baita bertso batzuk botatzeko eskatu ere. Eta honelaxe erantzun zuten, bertso banatan.

Bas:
Gizon aundi bat etorri zaigu
mai ontara nerekiko;
bestela nere aurik ez nuen
nik onela irikiko.
Gu bertsolari txar batzuk gera
eta zu berriz sindiko.
Gaur ezagutzen zaitut nik ere,
lagun nai zaitut betiko.

Uzt:
Artzai on orrengana guztiok
artu zazute ardura.
Denbora labur danok bagoaz
eriotzako ordura.
Jaun orretxen esanetan zuzen
ibiltzen bada Segura,
zenbat animak jua bear ote du
erri ontatik zerura?

Uzt:
Basarri, orain kanta didazu
neri bertso arranua;
ondoezikan jarri liteke
emen pertsona sanua.
Nere guraso maitea illa
len daukat naiko damua.
Ez bazerade laster ixiltzen
negarrez aстера nua.

Uzt:
Emen etorri zaigu gizon bat
oso kargu aundikua.
Irungo erri onetan orrek
egiten du mendikua.
Nolanai ere etzera izango
bertsolari sendikua,
bestela etziñan izendatuko
zu Irungo sindikua.

Magnetofoirik ez zen garaian, eta gero ere bai, bertso asko jaso ohi zuen buruz egiatzko bertsozaleak.

Basarriren lehengusu propioa den Markos Manterola Zulaikak ere jaso zituen garai batean; eta orain ondoren irakurriko dituzun bertso hauek eman dizkigu. Berak egindako kontakizunak hitzez hitz jaso ditugu hemen, eta gustura gainera! Honela dio:

Uda batean, non ez dakit baina, pareja bat joan omen zan oporretara kanpora eta amona beraiekin eraman zuten. Gauean ordea amonak betirako lo artu, eta orduan pentsatu dute alik eta azkarrena etxera joan bear dutela. Amona oso ariña nonbait eta beren tolduan bildu eta erroilatu dute, kotxe gainean amarratu eta martxa. Nonbait gelditu dira gaua pasatzeko, eta urrengo goizean toldua eta amona falta.

Denbora junik alperrik dira
negarrak eta antsiak;
gu ustez lasai gaudela eta
lan egiten du etsaiak.
Oraindik ere ez dira entzun
aditutzeko guziak:
illak ostutzen asi dira ta
kontuz ibili biziak!

Bertso au entzunda egongo zerate leen ere. Igual nik pare bat aldiz-edo irratitik entzun nion, baiña Txirritaren bertsoa izan bear du. Txirritak txakur bat oso maitea omen zeukan. Galdu nonbait, eta gauzaiñari esan omen zion txakurra nola galdu zitzaion eta arrastorik aterako balu, kaso egiteko mesedez. Gauzaiñak galdetu ea zer seiña zermatzen txakurrak, eta bertsu batekin eman zizkion:

Kolore gorriska du,
ankapunta beltzak;
buztana luzia ta
belarriak motzak.
Betagin gogorra ta
aginak zorrotzak;
larruzko trajia ta
ezurrezko ortzak.

Gogoratzen naiz Lasarteko Krossa zala-ta beltzak ekartzen asi ziranean, ilbeltzaren azkenengo igandean, otz izugarriak egiten zituela, eta orduan jendea, egurra bildu eta sua eginda egoten zala korrikalariak ikusten. Basarrik au kantatu zuan irratian:

Lendabizitik asiak ziran
aurrekaldera igesten,
ain une latzik eta gorririk
ez da erreza ikusten.
Jainkuak daki ankazpietan
zer azal klase dituzten:
tenteka zeuden arri koskorrak
bapo zapaltzen zituzten.

Amerikar eta errusoak illargira beren tresnak bialduz zebiltzan, eta onako au kantatu zuan Basarrik:

Munduz kanpora emen ainbeste
katramil ez da egongo;
iñor bizi dan abisurik'e
ez degu izan egundo.
Sutan Arjeli, bildurrez Berlin,
larri Katanga ta Kongo.
Lendabiziko ez al da obe
oiek konpontzia ondo?

Garai artan apustu bat zegon egiña arri-jasotzen. Oiartzungo Usategieta II eta Elgoibarko Irunaso ziran neurtzekotan.

Ordua iristean
lanari eraso;
badakigu zailduta
zaudetela oso.
Zu, Usategieta,
eta zu, Irunaso:
arria zai dago-ta
beldur gabe jaso.

Itziariko Mendatak txaal aundi bat il du Zarauzko mataderian, Zarautzerako, noski, eta Basarrik:

Zekor bat azi bear zala ta
bai azi ere aparta.
Eunda ogeita bi erralde,
kilo erdiko bat falta.
Gustora gera, errialdean
naiko okela bada-ta.
Zarauzko markak autsi dituzu,
bejondaizula, Mendata!

Erriskaren bat sorgiñez josita omen zegon, eta etxean zeuden
katuak ere gauetan garraisi batean irtetzen omen zirala kalera kontatu
eta kantatu zuan Basarrik:

Zer gauza txarra daukaten
ola dabilzanak;
gaizki ateratze'ira
gizon abillenak.
Eibarren irten dira
arma nabarmenak,
sorgiñak atzeratzeko
gauzik ederrenak.

Aiako Jose Mari Lertxundi bertsolari eta bertsojartzaileak kon-
tatzen duenez, 1944ko abuztuaren 7an, Donato deunaren festatan,
Basarri eta Uztapide eraman omen zituzten Aiara, bertsoarako. Ez
zuten bertso-saioa grabatu, baina buruz ikasi zituen batzuk gogo-
ratzen dizkigu.

Honako hauek, Armendiko Bentan kantatu omen zituzten, eta
Anjel Arrillagak gogoratu zituen, *Uztapide berriz plazara* liburuan
Lertxundik kontaktzen duenez.

Bas: Lenago jardun gera
beko tabernetan;
ordena da kantatzeko
ostatu danetan.
Au ere nola dagon
kaletikan bertan,
oraingo saioa degu
Armendiko bentan.

Uzt: Oraintxe arkitzen naiz
oso nekatua;
badetela uste det
zertaz kejatua.
Len ere amaika aldiz
ola gertatua.
Ni ari naiz pagatzen
onen pekatua.

Hiru bat saio egin omen zituzten Armendiko Bentan Uztapide eta Basarrik. Azkeneko saioan, honela hasi zen Uztapide, garai hartan baso-lanetan ari zena:

Uzt: Etumetan jardun naiz
ni lan gogorretan:
aizkoran eta trontzan,
baita ere lorretan.
Mutillak txarrak nitun
nik baso orretan,
ia utzi ninduten
betiko zorretan.

Uzt: Mutillen famak ematen
au, neri kenduta.
Lotsagarri utzi nai dek
ik nere konduta.
Kulpa nerea dala
onek esan du-ta,
ez nauk salbatuko ik
asko lagunduta.

Bas: Baso-mutillak artu
ituan errez, ta
orain zertan egiten dek
oinbeste protesta?
Mutillak basoan utzi,
au festarik festa.
Ola zorra egitea
arritzeko ezta.

Bas: Asiera guztiak
bukaera zor du;
oraintxe badala uste det
bukatzeko ordu.
Alkar zirikatu gabe
ez gero egondu.
Esanak esan, beti
gu ondo konpondu.

Joxe Mari Lertxundik lehen aipatutako Uztapideren liburuan kontatzen du hau ere: 1950ean Donostiako irrati batean bertso saioa egin omen zuten Basarri eta Uztapidek. Eta Basarri eta Uztapideren bertsoak entzutea gauza haundia zela aitortzen du aiarrak. Irratiz entzun zituen bertso bakar batzuk honela gogoratzen ditu:

Bas: Beti bezela orain
lenbiziko lana,
agur bat bialtzia
entzuliengana.
Agindu au gureztat
baitago emana.
Guri entzuten dago
Gipuzkoa dana.
Kanta ditzagun orain
dozenatxo bana.

Uzt: Ixillik egoterik
ez daukagu, noski;
baiña lan geiegiak
gauz txarrak dakarzki.
Osatu zitezkean
sei edo zazpi.
Baiña dozena bana
ez al degu aski?
Barkatu gaur egingo
bagenduke gaizki.

Gero, puntutan egindako beste lau bertso hauek gogoratzen ditu. Eta, “Txandaka ain ederki bertsoa tolestatzea, ain azkar gaiñera, ura zan gozamina neretzat!”, aitortzen du Joxe Marik.

Honatx, bada, puntutan gogoratzen duena, irratsaioa egiteko dirua ematen zuen dendaren famak kontatu eta kantatuz:

Bas: Etxe orrek daduka
egundoko fama.

Uzt: Klase danetik dago:
algodoi ta lana.

Bas: Denda artan erosletik
dabillen emana!

Uzt: Berriz etortzen baita
bein etortzen dana.

Uzt: Entzule, zuri egin
dizugu abisu.

Bas: Aukera badagola
orain badakizu.

Uzt: Ona eta merkea
eskeiñitzen dizu.

Bas: Bein etortzen bazera
gustatuko zaizu.

Bas: Etxe artan badago
ainbat berogarri.

Uzt: Guztiai dei egiten
ari da Basarri.

Bas: Gero ibili gabe
estu eta larri,

Uzt: negua asterako
osatuta jarri.

Bas: Etxe oberik ezin
gentzake aurkeztu.

Uzt: Bezeroak tratatzen
berdiñikan eztu.

Bas: Danak artzen dituzte
gozo eta prestu.

Uzt: Gaiñerakoa dago
eroslien esku.

Beste bertso hauek ere Basarri eta Uztapideren bat-bateko bertsoak dira; eta Joxe Mari Lertxundiren memoriari zor dizkiogu. Aiako Sorazu baserriko ezteietan Basarri eta Uztapide omen zituzten bertsoan. Eta saio ederrik egin zuten, noski. Alabaina, Uztapideren hiru bertso eta Basarriren bakar bat ditu gogoan Joxe Marik. “Ezta asko, baiña onenbeste diranean pozik”, dio berak. Honatx bertsoak.

Uzt:

Neri Sorazu amaika aldiz
etorriko zait gogora;
au utzi eta obean billa
ezin abitu auzora.

Basarri ona, Zarautz gertuan,
kamioa bi pausora.

Neroni ere ementxe sui
sartuko nintzan gustora.

Uzt:
Sorazun maiorazka zegonik
garaian ez nuan jakin;
nere aldean argi ibilli
da Saletxeko Joakin.
Nola ainbeste gustatu naizen
baserri eder onekin,
morroia falta izan ezkero
konta zazute nerekin.

Bas:
Zu, Sorazuko nagusi Antton,
gizon tontua etzera;
zer asmorekin ori asi dan
konturatuko al zera.
Morroi bezela zuk Uztapide
sartzen badezu etxera,
mantenu truke artuta ere
galeran irtengo zera.

Uzt:
Nagusi Antton, morroi kontuan
zurekin nai det mintzatu,
Basarrik engaiñatu baiño len
nai nizuke abisatu.
Segan eztaki, ez eta ere
aitzurra nola dantzatu.
Ni utzi eta ori artzerik
etzazu beintzat pentsatu.

Beste bertso eta pasadizo hauek ere Joxe Mari Lertxundik eman dizkigu, txukun asko idatzita, Basarriren bertso-bildumarako buruz zekizkienak eskatu genizkion-eta. Mila esker, biotz-biotzez, tokaio:

Basarrik berrogeita bat urte zeuzkala, gutxi gorabera, sei bat lagun-neko taldea etorri zan Aiara, eta Panaderokoa izeneko ostatuan sartu ziran afaltzera. Lagun oietako bat goierritarra zan, Zarautzen langille asi eta gero taillerra edo fabrika zuna, eta garai artan indarrean zegoana. Baiña ikusten danez zur xamarra zan gizon ori, ala adierazten digu beintzat Basarriren bertso onek:

Au degu garai batean
langille zegona,
eta gaur lantegi baten
nagusi dagona,
beti etxealdera
jotzen dun gizona:
Emaile txarra baiña
artzen oso ona.

38ko kintakoak, batalloi berean soldadu ibilitakoak –Basarriren anai Tomas eta nere anai Andres ere kinta artakoak ziran–, bein Donostiako Aurrera jatetxean bildu eta ogeita amar laguneko bazkaria antolatu zuten. Basarri eta ni ere antxe giñan bazkalondoa alaitzeko asmotan junda. Murgiondo izeneko bat, batalloi artako arrantxero izana, len oso argala omen zan eta gero gizen xamarra zegon. Bertsotan ari giñala Basarrik onako bertso au kantatu zion:

Ai, Murgiondo, ni gaur zurekin
oso arriturik nago.
Orain gorputza sendoa dezu,
lerdena ziñan lenago.
Gauzik onenak zeuk jango ziñun,
ortan dudarik eztago.
Lagunak maite zenitun baiña
zeure burua geiago.

Aiako Juan Manuel korrikalari sonatuari omenaldia egin zitzaion errian, kirolzaleak eskeiñita. Ordurako naiko ondatua zegon, eta gurditxo batean atera zuten etxetik atarira. Basarrik lenengo itzaldi bat egin zuan, eta ondoren biok kantatu genduan Txikiaren omenez. Bertsotan ari giñala, Basarrik onoko bertso au kantatu zuan:

Juan Manuel nik ezagutu
nuan gaur baiño lenago.
Orduan bera zala onena
ortan dudarik eztago.
Garai batean korritzen zuan
erbiak baiño geiago,
eta gaur berriz eziñak jota
gurditxo batean dago.

Beste bertso au ere bazkalondo batean kantatu zuan Basarrik:

Aiako Txikiaz nago
zerbait esan naian:
korrikalari aparta
zan bere garaian.
Seme ta illoba pilla
or dauzkagu maian.

Berriz ere korrikalariak
sortuko'ituk Aian.

Argentinan gizon batek 36 urte pasatu omen zituan kartzelan, bere andrea il zualako; eta zigorra bete zuanean 86 urte omen zeuzkan. Kartzelan bertan jarraitu nai zuala eskatu omen zuan, eta onartu egin zioten eskaria. Basarrik bertso auxe kantatu zuan irratitik:

Jan-edanaren faltarik ezta,
datorrena datorrela:
seguru nago aitona zarrak
ori esango zuela.
Dudik eztago, ona izango da
Argentinako kartzela,
larogeita sei urte baiño len
garbituko zan bestela.

1950 inguruan, Granada baserrian –Basarri bertsolariaren jaiote-txean–, festa-giroko jaialdi bat antolatu zuten, San Jose egunean. Trikitixa izan zuten dantzarako, eta Basarri eta Uztapide, bertsozaleak alaitzeko.

Bertsotan ari zirala, Uztapidek bidea jarri, eta Basarrik bere kabiari eskeiñi zion bertsoa da ondoren datorren au:

Granada maite, zure gorantzan
nola ez tet abestuko?
Zu ikusteak ainbeste ez nau
beste ezertxok poztuko.
Zurekin beti izan nai nuke
gutziz arreman estuko.
Zentzua ondo dedan artean
etzaitut iñoiz aztuko.

1955garren urtean, gutxi gorabera, Orioko pelotalekuan onako jaialdi au jarri zuten: aizkolariak, arrijasotzailleak eta bertsolariak, ain zuzen. Aizkoran, Yurrebaso eta Kortaberri ziran; arrijasotzen, Aiako Atxega anaiak eta Manterola gaztea. Bertsolariak, berriz, Basarri eta Lasarte.

Garai artan Basarrik lenengo aurkezle lanak egiten zituan, eta gero bertsotan. Berak kantatutakoak dira ondoren datozen bi bertso auek:

Aizkolariak egin
dituzte egiñalak,
ondo aprobetxatuz
beren martingalak.
Etxekoandrien begiak
eztaude makalak.
Arrautzak prejitzeko
oiek dituk ezpalak!

Manterola gaztea
ondo da moldatzen,
mañaz eta indarrez
nola dan osatzen.
Jendea orri begira
egon da zoratzen.
Sasoï aparta dauka
arria jasotzen.

Beste bein, Eibarko alkarte edo soziedade batean asto gaztea jan omen zuten, eta Basarrik ondorengo irratsaio batean bertso au kantatu zuan:

Len beian zegon abere ori
oraintxe bai gora io;
aragi ona duala guztiz
proatu duan ark dio.
Eibar aldeko jende onari
ainbeste gustatu zaio,
aurrerantzean izango dute
astoak estimazio.

Iñaxio Jauregi, Zumaiko Urtia-berri baserrikoa zan. Bertsolari gozoa, gaiñera. San Anton egunez Getarira jutea oso gogoko zuan; nola Basarri ta Uztapide bertsotan izaten ziran, aieri entzuten oso pozik egoten omen zan. Eguerdiko saioa udaletxeko balkoitik egin eta, gero, Iribar jatetxera juten ziran bertsolariak, eta bertsozale asko ere bai. Jauregi ere urte batean an bazkaltzen gertatu omen zan, eta bazkalondoko bertso-saiotik berak jasotakoak dira ondorengo lau bertsoak, naiz eta askoz ere geiago kantatu izango zuten.

Uzt: Basarriari asi nai det
ni zerbait esaten;
olako jatunak asko
eztira izaten.
Eztago errez oni
naikua ematen.
Bi ordu pasa ditu
bisigua jaten.

Bas: Ni gizen xamarra nago,
Uztapide plako;
len ere ikusi ditut
amaika olako.
Au eztago argala
jaten ez dulako,
baizik bizio txarrak
asko dauzkalako.

Uzt: Alkar zirikatutzen
gu gaude asiak;
onekin lotsa asko
ditut nik pasiak.
Onek onenak janda
ni erdi gosiak.
Nere argaltasuna
orrelaxe ziak.

Bas: Erru guztiak bota
ditu neregana;
gezurretan ari da,
jaunak, au da lana!
Partitu bear genduna
biok erdibana,
bisigu oso-oso
berak jan du dana.

Fidel Castrok komunismoa jarri zuan Kuban, eta Errusian ere garai artan komunismoa zegoen indarrean. Errusiko gobernua Kubari laguntzen asi zan, eta amerikanoak ori ezin zuten ikusi. Estatu Batuetako zelatari edo espiak Errusitik Kubara barku aundi bat armaz kargatuta zetorrela aztarna atera zuten, eta orduan Estatu Batuetan lendakari zegoen Kennedyk agindu au eman zuan: itsasoa itxi edo blokeatzeko, gerrako barkuekin; eta obeditzen ez bazuten, erasotzeko barkua ondoratu arte. Baiña errusoak ori ikusi zutenean itzuli egin ziran. Ondorengo batean Basarrik onoko bertso au kantatu zuan irratitik:

Errusitarrak pasa nai zuten
libre etzegon mugatik;
Kennedy jaunak agindu orrek
atera ditu dudatik.
Gerra urruti zebillela ta
lasai ez egon augatik;
mundua sutan jartzeko txispa
sortu liteke Kubatik.

Aian, orain ogei urte (1983an) erriarteko pelotari gazteen leiaketako amaiera edo finala jarri zuten, eta Basarri etorri zan partiduetako goraberak adieraztera izlari edo komentarista. Partiduak amaitu ziran pelotari ta pelotazaleak eskola zarrera sartu ziran, bazkaltzera. Antxumea eta saietsa edo kostilla zituzten jateko, eta aiek burruntzian erretzen Etxetako Balentin zan. Basarrik, beste bi lagunekin, Kanua jatetxean zuan bazkaria, eta bazkalondoan pelotazaleak jaten ari zan tokira jun ziran, eta onako bertso au kantatu zion Balentini:

Balentin Manterola
gizon zerbitzala,
badakit erreketan
zu jardun zerala.
Jende onek jango zun
zuk prestatu ala.
Oiek ase badituzu
etzera makala.

Aga Khan jauna, ekialdeko errege bat zan, eta bere erreinuko oitura edo legea oso xelebrea zan: berak pixatzen zuan ainbeste kilo platino jasotzen zuan urtero, bere saritzat. Basarrik irratsaio batean bertso au kantatu zion errege orri:

Gauon egunez Aga Khan jauna
pixu gaiñean zutitu;
eun arrapatzen lituzke aixa
zazpi geiago balitu.
Larogeita amairu kilo pasa
platinotan jaso ditu.
Urtea lasai igarotzeko
ezta aldrebes gelditu.

Aiako Juan Manuel *Txikia* korrikalariari omenaldiko bertso-saioa egin ondoren, oltzaduratik jende artera jeitsi giñanean, Basarrik bere garaiko ezagun batzuk arkitu zituan. Aiekin izketan ari zala, Laurgain auzoko Gaztandizabal baserriko Antonio Joxe zanaren kontua atera zuten. Aren ateraldiak eta bertso aldrebesak oso gogoan zituan Basarrik. Ala, an kontu oietan jardun ondoren, Benta-Berri ostatu edo tabernara abiatu giñan Basarri eta biok; eta bidean gindoazela, an zetorren taberna artatik gora beste bertsolari aldrebes oietako bat. Edozein tokitan asten zan bertso edo olerki luze aspergarri oietakoe-kin. Guregana inguratu zanean, Basarri eldu zion eskutik eta asi zan bertso luze oietakoan, doiñurik gabe, izketan bezela. Basarrik etzuan ezagutzen, eta neri begiratzuz ala esan zuan: “Ara emen Antonio Joxe bigarrena!”.

Basarri eta Uztapide Azpeitiko Santo Tomas jaietan ezagutu omen zituen Joxe Agirre bertsolariak, *Uztapide berriz plazara libu-*

ruan kontatu zuenez. Joxe Lizaso, Manuel Lasarte, Basarri eta Uztapide omen ziren bertsoan urte hartan.

Uztapide berrogeita lau urterekin ezkondua zan, eta Manuel Lasarte laster ezkontzekotan zela-eta, honela eraso omen zioten:

Bas:

Manuel gazte, itz eingo dizut
anai maite baten gisan:
etzaitzela betiko galdu
buru-ariñen peskisan.
Ezkondutzeko tratu orretan
presarik etzazu izan,
mutilzartuta egonagatik
Uztapide're ezkondu zan.

Liz:

Uztapide au etzan akordau
gazte sasoia zun arte;
orain berakin izango ditu
ia irurogei urte.
Oraindik oso ez dauzka baiña
apenas ditun aparte.
Onen semeak kintatik libre,
suerte bat badaukate.

Las:

Uztapide au gazte denboran
beti izan zan nagia,
baiña bein asi zanean argi
ibilli zuen begia.
Onen kontuan une onetan
esan nai nuke egia:
andre ederra artu zun onek,
onentzat ederregia.

Uzt:

Nere sasoia pasa ote zan,
jaunak, ortaiño antziñan?
Lenago zerbait egiteko're
akordau gabe ezkiñan.
Amaika beirazun egiña naiz ni
neskatxei kale eskiñan.
Diruz pobriak izanakarren
ortatik osatzen giñan.

Jose Luis Lekuona *Lexoti* bertsolariak dioenez, Basarri eta Uztapide Oiartzunen omen ziren urte hartako San Isidro jaietan. Oiartzungo tabernariekin konpondu ez, eta Errenteriatik zerbitu omen zuten eguneko bazkaria nonbait. Eta hori jakinda, Basarri bertsoan hasi zen:

Bas:

Ez apuratu asarre samar
dabillelako Basarri;
nik zernai gauza esanagatik
kopeta illunik ez jarri.
Oiartzun ontan au gertatzia
neretzako lotsagarri,
ta azkenian bazkaria're
Errenteritik ekarri.

Uzt:

Basarri onen lengo sakia
kolpez egingo det ondu.
Arrazoi ori etzun esango
gure berri jakin balu.
Ori karkulatu dun gizonak
talenturik aski badu.
Al dan gutzia ekartzen saia,
al bada ezer ez bialdu.

Mutrikuko Ramon Maiz Uriguen *Okelar* bertsolariak kontatua.

Futbol-zelai berria egin eta gastu haundi samarrak eginda zeuden mutrikuarrak, itxura denez. Eta diru pittin bat biltzeko-edo, Basarri eta Uztapide eraman zituzten bertsotara. Larunbat gauean bertso-saioa egin eta herrian bertan gelditu ziren lotara, hango Ametsa-enea ostatuan. Hurrengo egunean, igande eguerdian, beste saio bat egin zuten berriro.

Bas:

Bein bear eta emen badegu
makiñatxo bat testigu;
atzo saio bat ein gendun baiña
gaur'e azaldu zaizkigu.
Ola jendea endredatuaz
ibiltzen gera beti gu.
Jaunak bedeinkatu zaitzala,
o biotzeko Mutriku.

Uzt:

Atzo arratsaldetikan gaude gu
Mutrikura etorririk,
ta etzaigu falta gure bertsoak
aditzeko egarririk.
Lenagotikan nik ez nekian
leku ontako berririk.
Bizi izateko neretzat ezta
au bezelako erririk.

Beste-saio bat ere egin behar izan zuten, jendea bertso-egarriz bait zegoen. Mutrikun zortziko txikian kantatutako bi bertso hauek gogoratu zituen Okelar bertsolari eta bertsozaleak.

Bas: Merezi dituzte
amar milla grazi.
Barrenen degun poza
nola adierazi?
Baiña denbora nola
dijoan igasi,
ta guk bear baitegu
abiatzen asi,
agur, mutrikuarrak.
Ondo-ondo bizi.

Uzt: Lanerako eztegu
bear ainbat inbentu.
Oiek egiten dute
gitarra ta kantu,
ta guk esan eziña
bear ainbat kontu.
Atunetara joateko
autobusa puntu.
Alare Mutrikutik
joaten naiz kontentu.

Juan Mari Narbaiza bertsolari eibartarrak kontatua da honako hau.

1963 urtean Manuel Lasarte gaixoaldi gogorak jota zegoen, eta bere omenezko jaialdia antolatu zuten Eibarren. Shegundo Iturralde zena izan zen jaialdiaren antolatzaile eta bizi-emaile. Gaiak, berriz, Prudentzio Egiguren *Artañolak* eman zizkien bertsolariei. Eta, besteak beste, Jon Mugartegi, Uztapide, Azpillaga eta Basarri-ri, “Eibartarrak” gaia eman zien, honelaxe: “Atzo etorri zineten Eibarrera, eta bertan egindako zerbait erosi duzue etxera eramateko. Mugartegik eskopeta erosi zuen; Uztapidek, josteko makina; Basarrik, bizikleta; eta Azpillagak, Lambreta”.

Hona hemen Basarriren orduko bertsoa.

Josteko makina eskuratzea
ez da gero berriketa!
Ta Mugartegik oillagor batzun
esperantzan, eskopeta.
Eun eta amar kilo aundikin
nik Eibarko bizikleta.
Alare aixa pasatutzen det
Azpillagaren *Lambreta*

Arantzazuko eliza berria egiteko lehenengo harria jartze-ekitaldia egin zutenean, eta gero bazkalondoan ere bertsoak bota zituen Basarri txapeldunak. Eta bertso haiek magnetofoniar hartu zituzten Arantzazuko fraileek:

Triste daukatan barren oni
pixka bat nai diot bultza.
Askatu bedi une onetan
nere adimen amutsa.
Ainbeste jende aundin artean,
jaunak, auxe bada lotsa!
Biotz guztian asia daukat
alakoxe xurrit-otsa.
Itz egin nai ta ezin tajutu
bertsolarian biotza.
Jakitez ere utsa izaki ta
gauza onek ber dun agurtza.

Propio nola onetarako
ekarri nauten onuntza,
danon gogozko izan dedin gaur
bertsolarien izkuntza,
Arantzazuko Ama maitea,
egin zaidazu laguntza.

Ixillik zegon txori gaixoa
nola asi dan kantari,
lendabizitik agur goxo bat
emen zaudeten danori.
Aurreko aldean ikusten ditut
makiña bat agintari.
Arantzazuko gelatxo onek
zeru txiki bat dirudi.
Danok goraldtu ta eziñikan
larririk dabil Basarri.
Asmo txarrikan zuen artera
nola ez dedan ekarri,
berezi dagon artzai jator bat
nai nuke lenengo jarri.
Bera agurtzera azaldu dira
gaur kale eta baserri.
Gipuzkoako Gotzai berriari
biotzez ongi etorri.

Arantza artean azaldu ziñan
egun batean zu, Ama.
Geroztik gure errian alde
ai, zuk egin dezun lana!
Sarritan eskuz atera dezu
arriskuan zegoana,
laiño beltz danak urrundu eta
emanikan atsedena.
Gipuzkurentzat zu izan zera
laguntzaillerik onena.
Ongi dakigu gaur ere arrisku
beltz eta latzak daudena.
Erruki zaite berriro ere,
erruki, Ama laztana!

Ongi dakigu auxe baiño
erri oberik eztana.
Begi errukitsu oiek beti
itzuli itzazu gugana¹⁵.

1960an Arantzazuko Andre Mariaren egunez hantxe izan zen Euskal Herriko bertsolarien txapelduna zen Basarri ezaguna. Denbora asko ez zela (1959 urtean) Donibane Lohizunen egin zen bertsolari-gudu gogorrean orduko bertsolarien txapeldun izana zen. Arantzazuko obra ikusgarrian honela kantatu zuen:

Gaurko eguna gain ontarako
egun gogoangarria,
bere aulkian ikusi baitut
Amatxoren par-irria,
eliz orretan ezin kabituz
gaizki zebillen erria.
Unetxo ontantxe ezarri dute
lendabiziko arria.
Lengoa txiki gelditu da ta
egin dezagun berria.

Gaur Arantzazu dute kabitzat
euskaldun fedezko danak,
berriz etorri nai dutelako
bein inguratzen diranak.
Jende asko ta estalpe gutxi,
marmar eta zer esanak.
Gaitz au sendatu bear degula
gaude lendik itz emanak.
Merezi duen tokia beza
gure Amatxo laztanak.

Artu ditzagun lan ontarako
premizko berotasunak,
merezi baitu ainbat mesede
goitik ixurtzen digunak.
Estalpe orrek bildu gaitzala
senidetzarik degunak.
Aozabalka esan dezala
obra au ikusitzen dunak:
Ama maitatzen ezin berdindu
litezkelak euskaldunak¹⁶.

¹⁵ Arantzazu, 1960.

¹⁶ Arantzazu, 1960.

Joxe Lizasok *Nere aldiko kronika* bere liburuan kontatzen duenez, behin batean Aizarnara joan omen zen, mutikoa zela, Basarri eta Uztapideren bertso-saio bat entzuteko irrikaz, Txillarramenditik haruntza ordubete edo gehiagoko bidea eginda. Ordua etorri eta, Basarri han omen zegoen plazan, lanean hasteko prest, baina Uztapide falta artean, ordea. Halako batean, etorri zen endoiarra, eta Basarri hasi zen bertsoan:

Bas:
Emen nengoan estu ta larri
atzera eta aurrera
nere laguna noiz etorriko
bertso-lanian astera.
Bein bear eta, Manuel maite,
berandu zatoz lanera.
Orain artean ganau-jatenak
egiten egon al zera?

Uzt:
Ez det pentsatzen danen aurrean
diskusian asterik,
edota zure ziri orreri
arinki erantzuterik.
Lanian ezta kontserbatutzen
olako mutil gazterik.
Gaur ere onek etzun egingo
jaiki ta etorri besterik.

Inor izan bada Basarriren miresle eta jarratzaile haundia, Berrobiko Txomin Garmendia izan da, betidanik. Bere bertso asko entzun eta ikasi du buruz. Horregatik, bere *Denbora pasa* liburuan honela jaso eta kontatzen ditu bertso eta pasadizo batzuk. Eta hitzez hitz jaso ditugun horietako asko txukun asko idatzita eman zizkidan behin, Basarriren bilduma honetan sar genitzan. Honela kontatu eta kantatzen ditu Txominek Basarriren bertso asko:

Bein batean, Elgoibar'en giñan Basarri, Lazkano, Lazkao Txiki eta ni. Basarrik onela kantatu zuan lenengo bertsoa, egualdi txarra baitzan:

Bas: Anai-arrebak, egualdi onik
onuntz ez degu ekarri,
baiña ixillik egoteko asmoz
iñor ez gera etorri.
Lazkao Txiki eta Lazkano,
Garmendia ta Basarri,
lendabiziko agur gozo bat
eskeñiaz Elgoibarri.

Sebastian Lizaso bertsolaria ezkondu zanean an giñan bertsolari geienak, Loiolako (Azpeiti) Kiruri jatetxean bazkaltzen. Beste batzuen artean, Basarrik ere bota zituan bi bertso, ta azkenekoa ondo gogoan artu nion:

Etzaizute falta osasunik,
etzaizute falta indarririk;
zuengandikan espero leike,
ai, etorkizun ederrik.
Zuen baratzan ez bedi sortu
komeni ez dan belarrik.
Ortik aurrera nik ez dadukat
geiago esan bearrik.

Irratiz bertso asko kantatu zuen Basarrik. Lehenengo, kontakizuna egiten zuen, albisteak eman; eta gero, azkenean, bertso bat edo beste bota, moraleja antzera. Guk bezalaxe, irratsaio haietako asko entzuten zuen Txomin Garmendiak ere. Eta handik buruz jasotako ale batzuk gogoratu zituen lehen aipatu dudan liburuaren 91-97. orrialdeetan. Honela dio:

Gaur bertsolaririk ez dago seguru asko Euskalerrian Basarriren irratiko saiorik entzuten ez duanik. Basarri irratitik entzunda gogoan artutako batzuk jarriko ditut orain.

Bada urte mordo bat. Zarauzko Zinema pelotalekuan pelota partidu on bat ikusi ondoren auxe kantatu zuan Basarrik, irratiz:

Makiña batek artu genduan
Zinemarako bidea.
Bakoitzak garbi erakutsi zun
bere abilidadea.
Oso gustora pasatu degu
atzoko arratsaldea.
Berriz jokatzen badira ere
izango dute jendea.

Beste auek ere irratiz entzundakoak dira. Sagar-urte ona zan urte artan, baiña sagarra oso merke saldu bear.

Ez dagonian keja gerade,
asko danian ere bai;
bolara ontan sagar zaleak
ez dabilta oso alai.
Gure sagastin ondamendia
nabarmenduko da nunai.
Irabazirik ez dan lekuan
iñork ez du nekatu nai.

Aurtengo ontan bear bezela
ez da ordaintzen sagarrik;
gure artean ez da paltako
tristura edo negarrik.
Kanpoko gauzak beti garesti,
merke gureak bakarrik.
Basarritarrak ez dute emen
aberasteko bildurrik.

Au zala ere urte asko da. Ain zuzen, aldarerako bidean jarri duten Domingo Erkizia errezildarra ibilli zuan aotan; eta onela bota zuan bertsoa Basarrik:

Ikusirikan ainbeste jende
fede gabea zegola,
aita Erkizia lan egin gabe
ezin egon zan iñola.
Ez pentsa gero Japon'go lurra
iru pausora dagola.
Zenbat tokitan ixuritzen dan
euskaldunaren odola!

Beste batean, asi berria zan Basarri irratitik itz egiten, ta garai artan bazan entzuleentzako leku bat, karta bidez parte artzeko. Basarrik onela itz egin zuan, gutxi gora-bera:

“Errezil’ko neska batzuen karta bat artu degu, guri ille piska bat artzeko asmoz-edo. Don Antonio eta ni ere ezkonduak geran ezkerro, ez daukagu zer egiñik, baiña esker onekoak gerala jakin dezaten, bertso batzuk kantatuko dizkiet”:

Baldin zuen gogoia
bada ezkontzekoa,
sasoia etorri bada
ez da arritzekoa.
Ez pazenduteke nai
aundi galakoa,
billatuko dezute
nola-alakoa.

Zenbaiti ezin leike
eskeiñi biotzik.
Ez dizutet desio
onelako gaitzik.
Batek ez badu lana
egin beste akatsik,
alakoari beintzat
ez esan ezetzik.

Pobre izanda igo nai
lukean neurrira,
or daude aberatsen bat
nun dagon begira.
Bere modukoari
arpegia jira.
Gaur orregatik asko
neskazartzen dira.

Erabili zazute
bear dan jazkera,
ta neskatz formal batek
oi duan izkera.
Ondora etortzen bada
saiatu eustera;
bestela aurki zerate
santuak jaztera.

San Martin aurea zan, ta santu aundiaren gorantzak egin zituan
Basarrik:

Santu aundiak egiña zuen
makiña bat karidade:
kapan erdia besteri eman
naiz bera gelditu gabe.
Era ontako gizon klaseak
gaur egunean nun daude?
Mundu oker au zuzendu leike
San Martin asko baleude.

Beste batean, Aia'ko morroi bati buruz itz egin zuan Basarrik irra-
tiz: Aia'ko basarri batean artu zutela morroi koskor bat, eta etxeko
semearen bizikleta, erloju bat eta gaiñera kartera ostu eta alde egin
zuala etxetik. Onela kantatu zuan:

Lanaren galdez iñor baletor
zuen etxeko atera,
nolanai etzazutela artu
familikoren artera.
Bizikleta ta erloju ederra,
gaiñera diru-kartera.
Olakoakin ezin liteke
bizimodurik atera.

Mutil au ni kartzelan sartu niñutenean, antxe ezagutu nuan. Mutil
mozkote bat zan. Askotan itz egiten nuan berarekin. Azpeitian arrapa-
tu omen zuten, ta segituan Martutene'ra eraman zutela esan zidan.
Kartzelan, *lapurra* deitzen zioten.

Beste batean, lurrerako giro txarrak eta itsasorako ere bai nunbait, eta onela kantatu zuan Basarrik, irratian:

Jan bear onek guziontzako
sortzen digu arazoa.
Mixerirako ez al da izango
aurtengo urte osoa,
bestela ez da jarriko emen
bizimodu erosoia.
Zerbait ematen asi dedilla
lurra edo itsasoa.

Etxekoandreak artuko zuten
egundoko alaitasuna!
Bizimodua merkatzea da
emen komeni zaiguna.
Kanpo aldetik ekarri bear
etxean ez daukaguna.
Langosta bezin galesti daude
patata ta babarruna.

Beste batean, zera kontatu zuan Basarrik: Alemania'n patata gero eta gutxiago jaten zutela, eta aragia, gero ta geiago. Onela kantatu zuan gero:

Gaur janariak mudatutzeko
artuta daude idiak,
eta tontotik oso gutxi du
Alemani'ko jendiak.
Patata gauza ona eman zuan
zeru ta lurren jabiak;
baiña dirua sobrante dunak
billatzen ditu obiak.

Basarrik irratitik beste batean esandakoa da au ere. Ez dakit zein erritan, baiña goizeko ordubietan txatarrero bat naiko edana taberna batean sartu omen zala, eta an pakean zeudenai gerra ematen asi zala. Aiek, bi edo iru zaplako eman eta bota omen zuten bazterrera. Ta onek, labana atera ta bi edo iru lagun zauritu. Berealaxe lotu omen zuten guardazibillak.

Goizeko ordubietan
tabernan sarrera;
onean ezin eta
asi zan txarrera.
Txatarreroai buka
zaiola karrera.
Ez du asko edango
emendik aurrera.

Beste batean, berriz, urtezar egunean uste det zala, urteberriari asiera on bat emateko, bertso mordoska bat kantatu zuan, eta aietako bi ikasi nituan nik. Onela dira gutxi gora-bera:

Bere bidea ortxe darama
munduko gure bizitzak;
bat geiago ta bat gutxiago
lurreko gure egoitzak.
Maitetasunez aberats dira
Basarri'ren gaurko itzak.
Urteberri on izan dezala
entzuleetako bakoitzak.

Dana loretsu nai genduke ta
nunai badago otea;
gaurko munduan jende guztia
gorrotoz oso betea.
Gogoz eskatzen dizugu, bada,
gure Jaungoiko maitea:
gerrarik gabe buka dezagun
gaur asi degun urtea.

Pelukerira joanda, bere umea an utzi eta geiago azaldu etzan emakumeari botatako bertsoak

Pelukerian saldu zituen
amaren eskubideak;
orrelakorik agintzen al du
Jaungoikoaren legeak?
Era ortara dabiltzan oiek
ez dira emakumeak!
Merezi ez dun makiña batek
izate'ituzte umeak.

Alemanak diru berria ateratzeko asmoa artu zutela, eta onela kantatu zuan Basarrik, irratiz:

Alemanak bai asmo polita
oraingoz artu dutela.
Esaten dute diru berria
sortu bear digutela.
Guri ez digu ajolarikan
papela edo nikela;
bai mordo batek gure etxean
bentaja egingo lukela.

Luxiak eta Latasak aizkol-apustua jokatu aurretik, Basarriri irratian entzundakoa da onako au ere:

Ordu ta erdiko lana dezute:
ez da orixe jolasa;
azkenengoa bukatzerako
berotuko da arnasa.
Jendez gaiñezka ikusiko da
Donostiko zezen plaza.
Euskalerrria zuen zai dago
Luxia eta Latasa.

Anjel Albizu *Soarte* indartsuak arrijasotzen Zarautzen irabazi
zunekoak dira onako bertso auk:

| | |
|---|---|
| Soartek dauka oitura, artu ezkeru ardura, arria aixa erabiltzeko nai duen lekura. Len izandako modura oraindik ona da ura. Edozein moduz etzaitzte joan aren ingurura. | Izatez da ortakoa, indartsu benetakoa. Orain baiño len zer balio duen azaldutakoa. Irabazi du jokoa, beretzat jolasekoa. Zarautz aldean errez egin du pentsatutakoa. |
|---|---|

Eztakit zein urtetako pelota txapelketako azkenengo partidua zan,
baiña aren aurretik kantatu zuan bertso au Basarrik:

Bi pelotari aurki ditugu
alkarren leia bizian;
batek galeran irtengo du ta
besteak irabazian.
Orain arte ala gertatu da
jokatutako guzian.
Onenak irabazi dezala
Jaungoikoaren grazian.

Beste au arrijasotzeko joko baten aurretik botatakhoa da:

Alde batetik zarra dala ta
bestetik berriz gaztea,
aspalditxoko lagunak ditut
nola bat ala bestea.
Bien asmoa izan bear du
marka aundiak uztea.
Beste gauzarik ez genuke nai:
onenak irabaztea.

San Inaziori:

Aundia ziñan lurrian;
orain etzaude urrian.
Gozotasuna gozatzen dezu
zeru ederrian.
Gaurko mundu kaskarrian
gabiltz erdi negarrian.
Arren, gugatik oroitu zaitetz
Jaunaren aurrian.

Ondorengo bertso au, baseritarren aldizkari batean argitara eman
zan:

Ordain gabeko lan egitea
sarritan nekazaritza:
zomorro txarrak ez diranean
denborale edo ekaitza.
Probetxu gabe gelditzen zaigu
egindako lan bakoitza.
O, Jaun maitea, zuk nola dezun
zeru-lurren nagusitza,
zure laguntzik ez baldin bada
alper-alperrik gabiltza.

Basarrik udaberriari jarritako bertsoa:

Udaberri, udara
joan ziran igesi,
ta orain udazkenean
bearko det bizi.
Aurki da negu beltza
izotz eta guzi.
Auxe eskatzen diot
emendik Jesusi:
ordu triste onetan
ez nazazu utzi.

Polipaso eta Izurtzuk sega-apustua jokatu, eta biaramonean,
Basarrik irratiz:

Ondo portatu dira
atzo segariak,
baiña jokorik ezin
irabazi biak.
Bukatuta gero ere
deskuido aundiak:
Pentsatzen eztan lekutik
irtera erbiak.

Taberna edo ostatuan edariak garestitu dirala-ta:

Batek bero samarra
ez badauka poltsa,
ostatuan sartzeko
izan bear lotsa.
Neurriak bajatu ta
prezioak altxa:
oso merke ez dago
tabernako martxa.

Beste batean, Basarri eta Uztaipidek puntutan Gaintzan egin zuten
saioaren zatixka bat:

Bas: Zuk Oiartzuna joan bear,
nik berriz Zarautza.

Uzt: Kilometro gutxio
baleudeke utsa.

Bas: Egingo al digu bioi
Jainkuak laguntza,

Uzt: berriz etorritzeko
lenbailen onuntza.

Puntu au Bordarik jarri zion Basarriri, Tolosan:

Bor: Zer egingo zenduke
aberats baziña?

Bas: Oraintxe jarri didazu
pentsatu eziña.
Pobreari partitu
puskarik aundiña,
sobratutzen danakin
goza atsegiña.

Zeberioek eta Arruizko Txikiak aizkoran eta korrika jokatu zuten apustu baten ondoren, 1963ko apirilean kantatu zituan bertso aukeratuak Basarrik, radioz. Eztakit zein egunetan zan:

Edozeiñentzat ezta egiten
klase orretako lanik.
Pixka batean ezta paltako
alde ontan zer esanik.
Zu, Zeberio, a zer lezio
bikaiña zauden emanik!
Iñork ezpaizun pentsatzen emen
oinbestekoa ziñanik.

Aizkoran erruz egin zendun da
bentaja latzak atera;
ta gero bizkor saltatu ziñan
plazan bueltak ematera.
Alkar neurtzeko jarri ezker
igandean zan lan bera,
eztakigu zein azaldu leiken
zuri kontra egitera.

Patxi Barbero eta Basarri

Ondorengo beste bertso hauek Zarauzko *Patxi Barbero* zenak egin eta eman zidan grabazio batetik hartuak dira. Basarri eta biok egindako saio batetik, hain zuzen. Jose Franko musikagile famatuaren konposizio ezagun bat erabili zuten bertsoak girotzeko asmotan. Eta gero disko batean argitara eman zituzten biok, baina lehenengo grabaketan erabili zuten musika gabe.

Ptx: Berriro artu degu
kantuzko bolara.
Euskaldunen artian
au gauza ona da.
Zu sarri ibiltzen zera
onera ta ara.
Zer moduz pasa dezu
aurtengo udara?

Ptx: Jendetik etortzen da
iñoiz ez ainbeste;
berrogeitaka milla,
nik alaxe uste.
Bide aukeratuak
bearko dituzte,
bestela etxetikan
ezin irten laste.

Bas: Oraindik etzait joan
belarriko miñik;
patxaran ezta ikusten
iñungo eskiñik.
Automobil ta motoz
amorra egiñik,
larri ibili gera
kabitu eziñik.

Bas: Danok kabitu eziñik
zarata gaiztuan;
ezin iraun onela
guk urte askuan.
Lasai bizitz'ezker
toki itxurazkuan,
bada nun gastatua
gure Gipuzkuan.

Ptx: Emendik bultza eta
andik berriz tira,
motibo asko gabe
kejatzen ai dira,
eskuan kabitu ezin
diteken tokira.
Patxi Barberok bezela
jo zazu mendira.

Bas: Mendia aitatzeko
artu dezu era;
zu ta ni aspalditik
ezagutzen gera.
Uda partian zu ere
askoren antzera
itsasertzian geio
saiatua zera.

Ptx: Laster asi zerade
bultza eta tiran;
gizonak jakin ber du
noiz zer komeni dan.
Badakit ondarretan
zer ibiltzen diran.
Nere txorakeriak
aspaldi joan ziran.

Bas: Patxi, gelditzen gera
biok berdin-berdin.
Sinisten eztizunari
zertako itz egin?
Lengo griñak eztizute
oraindik aldegin.
Santu papelik emen
etzazula egin.

Basarri eta *Patxi Barberoren* beste bertso hauek ere zinta eta disko berean argitara eman ziren:

Bas:
Ogibide bat ona artuta
seguru bizimodua,
oraintxe ere danentzat txarra
ezta egongo mundua.
Mokadu goxo ederrak egin
eta sarritan tragua.
Inor bada ta bapo bizi da
gure Patxi Barberua.

Ptx:
Merezi ere badezu eta
entzun bear dezu aurki:
Lana egiñaz, Jaunari esker,
konpontzen naiz ni poliki.
Bizimodua nola eraman
Patxi Barberok badaki.
Nere inbiriz baldin bazaude
etzera bizi ederki.

Bas:
Ez naiz arritzen barbero auek
markes gisa bizitzia,
nai dan jaki ta edaritatik
aukera edukitzia.
Amar pezeta kobratzen dute
lau ille punta kentzia.
Baleike baiña zail izango da
zuek zeruan sartzia.

Ptx:
Jenero danak igual daude
izarrak baiño gorago;
garai bateko preziuetan
ezin lan egin geiago.
Barberuentzat inpernurako
bidia baldin badago,
zuek kiskaldu bear dezute
gu sartu baiño lenago.

Bas:

Famili pixkat dagon tokian
kontuak ondo atera:
makiñatxo bat erosi nunbait
eta saiatu norbera.

Alkarri txandan moztu illia
baserritako legera.

Ez juan beintzat barberuari
amar pezta ematera.

Ptx:

Urtian bitan ez da gizon au
gure etxian sartuko.

Bat berez ona izaganatik
nola ez da, ba, txartuko?

Lenago triste baldin bagaude
onek ez gaitu poztuko;
parrokiano klase onekin
ez gera aberastuko.

1959: Ordiziako txapelketa

1959an, bertsolarien txapelketa antolatu zuten herriko gazteek, Ordizian. Eta gero oso ezaguna eta maitea izan zen Lazkao Txiki ere hantxe zen egun hartan. Honela hasi zuen bere azken agurreko bertsoa:

Zu Billafranka, zu Billafranka,
lenagoko Ordizia!

Baina sariketako jaialdi hura amaitu zenean, sariketa hartan epaimahaiko izan zen Basarrik, bere barreneko sentimentuak azaldu nahirik, honela kantatu zuen jaialdia amaitzeko:

Gazte maiteak apal dituzte
jakintasunan eguak;
parte artu duten danak merezi
dituzte txalo beruak.
Urteak joanda aberitutzen
asiak gaude lenguak.
Beste pozikan ez daukat ezer:
badatoz ondorenguak.

Al dan tokirik ugariñetan
artu zuek kantuz parte,
ta jaiotako lur ederrakin
ongi gelditzen zerate.
Asko kontzejal izaten dira,
batek bear du alkate.
Berriro ere saiatu beintzat
euskera bizi dan arte¹⁷.

¹⁷ Olerti, 1958-249.

Aurkibidea


| | |
|--|-----|
| Aurkezpena | 7 |
| 1935eko Bertsolari Eguna | 19 |
| Bigarren Bertsolari Gudua | 26 |
| Beste txapelketak | 29 |
| 1958: Bertsolariak Urruñia-Parisen | 32 |
| 1960ko Txapelketa Nagusia | 49 |
| 1962ko Txapelketa Nagusia | 56 |
| 1968: 100.000 pezetako saria | 80 |
| Bat-bateko zenbait bertso | 93 |
| Tolosan, 1962ko martxoak 18 | 97 |
| Artikutzan, 1962ko San Agustinetan | 105 |
| Tolosan, 1962ko abenduak 9 | 108 |
| Donostian, 1963ko urtarrilak 12 | 113 |
| Azpeitian, 1963ko otsailak 23 | 117 |
| Zarautzen, 1963ko apirilak 7 | 123 |
| Zaldibian, 1963ko otsailak 9 | 125 |
| Beasainen, 1963ko otsailak 10 | 132 |
| Tolosan, 1963ko otsailak 3 | 139 |
| Seguran, 1963ko martxoak 9 | 147 |
| Araotzen, 1963ko martxoak 17 | 149 |
| Legazpin, 1963ko martxoak 18 | 155 |
| Zestean, 1963ko martxoak 19 | 159 |
| Eibarren, 1963ko apirilak 7 | 165 |
| Ordizian, 1963ko maiatzak 1 | 171 |
| Oiartzunen, 1963ko maiatzak 19 | 179 |
| Bilbon, 1963ko irailak 22 | 183 |
| Zarautzen, 1963ko apirilak 7 | 191 |
| Markinan, 1963ko maiatzak 26 | 193 |

| | |
|--|-----|
| Orion, 1963ko ekainak 30 | 196 |
| Azpeitian, 1963ko ekainak 22 | 200 |
| Oiartzunen, 1963ko abuztuak 5 | 204 |
| Elgoibarren, 1963ko abuztuak 31 | 208 |
| Donostian, 1963ko irailak 17 | 211 |
| Araman, 1963ko urriak 8 | 214 |
| Ereñozun, 1963ko urriak 20 | 220 |
| Urruñan, 1964ko otsailak 2 | 229 |
| Lesakan, 1964ko otsailak 20 | 235 |
| Zumarragan, 1964ko otsailak 23 | 242 |
| Ondarroan, 1964ko udaberria | 247 |
| Elgoibarren, 1964ko ekainak 7 | 248 |
| Orion, 1964ko ekainak 20 | 253 |
| Urnietan, 1964ko irailak 24 | 257 |
| Zarautzen, 1964ko azaroak 29 | 261 |
| Orion, 1964ko abenduak 5 | 263 |
| Elgoibarren, 1964ko abenduak 26 | 267 |
| Beasainen, 1965eko urtarrilak 24 | 270 |
| Oiartzunen, 1965eko maiatzak 15 | 278 |
| Elgoibarren, 1965eko maiatzak 29 | 281 |
| Asteasun, 1965eko uztaila | 287 |
| Zegaman, 1965eko abuztuak 25 | 289 |
| 1966: Usurbilko kultur astea | 292 |
| Oiartzunen, 1967ko apirilak 23 | 294 |
| Errenterian, 1969ko abenduak 8 | 295 |
| Zumarragan, 1967ko abenduak 10 | 296 |
| Donostian, 1968ko urtarrilak 21 | 299 |
| Donostian, 1968ko otsailak 24 | 302 |
| Urtain bozeolariari | 306 |
| Donostian, 1969 | 307 |
| Txapelen heriotza | 310 |
| Zepairen heriotza | 313 |

| | |
|---|-----|
| 1972: Zeletari omena | 314 |
| 1971: Lasarteren omena | 315 |
| 1972: Elgetako bilera | 316 |
| Tolosan, 1972ko azaroak 9 | 317 |
| Ixaka Lopez-Mendizabali omena | 319 |
| 1974: Zubeltzuren omena Deban | 320 |
| 1974: hiru azpeitiarren omena | 321 |
| 1974ko Urtezahar gauean | 322 |
| 1975: Leitzak Lasarteri | 323 |
| Seguran, 1976ko azaroa | 324 |
| 1976ko Urtezaharretakoak | 325 |
| 1977: bertsolariek bertsolariei | 326 |
| 1977: Joxe Lizasori omena | 327 |
| Donostian, 1979ko abendua | 328 |
| 1980: Uztapide seme kuttun | 329 |
| 1981eko urtarrila | 330 |
| 1982: Jon Mugartegiri omena | 333 |
| 1982: Aita Santua Loiolan | 334 |
| 1983: Uztapideren heriotza | 335 |
| 1987: Saran | 336 |
| 1989: Lopategiri txapela | 337 |
| 1990: Euskadiko sei orduak | 338 |
| 1992: Zerainen | 339 |
| 1994: Lazkao Txikiri omena | 340 |
| Han eta hemen jasotakoak | 342 |
| Auspoatik jasoak | 344 |
| Han eta hemendik hartuak | 346 |
| Bertsozaleek gogoan | 348 |
| 1959: Ordiziako txapelketa | 350 |

Auspoaren azken liburuak:

- 288 Pedro Juan Elxamendy
California'ko bertsolari eta musikari
- 289 Jose Agustin Garziandia
Garai bateko Unanuko oiturak eta olgak
- 290 Xalbador
Odolaren mintzoa
- 291 Pedro Migel Urruzuno
Koroi eder bat
- 292 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (I) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (I)
- 293 F. Apalategi
Karlisten eta liberalen gerra-kontaerak (II) • Relatos de guerra de carlistas y liberales (II)
- 294 Manuel Lasarte
Plaza-gizonak
- 295 Nikolas Zendoia
Egan dijoa
- 296 J.M. Iriondo
Basarri I. Bat-batean



Ehunka, milaka plaza, antzoki, jaialdi, lagunarte, ezteiegun, ospakizun, ostatu eta tabernatan kantatu zuen Basarrik, lehenengo aldiz 1934an Zaldibiko Erauskin Errotariarekin Zestoan kantatu eta 1970eko hamarraldiaren hasieran bat-bateko saio gehienetara joateari utzi zion arte. Ez da herri asko izango Gipuzkoan Basarrik saioen bat egin ez duenik; auzo txikiren bat bai, baina ez asko. Behin batean jaso genion bertso hauxe lekuko

Ai, Gipuzkoak erri askotxo
ditu bere bazterretan;
gu iritxiak izango gera
amaikatik amarretan.

Gipuzkoan, Nafarroan, Bizkaian eta iparraldeko herrietan asko ibili zen. Urteko igande eta jaiegun gehienak bertsoarako hartuta izaten zituen, batetik bestera ibiltzeko orain adina erraztasun ez bazen ere. Eta asteburu asko egiten zuen etxetik kanpora, egun batean joan eta hurrengoan itzuliz.

Azkenean bat-bateko saioak bertan behera uztea erabaki zuen, nekaturik eta oso lanpetuta zebilelako irratiko eta periodikuko eguneroko zereginekin —ez da ahaztu behar egunero egunero idazten zuela periodikoan; eta, gutxienez ere, astean behin hitz egin irratian. Aspertzeko adina arrazoi bazuen bada—.



Auspoa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-503-1



9 788479 075033